

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ordizia



Aurkibidea

Udalerria: Ordizia

Sarrera



- Biztanleak: 9.811
- Euskaldunak: %58,1

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **47**
- Zintak: **56**
- Pasarteak: **956**
- Transkribatutakoak: **109**

- Audioak: **88**
- Bideoak: **568**

Proiektuak

- EibarOrg blog komunitateak 10 urte
- Euskal Herriko Ahotsak
- Goierri Telebista
- Ordiziako ahotsak
- Ordiziako euskara

Hizlariak

Joxe Mari Agirre Zuloaga (1938)

Ordiziako Usunbila baserrian jaioa, ama Berastegikoa zuen. La Salle ikastetxean ikasi zuen 18 urtera arte; arte eta lanbide-eskolan ere ikasi zuen. Baserritarra jaiotzez eta lanbidez, CAF lantegian ere egin du lan 44 urtez.

Benito Arin Eizagirre (1916-2007)



Majori baserrian jaiotakoa, aita bertakoa zuen; ama, berriz, Aratz-Matxinbentakoa eta emaztea legorretarra. Baserriko lanean gazte-gaztetatik aritu zen, aita oso gazterik hil zitzaiolako. Eskolan Ordiziako fraideetan ikasi zuen.

Pedro Armendariz Imaz (1925-2022)



Ordiziako Intxaustizarra baserrian jaio zen Pedro. Aita Ordiziako Buztuntza baserrikoa zuen; ama, berriz, ataundarra. Umetan eskolara joan zen, baina gazte-gaztetatik baserrian lan asko egin zuen. Hogeita hamaika urte zituela, eraikitzaile-lanetan hasi zen eta bertan ibili zen erretiratu zen arte. Ordiziako kontu asko kontatu zizkigun elkarriketan.

Ana Mari Balerdi Azpiroz (1932)

Aizpuruetxeberri baserrian jaio zen eta zazpi anai-arreba ziren. Ama Berastegikoa zen eta aita Bedaiokoa. Baserrian lan egin izan du beti, baita esne-saltzaile eta dendari lanetan ere. Elkarriketan bera eta bere anaia Pedro agertzen dira.

Pedro Balerdi Azpiroz (1934)

Aizpuruetxeberri baserrian jaio zen eta zazpi anai-arreba ziren. Ama Berastegikoa zen eta aita Bedaiokoa. Baserrian lan egin izan du beti. Elkarriketan bera eta bere arreba Ana Mari agertzen dira.

Pedro Balerdi Mujika (1929-2004)



Aita ordiziarra zuen (Azpintxeberrikoa) eta ama Aramakoa. Emaztea Arriarangoa zen eta 5 seme-alaba izan zituzten. Hamalau urtera arte eskola nazionaletan ibili ondoren, baserriko lanetan egin zuen lan. Etxeak saltzen ere aritu zen eta zinegotzi izan zen.

Juan Barandiaran Unanue (1949)



Itsasondoko Urkia auzoko Urki Goen Azpi baserrian jaio zen 1949an. Aita Urkiakoa eta ama Bidaniko Santa Marina auzoko Aldaola baserrikoak zituen. Eskolan Urkian eta Lazkaoko fraideetan ibili zen. 15 urterekin igeltsero lanetan hasi zen Ordizian. Gurasoek taberna zuten Ordizian eta bertan laguntzen aritu zen. 16 urterekin Gaztañaga galdarategira joan zen lanera. 21 urterekin soldadutzara joan zen Madrilera. Azkenengo urteetan Irizar lantegian aritu zen lanean.

Lupe Eguren Otegi (1912-2014)



Bekoetxe baserrian jaioa, aita Arriarangoa (Beasain) eta ama Ataungoa zituen. Senarra ere ataundarra zuen. Neskame aritutakoa, baita errotan eta fabrikan lan egindakoa ere. Elkarriketan bere alaba ere azaltzen da, Mari Karmen Odriozola.

Ignazio Erauskin Arruabarrena (1921-2010)



San Pedro kalean jaio zen 10 senideko familian. Gurasoak zaldibitarak zituen. Hamahiru urte arte fraideetan ikasi zuen, eta gerora, okin, xaboi-fabrikako langile eta CAFen aritu zen. Lazkaoko emaztearekin ezkondu eta 3 seme-alaba izan zituzten.

Antonia Etxaniz Gantxegi (1931-2020)



Beasainen jaio zen eta handik 3 egunera Ordiziara eraman zuten bizitzera, Sagastizabal Azpikoa etxera. Aita azpeitiarra zen eta ama Azkoitiko Urrategi auzoko Uzin Azpikoa baserrikoa. Eskolara korreosetara, mojetara eta karmelitetara joan zen 14 urtera arte. 14 urterekin Ordiziako "Nadal" inprentan hasi zen lanean eta josten ikasten ere ibili zen. 19 urterekin lana utzi eta kanpoko jende partikularrentzat josten hasi zen. Lazkaoko senarrarekin ezkondu zen Ordizian.

Maritxu Etxeberria Irastorza (1923-2011)

Urdaneta kalean jaio zen. Lehenengo eskola nazionaletan ikasi zuen, eta azken urtea jometan. Ama Zaldibiakoa zuen eta aita Lazkaomendikoa. Jostuna.

Juli Exposito Loinaz (1925)



Juli Ordizian jaio zen, bertako erroetan. Aita Zizurkilgo ospizioan egon zen Legorretako famili batek jaso zuen arte, ama berriz Baliarraingoa zuen. Bost anaietan gazteena, hamar urte zituen gerra heldu zenean. Bere familiak asko sufritu zuen gerraren ondorioz, izan ere Juliren anai zaharrena, hemeretzi urte zituela atxilotu eta Etxarrin hil zuten. Bere aitaren tailerrean lanean ibili zen eta garaia heldu zitzaionean [Patxi Gabilondo](#)rekin ezkondu zen, ordiziarra bera ere.

Joxe Mari Faus Iurrita (1934)



Filipinas kaleko Loretoki etxean jaio zen, lau anai-arrebaren artean gazteena. Ama ordiziarra zuen, baina aita Oñatitik etorritakoa zen. Aitak eta amonak Intxausti Berri baserriari erositako lur sailetan eraiki zuten Loretoki etxea. Aitarenekin aita Valenciatik Gasteizera etorri eta bertan ezagutu zuen oñatiar batekin Oñatira ezkondu zen. Joxe Mariren osaba batek Oñatiko Kale Barriako botika erosi zuen, eta bertan bizi izan zen hil arte. Amak irakatsi zion Joxe Mariri irakurtzen eta idazten, 'Xabiertxo' liburuarekin. Ordiziako mojetan eta eskola publikoan ikasi ondoren, Donostiara joan zen batxilergoa egitera, marianistek Aldapeta kalean zuten eskolan, barneko ikasle bezala. Gero kimika karrera ikasi zuen Zaragozako unibertsitatean. Bertan Mikel Laboa izan zuen ikaskide. Familiaren "Laboratorios Faus"en lan egin zuen, baina gehienbat Aranzadi Zientzia Elkartean jardun du lanean, hasieran Ornitologia saileko eta geroago Ornodun saileko ardura nagusiarekin. Aranzadi hegaztiei eraztunak ipintzen noiz eta nola hasi zen eta zer-nolako emaitzak lortu zituzten Espainian aitzindaria izan zen jarduera horrekin, azaltzen du. Ataungo Aldakio baserriko Ramoni Goikoetxearekin ezkondu zen eta hiru alaba izan zituzten.

Patxi Gabilondo Lasa (1927-2015)



Gurasoak gabiriarrak zituen, bertan ezkondukoak, baina aita CAFen lanean hasi eta Ordiziara joan ziren bizitzera. Bertan jaio zen Patxi, Urdaneta kaleko 50. atarian. Eskolan fraideetan ibili zen, baina gerra garaian hauek frontera joan zirenez, Beasaingo La Sallera aldatu zen. Umea zela, Gabiriara joaten zen euskara ikastera, Ordizian ez zen asko hitz egiten eta. Lanean hamalau urte zituela hasi zen Expositoren aroztegian, eta bertan ezagutu zuen bere emaztea, [Juli Exposito](#). Egurra lantzeari etorkizunik ez zion ikusten eta errodamendu biltegi bat ireki zuen. Bertan ibili zen lanean, erretiratu zen arte.

Fernando Garate Elustondo Txinparta (1925-2009)



Zestoako Iraeta auzoan jaio zen, aita zestoarra baitzen. Ama ere gertukoa zen, Itziarkoa. Bi hilabete besterik ez zituela, Ordiziara joan ziren bizitzera. Hala ere, gurasoen hizkeraren eragina nabaritzen zitzaion. CAFen eta Lekuonarekin San Jose arotzerian aritu zen lanean.

Mikel Garmendia Olaziregi *Belarra* (1915-2015)

Donostiako Amarazar auzoan jaio bazen ere, lau urte zituela joan zen Ordiziara bizi izatera; bertan igaro zituen haurtzaro eta gaztaroa. Oso gazte zela sortu zitzaion politikarako grina. Batzokiko atezainen semea izanik, aktiboki parte hartzen zuen bertan egiten ziren ekintzetan, antzerki eta dantza taldeko kide ere bazela. "Solidaridad de Trabajadores Vascos"eko idazkaria ere izan zen, eta, Euzko Langile aldizkaria saltzen zuen Beasain eta Ordiziako kaleetan zera oihukatuz: " Euzko langile, obrerismo, cristianismo y vasquismo, lean y propaguen el último artículo de Leon Barrenetxea". 1936 urtean, Nazionalak Ordiziara sartu zirenean, herritik alde egin zuen eusko gudariek bat egitearren. Intxarkudia batailoieko kide, mendirik mendi ibili zen nazionalen kontra borrokatuz, espioitza lanak ere eginez. 1937. urtean, komisario politiko izendatu behar zutenean, Santoña inguruan atxilotu, eta heriotz zigorra ezarri zioten. Bi urtez egon zen kartzelan exekuzioaren zain, kideak nola eramaten zituzten ikusten, baina berari ez zitzaion momentua heldu eta 1939an baldintzapeko askatasuna eman zioten. Honela, kartzelatik atera zenean, soldaduska egin beharra izan zuen. Bueltan "Valle de los caídos"en lan fortzatuak egitea egokitu zitzaion, baina Madrilera heltzean, identitate faltsu bat lortu eta Malagako probintziara ihes egin zuen, Bilorek bertan zuen lantegi batean lan egitera. Hasieran etxetik ateratzeko beldurrez ibiltzen zen, baina segituan ohitu zen bere bizileku berrira. Ezkondu eta bi alaba izan zituen; baina Ordiziara bueltatzea zuen gogoan eta horixe egin zuen giroa baretu zenean, 1967. urtean.



Elu Gaztañaga Martinez (1916-2014)

Ordiziako Santa Maria kalean jaio zen, aita bertakoa zuen. Karitateko mojetan ikasi zuen zazpi urte zituenetik hamalau zituen arte. Gaztetan politika kontuetan aktiboki hartu zuen parte eta dantza ere egiten zuen. Etxekoandrea izan zen eta mertzerian egin zuen lan bere ahizparekin batera.



Maite Goñi Eizmendi (1967)



Manoli Irastorza Mujika (1920-2013)



Baserrian jaioa, aita Zaldibiakoa zuen. Moja frantsesetan ibili zen San Josen, 14 urtera arte. Zortzi seme-alaba izan zituen. Gaztetan baserriko lanean aritu zen, eta, horren ondoren, neskame Zumarragan. Handik bueltan zerbitzaria izan zen Zirkulon, eta ezkondu ostean dendari ere izan zen.

Josebe Iturrioz Lopez (1978)



Ordizian jaioa. Amak liburu-denda zeukan Donostian. Hainbat tokitan egin zituen ikasketak (Jakintza ikastola, REM eta institutua) eta ondoren Filosofian lizentziatu zen. Berdintasun Masterra egin ostean, berdintasun teknikari moduan hasi zen lanean, Tolosan. Berdintasun gaietan hainbat lan egin ditu ordutik: aholkularitza, besteak beste. Emakumeen aldeko borrokan konrometitua, Plazandreok eta Medeak talde feministetan ibili zen. LGBTBIQ+ kolektiboaren aldeko mugimenduan ere badabil, oso gaztetatik. Drag King tailerrak eman izan ditu, besteak beste. Telebistako tertulietan eta aurkezle lanetan ere aritu izan da, gai horiekin lotuta.

Pakita Iztueta Altuna (1941)



Baliarraingo Ermenta Etxeberri baserrian jaio zen 1941ean. Ama Lazkaomendikoa eta aita Baliarraingoa zituen; zortzi anai-arrebako familia ziren. 13 urtera arte Baliarrainen ibili zen eskolan eta 15ekin josten ikastera joan zen Tolosara. Tolosan neskame lanetan aritu zen eta geroago Lasarteko taberna batean zerbitzari. Bi alaba ditu.

Felipe Korta Gurrutxaga (1928-2014)



1928an jaio zen Ordiziako Bustuntza baserrian. Gurasoak Urrestillakoak zituen. Sei urterekin hasita, Ordiziako fraideetara joan zen eskolara eta geroago gau eskolan ere ibili zen. 15 urterekin CAF lantegian hasi zen lanean Beasainen. 21 urterekin Oiartzunera joan zen soldadutza egitera. Auzora neskame joandako neska madrildar batekin ezkondu zen Ordizian eta lau seme-alaba izan zituen.

Ramon Lasa Apalategi (1926-2014)



Gurasoak Ataungoak zituen arren, oso gazterik geratu zen umezurtz eta Ordizian hazi zen. Baserriko lanez gainera, arotza izan zen. Emaztea ordiziarra zuen ([Kontxi Lasa Garmendia](#)), eta grabazio honetan elkarrekin agertzen dira.

Angeles Lasa Garmendia (1923-2023)



Ordizian jaioa 1923an. Ama Oiangu baserrikoa eta aita Arranomendikoa zituen, biak Oiangu auzokoak. Angeles eta bere sei anai-arrebak kalean jaio ziren eta Urdaneta kalean eta Tximista kaleko Lizarazu-enean bizi izan ziren, denbora gehiena amaren jaiotetxean igarotzen bazuten ere. Oiangu baserria ezaguna da Fray Andres de Urdaneta bertan jaioa zelako eta baita bertako parke ezagunagatik ere. Eskola Nazionaletan ibili zen 13 urtera arte eta, ondoren, Donostian, jostun ikasketak egiten. Ordiziako Vicente Ruizen aritu zen lanean, bainugelako piezak egiten. Bere anaia Joseba eta ahizpa Rosariorekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Joseba Lasa Garmendia (1934-2017)



1934an Ordizian jaioa. Gurasoak Oiangu auzokoak zituen: ama, Oiangu baserrikoa, eta aita, berriz, Arranomendikoa. Bera eta bere sei anai-arrebak kalean jaio ziren eta Urdaneta kalean eta Tximista kaleko Lizarazu-Enean bizi izan ziren. Hala ere, kalean jaio arren, denbora gehiena baserrian laguntzen pasatzen zuten, amaren jaiotetxea zen Oiangun. Oiangu baserria aipagarria dugu, bertan jaioa baita Fray Andres de Urdaneta, eta baita bertan dagoen parke ezagunagatik ere. Eskola nazionaletan ibili zen. CAF eta Ampo lantegietan aritu zen lanean. Elkarriketan bere bi arrebarekin azaltzen da, Angeles eta Rosariorekin.

Kontxi Lasa Garmendia (1925-2008)



Ordizian jaioa, zortzi senideko familia batean. Etxeko lanez gainera, fabrika ere egin izan zuen lan. Senarra ordiziarra zuen ([Ramon Lasa Apalategi](#)), eta grabazio honetan elkarrekin agertzen dira.

Rosario Lasa Garmendia (1938)



Ordizian jaio zen 1938an, zazpi senideko sendian. Gurasoak Oiangu auzokoak zituen, ama Oiangu baserrikoa eta aita Arranomendikoa. Urdaneta kalean eta Tximista kaleko Lizarazu-enea etxean bizi izan da. Kalean jaioa izan arren, amaren jaiotetxean pasa zuten haurtzaro gehiena. Oiangu baserria ezaguna dugu, Fray Andres de Urdanetaren jaiotetxea delako eta parke ezagun bat dagoelako bertan. Rosario eskola nazionalen ibili zen, baita josten ikasten ere. Lanean, azoketan "korsetera"ren saltzaile laguntzaile moduan eta josten ikasi zuen lekuan bertan aritu zen. Elkarrizketan Angeles eta Joseba anai-arrebekin batera azaltzen da.

Consuelo Lekuona Elustondo (1919-2018)



1919an jaio zen, zortzi senideko familian. Lehenbizi moja frantsesetan ikasi zuen, eta ondoren karmeldarretan. CAFen aritua. Grabazioan bere beste hiru ahizpak ere agertzen dira: Arantxa, Maritxu eta Ana Mari.

Patxi Maiza Urrestarazu (1933)



1933an jaio zen Ordizian. Aita Ataungoa eta ama Ordiziakoa zituen eta 6 anai-arrebako familia. Eskolan Ordiziako mojetan ibili zen jaunartzea egin arte eta horren ondoren eskola nazionalen. Ordiziako "arte eta lanbide-eskolan" mekanika ikasten aritu zen. 1948an CAF lantegian mekanika muntatzaile lanetan hasi zen, eta ondorengo urteak Lazkaoko Pingon lantegian egin zituen. Soldadutza Donostian egin zuen urte eta erdiz 1954an. 34 urterekin ezkondu zen Ataunen eta bi seme-aren aita da.

Joxe Mari Mintegi Aiestaran (1929)



Aita ordiziarra zuen eta bera ere Ordizian jaio zen. Hala ere, ama Ataungoa zuen eta eskolan ere Ataunen ibili zen. Emaztea Ataungoa dauka eta seme-alabak Ataunen jaioak dira. Okina izandakoa, CAFen aritu zen. Bere emaztea ere elkarrizketan agertzen da, Asun Dorronsoro Goikoetxea (1926).

Anttoni Mujika Garmendia (1930-2023)



Etxezarreta kalean jaio zen. Gurasoak Urretxu eta Itsasondokoak ziren, baina Ordizian bizi izan zen. Bilore lantegian egin zuen lan, eta josten ere aritzen zen etxean. Txikitan mojetan ibili zen. Elkarriketan bere senarra (Fernando Garate) ere azaltzen da.

Maria Rosario Mujika Imaz (1934-2023)



Ordizian jaio zen 1934an. Aita Zumarragakoa eta ama Ataungoa zituen. Lau anai-arreba izan ziren. Aita 5 urte zituela hil zitzaien eta bizimodua aurrera ateratzeko lan egin behar izan zuten. Mojetan eta Ordiziako eskolan ikasi zuen 11 urtera arte. 5 urterekin hasita, Ordiziako Laskaibarko sagardotegira joaten zen lanera; 13 urterekin San Isidro granjan aritu zen lanean eta, geroago, Donostiako Egia tabernan aritu zen zerbitzari lanetan. Josten ikasten ere aritu zen Ordiziako plazan. Lazkaokoa senarra, 3 seme-alaba izan zituzten. Ezkondu ondoren Irurena mertzeria zabaldu zuen Ordizian.

Jose Ignazio Munduate Aiestaran (1911-2006)



Baserrian jaio zen, eta eskolara denbora tarte batean joan ondoren, baserrian lan egin izuen. Artzaina izan zen urte luzez.

Trini Munduate Altuna (1913-2011)

Moja frantsesetan ibili zen eskolan 12 urtera arte. Udalena egin zuen lan 40 urtez, administrari laguntzaile modura.

Ana Mari Murua

Rafaela Nazabal Dorronsoro (1929-2018)



1929an jaio zen Itsasoko Albitxu Ondo baserrian. Ama Itsasokoa eta aita Zaldibiakoa zituen. 6 anai-arreba izan ziren. 8 urtetik 11 urte zituen arte Astigarreta auzoko eskolara joan zen. 20 urterekin Beasaingo Castillo Hotelean aritu zen sukaldaritza ikasten eta geroago bertan eta Donostiako Urbia jatetxean aritu zen lanean.

Alejandro Ormazabal Garmendia (1934-2023)



Itsasondon jaio zen 1934an eta lau hilabete zituela Ordiziara eraman zuten bizitzera. Ama Lasartekoa eta aita Altzagakoa zituen. Bost anai-arreba izan ziren. Lau urterekin hasi zen Ordiziako "Monjas de Hospital" deiturikoan ikasten, geroago Karmelitetan, Beasaingo La Sallen; azkenik, Iruñeko Salesiarretan industri maisutza ikasten aritu zen. Etxean egur-tailerra zuen aita eta Espainia osorako jokoak, tresnentsako kirtanak eta txapazko arbel bereziak egiten zituzten. Alejandro "Manufacturas Ederran", aitaren tailerrean, aritu zen lanean. Soldadutza Castejonen egin zuen eta handik itzuli zenean, ezkondu eta Ordizian jarri zen bizitzen.

Iñaki Ormazabal Garmendia (1927-2018)



1927an jaio zen Ordizian, Gudarien Etorbidea kalean. Aita Altzagakoa eta ama Lasartekoa zituen. Bost anai-arreba izan ziren. Moja karmelitetan eta Beasaingo La Sallen ikasi zuen. 13 urterekin hasi zen lanean aitarekin etxeko tailerrean ("Ederra" lantegian), bulegoan. Arbelak eta baserriko tresnentsako kirtanak egiten zituzten, baita partxisak eta beste zenbait gauza ere; Espainia osorako egiten zuten lan. 18 urterekin Zaragozara joan zen soldadutzara abiazioko boluntario modura. Ordizian ezkondu zen Abaltzisketako Martina Agirrerekin. Elkarrizketa biei batera egin zitzaion.

Prontxio Sarasola Etxeberria (1929)



Sarasola taberna gainean jaio zen. Karmeldarretan ikasi zuen, eta denboraldi batzuetan Legazpiko eskolan (denboraldi batzuetan osaba-izeben etxera joaten zelako). Oñatin ere ikasi zuen 5 urtez fraideetan. CAFeko langile izandakoa. Aita Zegamakoa zuen, ama Brinkolakoa (Legazpi) eta emaztea Alegiakoa (Itziar Balerdi). Emaztea elkarrizketan agertzen da.

Maria Sukia Nazabal (1923-2022)



Kale Nagusian jaioetakoa, aita Lazkaomendikoa zuen, eta gizona Lazkaokoa. Hamalau urtera arte karmeldarretan ikasi zuen, eta geroago gau-eskolan. Gaztañaga jostundegian egin zuen lan. Elkarrizketan bere anaia Pedro ere agertzen da.

Pedro Sukia Nazabal (1929-2015)



Eskolan Beasainen ibili zen, eta 14 urtera arte CAFeko eskolan. Lanean hasi ondoren, gau-eskolan jarraitu zuen. CAFeko langile izan zen, eta soldadutzan barberu ere aritu zen. Grabazio honetan bere arreba Mariak ere hartu zuen parte.

Joxepa Urkiola Rezola (1934)



Joxepa Elkano kalean jaio zen, "Astokale" ere deitzen zitzaion kaleari; izan ere, bertan uzten zituzten astoak Ordiziako azokara joandako baserritarrek; saltzen ez zuten ganadua eta bestelako produktuak ere bere etxean uzten zituzten, ikuilua baitzuten. Aita Salbatorekoa zuen eta ama berriz ataundarra. Eskolan Ordizian ibili zen: karitateko monjetan lehenbizi; nazionaletan ondoren; eta, azkenik, karmeldarretan. Karmeldarretan zebilela, lantxo eta enkarguak egiten zituen eskola jasotzearen trukean. Sei anai-arrebatan hirugarrena, nesketan zaharrena izanagatik etxean lan asko egitea tokatu zitzaion. Bederatzi urte zituela, eskolatik atera eta ume bat zaintzen aritu zen. Ezkondu aurretik, Donostiako eta Ordiziako etxe banatan ibili zen neskame eta bi tailerretan ere aritu zen. Hogeita zortzi urte zituela ezkondu egin zen.

Pedro Urretagoiena Murgiondo (1924-2016)



1924an jaio zen Ordiziako Santa Maria kalean. Ama Mutiloako Agerre baserrikoa eta aita Argentinakoa zituen; 4 anai-arreba izan ziren. Eskolan urtebete egin zuen mojekin, 6 urterekin hasita; 7 urterekin Mutiloako eskolan ibili zen 10 urtera arte, bertara joan baitziren denboraldi baterako bizitzera. Eskola bukatzean CAF lantegian hasi zen doitzaille lanetan, geroago Beasaingo KMKn, eta azkenik Indar lantegian, hori ere Beasainen. Lazkaoko andrearekin ezkondu eta Lazkaora joan zen bizitzera.

Natividad Zabala Aierbe (1930-2017)



Amezketan jaio zen; aita zuen bertakoa eta ama, berriz, ordiziarra. Bost urte zituela, Ordiziara joan zen bizitzera. Eskola hamaika urte zituela utzi, eta Ordiziako medikuaren etxean aritu zen bertako haurrak zaintzen. Neskame ere izan zen, eta Donostiako hainbat hoteletan egin zuen lan, hogeita hamaika urterekin ezkondu zen arte.

Lutxi Zaldua Otamendi (1913-2005)



Ordiziako Filipineta kalean jaio zen 1913. urtean. Moja frantsesetan ikasi ondoren, Donostiako amaetxean ikasi zuen. Erizain, praktikante eta, batez ere, emagin izan zen. Elkarriketan bere ahizpak lagundu zion (Lorenza Zaldua, 1920).

Maritxu Zubeldia Erauskin (1912-2005)



Santa Maria kalean jaio zen, eta karmeldarretan ikasi zuen. Jostuna. Ama Zaldibiakoa zuen, eta elkarriketa egin zitzaionean bertan bizi zen. Grabazioan Agustina Etxabe ere azaltzen da.

Juana Zubizarreta Azurmendi (1927-2018)

Geltoki ondoan jaio zen eta gaztetan mojetan ibili zen 14 urtera arte: lehenbizi frantsesetan eta geroago karmeldarretan. Denda baterako alkandorak josten egin zuen lan (ama jostuna zuen).

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Hil-kanpaiak

- **Hizlaria(k):** Balerdi Mujika, Pedro
- **Elkarriketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Erref:** ORD-003/016
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:19:18. **Bukatu:** 00:20:31
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Elizako hil-kanpaien gainean hitz egiten du.

Transkripzioa

- Kanpaiak... elizako kanpaiak... emakume, hildako... hil-kanpaiak eta hoik, emakumezkona edo gizonezkona Ordizin diferente izaten al da hil-kanpaia?
- Emakume edo gizonezkonak? Bai, izaten zan diferentea. Bai, emakumeak, osea, jotzen zuen bat haundie, dong, ting-ting. Emakumea hil zanen, hasten zan tin-tin horrekin. Ta gizonezkoa hiltzen zanen, hasten zan haundikin.
- Eske hoi jende batzuk esan digue ezetz, ta Zaldibin diferentea da. Ta hemen ezetz esaten zuen.
- Batzuk baietz esan digue, baiño...
- Bai, hemen hasten zuen bi ttikikin.
- Emakumezkoa?

- Emakumezkoa. Eta gizonezkoa haundikin. Ta klaro, askotan geatzen ziñen: bi ttiki, guk hemendio, klaro, herriok herrin bertan ondo aitzen zuen, guk'e aitzen gendun. Baiño askotan ba txikie ezta perzibitu bazan, ta tun, ta adios, hil da baten bat. Ta geo arrastoik ez, aurretik jo ote do, ez ote do?

- Geo esan zigun baita, gaixo zeonen'e jendea, hola gaizki xamar zeonen o're jotzen zuela kanpaia.

- Nik ez nun ezautu hori.

- Ez zendun ezautu?

- Ez, ez.

- Hoi norbaitek esan zigun.

- Ez, lehenago izango zan hoi.

1.2. Oilaskoa, otordu berezietarako

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Irastorza, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Erref:** ORD-006/009
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:11:42. **Bukatu:** 00:12:55
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Eguneroko otorduetan salda edo zopa eta babarrunak eta haragia tomatearekin jaten zuten gehienbat. Oilaskoa urtean behin jaten zuten egun bereziren batean.

Transkripzioa

- Gero jana ta hola nola izaten zan ordun? Oain baiño bariedade gutxigo izango zan ordun?

- Baai, bai, bai, bai. Bai, ba, ta nire gazte-denboran hor, klaro, bakizu zer pasatu zan hor? Urte kuarenta, ta kuarentaiuno, ta kuarentaidos txarrak izan zien, eta ordun gaizki ibili giñen janakin. Baiño gaiñetikan hemengo jana, eguardikoa, jeneralmente nere etxen, egunero, estraiñeko salda garbie, zopa, gure amak eitten zun. Eta gero babarruna, gehiena babarruna urte guztin. Eta gero haragi hura tomatekin. Hori izaten zan gure urte guztikoa. Gero jaie etortzen zanen, hasi zien gero, akordatzen naiz, garbantzukin hasi zien. Eta gero elegante-elegantea, paella; baiño ya paella ya elegantea zan.

- Lujua hori ezta?

- Bai. Hoi ya zea zan, elegantea zan. Eta gero, nola esango dizuet ba? Urten behin jaten gendun oillaskoa, gure amak ganbaran eositako, eostos hazitako oillaskok e? Haik saltiotan. Ta eguarritan'e bai. Harek kapoiak hazitzen zitun, jan artoa hola sartuz.

1.3. Umetako pikardia

- **Hizlaria(k):** Mintegi Aiestaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Erref:** ORD-009/051
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:04:52. **Bukatu:** 01:05:48
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Ezagun bati egindako pikardia.

Transkripzioa

- Geo zeuken garai hartako komona, itxitura txiki bat zeuken. Taillerretik gora jun, hemen okurrentzi haundiik ez, eta okurritu zaigu, han harrapatzen baldin badeu komunen, lotu in behar diau dana. Alanbrekin lotu behar diogu. Nola esango det ba? Armario koskor bat bezela zan. Ta beti bijilantzikin, ta harrapau deu, ta arropak, zabaltzeko arropak izaten da, o zea izaten da ba, alanbrea? Halako alanbreak zeuzken zintzilika, hartu deu ta lotu deu Kristo bezela.

- Zer [...] komunean utzi?

- Ta gu eskola. Nik ez dakit gizon harrek ze in ote zittun handik ateatzeko.

- Penitentzia, denetio.

- Bate merezi be.

- Lehengo umek holako, holako trastadak eitten, eitten zittuela, baiño...

1.4. Astero lixiba arropak garbitzeko

- **Hizlaria(k):** Munduate Altuna, Trini
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Erref:** ORD-011/014
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:17:48. **Bukatu:** 00:19:10
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Arropa eskuz garbitzen zuten eta labaderora eramaten zuten aklaratzera. Bi labadero ziren, estazioan eta goian. Astero egiten zuten garbiketa eta lixiba egiten zuten.

Transkripzioa

- Eta etxeko garbiketak eta, erropa-garbiketak eta, oain baiño gogorragoak izango zien baita, ala?
- Hombre, euskez, eskuz dana! Eskuz, ta labaderoa juten giñen aklatatzea.
- Nun zan labaderoa?
- Ba, oain ez dakit zer dagon han. Iturtxu. Iturtxu, kalea, plazuelatik mendira aldea o hola... ez, ospitale aldea beste kalea. Han zan labaderoa, ta estazion'e bai beste bat.
- Baiño zuek gora juten ziñeten.
- Estazion beheran. Baiño gu goran ibiltzen giñen, goien ibiltzen giñen. Bai.

- Ta hautsa aklatatzea juten ziñezten?
- Bai. Etxen garbittu, baiña han aklatatu. Baldea hartu buruen gaiñen, ta ala!
- Garbittu're ez zan oain beste, oain bezela ingo, ala? Hain maiz ez zan garbittuko maindirak eta holako gauzak.
- Ez zala garbitzen?
- Ez, hain maiz ez.
- Hain maiz? Bai, bai, bai.
- Bai?
- Hola mouz, hola mouz. Hamabost eunen gehienaz. Bai, bueno, astero itten gendun e? Ta etxen egosi itten gendun arropea e? Lisua.

1.5. Iratzargailu pertsonala

- **Hizlaria(k):** Sarasola Etxeberria, Prontxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Erref:** ORD-012/007
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:09:34
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Okinari buruzko pasadizoa kontatzen du: goizean goiz elkarrekin lanera joateko asmatu zuten sistema.

Transkripzioa

- Aaa, beste gauza bat. Hau bai, hau netzako da polittena. Bat panadero, panadero zan, ta bueno, bizi da, bizin da baita're. Nik CAFen lan eitten nun, eta juten nintzen errelebon garai hartan, goizeko lauetan. Eta hau panadero, berriz, ba gauez lana in ber zun. Badakizu, ogik hurrengo eguneako. Ta nunbait nik ez dakit o ez zeuken despertadorea, ta "hi, Prontxio", ta "zer?", ta "hi lauetan juten haiz lanea?", ta "bai", ta "jo, hik zeatio ez diak nei deitzen?". Zeatio Bar Sarasola zan, esan dizuet, eskaillera bat...
- Bai, bai, bai, bai.
- Ta bestea zan "panadería Zabale".
- Parekoa.
- Ta parekoa, eta ba, "eta bueno, ze nahi dek, ta nola deitu? Esnatu ingo dittugu habek danak! Ez gaittuk hasiko hi ta oooooo", ta "gauza bat ingo diau: nik holako soka batekin lotuko diat hankako..."
- Behatza

- "... behatzen potolon! Ta gero soka hori txintxilika utziko det kanpo aldea, ta hik, hik tira in". Ta hala, "joe, Prontxio!" ohetik. [...] "Bale, Manolo?" "Bale! Bale, Prontxio, bale! Segi! Gero arte!". Eta hala juten nintzen lanea CAFea. Jo, hori, hori da...

- Ta balio zion despertadoreak ?

- Baaaai, hombre, beti're, [...] batzutan igual juaten "hi, ba, ondo zeok!" eta "kendu in behar diak oaindik".

- Behatza.

- "Behatza oaindik hemen zeukeat, baiña, hola, aizak ez zak hainbeste indarrakin tira ta" esaten zian. Ba, hori, hori, hori, nik gogoratu det horrekin, jo, ze garai hartako gauzak.

1.6. Arbitroari harrika

- **Hizlaria(k)**: Sarasola Etxeberria, Prontxio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Erref**: ORD-012/011
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:15:45. **Bukatu**: 00:16:34
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena**: Partidu baten amaieran, arbitroari enbor ugari jarri zizkioten bidean, traba egiteko. Eta autoa gelditu behar izan zuenean, harriak bota zizkioten.

Transkripzioa

- Eta beste egun baten gogoratzen naiz "campo", osea, partido bat bukatu ondoren, joe, arbitro, arbitroa nere anai zaharrena gogoratzen da oraindik izena. Ta ze pasa zan? Ta hue, klaro, arbitrok etortzen zien Donostitik bere kotxen, ordun ya kotxen etortzen zien. Arbitrok, klaro. Jokalariak, bai, batzutan, baiño, ez, gehienetan kamion, bueno bai, kamion txit hoitakok. Eta ni gogoratzen naiz, arbitro horrei, arbitro horrei nola jarri zioten Ordiziko kanposantun paren han tronkok, tronkok e? Ba igual jarri zuen zortzi-hamar tronko. Ta bitarten gazte jendea harriz beteta, klaro, kotxiak gelditu in behar zun, ta, bai, botatzen. Jo, nere anaia hemen eon balitz, harek esaten zuan nola, nola, nola...

1.7. Paskual petrikiloa eta bere konponbideak

- **Hizlaria(k)**: Sarasola Etxeberria, Prontxio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Erref**: ORD-012/016
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:21:22. **Bukatu**: 00:23:50
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

- **Laburpena:** Sarasola tabernara gizon bat hagineko minarekin etorri zen, eta Paskual petrikiloarengatik galdetu. Jende asko etortzen zen harengatik galdezka. Paskual non bizi zen azaltzen saiatzen da. Gizonari hagineta mina kentzeko zer egin zion kontatzen du.

Transkripzioa

- Gizon bat, hagiñeko miñe, Bar Sarasolan. Ta sartu zan gizon haundi hau. Zan pixkat, nola esaten da, este...

- Kurandero o...

- Kurandero bezela o! CAFen lan eitten zun. Ta behin baiño gehiotan etortzen zien jendea kanpotik hue eramatea. “¿A ver Pascual...? ¿Aquí el curandero...?” “Sí” “Pues...”. Ta jende aberatsa e? “pues sí, sí, pues bueno...”. Pues, abixatu, etortzen zan, hartu ta eaman itten zuen.

- Ta zer zan, Ordizikoa bea?

- Ordizikoa bea. Bizi zan, zuek ez zenduen ezagutu paso-nibela, leno kendu zuen. Zuek ezagutu ez. Garai baten guardia zibille zan, oain nola daude eskolak?

- Zaldibiko bidean...

- Bai, aittuta bai nik han ziela.

- Ba han zan paso-nibela. Ta ze esatea nuan ni oain honekin?

- Paskual.

- A, ba Paskual hor bizi zan. Zuek galdetzen bazue Paskual, Paskual haundi gañea, Paskual haundi, haundi zan, Paskual haundi. Sartu zan barra, ta “hau hagiñeko miñe”. Ta “zer daukek?” eta “joe, hagiñeko miñe zeukat, motel. Ez zakit”. “Jode, motel! Hori seittun kenduko diau”.

- Ta bea kuranderoa zan?

- Bea kurandero zan. Baiña esango dizut ze kurandero, ze kurandero. Belarretan ta hola, kurandero zan ta “ba, oain, motel... hi! Ateaok honi kopa pare bat o hiru!”. Ateatzen dek koñak, koñak, dena edan bihar, bat baiño... “beinga beste bidoi bat kopa!”. Bizikletan ibiltzen zan kurandero. Kanpoa atera da, bizikleta paretan kontra, zekan holako maletin txiki bat, egurrezkoa, iriki, ta nun etortzen dan alikate batzukin.

- Ai ama...!

- Alikate batzuk eskun zeuzkela! Ta, “bueno, ze? Beste kopa bat eango al dek?” “ba, igual dek”. Eta bestea ya mozkortuta, bueno, han pixkat eon, in ta... Hori nere anaiak kontatutakoa, Juanitok. Juanito, nere anaia, hil zan Bar Sarasolan, gañea Zaldibira asko juten zan, oso berritsuko zale zan nere anaia. Ta harek esan zion “bueno, beinga, beste bat probatu nahi al dek” “ez, nahikoa zeukeat”. Mozkortuta, “beinga, hi”. “Iriki zak ahoa!”. Han zer iriki ahoa, ta klas “a lo bestia”. Ta dana atea zion.

- Bai, bai, seguro.

- Ta hori, hori, hori egie da e? Jo, eske, nik, nik, nik...

- Hortako ez da kurandero izan beharrik, ala?

- Bueno, baiño gero belarretan ta asko zekin e?

1.8. Antzerki-konpainiak Ordizian

- **Hizlaria(k):** Sarasola Etxeberria, Prontxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitx
- **Erref:** ORD-012/028
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:41:22. **Bukatu:** 00:42:19
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Antzerki konpainiak etortzen ziren Ordiziara. Deigarriak ziren haien janzkerak.

Transkripzioa

- Ni gogoratzen naiz, etortzen zien zinea, etortzen zien teatro, teatristak, "compañías de teatro". Ta etortzen zien ta, joe, zan, atentzioa deitzen zuen: erropa, pintatuta ta, ta hola. Ta, jo, han barrenen sartzen zien Bar Sarasolan, ta Txindokin. Txindoki ordun zan Bar La Paka. Txindoki eon zan gero. Txindoki zan hemengo izandako alkate... apelliduek zian?

- Iñaki...

- Iñaki... nola zan? Bai, alkate izandako, alkate izandakoa... Iñaki, hoi aztuta zauden. Baiña bueno, berdin ibiltzen zien han ta Bar Sarasolan. Ta sartzen zien erropa batzuk eta han pinta-pinta, harritu, hemen harritzekoa zan, klaro, zeatio holako erropak eta holako pinturak eta holako... ez zan ikusten, ta ordun atentzio deitzen zuen, deitzen zuen noski.

1.9. Eskolara Torrea etxera mojetara

- **Hizlaria(k):** Mujika Imaz, Maria Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-023/002
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:01:20. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolara Torrea etxera joaten zen mojetara eta handik gaur ospitalea dagoen tokira. 5 urterekin hasi zen. Mojekin irakurtzen ikasten zuten. Entziklopedia berarekin ikasi zuten etxeko lau senideek, erdaraz.

Transkripzioa

-Eskolara Ordizira juten ziñen?

-Bai, Torrea juten giñen ordun, osea ke, nola daon Musika Eskola; bueno Musika Eskola Barrenan bat eta bestea herriko bandea nola jotzen don, Korreo daon etxe haundi hortan. Hor juten giñen zeatio monjak zeuken hor leku bat, monjak, Milagrosak etortzen zien eta ordun eskolaa juten giñen. Gero hortik pixkat gora jun giñen, hor txiki geldittu zan eta gerok haundittu ein [gendun] puxkat eta gero juten giñen horra oain ospitala daon hortaa. Hor beste eskola ba zeon eta puxkaten harrea jun... Eta gero ba ni gutxi jun nitzen, hamaika urte arte o holaxe eskolaa jun nitzen.

-Zenbat urtekin hasi ziñen?

-Eskolan? Ba nik ez... Bueno, garai hartan bost urtekin edo hasten giñen eskolan. Gutxigo ez, e. Bizkitarten etxen egoten giñen.

-Esan dezu monjak erakusten zizuela?

-Bai, Milagrosana aurrena monjak, eta gero ia herriko eskolan hasi giñen.

-Eta ze ikasten zenduen monjakin, ze izaten zan, matematika edo?

-Bai. Leitzen batibat. Askoz gehio ez gendun ikasi, zeatio zer? Ordun kartoi batzuk ematen zittun, [beste bat] jartzen zizuen eta. Diktaduk ein eta, holaxe. Baiño oain bezela hainbeste liburu eta hainbeste gauza, ezta

pentsau´re.

-Ze izaten zan, liburu bat danetarako?

-Bai, lau senidek enziklopedia batekin ikasi gendun, eta oandio gordeta dauket zea... gure txikik, txikitako batek, ez dakit zein ilobak, egun baten etorri zan eta esan zin: "Amona, nik ez det atatzan...", haalako probleman bat zeuken, ez zan txikie, hain txikia umea [...] izango zan eta. "Ez det atatzan, nik ez dakit, aitatzoi esan behar diot itteko". "Eta zer nahi dezu? Nik han goien badauket ganbaran enziklopedia bat eta begiratuko deu", eta handixi atara zon. Pentsa zenbat urtekoa dan eta puxkauta ta dao baiño nik gordeta dauket. Baina danok handixe.

-Gramatika eta...

- Harek danetik dauke. Harek konpleto dau, konpleto dau hura.

1.10. Irakasleak, karidadeko moja kanpotarrak

- **Hizlaria(k):** Mujika Imaz, Maria Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-023/004
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:05:05. **Bukatu:** 00:06:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Karidadeko mojak ziren irakasleak eta kanpotarrak ziren; bat zaldibiarra izan zuen. Ez ziren gogorrak baina goizero Francori kantatu behar izaten zioten (abestu egiten du) eta errezatu ere bai.

Transkripzioa

-Eta monjak nungok zien, hemengok?

-Bueno, ospitala zeuken, oain residentzie daun hortan ordun zien ba monjak. Eta dedikatzen zien "Monjas de la Caridad", eta dedikatzen zien ba guri eskola ematen.

-Baiña esan nahi det hemengok, ordiziarak ziren?

-Ez, ez, ez, kanpokok. Bueno, bat Zaldibikoa zan, urte asko egon zan, sor Ana. Hure bizi izan zan ba nobiziadotik ataa eta nik uste det denbora guztin Ordizin egon zala. Eta hura hil zan hemen baiño oso zarra. Hue zan hemengoa, baiño gaiñontzekok danak kanpokok.

-Eta zer moduzkoak ziren, gogorrak?

-Nik uste det ezetz, ez zien goorrak. Nere iruditturako ez, geok ez giñen gaiztok eta! Guk eske malizik ez genduken eta haik esandakoan hori in ezkeo, beti pakea zeon. Ez, ez, nik ez dauket rekuerto txarrik monjatatik.

-Eta eskolan sartutakoan errezau egin behar izaten zan?

-Beharko. Eta Francoi eskue altxau gaiña! Francon argazkiri.

-Eta kantau?

-"Viva Franco, alza tus brazos hijos del cuerpo es(tra)pañol... Viva Franco... que vuelve a resucir..." Himnoa dana.

-Egunero kantau behar orduan?

-Bai, bai. Eta errezatu´re bai. Eta eskolatik ataratzekon´e abemaria errezatu eta, bihar arte, eta fundamentuz, osea, errespetokin.

1.11. 11 urterekin eskola utzi eta lanera

- **Hizlaria(k):** Mujika Imaz, Maria Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-023/006
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Dotrina derrigorra zen. Jaunartzea egin arte ibili zen mojekin eta gero herriko eskolara pasa ziren; dohainik zen eskola. Lanera hasi zenean, 11 urte ingururekin, eskola utzi zuen eta partikular joaten zen ikastera.

Transkripzioa

-Eta dotriña?

-Beharko. Bai, bai.

-Eta hori ere monjak erakusten zuten edo?

-Monjak eta eskolan´e bai. Ta gero katekesisa juten giñen. Bai.

-Esan dezu monjetatik eskolara pasatu ziñela, zenbat urtekin?

-Gutxi, gutxi. Nik uste det komunioa ein arte edo hola. Komunioa zazpi-zortzi urtekin eiten gendun, eta ordun ba eskolaa ba. Bueno, nahi izan ezkeo gero´re segitzen zuen monjakin, baiño nik ez dakit zegatik aldatu ninduen monjatik herriko eskolaa, ez dakit zeati, zeatio ez zuen..., dana gratis zan, ez gendun pagatzen ezer, baiño ez dakit zeati.

Eta herriko eskola nun zeon?

-Esaten dizut, Torrean, Correos daon hortan, harutza juten giñen.

-Hori ere debalde zan, ala?

-Dana, dana. Guk ez gendun ezer... Gero nola hain denbora gutxin jun nitzen ni eskolaa, ba lanea juten nitzen baserritaa, Upabira ta [...] ta lanea juten nitzen, beharko jun, aitteik be genden eta, eta ya ke ez nitzenez egunez eskolaa juten, urte baten eo holaxen, "clases particulares" ematea juten nitzen, Hidalgo, Antonio Hidalgonea. Baiño illuntzen seiteti zazpietaa edo zazpietatik zortzietaa, juten giñen pixkat gehixeo ikasteatik.

-Hori eskola utzi eta gero?

-Bai, bai, gero. Baiño hamaika urte ezkeo ia nitzen eskolaa gehio jun.

1.12. Upabiko dolarean egiten zuten sagardoa

- **Hizlaria(k):** Mujika Imaz, Maria Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-023/009
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:15:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

- **Laburpena:** Sagastiak sagardotegi ondoan zeuden eta dolarea etxean, sagardoa bertan egiten zuten. Ostegun Santu Egunean festa egiten zen eta hurrengo eguna bijilia izaten, bakailaoa jartzen zuten jateko. Sagardotegikoak izendatzen ditu.

Transkripzioa

- Eta sagardoa han bertan egiten zuten?
- Bai. Kupelak eta sagastie zeuken, eta kupela zeuken, eta zeuken [...] tolarea zeuken, eta tolare hartan eitten zuen sagardoa ta pasatzen zuen kupela haunditaa.
- Sagar biltzen eta ordun ibiliko ziñen.
- Bai hoixe, [ardo?] eitten eta daneti, daneti, ataatzan zan guztie.
- Ze tenporada izaten zan, orain bezela sagardoa egiteko?
- Oain garai hau, oain garai hau. Aste Santurako hasten zan ia puri-purin. Ta guk ordun eitten genduna ba, han garai hartan eitten tzan Ostegun Santu Egunen jartzen tzuen txerri-hankak, tripakik, arkumea, tortilla pikatxakin, arkumen odolakin, hori Ostegun Santu Egunen. Eta Ostegun Santu Egune pasatzen zan garaien, nola hurrengo egune bijilie zan, zartagi guztik eta ibilli giñutzen ontzi guztik garbitzen danekin, lejiakin eta guzti garbitzen giñusten, zegatio hurrengo egunen nola zan bijilie, ez zan euki behar kutsuik, aurreneko eguneko kutsuik ez zan behar; dana garbie, dana garbie. Eta ordun kartatan jokatzan tzan, eztokan? [tokan] jokatzan zan, Ostiral Santu Egunen dana itxita egoten tzan. Ostegunen bai, ostegunen ia kartatan ibiltzen tzan jendea ta tokan eta gauza horitan bai, baiño Ostiral Santu Egunen aiketa larunbat atsaldeko hiruek arte dana itxita egoten tzan. Joku guztie.
- Jende asko juntatzen tzan hola jokua ta...?
- Bai, bai, asko, asko. Hurrengo egunen jartzen zan bakaillaue; bakaillaue eta antxoakin tortillak. Bijilie egune nola zan.
- Ze egoten ziñeten, jente asko lanen?
- Lanen ba bai. Egoten giñen etxeakoandrea, bere koiñata, nere ama, eta gero etxen mutilzar bat zeuken, bi morroi, ta zerbitzen ba mutilzar hue ta ni ibiltzen giñen. Nola zan dana kazuela haunditan jarri ta mahien jarri.
- Mahira ateratzen zan?
- Mahira ataatzan zan, bai, ordun etzan platerik eta, han bertatik jaten tzan.

1.13. Eguneroko otorduak

- **Hizlaria(k):** Mujika Imaz, Maria Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-023/010
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:15:14. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Eguneroko babarruna jaten zuten, baba txikia, aza, txongoa eta gauero baratxuri-zopa jaten zuten. Arrain gutxi jaten zen garai hartan. Festetan oilaskoa, angulak, etab.

Transkripzioa

- Zer izaten zan orduko jana, zer jaten zan edo?
- Bakaillaue, egun hartan bakaillaue.

-Baiña bestela jeneralen ze?
 -Jan ondo. Babarruna, egunero babarruna.
 -Ordun, arten ez zan ez arrozik ez lentejaik. Bazan, baiño ez zan jartzen etxetan. Babarruna, baba txikie, azea txongokin.
 -Txongokin?
 -Txongoa, hori da txerrin hezurre, txerrin hezurre, txongoa. Eta gero jaie aillegau ezkeo, ba gauen, gauero baatxuri zopea, gauero baatxuri zopea. Eta gero jaie aillegau ezkeo ba garbantzue. Salda ederra aurretik, eta garbantzue eta gero zera, saldea eindako haragi hura tomatekin eta piparrakin.
 -Arrairik izaten zan?
 -Bai, izaten zan baiño gutxigo, askoz gutxigo.
 -Garestie zalako edo?
 -Ez, ez. Ordun iruditzen zan arraiek ez zeukala alimentuik, ordun izaten zan haragie. Oillaskoa... Ta geo festatara aillegau ezkeo eta oillaskoa jaten zonak "mucho". Bai. Ordun bai, festatan bai. Festatan jartzen zan arraien tirak laben eta oillaskoa, eta angulak´e bai, oin baiño gehiao, ordun modu hoben zaren eta jan eitten zien angulak. Bai, hori badauket. Baiño gaiñentzen... Jan ondo eitten zan, jan ni eon nitzen leku asko, leku askotan egon nitzen lanen baiño danetan ondo, ondo jaten gendun.

1.14. Sagarrak eta gaztainak biltzen

- **Hizlaria(k):** Mujika Imaz, Maria Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-023/011
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Sagarrak saskietan biltzen zituzten. Gaztainak nola biltzen zituzten azaltzen du. Arkumea "txilindron" erara prestatzeko ohitura handia zuten.

Transkripzioa

-Lehen esan dezu sagardoa egiten ibiltzen ziñela. Sagarra biltzen ibiltzen ziñen?
 -Ibilliko ez nitzen ba! Hoixe!
 -Nun biltzen sagarrak?
 -Ba saskitan, saskitan bai. Ba gaztaiñak biltzen e bai. Gaztaiña morkotxak zulau eiten giñun eskue, eta eskunarruik ez, osea ke [degil?] batzuk bezela jartzen giñutzen, edo bestela txotxak, bi egurrekin, txinok bezela nola jaten due? Holaxe bi zotzakin [...] gendun.
 -Gaztaiña-janak eta egiten ziren ordun?
 -Bai. Gaztaiña-janak, danboliñen erreta, sagardotegin asko eitten tzan. Han erre gaztaiñak, eta gero sagardokin. Eitten tzana asko da arkume txilindronen. "Al txilindron". Jartzen tzan gurutz bat bezela, eta han arkumea jartzen zan, oain jartzen dan bezala, nola jartzen zan...
 -[...]
 -Bai, oain jartzen da parrillatan. Ordun jartzen tzan beso ta esku hola lotu

ta pariten kontra holan jarri ta hau parite... hola jarriko balu bezela, hola, holaxe eskuk eta hanka, ta sue hortik dala, horti erretzen tzan. Bai.
 -Eta hue jaten zan?
 -Bueno!
 -Ez gaur bezela txuletak eta?
 -Txuletak e bai. Danetik jaten tzan, danetik jaten tzan ordun. Baiño, eztakit, gutxigo zeon... Gaur egunero jaten deu ondo, ta ordun ba jaien jaten zendunen ..., txipiroiek jaten ziñuztela re, bueno! Hue jan, hue jan ona zan. Menuda...

1.15. Eskolara mojetara eta Karmelitetara

- **Hizlaria(k)**: Etxaniz Gantxegi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-025/002
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:02:22. **Bukatu**: 00:05:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolara karidadeko mojetara eta ondoren Karmelitetara joan zen 14 urtera arte. kanpotarrak ziren eta Karmelitak ordiziarrak ziren. Mojetan erdaraz ikasten zuten. Etxean bakarrik egiten zuten euskaraz, aita errieta egiten baitzien.

Transkripzioa

-Eskolara nora jun ziñen?
 -Eskolaa aurrenetik horrutza, ospitaleko residentziko... ordun zaren monjak karidadekok o, ordun zaren. Eta horik ematen zuen eskola Correosetan.
 -Baiña Ordizin, ez?
 -Ordizin, Ordiziakoa ai naiz esaten dana. Eta horrutza juten giñen. Baiño gero sei urtekin o hola pasatu giñen Karmelitataa.
 -Nun zeuden Karmelitak?
 -Karmelitak zaren oai etxe berrik ein dittue ba Plaza Garagarzan, zerbezeria eta hori badago ba "El Coyote", bueno, hortik segi eta baztarrea, hor zeon Karmelitak. Aurrenetikan frantsesak egon emen zien, ni hori ez naiz gogoratzen. Baiño Karmelitan. Gero ba hamalau urte arte, eta gero lanea.
 -Hor monjatan ibilli ziñala esan dezu. Monjak zer zien, hemengok ala kanpotarrak?
 -Ez, hamengok iñor'e..., kanpotarrak izengo zien. Baiño hemengo monjaik ez, Ordiziako monjak ez. Karmelita jun ziela Ordiziakok eskolan ni nebillela, bai. Ta karmelitak, usten det, bat Arantxa ta bestea Juanita. Ia edadetuk izango die. Ni're hala naiz; "así que"..
 -Monjetan erderaz ikasten zenuen?
 -Bai. Orduun dana erderaz. Euskeraz ez. Etxen, etxen nauken nik... Ba bai, etortzen giñenen etxea aittek beti: euskeraz ez bagiñun itten, igandero ematen zigun ordaintzeko zerbait, bi pezeta-edo zer zan ordun, ba ez zigula... deskuento, gutxigo emango zigula. Euskeraz, berak dana euskeraz. Aittek ondo eitten zuen bai erderaz eta bai euskeraz. Amak euskeraz, erderaz oso... Zerbait eitten bazun, erdeldune ikusten bazuen...
 -Azkoitikua eta Urrategikua izanda gaiñea..
 -Bueno ba, dana euskeraz, amak euskeraz. Ta aittek ba igual erderaz o

euskeraz; igual. Biik dana euskeraz.

-Hori marka, etxean erderaz egiten uzten ez eta kanpoan euskeraz ez.

-Bai ba, hori ba. Gertatzen dana, nik esaten det hamen bertan ikusten det, nik. Gaiñea errexago nik usten det itten dala erderaz euskeraz baiño, neretzako.

-Igual ohittura gehiago.

-Ohittura gehio, ohittura gehio.

1.16. Mojetako zigorrak; Zurutuzarengana partikular

- **Hizlaria(k)**: Etxaniz Gantxegi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-025/003
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:05:16. **Bukatu**: 00:07:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena**: Matematikak, gramatika, historia eta abar ikasten zuten. Lanean hasi zenean Zurutuzarengana joaten zen matematikako partikularra, ikastera. Mojetako eskolan zigor gogorrak izaten zituzten eta erregelaz ere jotzen zituzten.

Transkripzioa

-Eta ze ikasten zenduen eskolan?

-Eskolan? Danetatik, danetatik.

-Monjetan, adibidez, ze ikasten zendun?

-Monjetan? Historia, Matematika, esan dizutena, Geografia, Historia...

Danetatik, ematen zuen danetatik. Eta gero hortik juten nitzen... hortik ez.

Laneen hasi eta lanetiken erten, ta juten giñen, zuk ez ziñun ezautuko, ezta urte asko hil dala, Zurutuza. Hamen Plaza Garagarzan bizi zan. Oin ahizpa bizi du, maestra izan da ahizpa´re, baiño harek ematen zigun partikularra matematikak. Eta nik askotan esaten det: "Ene!, hara, dakitten matematika kontue hor". O tonta nitzen, egie esaten dizut, nik horrekin: Consuelo Zurutuza.

-Erakusteko zera diferente...

-Oso, oso. Eta giñen hiru persona, ta dedikatzen zan espresamente zuri; eta hara, horretxekin.

-Eta monjetako eskola gogorra zan?

-Bueno, bai. Zigortze ziguen noizin behin. Paretan kontra, paretan kontra jarri zerbait gaixki ein baziñun...

-Zer zigor izaten zan?

-Paretan kontra, paretai begira jarri. Hori bai. Eta baita, uste det, regla esaten det nik hori hartuta, eskue jarri hola ta; baita, baita, hori uste det bazala. Baiño bestela ez, ondo, ondo. Esan dizutena, hamalau urte arte hor.

-Eta gero monjetatikan sei urtekin karmelitetara pasau ziñen?

-Bai.

-Eta zer zan, salto haundie zan ikasteko...

-Ez, ez. Hamengok´e onak zien baiño gu txikigook eta errexago utzi. Ez, baiño ona. Hamengok´e hola bertan bizi giñen, etxen ondón, e, ba

konfiantza haundie berakin eta. Ez, monja onak. Neretzako danak izan die onak, egie esateko.

1.17. Jaunartzea goizeko zazpitan Karmelitan

- **Hizlaria(k)**: Etxaniz Gantxegi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-025/011
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:17:57. **Bukatu**: 00:20:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Jaunartzea ahizparekin batera egin zuen Karmelitan, goizeko zazpitan. Azkoitiko Uzin baserriko aitona arkumea erosi zuen ospatzeko. Bizilagunek orraztu zuten. Organdilazko soinekoa eraman zuen. Jaunartze txikia eta handia izaten ziren eta baraurik joaten ziren.

Transkripzioa

-Eta komunioa ta nun...?
-Komunioa in giñun ahizpak eta nik, ahizpa zanak. Karmelitan goizeko zazpitan. Hori gogoratzen naiz, bai.
-Goizeko zazpitan?
-Zazpitan. Eta baserriko aitona, esan dizutenak, Usingook, Azkoittikook, ba arkumea o; asteazkenetan etortzen zan autobuse Azkoittitik. Oain ez, baiño orduun asteazkenero.
-Azkoittitik Ordizira?
-Ordizira, feria zanen, asteazkenen, azoka. Eta arkumea o ez dakit ze ekarri zuen, zelebratzeko komunioa. Eta komunioa ein giñun bi ahizpak batea. Eta gogoratzen naiz beheko bizilagunek, solterak zien, eta tenasilla batzuekin rizo batzuek in holaxe, eta jo, ze ote gean eta. In giñun hamaika urtekin, hamar-hamaika urte eukiko giñun. Baiño pozik!
-Ze jazten zan orduan komunioan?
-Eaman giñun, oai abitoa eamaten due, ba ez, organdillazko soñokoa.
-Nundik ateratzen zittuzuen soñokoak?
-O baten batek utzi o hola.
-Eta ze izaten zan, komunio txikie ta haundie...
-Bai, bai. Bai, bai, bai.
-Biek ein zittuzun zuk?
-Bai. Txikie eta haundie. Dana batea, baiño goizeko zazpitan, esaten dizut. Goizo, goizo.
-Eta zer jun biehaz izaten zenuen, baraurik?
-Baraurik jungo giñen. Ordun nola zan baraurik, oain ez; oain komunioa juten bazea hartzea, juten zea... Ordun ohitura hori...
-Nun, Ordiziko parrokiaren egin zenuen?
-Karmelitan, esaten dizut. Karmelitik zaukaben kapilla eta horik ematen zuen larunbata ez bazan igandetan meza; horrutza juten giñen, hor nebillen eskolan eta.

1.18. Otorduetan denetik jaten zuten

- **Hizlaria(k):** Etxaniz Gantxegi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-025/014
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:24:15. **Bukatu:** 00:26:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Eguneroko otorduetan potajea eta berdura jaten zuten. Azukre eta olioaren errazionamendua ezagutu zuen, baina goserik ez zuten sekula pasa. Denda asko zegoen Ordizian eta baten aipamena egiten du. Arraina jaten zuten tarteka eta igandeetan jaki berezia izaten zuten.

Transkripzioa

-Orduko eguneroko etxeko otordutako jana ze izeten zan?

-Hara! Nik egie esaten dizut, garbantzue zala, lentejak ziela, porru-patatak. Danetatik, danetatik. Nik egie, ordun razionamentue esaten zen bezela ta, bai, baiño faltaik ez.

-Ze izaten zan razionamentue?

-Azukrea, olio, bi gauza horik, eta jaboie ez dakit, baiño gauza horik bai. Eta tabakoa ere uste det; aittentzako-ta izeten zan, kajetilla oaingo hauek ez, pakete haundik; berak eitten zittun zigarrok hola papelakin bittu ta; askok itten due, ba hori. Eta, este..., bestela dendak bai. Beste bat´e bazeon, Bilore esaten zioena, beheratxuao, Plaza Garagarzatic behera. Asko, denda asko.

-Eta angulak eta izaten al zien ordun? Esaten da gaur baiño gehiago izaten zala angula ordun eta.

-Angulak izen bai, eta gaur errekatian ez dagola ezertxo ere, kangrejok berak´e bai etxen ikusten nittuen ekarrita.

-Arraiñe jaten zenun?

-Bai, bai. Antxoak, sardiñak, peskadillak, kariokillak, peskadillak, noizin behin, ez beti. Beti iganden, ordun, beti estraordinarioa pixkat. Igandetan beti izeten zan. Jateko kontun ondo. Klaro, gerra geroko kontue beti esaten zan jesus! Ez, goseik ez. Basarritik e, nola giñen zaharrenak, lagundu´re bai.

1.19. Eskola nazionalean eta mojetan ibilia

- **Hizlaria(k):** Urretagoiena Murgiondo, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-026/002
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:03:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Umetan Ordiziako eskola nazionalean eta mojetan ibili zen. Neskak eta mutilak batera joaten ziren eta egunero errezatzen zuten eskolara sartzean.

Transkripzioa

- Baiño noa jun ziñen eskolaa? Zenekin ikasi zendun?
- Nazionaletaa, "escuelas nacionales".
- Eta zazpi urte arte ez ziñen eskolaa jun?
- Han Mutillon zeozer... A! Ordizin? Ordizin... zazpi urtekin eaman zien hauntza, bai.
- Aurretik Ordizin ibili ziñen eskolan?
- Bai "las monjas francesas" esaten zien, bai. Sei urtetik zazpi urtea, bai.
- Eta ze eitten zenduen euskeraz ala erderaz?
- Erderaz, erderaz, bai.
- Ta zer zan, goorra?
- E?
- Goorra al zan?
- Goorra... ba, han ez gendun ikasi, sei urtetik zazpia a-e-i-o-u...
- Denbora gutxi.
- Denbora gutxi, bai. Ta geldi eotea. Badakizu, garai hontan ez giñen geatzen ta mojak, ba, demanda ta...
- Eta neska ta mutil batera juten ziñeten?
- Batea, bai.
- Eta dotriña eakusten al zizuen?
- Dotriña? Bai, baita, [ean]... ez naiz gogoratzen ya. Bai, dotriña 're bai, hoixe. Errezok eta gauzak bai. Gure eskolea hori izaten zan!
- Ze in behar izaten zenduen monjetan, egunero errezatu eskolan igual?
- Egunero juten giñen, bai.
- Baiña errezatu eskolan?
- Errezau ere bai.
- Egunero-egunero?
- Sartzeekin ta atatekin ta danen, bai. Monjak zien.
- Ta ze errezu izaten zan sartzeko ta ateatzeko? Luzea? Errezu luzea eo...?
- Errezau? Ba, ez dakit [...], "aite gurea" edo ez dakit zer, ez naiz gogoratzen.
- Ta gero esaten dezu hamar urtekin Mutilloa? Zazpitik hamar urtea Mutilloa jun ziñen?
- Bai, zazpi urtekin Mutilloa. Zazpi urtetik hamar urtearte.

1.20. Euskaraz hitz egitea debekatua

- **Hizlaria(k)**: Ormazabal Garmendia, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-028/003
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:04:55. **Bukatu**: 00:07:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
 - Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Fraide frantsesekin ere ibili zen eskolan. Euskaraz hitz eginez gero, zigorra izaten zuten. Izen euskaldunen inguruko orduko kontuak eta pasadizoak. Neskak eta mutilak aparte ibili ohi ziren eskolan.

Transkripzioa

- Ni ibili nitzen gero, gero fraile batzutan hemen ibili giñen gero, hementxe, hemen fraile batzuk bazien...
- Karmelitetako hortan?
- Bai. Porke hue, hue txikitan zan, hue... nik zenbat denbora ingo nun, ba? Ez dakit. Urtebete, bi urte ingo nitun? E? Eta gero hemen zeak, frailek zien hemen. La Sallekok ez, e? Frantsesak. Hor´e ibili giñen.
- Nun zeon eskola hoi?
- Hemen, La Salle, ez dezu zuk ezautu eskola, sekula ez dezu ezautu? Hortxe. Hor pation, hortxe zeon etxea. Oin bota due, oin dala urtebete edo bi urte bota due hoi aparkamentuk-eta eitteko.
- Zaharren egoitza baiño beherago, ez?
- Martina: Eta karmelitak ere...
- Hoi Milagrosa edo ez zan?
- Milagrosa da goien, residentzin ondon Milagrosa. Hue oaindio han dao. Milagrosako edifizioa oaindio han dao. Bai.
- Eta horrea pasatu ziñenen, fraileekin´e baita erderaz?
- Bai, bai, bai, bai, dana erderaz zan orduan, e! Ordun euskeraik... ke ba! Ezta, ezta, ezta...
- Eta euskeraz eitten bazenduen? Kastigau? Ze kastigo izaten zien?
- Martina: Bildurra zegon.
- Ke ba!
- Ein´e igual ez zenduen ingo bildurrez, ezta?
- Martina: Bai, bildurra zegoen.
- Dana erdereza zan. Ordun euskeraz iñok ez zuen itten, e! Guk etxen eitten gendun. Nik daketen euskerea da etxekoa, e! Nik ez det ikasi, ikastolan ez naiz ibili! Nik gramatikaik-eta euskerazkoik ez dakit. Ikasitakoa.
- Martina: Izenak eta... Andoni, konkretoa, nere lehengusuari jarri zien izena. Eta bildurrez, borratzeko ta... bildurrez.
- Euskaldun izena zalako, ezta?
- Martina: Hau, oain... ematen du lasai bizi...
- Ni lñaki naiz, baiño ordun kendu in zien lñaki ta Inazio izandu naiz. Oain hamar urte bitarte ofizialki Inazio izandu naiz ni. Ta aizkeneko kotxea erosi nuna, oain daukatena, oain dala 10-11 urte, esan nun: "Aprobetxatu in behar det aldatzea ahal baldin bada izena". E? Eta juzgadura jun nitzen, epaitegira, eta: "Noiz jaio zea, ba?", "Holako egunetan" ta hala begiratu zun liburun eta esan ziten neskak: "Aiba! Ba, zu lñaki zea! Zu hemen lñaki... Bataiatu ziñenen lñaki jarri zizuen eta juzgadun lñaki azaltzen zea. Oseake, ez daukezu ezer paperik ezer egin beharrik". Ordun hasi nitzen, ba, karneta, bai konduzitzekoa eta bai identitatekoa, ba, aldatu in nittun. Ta kotxen dokumentzioa, pues, danak.
- Asike, garai hartan, ordun, euskeraz itteko bildur handia eongo zan...
- Bai, bai. Osea, dan-dan-dan-danak... Nik dauket bigarren anaie Ibon izena duna eta hori´re kendu in zien eta Juan jarri zioen. Juan...
- Eta neska ta mutil batera juten ziñeten eskolaa?
- Ez, ez, ordun ez.
- Ez frailetan eta ez karmelitetan?
- Frailetan neskarik ez zan ibiltzen. Mutilek bakarrik.

1.21. Eskolan, mojetan eta Karmelitetan ibilia, besteak beste

- **Hizlaria(k)**: Ormazabal Garmendia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber

- **Erref:** ORD-029/002
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:01:57. **Bukatu:** 00:04:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Eskolara lau urterekin mojetara hasi zen eta ondoren karmelitetara. Eskolaz kanpoko ikasketak bi anaiekin egin zituen. Ondoren Beasaingo La Sallera joan zen, eta, gero, mekanika ikastera Iruñeko salesiarretara.

Transkripzioa

-Bueno ba, eskola, ya, eskolara oso goiz. Lau urtekin o. Ordun esaten genduna "Monjas del Hospital", Ospitaleko Monjak, horik zien, ematen zuen eskola elizan ondoren daon Kasa Torrea. Gero handik irten ta zortzi urtekin eo hola Karmelitan.

-Nun zeuden karmelitak?

-Karmelitak zeren ba oain hemen Plaza Garagarzan, Ordiziko Plaza Garagarzan. Oain hor goien taberna hoik badare ba, Coyote ta. Etxek inda dare oain baiño hor zeon kolegio hori. Eta ibiltzen giñen neskak eta mutillek.

-Eta esan didazu lau urtekin monjatara hasi zinela. Ze moduzkoa zan monjatako eskola. Gogorra zan?

-Bueno, gogorra zan dana. Hoixen gogorra, gogorra. Umetan ta ez naiz gehiegi gogoratzen, baiño gero ia hemendio, oain esango dizut, karmelitario gero hemen, oain hemen goien daon zera hortan, aparkalekue daona, gure inguru hontan hor zeren, nik ez nittun ezautu baiño hor egon zien praillek, baiño gero gerra ondorenen, gerra denboran ba bialdu in zittuen edo espulsau edo kanpora, eta ordun tarte batzuk egon zien hemen, urte batzuk, hemengo herriko bertako bi maixuk, bi anaik, Hidalgok, Hidalgo, Joyería Hidalgon ze hontako osabak, hoik ematen zittuen klasek baiño zan hola gauza probisional bezela.

-Partikular bezela?

-Bai. Baiño hor pixkat ibilli nintzen baiño gero Beasainera Lasalle. Beasainen Lasalle, han ba hiru bat urte ein nittun, ta gero handik Iruña Escuela Profesional Salesiano, Don Bosco fundadorea, salesiano, ta han ofizioa ikastea. Han ofizioa. Ordun ez zeon, klaro, Goierriko eskolaik eta ez zeon, han ordun ni jun nitzan han "Maestría Industrial" eittera, Mekanika. Hamabi urtekin, hamahiru urtekin eskas sartu nitzen da hemezortzi urtekin. Eta gero, klaro, han hemezortzi urtekin bukatu nun eta gure aittek esan zin: "Bueno, oain komeni dana da lehenbalen soldauskara jutean, lenbalen soldauskara". Soldauskara ordun juten zan boluntario. Boluntario ez batek gogoa zeukelako soldau juteko, baiño lenbalen karga hori kendu gaiñetio.

1.22. Mojekin dena gaztelaniaz

- **Hizlaria(k):** Ormazabal Garmendia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-029/003
- **Iraupena:** 0:06:21. **Hasi:** 00:04:39. **Bukatu:** 00:11:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Eskolan idazteari ematen zioten garrantzi gehiena, baina denetik ikasten zuten. Mojak kanpotarrak ziren eta dena gaztelaniaz ikasten zuten. 400 pezeta ordaintzen zuten Iruñeko eskola, garestia zen. Soldadutza baino gogorragoa zela azaltzen du; orduko eskolako eguneroko bizimodua. Tailerra zuten eta han aritzen ziren praktikak egiten.

Transkripzioa

-Eskola bueltatu [...], ze ikasten zenuen eskolan? Adibidez monjatan ta karmelitetan eta ze ikasten zan? Matematikak eta...

-Bai, bai, danetatik ematen zan baiño garrantzi haundie ematen zaion idazteko posturari, ordun kaligrafia ta esaten zaiona ta. Jeneralen gure adiñakok nahiko ondo idazten degu, osea, hasten geanean eskuz ba... garrantzi haundie zeuken. Eskola ondo ematen zan danetatio, e. Bai bai.

-Karmelitetan ta monjatan, monjak erdaldunak izango zien, ezta? Kanpokoak.

-Bai, bai. Uf! Eta gaiñeraz baldin bazan e, bat hemen bazan "Monjas de la Caridad", bat bazan euskaldune, baiño harrek ez det uste, eskolaik ez zun ematen eta halare ez zun euskeraz eitten, e. Nik dauket hor, Iruñan neola han gehienak zien katalanak. Hango maixuk eta katalanak zien, nahiz Iruñan egon, baiño zan, hola zan zeauta. Eta bat bazeon, ez det esango izenik, baiño bat Azpeitikoa, ba nik bost urten behin'e ez nun euskeraz ein berakin. Apaiztegiko (Azpeitiko?) gure maixu bat. Ba gero handik urte askota alkartu nintzen berakin eta ordun dana euskeraz eitten gendun. Baiño ordun [...] zeon giro bat.

-Euskeraz egitten baldin bazenduen, kastigoren bat?

-Ez, ez, kolejion ez. Esaten dizut, nik Tolosako Elduaingo lagun bat neuken, Anbrosio Dorronsoro; guk biok behintzat euskeraz eitten gendun; eta gehio're bazeren, Zegamakok eta, baiño gehienak zien hangok bertakok, Iruñakok. Porke garai hartan kostatzen zan nere hille guztiko mantenu ta ikasi ta danak, erropak eta gauza hoik aparte: gauza bat da aparketak erosi baldin bazien hori aparte etortzen zan, gero etxera etortzen zan beste kontu bat aparte. Baiño zien larehun pezta, ia bostehun pezta, ez zan iristen, eta haik ordaintzeko nahiko lana. Esaten dizuten bezela jende gehienan gehiena naparrak zien eta gehienak Iruñakok. Haik zeuken subenzioa Diputazion babesakin, haik debalde zeren, baiño guk kanpokok... Esaten zuen: "Los vascos a pagar".

-Lo ta jan ta ze eitten zenduen, eskolan bertan?

-Bertan, bertan, bertan. Bueno, bueno, bueno, hue bai zala... Soldauxkakoa baiño gogorrako, e.

-Gaizki?

-Han gure eguneroko zea zan, goizeko zazpietan jeiki. Guk itten gendun gure ohiak. Bai, hori esaten dizut ni hamabi urtekin, e, hamabi urtekin. Norberan ohia ein, ze jantzi behar zendun... Klaro, ebia eitten baldin bazun zapatak, eta ona eitten [bazun] alkandora edo beste ta beste. Hoi esan bezela, bueno, hori aparte, zazpietan jeiki, ordu erdi genduken itteko zera hoik, gauza hoik, gure burue prestatu, ta eitten gendun, jaixten giñen kapillara. Egutero meza, egutero genduken meza, goizeko zortzik aldera. Zortzietan igotzen giñen gora, klasetara, lokalera, gora. Eta ordun eitten gendun estudiatu, estudiatu, bai, klaro, eta beatziak aldera gosarie.

Gosarie ordu erdi bat hola izaten zan eta gero jolasa pixkat ein; gehiena zan ba komunera jun eta hau ta beste. Eta gero ia beatieterdian edo taillarrera. Eta taillarren langillek bezela, buzoa jantzi eta jartzen giñen bakoitze bere makinan aurren o "lo que sea". Eta praillek errezoa eitten zun, hori dan, bai, errezoa. Errezau, aitaran in eta hasten giñen lanen. Tornero torneroa zana, serio asko jarri han; da bestek limakin ta, automoille, porke aizkeneko urten ematen gendun automoille ere bai. Oso konpletoa zan, hasi zeatio eta automoillekin; gaiñez bukatzen gendun karneta, karnetakin da dana boltsilloan ateatzen giñen handio. Konpleto, mekanika konpleto. Hue bai zeola oso ondo, e. Eta geo estudiok eta oso berezik, e, oso..., oain esaten dan bezela "integral". Ondo, ondo, ni oain konturatzen naiz...

-Ordu asko sartzen zenduen ikasten.

-Bai. Segittuko deu ordun ba, sartzen giñen esan bezela beratzu terditan gutxi gorabehera taillarrera, ta ateatzen giñen, hamabik arte taillarren, ta gero hamabitatio ordu bata dibujo, egunero-egunero dibujo. Beste sala batera juten giñen ta dibujo. Handik jetxi baiño zera hoik danak itten gendun, esan leno esan detena, gosaldu, atera pixkat, ordu erdi bat o eitten gendun han fubolen ta jokatzan, baiño gero, esateko modun, taillerrera sartzeko ez giñen sartzen bata besten atzetio, ez, ez. Beti zan pation danak formauta. Ikusten die ba pelikulan, nola esaten die kartzelatan edo soldauk berak nola jartzen dien formauta? Gu're...

-Filatan.

-Bai bai, gu're igual. Guk genduken, hiru zera zeren, ordun esaten zien erderaz: "Mayores, medianos y pequeños". Grupotan beti-beti-beti. Ateatzen zien zarrenak, edade haundigokok, eta ra!, haik bukatzen zienen bestek atzea, bestek atzea. Igual taillerretik ateatzen giñenen berriz'e filan [...]. Gora igotzeko berdin: berriz'e formau, osea, dana zan eta. Ze esango dizut, horregatik esaten dizut soldauska baiño nik uste det gogorraoa zala. Ba hoge metrotik hoge metroa praille bat. Erabat debekauta...

-Danak praillek zien?

-Bai, praillek, praillek, bai. Bueno praillek zien, beste batzuk zien, danak zien erlijiosok esaten dana, baiño taillarran gure maixuk zien sotana barekok, ez zuen mezaik ematen, baiño zien bere botok eta dana einda. Bere botok. Eta gero beste batzuk zien ya apaizek. Apaizek. Haik ematen zuen eskola, bestek'e bai, danak ematen zuen eskola. Gero aparte ba meza, han bertan konfesau, aitortu, han bertan, dana eitten gendun han dana barrun.

1.23. 13 urterekin Iruñera ikastera

- **Hizlaria(k)**: Ormazabal Garmendia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-029/004
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:11:00. **Bukatu**: 00:12:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- **Laburpena**: Eskolako tailerrean liman, engranajea... aritzen ziren. 13 urterekin joan zen Iruñera, aitzak bultzatuta, etxean lantegia izanik harako prestatu zedin.

Transkripzioa

- Makinatan ze egiten zenuen, ze lan?

- Honbre, praktikak ba kurso bakoitzek, aurrenengo kursoa zan ba limakin, ajustek eta. Oain ia limea ezta apenas ibiltzen baiño ordun garrantzikoa zan ordun. Hue zan oiñarrie, ofizion oiñarrie zan liman jakitea. Gero beste lenengo eta bigarren urtea, kurso hoik zan lima. Lima eta zera hoi. Hirugarren kurso hoi zan ia garrantzi haundie; ia zan ba engranajek o zera hoi. Hor eskola bastante behar zan, formulak eta. Formulak eta ekuaziok eta logaritmos, hoik danak. Trigonometria.

- Aurretik pixkat landuta zeukazun edo ez?

- Nola?

- Zerotik hastea bezela harutza joandakoan, ala?

- Ez, ez. Beasaiñen Lasallen han'e ondo. Lasallen bai.

- Zenbat urtekin joan zinen harutza Iruñara?

- Ba hamahiru-hamabi, hamabi t' erdi; hamahirukin, gutxi gorabehera.

- Eta etxekoei nola esan ziezun hara joan nahi zenuela?

- Ez, nere aitten zera izan zan. Eztakit berak zeatik ikusi zun hori. Bueno, bu-bun-bun, hau. Guk genduken hemen taillarra, egurrekin lana eitten zan, baiño nik uste'et aittek ein zula bista guztikin eukitzea mekaniko bat etxen. Gure aitte zana oso azkarra zan, basarrikoa eta Altzagakoa baiño zan persona bat oso azkarra. Eukitzen zun, asteazkenero bazun hemen baten bat, baserritarren bat, beti zeozer galdezka: Joxemiel, hau eta bestea, galdezka. Hau hola n behar da edo bestera. Garai baten esaten dana xaxiabogatue, xaxiletratue edo. Halako, bai.

1.24. Ikastolako sortzaile eta diru arduradun izan zen

- **Hizlaria(k)**: Ormazabal Garmendia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-029/005
- **Iraupena**: 0:03:59. **Hasi**: 00:12:48. **Bukatu**: 00:16:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elxpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Umetako laguna izendatzen du. Ikastolako sortzaileak izan ziren eta ezkutuan ibili ziren lanean. Diru arduradun izan zen Alejandro. Francoren garaia zen eta beldurrez aritu ziren lanean. Ez zuten irakasle euskaldunik bilatzen eta ikasi egin behar izan zuten irakasletzarako.

Transkripzioa

-Hemen eskolan ibili ziñen Ordizin, ta lagun kuadrilla Ordizikoa zeukezun? [...]

-Bai, bai, bai, bai, bai. Nere koadrillakoa zan ba zoritxarrez oain dala... bueno, hil zan, Joxe Ramon Gaztañaga. Prezisamente ikastolako-ta lehendakarie zan, lenengo hue izan zan, eskerrak harri gaur dao ikastola Ordizin. Ta ni're beakin batera bost urte ein nittun ikastola sortu zanen. Hori're beste pelikula bat da hori, booo. Hori bai izan zala gogorra. Politika aldetio oaindio zera [gabe] zeon, dana ezkutuka, diruik bate ez genduken, bate ez, e! Komeritan, bueno, bueno. Asi ke danetatio...

-Zer urtetan izan zan hori?

-Oain urtea ez naiz gogoratzen.

-O zuk zenbat zeuzketzun gutxi gorabehera?

-Ba nere alabak dauzke berrogeita hiru urte, ta aurreneko zeak izan zien, osea ke berrogei urte edo izango die. Bai, oain in da, prezisamente oain in da berrogei urteko ikastolako sortu zala.

-Ta zu zer aittu ziñen, berari laguntzen o...?

-Diru arduradune, ez zeon dirun arduradune. Diruik ez zeon, eta haren arduradune nintzen ni. Joe. Festatan-ta jartzen gendun, bakizu, betikoa; taberna jarri ta nola edo hala, baiño oso zea zan politika aldetio, oaindio Franco're bizi zan ta beti bildurrez, bildurrez. Elizan babesen eta beti ezkutuka-ezkutuka, ba bueno. Gaur arte.

-Zer zan, Ordizin zan?

-Bai, bai. Lenengo izan zan hor, hor atzen daon taillar bat hustu zan eta hango lokaletan; hitz ein giñun been nausi jabeei ta baiezkoa seittun eman zigun ta huxkeri bat kobratzen zun, o ez dakit. Apenas. Ta han bi gela. Ta gero hemen'e bai. Hemen'e gu hau utzi eta Zaldibira jun giñen, taillera han montau gendun taillerra eta hau dana, lokal hau dana hutsik geldittu zien eta ordun hemen zazpi urten egon zan ikastola. Hemen.

-Maisuk eta ikastolakok zuek aukerau zittuzuen?

-Bai. Ordun zeon euskera aldetio ez zerela andereñoik, ta eskola pixkat o zeukenak ba harrek preparau ein zien, kursillok eta abar ein da lenbalen bere titulook eta atera; baiño ez zeon, buu. Maistrak eta maixuk bai baiño euskeraz ez zekienak.

-Gehiena erderaz itten zan?

-Klaro. Prezisamente zien etxen euskeraz eitten zuenak baiño tituloik ez zeuken,ta ordun ba lenbalen.

-Eta nolatan sortu zitzaizuen ikastola sortzeko idea hori?

-Ni aurreneko pausok ikastolan ni ez nintzen egon, baiño hemen bazeren jendea ba zera hori zeukena, barrungo moxorro hori. Eta gero hemen Beasaiñen ta ingurun Goierri danen ba zera hoi zeon, egarri edo gosea edo ze esango degu. Eta hola zeatu zan.

-Eta? Gerra haundia euki zenuen edo?

-Ez, ez. Pixkana-pixkana hasi zan gauzea eta klaro, ta gero jendek ba ikusten zun...

-Beharra?

-Beharra eta gero gu juntan-ta gendenak aurreneko zerak ba herrin ondo ikusita genden, osea, ondo, ikusten zuen ba jende fundamentuzkoa giñela edo enfin. Ordun gurasok'e pixkat zeatu ein zien, iriki ein zien.

1.25. Diru-laguntzei esker, ikastola zutik

- **Hizlaria(k):** Ormazabal Garmendia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-029/006
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:16:47. **Bukatu:** 00:19:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elxpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Diru-laguntzak jasotzen zituzten eta horri esker bizi iraun zuen ikastolak. Alejandrok 5 urte egin zituen ikastolako lanetan. Anekdotak bat aipatzen du.

Transkripzioa

-Zenbat lagun juntan?

-Zortzi bat. Baiño beti gertatzen dana, zortzi bai baiño gehienak ba, zortzito efektibo esaten dana igual lau o bost. Bueno, baiño hori alde batera utzi ta, hamar bat gehiena. Bilerak eta. Nik egie esan, nahiko lan banun dirukin, porke lehen aittatu degun karmelitan kolegio hori're, bueno, hemen gero eta haundigo eitten ari zan, gero ta jende gehio ta, erosi zan, soziedade bat formau zan, Jakintza, eta ordun akzio bitarten da erosi ein zan karmelitan kolegio hori. Hue izan zan diferentzie haundie, bakizu. Lehenao're eskola ematen zan hor, eta ordun gelak eta hoik danak ia hobeto zeren, baiño hala're hue txikitxo geldittu zan, txikitxo. Ta batzuk baten, bestek besten, ta kasik erabat... Ia ahaztuta nao gauza askokin baiño.

-Ikastola jarri zenuten garai hartan diru-laguntzarik eta izaten zenuten?

-Bueno. Jendek ematen zuna ta gero enpresetara ta zeatzen zan.

-Jendeak bazeuken laguntzeko zer hori?

-Bai. Hemen bazeon Lutxi, guk esaten genion Lutxi Komadrona, harrek ezaupide haundik zeuzken eta harrek diru asko zeatu zun, bildu zun. Gero ba gurasok genduken ba hillero, kuota bat pagatzen gendun. Eta gero betikoa; festatan, festatan diru asko ateratzen zan; eta hola, nola edo hala ba. Gero ia hasi zien subentziok eta gauzak. Nik utzi nion, nik bost urte ein nittun, eta nik utzita gero Euxebio Itziarrek hartu zun nere kargue eta ia hasi zien subentziok eta pixkat arnasa hartzen. Baiño ni ordainduta nao Ordiziko festatan maixu, maixu bat etorri ta hola zeola, diruik bare, ta kajoitio bertatio tabernatik hartu eta "a cuenta", aiba, eman dirue ta hola.

1.26. Beasainera eskolara anaiekin bizikletaz

- **Hizlaria(k)**: Ormazabal Garmendia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-029/007
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:19:11. **Bukatu**: 00:20:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- **Laburpena**: Beasaina eskolara joaten zenean, hiru anaiekin batera joaten zen bizikletaz. Bizikletaren kubiartarik ez zen izaten orduan. Goiz eta arratsalde joaten ziren eskolara.

Transkripzioa

-Eta ikastola denboran Beasainera ta juten ziñenean, oiñez?

-Bai. Oiñez... Ordun momentu baten ibili giñen hiru anai, ta bizikleta bat genduken. Ta gero zarrenak utzi zionen, ba bueno. Gero bi bizikleta baiño, joe! Pentsau zazu, kubiartak, bizikleten kubiartak'e ez zeon. Osea, zaille; guk bagenduken bizikletak eta kubiartaik ez. Ta askotan oiñez juten giñen. Jolasen ta saltoka ta zea ba. Kuadrillan juten giñen Ordizitio.

-Eskolako ordutegia ze izaten zen?

-Ba gutxi gorabehera beratzitatik, beratzitan izango zan? Zortzi t'erdik beratzitan hamabik arte. Etxera etorri, bazkaldu eta berriz'e ordu bitarako sartzen giñen. Ta atsaldeko bostak aldea edo, bostak arte.

1.27. Eskolako zigorrak

- **Hizlaria(k):** Ormazabal Garmendia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-029/008
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:20:08. **Bukatu:** 00:21:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena:** Eskolako zigorrak aipatzen ditu. Maisuak mojak baina gogorragoak ziren.

Transkripzioa

-Eta kastigue, zigorra baldin bazeon ba han geldittu ber.
-Zer zigor izaten zittuzuen eskolan?
-Ba izaten zan beti ba lanak eittea, ba idatzi hainbeste zea edo kontuk, matematikako kontuk, hori izaten zan kastigue. En kanbio, lenao esan dizutena, Iruñan han kastigo haundiña izaten zan patioai bueltak ematea. "Tú me vas a dar 20 vueltas al patio". Benga, kanpofubolai buelta. Holako... Eta gero aparte're bai, e.
-Eta reglakin eskuan jotzea eta horrelako gauzak esaten dittue ba. Holakorik ez?
-Bai, bai, garai hartan bai. Monjak eta ez baiño, monjak igual reglakin, baiño maixuk zeren tokin, Iruñan-da, ba-bai, eman, e!
-Maixuak monjak baiño gogorragoak.
-Bai. Hola zan garai hartan, hemen da eskola nazionaletan; danen, jenerala zan. Mutil batei jotzea, puf, mutilkoskor batei jotzea, bueno, hori zan "a la orden del día".

1.28. Soldadutzara Castejonera, abiaziora

- **Hizlaria(k):** Ormazabal Garmendia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-029/010
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:22:52. **Bukatu:** 00:24:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Castejonera joan zen soldadutzara eta militarren bonba almazen batean egoten zen mendiko kanpamendu batean. Abiaziokoak ziren eta beste soldaduak baino kategoria gehiago zuten. Maila altueneko agintariak hobeak ziren.

Transkripzioa

-Nora joan zinen soldauskara?
-Castejón, Tudelan ondon. Tudelan inguruan. Castejón, eta genden mendiin, han zeren pabelloi haundi batzuk bonbakin-da beteta dana. Zan almazen bat bonba militarrena,, osea bonbak.

-Eta han egoten zineten?
 -Han egoten giñen. Hogeia bat. Ez, ehun soldau genden, porke gure zera zan Zaragoza, gure agintarik Zaragozan zeren, gu han genden mendin galduta.
 -Kanpamentua?
 -Zan kanpamentu bat bere etxekin-da.
 -Mendian etxea zegoen?
 -Bueno, kuartela, konpañiek esaten zaiona, barrakoiak. Baiña ez, ondo, etxek... Eta han abiazion alde haundie zeon, beste soldau, betiko soldauekin konparauta gu bai jantzi aldetio ta oso elegante jazten giñen.
 -Ze jantzi?
 -Urdiñe, gutxi gorabehera urdin klaro bat, hola hau bezelakoa edo. Baiño oso elegante ibiltzen giñen, e. Gero hogeia urte gaiña. Guapito que vamos.
 -Gogorra soldaduxka? Kapitanak eta gogorrak?
 -Zenbat eta mailla haundigoa zerak, persona hobek zien. Behekok beti izan due fama txarra sarjentok-eta, eta egie da. Nik euki nun, nik soldauxkan euki nun, ofizinakoa, teniente bat hola, mailla hortan, kategorin, oso-oso jatorra, gizon baiño oso-oso ona.
 -Nundarra zan?
 -Naparra edo riojanao uste det zala. Baiño zan gizon bat baiño kategoria, e.

1.29. 10 urtera arte Urkia auzoko eskolan

- **Hizlaria(k):** Barandiaran Unanue, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-031/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:03:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Urkiako eskola nazionalen ikasi zuen, irakasleak erdaldunak eta kanpotarrak zituen. Biderik ez zegoen eta oinez edo zaldiz joaten ziren irakasleak. Adin ezberdinetakoek batera ikasten zuten. 10 urtera arte ibili zen Urkian eta gero Lazkaoko fraideetara joan zen urtebeterako ikastera.

Transkripzioa

-Eta eskolara zer juten ziñen, haruntza?
 -Auzon bertan eukitzen gendun guk eskola.
 -Urkian bertan?
 -Urkian bertan, bai.
 -Zer zan, apaizetxea edo holakon bat o?
 -Ez, ez, ez, eskola nazionala zan. Han eskolan guk euki genduzen maistrak bat Donostikoa, besta bat Valladolizkoa eta besta bat euki gendun Naparron Espinalakoa. Osea ke, Donostikoa, euskeraz hola zakiña Donostikoa, baiño jolin, Valladolizkoak harek, etorrita, horrea Urkira igo zan eta harutza ez zeon ez karreteraik eta ezer. Hoik igotzen zien oiñez o zaldi gaiñen edo hola.
 -Orduan eskola erderaz emango zenduen?
 -Bai, bai, bai, dena erderaz.
 -Zer ziñeten, neskak eta mutillek, danok alkarrekin?

-Bai, danok batera.
 -Edade berdinekoak ala nahastuta?
 -Ez, ez. Egongo zien hiru-lau urten diferentzikok egongo zien. Porke ni han ibilli nintzen hamar urte arte. Hamar urte arte, eta gero hamar urtekin Donostiko maestra horrek esan zin: "Jolin, zuk estudiatzeko balio dezu", eta hau ta bestea ta esan zin. Baiño han hamaika senidekin ezin gendun, guk ez zeon diruik iñoa ataratzeko. Ta bueno guk ze ta. Jun nitzen Lazkaoko frailetara jun nitzen.
 -Hamaika urtekin?
 -Bai. Ta han egon nitzen ba urtebete. Urtebete egon nitzen eta han ez nun ikusten, aurrerabideik ez zien ematen porke nik urtebete ein nunen nik pentsatzen nun ba batxillerra, ordun batxillerra eitten ari giñen eta zer, gu baiño gaztegorik bialdu zittuen Donostiara batxillerra zeratzera, eta guri ez zigun bialdu. Neri bata ta beste. Nik esan nun, hamen ez ez, aurrera segitzeko nik hemen... Eta utzi ein nun. Eta Lazkaotik urte bat ein nun, kurso bat ein nun eta ya utzi.

1.30. Jaunartzea egiteko, dotrina derrigorrezkoa

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran Unanue, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-031/003
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:03:14. **Bukatu**: 00:05:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 Euskara » Euskararen egoera
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Urkian eskolara sartu eta lehenengo Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Itsasondoko apaiza joaten zen auzora eta dotrinako lezioa hark hartzen zien. Jaunartzea egiteko derrigorra zen dotrina jakitea.

Transkripzioa

-Eta esan dezun Urkin ibili zinela erderaz ikasten da hola. Ze ikasten zendun?
 -Bueno guk ein gendun Estudios Primarios esaten zana. Atara gendun eta Donostira jun da ein gendun esamiñen bat.
 -Baiña ze ikasten zan, Matematikak eta Gramatika eta holako gauzak?
 -Bai, bai.
 -Matematikan zerak, lau reglak, eta gramatika're bai.
 -Euskeraz hitz egiterik bazenduen, kastigorik eta izaten zenduen?
 -Bueno. Bai, bai, izaten holako zera bat eta bueno. Aurrena, aurren-aurrenetik behintzat, aurreneko urtetan behintzat 'Cara al Sol' ere kantatzen gendun.
 -Hori zer zan, derrigorra?
 -Bai, bai. Aurreneko zeran, e, aurreneko zera.
 -Eskolan sartu eta 'Cara al Sol' kantatzera?
 -Bai, bai. Aurreneko zera behintzat hori akordatzen naiz nola zeratzen gendun.
 -Eta kastigorik jartzen zizuen euskeraz egiten bazenuten, edo ez zenuten batere egiten?

-Ez, ez. Euskeraz eitten gendun guk, bai bai, baiño ez. Etzan eoten, hainbesteko kastiguik etzan eoten.

-Eta dotriñarik edo ematen zenduen?

-Bai, bai, dotriña, juten zan, ermitta bertan dao, juten zan ba Isasondotik apaize juten zan. Bueno, harek e, eskolan normalen ematen tzan zea, dotrinako zea, baiño gero urteen zera apaize juten zan eta hartzen zizun urteko ze eitten zendun edo ze zeatzen zendun harek ematen zizun bere berekrito edo zera.

-Eta dotriña horrek zertako balio izaten zuen?

-Bueno. Sei urtekin edo hola komunioa eitten zan, komunio txikia esaten tzana, ta gero hamar-hamabi urtekin gero komunio haundie. Oaiñ ezta hori zeatzen, baiño leheo eiñ eiten tzien. Aurrena komunio txikie sei-zazpi urtekin, eta gero hamabi-hamahiru edo hola urte hoikin eitten tzan komunio haundie esaten zana. Eztakit ze eitten zon harrek, baiño ze zea zeuken, baiño garai hartan eitten tzan hori.

1.31. Otorduetan txerrikia nagusi

- **Hizlaria(k):** Barandiaran Unanue, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-031/009
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:17:55. **Bukatu:** 00:19:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Eguneroko otorduetan sagardoa eta ura edaten zuten. Etxean bazituzten sagardo upelak. Jateko nagusia potajea eta txerrikia izaten ziren. Urtean bi txerri hiltzen zituzten eta baita txahalen bat ere. Hori bai, ezkutuan. Txerria hiltzea libre zen, baina txahalik hiltzerik ez zegoen.

Transkripzioa

- Eta otordutan ze ohitura zenuten? Sagardoa edaten zan?

- Bai. Etxen sagardoa. Ardoik ez zan ordun esistitu're eitten, e. Ude ta sagardoa. Sagardo-tenporadan sagardoa, sagardoa zeon arte.

- Barrikarik eta bazeon etxean sagardotarako?

- Bai, bai. Bi edo hiru barrika beti egoten zien.

- Eguneroko otordutan zer jaten zan?

- Jolin jan? Ba potajea eta gero txerrikie. Han bertan txerrik hiltzen zien eta txerriki gauzea.

- Etxean txerria izaten zenduen?

- Bai, bai.

- Urtean zenbat txerri hiltzen zenduen?

- Ba bi bai. Eta askotan ixkutuka txahalaren bat ere bai. Ordun ez zeon.

- Ez zuen uzten?

- Ez, ez. Ordun guardia zibill pareja juten zan, betik rebisioa itten zuen. Guk askotan holaxe gauen ganbaran hil da [asko ixkutun]. Bai, bai, txahalik eta hola lehen ez zeon hiltzeik. Txerrie bai, txerriekatik ez zuen zeatzen, baiño txahala ta hoi ez zizuen ametitzen baserrin.

- Zer egiten zuten, multan bat jarri?

- Jolin, multa. Ez dakit ze ingo zuen, gu artan umek giñen ta zea, baiño nik

baakit ezkutuka txahala hiltzen gendula bai.
- Zeiñek hiltzen zun, aittek?
- Aittek, bai.

1.32. Txerrikia lehertzeko piper-hautsa eman

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran Unanue, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-031/011
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:21:54. **Bukatu**: 00:22:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Txerrikia kutxatik ateratakoan piper-hautsa eman eta lehortzen jartzen zen zintzilika.

Transkripzioa

-Pipar-hautsa ta ematen zitzaien?
-Gero. Gatza eta gero. Gero ia sekatzeko zean. Gero ataatzen zendunen, ordun ematen zion piper-hautsakin da zean, hua jartzen zan eta gero zintzilika ba sekatzeko. Txorixok eta hoik'e bai, guk txorixok eta hoik'e ba bere zea baten, makilla batetan ba han egoten zien zintzilika.

1.33. Soldadutzan gertatua

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran Unanue, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-031/025
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:50:12. **Bukatu**: 00:51:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Soldadutzako lagun batekin gertatutako pasadizoa kontatzen du. Oinez eta metroan ibiltzen ziren Madrilén.

Transkripzioa

- Porke nik anekdota bat badauket. Hauntza, ni han neon, ta nere hurrungo errenplazua jun zan Gernikako bat. Ta hua ibiltzen zan, ehuneko gizon proba o ibiltzen zan hua, ehun ta gehio kiloko zea zan. Eta hue ba txofer, jenealan txofer jarri behar zuela. Ba Madrid nik ez nun ezautzen, ta kotxekin ibiltzeko are oindio gutxio. Eta hauxen, hue hauntza aillau zan, bakarren bat aber ezautzen zun, ta nere izena eman zun. Ni, hoixe, bi eunen, bi eunen ibili giñen, ta nei ezautzen zilla atea zan. Komandantek nei hots ein zin, ta joe, "aber!" Madriden eakusteko hari kalek. Kalek, neonek ez nekiñak. Hala, atea giñan biok oiñez, ta geo bueltan etortzeko komerik kuartelea.
- Galdu, geo!
- Kuartelea etortzeko buelta. Geo eman zien milkinientos ordun seata, milkinientosko haundi hoietako bat...

- Beak utzi zizuen kotxea?
- Ez, ez, gu oiñez jun giñen aurren egunen. Baiño geo beai eman zien, ta jenealakin, harekin ibiltzen zan. Esaten dizut, komerik e? Madriden.
- Zeatikan bestela Madriden metrotaz aparte, oiñez ibiliko ziñaten ez?
- Oiñez.
- Zeatik bizikletaik oo...?
- Ez, ez, oiñez o metron.

1.34. Eskolan hasterako irakurtzen zekien

- **Hizlaria(k):** Iztueta Altuna, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-033/002
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:02:13. **Bukatu:** 00:05:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolan Baliarrainen ibili zen. Anai-arrebatan laugarrena zen bera. Eskolan adin ezberdinetakoak batera ibili ziren. Pakitak bazekien irakurtzen eskolan hasterako; sei urterekin hasi zen eta zaharragoekin jarri zuten. Dena erdaraz egiten zuten eta buruz ikasi behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Eta eskolara?
- Eskolaa ba Baliarrañera juten giñen baitaere. Eta bastante urruti gaiñea gelditzen zan eskolea. Hoge bat minutu edo ia ordu erdi bat behar gendun biden eskolaa juteko.
- Zer juten ziñeten, anai-arreba danak batera eskolara?
- Bueno. Ni hasi nintzenen ia nere aurrekok geldittu zien, pixka-pixkat jun nintzen nere aurreko ahizpakin, eta gero nere ondorengok beste hiru senidekin lau lagun bai. Eta gero ni geldittu nintzeneako gaztena hasi zan. Eta bueno, lau lagun hola, anai-arreba....
- Zenbagarrena zinen zu?
- Ni laugarrena. Erdikoa, zortzitatik laugarrena.
- Eta eskolan ze ikasten zenduen?
- Bueno. Danak batea hamabi urtekook eta seikok, ni sei urtekin edo hola hasiko nintzen. Ia eskolaa hasi nintzeneako hori bai, etxen irakurtzen ikasi nuen. Etxen irakurtzen ikasita hasi nintzen eskolaa. Beste senidek erakutsita edo. Hori bai, gurasok beti esaten ziguten bata bestei erakusteko, zekiñak etzekiñai etxen saiatzen giñen hortan. Hori sartu ziguten. Eta ordun ba irakurtzearekin hasi nintzen, eta hori bai gogoratzen naiz, beste haundigokin nola jartzen nittun, maestra esaten zan ordun, oiñ andereñoa esaten da baiña. Eta maestrak nola haundigokin nola irakurtzen banekin jartzen ninduen irakurtzen. Txandaka-txandaka danak irakurri arazten zien eta ordun ni ere hamabi urtekoekin. Zazpi urte edo zortzi eukiko nittun.
- Neska.mutillak edo?
- Danak, danak batea. Bai. Esateizut, txikitatik, sei urtetik hasi eta hamaabi urte, hamahiru edo hamalau danak eskola baten. Ez gendun ez liburuik etxetik eamaten, bertan egoten zien liburuk, han zeren liburutatik irakurtzen zan, da han maestrak ematen zon gauzak egiten giñuzen.

- Euskeraz ala erderaz?
- Dana erderaz. Eske zeak ere liburuk zeren erderaz. Eta ematen zizun etxeako leziok ikasteko eta dana erderaz. Eta ez gendun ulertzen ere askotan ze irakurtzen ari ziñen. Ta gaiñea memorizatu ein behar zendun eta dana buruz ikasi behar zan. Bueno, hor tranpa txiki bat eiten nun nik. Lezio bat, eta gero hartzen hasten zanen bere ondon jartzen nintzen eta hola zeharrera begiratzen nun eta ikusi eitten nun, irakurriz igual esaten nion.
- Nolabait asmau egin behar sistemaren bat.
- Bai. Eske dana buruz ikasten lana asko zan.

1.35. Dotrina derrigorrezko ikasgai

- **Hizlaria(k):** Iztueta Altuna, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-033/003
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:05:05. **Bukatu:** 00:07:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Apaiza joaten zitzaien eskolara dotrina ematera. Dotrina derrigorrezko ikasgaia zen eta erdaraz ematen zuten. Apaiza Berastegikoa zen eta maistra, berriz, Ibarrakoa, baina hau erdalduna. Goiz eta arratsalde zirenen eskolara eta bi ordu behar izaten zituzten bidean. Lagunartean jolas orduan soilik egiten zuten euskaraz.

Transkripzioa

- Zer ikasten zenuten, Matematikak eta holakoak?
- Bai, danetik. Matematikak eta Aritmetika edo.
- Dotriña?
- Dotriña're bai, hoixe, apaiza etortzen zan ematea.
- Apaiza jutun zan eskolara.
- Bai. Eskola bukatzen zanean maistrakin apaiza etortzen zan.
- Derriorra izaten zan dotriña?
- Bueno, ez zan pentsatzen ordun ez zanik dotriñaik eman behar, hartu behar, e. Ordun iñok ez zun esaten ez zola geldittu behar dotriñan, dana zan normala. Egin behar zan gauza bat, eskola bezelaxe.
- Dotriña euskeraz?
- Bai, hori bai. Euskeraz uste det behintzat, ez dakit erderaz ez ote zan. Ez, erderaz izango zan, e. "Soy cristiano por la gracia de Dios", horrekin gogoratzen naiz da. Bai bai. Erderaz izango zan. Baiño euskaldune zan apaiza eta euskeraz hitz egiten gendun berakin. Baiño. Eta apaiza hoi asko saiatzen zan latiñez kantuk eta bueno, asko saiatzen zan.
- Nundarra zan apaiza?
- Berastegikoa zala uste'et. Bai, Berastegikoa.
- Euskalduna.
- Bai, bai.
- Eta maestra?
- Ibarratik etortzen zan, Tolosako Ibarratik.
- Euskalduna zan?

-Ez. Erderaz. Erdalduna zan. Gorrotxategi zon abizena baiño hari ez genion guk euskeraz hitz bat ere entzun behiñ ere. Eta egunero etortzen zan baita ere Ibarrik. Trenen Ikaztegietara etorri ta gero oiñez Baliarrañera igotzen zan.

-Oiñez Baliarrañera. Bide puxkat egiten zuen harek.

-Bai, goizeko beratzitako egunero Baliarrañera oiñez.

-Eskola zer izaten zan, goiz eta atsalde?

-Bai. Goiz ta arratsalde, bai. Etxea bazkaltzea atzea ia ordu erdiko biden, lau buelta eitten giñuzen, goizen jun eguardin etorri, atzea jun ein behar zendun ordu bitako eta berriz atzea atsalden etorri. Bi ordu behar giñuzen biden.

-Ia eskolan baino gehiago.

-Hori da. Hori da.

-Eskolan esan dezu dana erderaz zala; euskeraz hitzik edo aittu ezkerro kastiguren bat edo jartzen zizuen edo?

-Enaiz horrekin gogoratzen. Ez det uste honbeste. Honesterañño ez det uste. Baiño erderaz hitz eiten zan, ein behar zan, hori bagenekigun.

-Eta lagunekin eta?

-Errekreon euskeraz.

-Eskolan dana erderaz.

-Eskolan, barrun ez, barrun ez. Ezta pentsatu're.

1.36. Eskolako zigorrak

- **Hizlaria(k)**: Iztueta Altuna, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-033/004
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:07:22. **Bukatu**: 00:07:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena**: Eskolako zigor ezberdinak aipatzen ditu.

Transkripzioa

-Eta gaiztakeriren bat egin ezkerro ze zigor, ze kastigu izaten zan?

-A, bueno-bueno-bueno. Hor, paretai begira, eta gaiñea liburuk jarrita're bai eskutan. Hoiekin gogoratzen naiz, eta belauniko lurren. Hori're bai; zigor haundixeagoa bazan belauniko.

-Eta jo sekula reglakin edo?

-Ez, ez. Enaiz gogoratzen horrekin, ez.

-Hobe-hobe.

-Hoixe.

-Gogoratzen ezpazera hobe.

-Ni ez behintzat, nere garaian eztet uste.

1.37. Etxeko sagardoa

- **Hizlaria(k)**: Iztueta Altuna, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-033/009

- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:17:08. **Bukatu:** 00:19:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- **Laburpena:** Sagar-arbola ugari zuten eta sagardoa etxean egiten zuten, dolarean. Sagardoa egiteko ematen zituzten pausoak azaltzen ditu. Sagar ezberdinak aipatzen ditu: errezila, libra, etab. Otorduetan sagardoa edaten zuten.

Transkripzioa

-Etxean fruta-arbolarik eta bazenuten?

-Asko. Sagarra, eske sagardoa etxean egiten genuen garai hartan, e. Tolarea genuen eta barrikak eta gogoratzen naiz nola, zenbat barrika, eta sagardoa, etxeko sagardoa nola edaten zan eguardin-da bazkaltzen-da.

-Tolarea etxean bertan zenuten?

-Bai. Prentsatzan genuen etxean sagarra. Etxeko sagarra etxean erabiltzen genuen dana sagardoa eiteko.

-Nola egiten zenduen sagardoa?

-Bueno. Aurrena makina batekin bueltak emanez txikitzen zan sagarra, ta sagar hori prensara botatzen zan da, han ni aritzen nintzen, gogoratzen naiz nola aritzen nintzen, burnizko zera bat bazun prentsa horrek harutza eaman eta honutza, harutza eta honutza ibiltzeko ta. Bueltak ematen zittun [...] eta ateratzen juten zan sagardoa; eta gelditzen zan, eztakit nola deitzen zitzaion...

-Patsa?

-Patsa deitzen zitzaion. Gero hori ganaduei ematen zitzaion.

-Pats hori?

-Bai. Jateko. Lastokin nahastuta edo. Nola garie ereiten zan baita ere, lastoa zeon da.

-Sagar espezialen bat behar izate zan sagardoa egiteko ala danetik?

-Ez. Danetik. Baiño geza, eta gazie ere nahasten zan baiño gazik onenak, dagar, errezil sagarra deitzen zitzaion, da bagenuen beste sagar haundi bat, libra sagarra edo deitzen zitzaiona; baiño oso sagar gozoa zan erreta jateko ta oso-oso ona zan. Gelditzen zan, bueno, oso ondo erreta jateko ta. Gazie zan baitaere ta. Hoik onenak jateko eta saltzeko. Baiño ganbara(ra) jasotzen genituen iraun dezan freskuran leihok-eta itxi ta han pilla egoten zan. Gero usteltzen zienak kendu eta han eukitzen gendun puskaten. Handik puxkanan-puxkanan saltzen juten zan, ferira.

-Saldu egiten zenuten?

-Saldu egiten genuen, asteaizkenetan-da.

-Eta orduan eguneroko otordutan sagardoa?

-Bai, egunero. Bai. Afaltzekon eta bazkaltzekon sagardoa. Bueno, ardoa're noizbehinka baiño bueno, sagardoa gehiago.

1.38. Erdaraz ez zekitelako, barre

- **Hizlaria(k):** Korta Gurrutxaga, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-034/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:01:36. **Bukatu:** 00:03:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak
- **Laburpena:** Sei urterekin Ordiziako Fraide benezianoetan hasi zen ikasten. Berarekin gelan zeuden aipamena egiten du, eta erdaraz ez zekitelako gertatutako anekdota bat kontatzen du .

Transkripzioa

-Sei urtekin hasi zinen eskolara?

-Bai.

-Eta nora?

-Frailletan. "Menesianos" o esaten zioen.

-Nungoak, Ordizikoak?

-Ordizin zeon eskola bat, Santa Ana eskolea, ta garai hartan Menesianok, frailleak zeren han. Eta sartu nintzen eta han izan zan nere bizitzan lehendabiziko mugarrir, hantxe. Han sortu zan. Jun nintzen eskolara ta tutik ez nekin erderaz. Ta ni bezela zeren beste bi mutiko. Ba Zaldibikoa, Aiestaran apellidua, bestea Ordizikoa, ez det esango [izena], behin esan nion zeoze ta ez zitzakon gehiegi gustau, akordatzen zan baiño ez zun hitz egin nahi, [...], eta hirurek han eon giñen, kartel bat jarri ziguen. Eskola hartan klase haundi bat zan, eta zeren hiru sekzio -"tres secciones" esaten zan erderaz-, primera, segunda eta tercera. Terzerakok zien txikiñak, sei urtekok. Baiño guk ez genekiun ezer, ez erderaz eta ez ezer, ta jarri giñuzen hiru-lau lagun kartel baten, kartel haundi bat paretan kontra, bestetatik aparte, ta han zeren karikatura batzuk eta, A, E, I ta nola esaten ziun. Bialtzen zebe mutiko bat hara, ia zarrenetako mutiko bat hara bialdu eta guri erakutsi A-E-I-O-U, [...] guri. Eztakit zenbat denpora egon giñen. Ta badakizu, multil-koskorak pa gaiztuk izaten die askotan. Ta asko sufritu gendun han, neretzat behintzat izen zan oso goorra. Ohitute nere bizimodue era batera baserrin eta han alde batetik kriston disziplinia, eta bestetik bestiok baiño askoz'e gutxio nitzela iruditzen zitzaten. Eta han egon giñen ez dakit pa hamabost egun edo hillabetian edo zenbat egon giñen.

-Frailleak nungoak ziren, hamengoak edo kanpotarrak?

-Menesianos. Haiek uste det bere fundazioa zeukela Frantzian.

-Orduan erderaz ikasi beharko zenuten?

-Honbre, erderaz zan obligatorio, euskeraz ez zun iñok eiten, eta deskuidau ezker belarrondokoa igual.

-Euskeraz? Euskeraz egin ezker ze kastigo?

-Eske ez gendun eiten. Motibo horregatik ez zan kastiguik izaten, ez genekiun da.

1.39. Dotrina derrigorrezko ikasgai

- **Hizlaria(k):** Korta Gurrutxaga, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-034/003
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

- **Laburpena:** Bi urte egin zituen fraideetan gainontzekoekin integratu arte. Eskolatik elizara joaten ziren. Eskolan kaligrafia, aritmetika, historia, etab. ikasi zituen. Dotrina derrigor ikasi behar izaten zuten.

Transkripzioa

-Pasauko nintzen hillabete edo eta eskolan besteekin batera jarri ninduen. Ta bela integratu giñen da bastante poliki. Ta han ba gerrate arte, bi urte. El año treinta y cuatro zan hori. Año treinta y seis arte.

-Bi urte egin zenituen?

-Gehio're bai, baiño aurrena bi urte hoiak izan zien ba. [...] Izaten zan ba disziplina haundiakin, ostegun atsaldian izaten gendun jai, eta larunbaten [...] juten giñen da jaien'e bai. Jaien meza nausie izaten zan goizeko hamarretan, ta beratzitatik [...] eskolara juten giñen, eta ordun hartu mutiko guztik, biñaka jarri ta elizaa eramaten giñuzen, frailliak [...] giñuzela elizaa. Meza nausia entzun han eta atzea berriz'e buelta eskolaa biñaka. Ta zeoze kantau ta eiten gendun da deskuidatzen zana elizan zeoze hitzein edo jolastu edo, han egurre zeon. Da kondizio hoietan ba bueno, han pasau giñuzen bi urte hoiak.

-Eskolan zer ikasten zan orduan?

-Danetatik pixka bat. Ba Aritmetikak. Aurrena eskribitzeko ba hasten giñen Kaligrafia, Kopia, gero ba Aritmetika esaten zioen, Historia de España, Historia Sagrada asko. Dotriña ikasi gendun galderak eta erantzunek danak, hasi aurenako pajinatik eta aizkeneraño, memoriz danak. Ta gero tarte hortan zazpi urtekin, ordun eiten zien bi komunio. Komunio txikia ta komunio haundia. Ta komunio txikia tarte hortan ein gendun. Ta etzan, etzien inportantzia haundirik ematen hari. Astegun baten komunio txikia ein da atzea segi eskolan; ta halaxe pasau giñuzen bi urte. Bi urte pasau giñuzen garaian ba ordun, gerra zibilla ordun etorri zan, el año treinta y seis.

1.40. Hileko lehen ostiralean jauna hartzera

- **Hizlaria(k):** Korta Gurrutxaga, Felipe

- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** ORD-034/004

- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:06:38

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

- **Laburpena:** Dotrina fraideek ematen zieten eta mutilak bakarrik izaten ziren. Hileko lehenengo ostiraletan jauna hartzera joaten ziren elizara. Diziplina oso gogorra zuten.

Transkripzioa

-Dotrina zeinek ematen zizuen, fraileek?

-Frailek, klaro, dana fraileek. Eta mutillak bakarrikan, han neskaik eta etzan izaten, mutillak bakarrik.

-Mutillak bakarrik?

-Bakar-bakarrik mutillak; neskak ezta pentsau're. Sekula etzan batek nahasten iñola ere. Mutillak bakarrik. Eta gero baakizu, elizan kontuen fraillek zien da, esan dizut, dotriña ikasi gendun memoriz dana, erantzunek eta galderak, danak. Eta lendabiziko [silletan] hillero-hillero komulgatzera ta juten giñen-da. Garai hortatik ba oso sartuta elizan, ezta. Baiño beti disziplina haundikin, disziplina haundia izaten zan. Han zuzen ez [...] egurre izaten zan, han etzan, e, edo belaubiko edo belarrondokoa edo dana dala.

1.41. Erreketeak etxe barruan

- **Hizlaria(k)**: Korta Gurrutxaga, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-034/006
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:08:56. **Bukatu**: 00:11:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- **Laburpena**: Zaldibiatik etxera bueltatu zirenean, Etxarri Aranazko erreketek aurkitu zituzten etxe barruan. Hildakoak ere izan ziren eta haien inguruko kontuak aipatzen ditu. Eskolan gerra giroa zuten eta frontoian egiten zituzten guardiak eta instrukzioak. Fusilak umeek ere eskura zituzten; 11 urterekin bata bestea hildakoa aipatzen du.

Transkripzioa

-Ordun puxkat hariari segituz, etxea etorri giñen eta billau gendun baserri guztia dana reketez beteta. Dana reketeeak ia hartuta zeuken dana, zien hamen Sakanakuk edo, Etxarri Aranaz eta alde hortakuk danak. Bete-bete einda. Ganbaran-da etzanda ta han. Jendia beldurtu zan ze ete zan. Da egunak egon zien zortzi-hamar egunien, eztakit, puxkat juntatzen-da, puxkat organizatzen-da. Ordun bazien, egin zebeu kriston eskabetxinak garai hartan, hamen'e bai baiño Beasaiñen frente eman ziuén da garbitu zebeu jente asko. Hatu te... Ez al dizue holakoik esan? Eske askotan beldurra emate'u esateak. Nahiz hainbeste denpora pasatu ba...

-Bai, goguan dauzkazu oraindik.

-Honbre. Eta ixilik egoten zien etxien [holako ta emen die], baiño kontuz! Baiño mutil-koxkorak bakizu beti ere antenak zuzen eukitzeitu ta, jakin nahi ta, [gitxi gorabehera] zeoze zertzen zendun, hamen baek zeoze. Hemezortzi garbitu zituen hamen Ordizin. Hartu mutil gazteak eta pareta kontra ta. Enfin, hura pasatu zan hola, ta eskolan ba gerra-giroa zan dana, gerra-giroa. Da eskolan bertan'e ze hamengo reketeeak [...] zien, gu ia eskolan setienbrean hasi giñen berriz'e, ordun zeuken beheran, frontoi-koxkor bat zeuken eta frontoi bertan eitten zebeu bere instrukziuak eta bere fusillekin eta guardiek eta eiten zuen han, eta gu eskolan goien. Eta, klaro, han'e gorabeherak izan zien; han e fusillekin..., gauza hauek esatie askotan ba; mutil-koxkor batek hartu fusille ta, "voy a hacer a ese una gracia, voy a hacer un susto", eta daunba!, seko mutilla utzi, hamaika urteko mutil-koxkorra. Ta hil zuna oaindik bizi da. Klaro. Gauza hauek etortzen badie burura ba, koño, zer esaten ari dek hau, ezta? Baiño oaindik bizi da gizon hori. Ta holakuek, e, normala zan. Eta haiek alde ein tzebeu frentea ta gu hamen geatu giñen.

1.42. Eguneroko jakiak; angulak merke-merke

- **Hizlaria(k)**: Korta Gurrutxaga, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-034/008
- **Iraupena**: 0:04:25. **Hasi**: 00:14:30. **Bukatu**: 00:18:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: 11-12 urte zituela gerra amaitu zen eta gosetea etorri zen orduan. Etxean behiak izaten zituzten, baina maizterrak ziren. Ekonomikan ogia egiten zuen amak. 12-14 lagun elkartzten ziren etxean eta gaztaina, talo eta sagardo nahikoa izaten zuten. Otorduetan barazkiak eta potajea jaten zuten eta igandeetan garbantzuak ziren jaki berezi. Arrain ugari izaten zen eta kalitate onekoa. Angulak merke izaten ziren; arrainen bat erosiz gero, eskukada angula oparitzen zuten.

Transkripzioa

-Eta ia hamaika-hamabi urtekin ordun bukau ein zan gerra eta ia etorri zien honea, eta lanak [...] berriz'e hasi zien gauzak gaizki baiño bere oneratzten. Eta sortu zan ba oain galdetu dezuna gose kontu hori. Eta izan zan ba

berrogeiko hamarkadan gosete kristonak izan zien. Eskerrak baserrin geundenai. Nik uste'et nik hainbet talo ta esne jan dunik eztaola Euskadi guztin'e beste mutilkoxkor bat garai hartan. "Cereales son buenos" esaten diabe, ta "cereales", mekabuendiez, nik jan ditutenak, nere artian, bueno. Ba han izan gendun ba txerrie jartzen gendun, esne, nahiko esnie gure behiekin.

-Ze ganadu zeukazuen etxean?

-Gutxi. Garai hartan oaindik gerratin bat gendun, bi, bi, bi genduzken. Bat hori, goiko hori, ta beste bat. Ta gero ia hiru-lau eukitzen giñuzen. Da baserri koxkorra oso, ta ni naiz bai herrikue ta bai baserrikue, zeatik ibiltzen nintzen ba fabriken eta baserrin, bietan, ta aitte're bai. Ze gu baserri koskorra oso baiño jakiteko baserrie zer den ikasi genduen ondo.

-Hainbeste ikasi zendun.

-Bai. Eta gaiñera garai hartan izan zan beharrezku, zeatik [ereiten] artoa, garie're ereiten gendun garai hartan hamen, ta garie, ogie ta...

-Terreno asko zenduen?

-Bueno soro polittek genduzken; ez giñutzen gurek, e, maizterrak giñen. Baiño hiru soro onak genduzken. Ta hiru soro haietan ba lana ataratzen gendun. Nahiko babarruna, artua ta baba ta... Han [sortzen] giñen.

-Ogia etxean egiten zenuten?

-Bai. Baiño holako labe...

-Labesue...

-Labesue; ez antigualeko labesu hoietan, hor baserri horretan holako labesurik etzeon. Ekonomika esaten zioen txapa hortan, hor labe hortan ba han eiten [...].

-Zuk sekula ogirik egiten zenuen?

-Nik ez.

-Amak?

-Amak, amak. Hoiek aman kontuk zien hoiek danak.

-Eta ogia etxerako izango zan.

-Etxeako bakarrik. Eta ordun etxien, nahiz gu hiru bakarrik izan, juntatzen giñen ba hamabi-hamalau, hamasei'e igual.

-Senideak, etxekoak?

-Herrin genduzken lehengusuk eta haien lagunak eta danak baserria etortzen zien, ta izeten zan ba behintzet garai honetako gaztaiñak jateko..., danbolinkada gaztaiñak erre ta; [...] haiek jan eta gero nahikua sagardua edan da gero talo ta esnea gaiñen.

-Otorдутan zer jaten zan garai hartan?

-Bueno, gehienin babarrunak asko. Eguardin babarrunak ia urte guzin. Eta gero txerrikiakin, txerrikiakin, da gero berdura nahiko genduken baratzan da, berdura astegunen. Jaietan jeneralien garbantzuk izaten zien. Zan alimento nacional garai hartan. Danak garbantzuk eta. Garbantzue ez zan edozeiñ egunetan jaten. Jaien da, egun haunditan hola.

-Arrairik eta?

-Arraie bai. Arraie asko ta ona. Garai hartan ez konjelaurik eta holako gauzaik etzeon ezerre. Ta orduan legatza ta hoiek zien...

-Merkea zan arraina?

-Nik uste det baietz. Antxoa behintzat oso merkea zan.

-Eta txitxarroa eta...

-Txitxarro gutxi jaten zan, txitxarroa ordun despeziau eiten zan.

-Merkea esaten dute.

-Merkea, klaro. Txitxarroa etzan. Gure etxean legatza jaten zan asko.

-Eta angulak?

-Angulak pillak zien ordun. Akordatzen zait ze "peskadora" esaten giñun guk, arraie saltzera juten zan emakume bat, Arraizatarra, juten zan Zaldibira egunero oiñez. Karro haundi batekin, eamaten zun, tar-tar...

Jotzen zun [turuta], eta irten da ba ze arrai daukazu ta, hau ta hori ta. Han eukitzen zun pillat bat angula. Jeneralen esateizut ba legatza edo hola izaten zan, bastante ona jaten gendun hartutakoan, pagatzen zenduanean aiba! eskutakada botatzen zien.

-Angulak?

-Propiña angulak. Ordun etzeuken, oingo estimazioik eta gutxiagoik ez etzeuken ordun angulak. Eta handik askoz gerogo ere ez. Oain dauke, oin eztaon garaien oaintxe balio du anguliek.

1.43. Txerria hiltzean odolkiak banatzeko ohitura

- **Hizlaria(k)**: Korta Gurrutxaga, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-034/011
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:21:53. **Bukatu**: 00:24:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 - Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Txerria hiltzera harakina joaten zen etxera. Festa egiten zuten goizetik hasita. Txerria nola hiltzen zuten azaltzen du. Txerria hildakoan ohitura zen inguruko etxeetara odolkiak eta txorizoak eramatea eta propinetan erreal bat jaso ohi zuten. Apaizei odolki eta txerriak ematea derrigorra zen ia.

Transkripzioa

-Eta txerri hiltzea? Zeiñek hiltzen zuen txerria etxean? Aittek?

-Ez. Guk jeneralen, Alkarte ba zan, oaindik zutik do baserri hori; oiñ Usabiaga kamionakin ibiltzen dana, hor dauzke ofizinak jarrita, ta jeneralen hori ekartzen gendun. Joxe Martin edo zeuken izena gizon horrek, harrek hiltzen zun txerrie. Ta gero hura zahartu zan bastante eta begi bat'e galdu zun da gero karnizero bat ekartzen gendun. Kaletik karnizero bat, eta festa bat izaten zan txerri-hiltzeko eguna. Bueno.

-Txerri-boda edo?

-Joe! Txerri-bodaik ez gendun egiten baiño festa bat bai. Goizien sartu, aurretik preparau odolki eiteko eta barriño haundi bat kipulak eta oreganuk eta eztakit zenbat gauza botatzen zixon amak, preparauta jartzen zun hura, eta gero kutxillu sartutakun odolak txerriak odola eroritzen zan bezela barriñoira. Ta han ra-ra-ra!, benga ta benga. Eiten zitun odolki batzuk. Eta gero egosi han su bajun eta atzetik ipiñi txintxiliska pertza haundi bat, eta odolki batzuk de cine. Ta gero mutilkoskorak partitzera.

-Zer izaten zan, ohitura?

-Ohitura auzoan partitzen. Jeneralen inguruko etxie bazan, Garmendiaenea edo etxien izena, oaindik zutik dao. [...] Alkartera edo Majorira edo baserritara. Eamaten giñuzen ba odolki bat, bi odolki edo lau, eta gero beste txerri-pusketa bat, ta beti propiña izaten zan, errial bat, eamaten zendunin enkargue ba aiba, poltsikorako, kristona, honbre. Da gero esaten debe ba "odolkik ordaiñetan" izaten die, eta klaro, berak etxea bialtzen zeuben garaien haiek'e ordun etxea bialtzen zuen berriz, eta bueno.

-Medikuari eta apaizari eta ematen zenieten?

-Bueno, apaizei, apaize nausie gendun gaiñea apaize, baserrin nausie apaize zen. Apaiz bat. [...]. Harri... Eta medikuai, medikuai ez, eztet uste. Medikuei tratue bai, haiek etxea etortzen zien garaien ba beorika beti, zuka ez, beorika. Txapela kendu're bai etortzen zien garaien saludau ta. Baita albaiteuare ere bai. Albateruari're beori. Hori zan kostunbre bat, klasek; eta beorika nere gurasoak eiten zebeu erreztasun guziakin. Beorek esan du, beori jun da... Hori halaxe zan.

1.44. Otorduetako jakiak

- **Hizlaria(k):** Nazabal Dorronsoro, Rafaela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-036/006
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Goizetako gosaria arto-esnea izaten zen eta hamaiketako urdaia, txorizoa eta arrautzak. Bazkaltzen potajea izaten zen gehienez haragi egosi eta sesinaz lagunduta. Merienda urdaiazpikoz eta afaria berduraz egiten zuten. Taloa eta esnea neguan jaten zuten. Gaztainak Rafaelak erretzen zituen danbolinean.

Transkripzioa

-Eta eguneroko otorduetan zer jaten zenuten?

-Bueno, oso ondo. Eta nik oain'e hala jaten det, e. Gu goizen jeiki eta esnea. Nahi zunak artoakin, nahi baezu zopak...

-Taloik bai?

-Baita. Taloa ere bai. Baiño taloa jeneralen ez gendun goizen askotan jaten guk, e. Eta gero, soroa juten giñen lanea, eta ordun amak eo, gerok eo, batzuk soron lanen ari zienak, etxen zeonak eamaten zuen gosarie.

Gosarie izaten zan ardaiazpikoa arrautzekin, txorixoa arrautzekin, gosarie jaten gendun. Gero bazkarie, bazkaltzen ba babarrunak, azak, eta jeneralen holako gauzak bazkaltzen. Eta gero haragi egosie igual, eta zeziñea igual tomatekin, zeziñea azekin egosita. Eta gero arrozkoletxe eta sagar-errek eta hori postrea. Eta geo atsalden meriendea berriz haundie jaten zan, urdaiazpikoa..., baiño ze urdaizpiko! Buuu! Urdaiazpiko puxketa haundik arrautzakin-da; etxen eindakok, eta solomok eta.

-Etxekoa beti hobe.

-Ooooh! Gauzak. Eta jaten giñuzen, eta geo ia gauen porrupatatea ta esnea bakarrik. Guk meriendea hue bai atsalden, ta baiño gauen hori. Eta porejenplo negue baldin bazan gauen taloa ta esnea igual porrupatatan partez. Eta gaztaiñerrek; gauen gaztaiñerrek'e bai.

-Gaztaiñak danbolinean erretzen zenituzten?

-Bai. Nik erretzen nittun. Ganbaran artoa zuritzen aitzen zien bestek eta ni danboliñe gaztaiñak erretzen sukalden. Hak artoa zuritzeako gaztaiña erretzen.

1.45. Ordizian jaioa 1933an

- **Hizlaria(k):** Maiza Urrestarazu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-037/001
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Ordizian jaio zen 1933an. Ama Ordiziakoa eta aita Ataungoa zituen, eta sei senideko familia zuen. Eskolan mojetan ibili zen jaunartzea egin arte eta ondoren eskola nazionaletan ibili zen 12 urtera arte.

Transkripzioa

-Hasteko izena eta abizena.
-Ni Patxi Maiza Urrestarazu.
-Eta noiz jaio zinen?
-Mila ta beratzirehun ta hogeta hamahiruko maiatzek hogeita baten.
-Hemen Ordizin?
-Bai.
-Kale etxean?
-Kalen, kalen. Aitte nik Ataungoa non, baserrikoa baiño ama Ordizikoa. Gero ba aitten aldetik danak Ataungoak nittun eta aman aldetik non aittona Ataungoa eta amona Gaintzekoa.
-Zenbat anai-arreba?
-Gu? Sei.
-Eta eskolara nora joan zinen?
-Eskolaa?
-Bai.
-Ba, bueno ni hasera baten hemen zeren monjak ume txikik eta jasotzen zittuenak, bueno, hartzen zittuenak, eta ni ibilli nitzen ba monjatan. Eta ni monjatan ibilli nitzen ba komunioa eiñ arte. Garai hartan eitten zien bi komunio, bat txikie ta bestea haundie, eta nik uste det ein nola zazpi urtekin komunio txikie. Eta hura ia bukau [...] zanen gero zeren ba "Escuelas Nacionales" esaten ziona ordun garai hartan, nola dana erderaz eta zea zan ba gero handik pasau nitzen eskuela nazionaletaa.
-Hori ere Ordizin?
-Ordizin. Eta gero bi azkeneko urtek, hori hamabi urte arte.

1.46. 'Escuela de artes y oficios'en, mekanika ikasten

- **Hizlaria(k):** Maiza Urrestarazu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-037/005
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:10:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

- **Laburpena:** Ordiziako Escuela de artes y oficiosen ibili zen mekaniko ikasten eta ondoren ofizial aproba egin zuen CAF lantegian. Mojetan zebilenean eurek ematen zieten dotrina eta astean egun batean elizara joan eta taldeetan banatuta bilerak egiten zituzten 14 urtera arte. Luistarren kongregazioan egon zen; kongregazioaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

-Eskolan ze ikasten zenuten?

-Bueno, EGB esaten da hori. Eta gero ba CAFen ein genun gero ba profesionaltasun pixkat bezela. Eta gero harezaz gain gero ibilli naiz ni urte askon eskolan hemen, Ordizin zeon “Escuela de Artes y Oficios”. Eta ordun ba hemen ze lantegi hartzen zendun. Nik porrejeemplo ba mekanika hartu nun eta ikasi nun ba mekanikako gauzak, ezta. Hasiera baten hasi nitzen dibujoa ikasten. Dibujoa ikasten egon nitzen lau urten, eta gero lau urte pasau nituenen egon nitzen ba beste bi urten mekanika ikasten. Eta hortikan ba CAFen ofizialtasune, ofizial, [...] prueba bat examiñe gaur esaten dan bezela; eta hala, ta besteik ez.

-Eskolan monjetan eta horietan dotriña eta ikasten zenuten?

-Bai. Dotriña izan zan bueno, berezie.

-Zeiñek ematen zuen dotriña, apaizak edo monjak?

-Ez, ez, monjak, monjak. Gero gertatzen zana zan, monjatan egon giñen bittarten ere baita, ezta, zeatio ordun katekistak’e bazeren. Eta ematen ziguten elizan, monjak ematen zigun dotriña, errezok ikasten eta gauza horik danak, ezta? Dotriña alderdi hortatio. Eta gero genduzken katekistak parrokok eta genduken asten egun bat ordubete juten giñen eliza. Eta ordun taldek zeren, eta talde bat genduken, gu geunden Milagrosan kapilla baten da han egoten giñen, ba eztatik, dozenan bat lagun hola ia hamalau urte bete arte. Behiñ lanen hasi giñen ezkerok eta gero ba lanen hasi giñen garairako ia ba ordun zeren Cofradías, de Las Hijas de María y San Luiz Gonzaga, Luistarrak. Eta gero ba bide hortan ibilli giñen...

-Eta hori zer izaten zan Luistarrak eta Mariatarrak. Ze eginkizun edo zer eukitzen zenduen?

-Bai, bai, genduzken, billera batzuk izaten giñuzen; ordun geneuzken egun batzuk berezik, esate baterako, “todos los primeros viernes de mes había que ir a comulgar”. Jun behar zan jaune hartzea. Eta’re baita gero beste egun ospetsu batzuk bazien, San Luis Egunen zintakin, medallakin eliza juten baziñen hura jarri behar zendun, prozesion eta zera esaten zizuen; garai hartan oso zea zan hemen, ohitture haundie zen prozesiok eitteko. Elizan izaten bazan eliz-funtzio bat ba halako egune baldin bazan ba Corpus Egune, San Pedro Egune, Pilarika Egune, San Jose Egune eta holako festa batzuk. Eta ordun ba danok juten giñen prozesion, danok zinta bat medailla zintzilika gendula eta hola.

-Txintxo-txintxo.

-Txintxo-txintxo.

1.47. Montadore lanetan Caf-en

- **Hizlaria(k):** Maiza Urrestarazu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** ORD-037/006
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:10:25. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak
- **Laburpena:** 1948an hasi zen Caf lantegian mekaniko montadore karguan; lantegian bertan zuten eskola. Maisuarekin gertatutako pasadizoa kontatzen du.

Transkripzioa

- Eta orduan lanean CAFen hasi ziñen?

- Bai. Ni hasi [nitzen] CAFen mila beratzirehun eta berrogeita zortzin. Eta bueno, CAFen hasi nitzen lanen...

- Zer lan egiten zenuen?

- Ni nitzen "mecánico montador". Eta ordun ba sartu nintzen eta ordun ba jartzen giñuzten lantoki baten ba kuadrilla batekin. Eta lau urte pasau ta ordun eitten ziguen ba oain esamiña esaten dana, prueba bat. Ta ordun ba porejenplo Batxillera bukatzekon azkeneko urtea nola [azaltzen dan] ezta?, ba igual, eitten zuen prueba bat eta ondo ateatzen bazenun igotzen ziñuzten "a oficial". Bittarten zeren aprendiz, "primer año, segundo año, tercer año y cuarto año. En el cuarto, osea" laugarrenen hori eitten ziguen.

- Eta aurreko lau urtetan bazenuten maisuren bat erakusten?

- Bai, genduken han maixu bat eta harek'e erakusten zizkigun gauzak. Asko ez, e, zeatik ez zeuken astiik zeatio nola produkzio haundie ein behar zan, eta ordun ba produkzion ai ziñen bittarten [...], eta gero bai igual esaten zizun joño, hau hola eitten dek edo hau hola eitten dek, edo hau hola ein dek edo ez dek ein edo holako zera batzuk. Baiño gauza haundiik ez. Batipait ba zuk bazeukezun zurekin zana arduradun kuadrillakoa, ba hura ia zan "oficial de primera" holako bat eta harek ia planok eta gauzak eta. Baiño nik oso ona euki non eta kejaik ez dauket. Baiño zan zelebrea. Zan zelebrea zeatio bazeren batzuk, ni akordatzen naiz egun baten, ez zan ni ai nintzen lana, ta jun nitzen beste lantoki batea beste ofizial jefe horrek ainduta. Ta gizon zeon plano bati beira ta ni jarri nintzen beira, ta hartu zon plano hori eta raaa!, bildu zon eta kendu zon. "Tú qué te crees -esan zian- que yo estoy para que tu estés viendo mi plano?"; "Y qué tiene que ver yo vea el plano que está aquí?". "Ja!, para eso hay que aprender", esan zin. Eta ordun holakok bazien. Erakutsi baldin bazekien, gauza haundik ez zekien, baiño baldin bazekien'e erakutsi nahi ez zuenak erakutsi. Bai, oso elkorrak zien alderdi hortatio; batzuk, e!, ez danak, e. Batzuk, alegie, bestaldekoak ziela ezautzeko gauzak eta esaten zizuen. Ba hori hola ein behar dik. Beste batzuk zero.

1.48. Soldadutzan, Donostian eta Burgosen

- **Hizlaria(k):** Maiza Urrestarazu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-037/010
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:22:18. **Bukatu:** 00:26:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** 1954an Donostiara joan zen soldadutza egitera. Orio eta Aia bideko kanpamentuan egon zen, eta urte eta erdi egin zuen bertan. Kuarteleko tailerrean mekaniko lanetan, eta ondoren militarrei erakusten aritu zen. Burgosen egon zen maniobra militarrek egiten; orduko pasadizoak kontatzen ditu.

Transkripzioa

-Soldaduskara nora joan zinen?

-Donostiaa.

-Zenbat urtekin?

-Ba jun nitzen, urte terdi ein nun nik soldauskan. Jun nitzen millata beratzirehun da berrogeita hamalauen, 1954, marzon eta etorri nitzen urte terdi einda zean, 1955.

-Donostin egin zendun?

-Bai. Ordun soldauskara jun nitzenen kanpamentua ein genun, ezautzen dezu zuk Alto de Orio? Bueno, Alto de Orion dao kruze bat, bat Aiara juden da, karretera zaharren, e, la 634, eta bestea dijo Zarautzera. Ta hantxe Aia biden han genduzken bakarrakoiak eta han ein gendun kanpamentue. Osea ke, han ikasi gendun período de instrucción esaten zaiona. Gero banderea jurau genun Zarauzko plaian. Eta bueno, gero handik, nik eztakit tontoa izan nitzen edo ze nitzen; nik neuken ordun izeba monja bat Donostin, nere ama zanan ahizpa bat, eta zan maistrea, monjea baiña maistrea izatez, eta ematen zien eskolea kapitan baten alabai, bi alaba edo eztakit ze zeuzken, ta harek esan zin nei: "Oye, Patxi", nere izeba horrek euskeraz gutxi eitten zun zeatio ibillita zeon hemendik kanpo. Salamankan eta Santanderren eta Asturiasen eta abar. Eta gero Jesuitinas edo hoietakoa, Hijas de Jesús; Tolosan estazioan jetxi ta ezkerretaa; hoitakoa zan. Eta harek esan zin: "Oye, yo si quieres esto y lo otro, por aquí, por allá. Te podía echar una mano". "Ba, voy a intentar coger un destino". Zeatio aurrena kabo ein nahi zien eta enon nahi, eta gero destino bat hartu nun, atera zien zea batzuk eta. Han garajen egon nitzen mekaniko bezela. Aurrena ni bialdu nittuen ni neon kuartel hortako, soldauskako guzik giñen Tropas de Montaña, eta ni neon esquiadores-escaladores. Eta gero hortikan behera jetxi eta ibili nitzen ba denboraldi baten mendin. Mending ibiltzen giñen eitten ibillaldik, "patrullas" deitzen zitzaion; eskalatzen, eskiatzen: "esquí de fondo", e, ez oain ibiltzen dan bezelako zeatan... Esquí de fondo ba goitik behera hasten baldin bazea jo ta hanka hausi edo holakon batzuk. Eta izan zan nik oaindik ezautu dedan neguik gogorrena. Zuk aditzera badezu hemen nola piñuk eta nola erre zien-da? Ez.

-Ze urtetan hori?

-55, 54-55. Ordun ein zuen hemen karretera jeneraleko tunela. Eta bueno, ni han egon nitzen soldauskan da, bueno, gero esan dizudana, hartu nun destino bat garajen eta oso gustoa egon nitzen. Han ein nittun zea batzuk, ikastaro batzuk, kursillo batzuk eta abar, eta gero ibilli nitzen ba erakusten zera, militarrai baiño izarrak zeukenai, e. Mekanikak eta bai. Ein nun un cursillo bat garai Arias [Pack?] izena zona garai hartan hiru hillabetekoa eta ordun ikasi nun automobille dana nola zan, zer zan-da. Gero hemendik CAFetik ia nahiz ez izan igual beste lantegi bat puxkat [...], eta hola. Eta gero egon nitzenen garajen ba bueno ez nitzen ia eskiatzera ta juden,

baizik e jun behar baldin bazan zerbaittea arreglatzera edo hola ere baita. Baiño neekin egon zienak, eta ni're jun nitzen behin harutza, etortzen zien "Ordenes de Capitanía", eta "Hay que ir a hacer patrullas" o "hay que ir a hacer escalada" o "hay que hacer no se qué". Eta izan nintzen behin Burgosen, Cubillo del Campo izena [zun] herri baten, da han ibilli ginen zeak eitten, maniobrak, "Maniobras militares". Eta bueno, handikan etorri eta geo jun giñen beiz'e Peñas de Aia, han ibilli giñen beiz'e pixkaten, eta behiñ etorri giñen oiñez Peñas de Aiatik Atauna. Mendiz, gauez. Hor zeren gero konboiek etorrira, kamionak eta, kamionetan kargau eta Donostira. -Biajetxoa. -Bai, baño hirurogein bat kilometro edo hola eingo giñuzen gauen; ohittuta geunden zeatio egunero-egunero-egunero ibiltzen giñen.

1.49. Soldadutzan jatekoa etxetik eraman behar

- **Hizlaria(k):** Maiza Urrestarazu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-037/011
- **Iraupena:** 0:05:22. **Hasi:** 00:26:58. **Bukatu:** 00:32:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutzan ez zuten etxera bueltatzeko baimenik izaten. "Maki"en aipamena egiten du. Uniformatuta ibiltzen ziren. Donostian zegoenean asteburuan etxera bueltatzen zen eta etxetik eramaten zuen jana, bertakoa jan ezina zelako.

Transkripzioa

- Eta gero ba bueno, hori soldauskea bukatu nun eta etxea.
- Permisorik etxera etortzeko?
- Permisoik ez gendun ofiziala esaten dana, gaur egunen esaten da hillabeteko etxea etorri da ta, ez. Guk ez genun izan. Eta zeatik ez genun izan? Ba etaa zan ordena ba makik sortu ziela, guk ez genekiun zer zan maki ta zer zan jesukristoik'e, eta ordun makin emen tzien ba komunistan aldeko jende bat gerran ibilli eta ihas ein eta bestalden zeren, Iparralden, mugan edo eztaikit nun zeren. Eta ordun hortakon batzuk harrapatu zittuen hor fronteran. Eta ez giñuzten utzi etortzen zeatikan jendea behar tzuen hautza eamateko, ni enitzen jun, nik destinoa nola nauken ba. Ni juten nitzen hautza, baiño jun eta etorri. Eta ordun ba atzeratu zizuen guri lau hillabete gauza horregatik. Eta harrapau zittuen maki batzuk, armauta ibiltzen zien eta [zeuken] beldurre ba asalton bat joko ote zuen kuartelen batea edo holako gauzan bat.
- Soldauskan uniformauta?
- Bai, goizetik gauea. Ni etortzen nitzen ba asteburun etxea Donostin negonen. Oain, baldin baneon hautza junda [...], asteburun etxea. Jana ematen ziguen parregarrie.
- Goseik pasatu zendun?
- Gosea ez. Ez nun goseik pasatzen zeatio etxetik eamaten nun jana. Nei amak jartzen zin asteako morrala, erropea garbittu eta ordun ba gehienak eitten genun berdiñe, amak jartzen zin nei holako ogi haunditako bat, borobille, eta jartzen zian ba igual serrada batzuk gaiñetik pipar batzuk jarrita, eta gero haren gaiñen ba tortilla bat patatakoea edo urdaiazpikokin

eo holako zea bat einda. Eta bueno, handik pixkat jan eta gero amak beste diru pixkat ematen bazin ba aldin behin, aldin behin eitten genun ba o bokadillon bat jan kanpon o ba juten giñen arraie, sardiña ta antxoa ta zan garaian bagenduzken puerton ezaun batzuk ta juten giñen hautza eta ematen ziun baldekara bat sardiñaz beteta. Angulak'e bai, e. Baldea goraiño beteta.

- Merkea zan orduan angula?

- Angulak ni soldauxkan eon nitzenen balio zon hemen, Frantzin merkego zala esaten zuen baiño, hamabost duro, "75 pesetas el kilo". Baiño ikaragarri galestie zan, ikaragarri galesti garai hartarako. Gero pixkan-pixkana-pixkana baja [...], baiño jaten giñuzen kristonak, e.

- Eta soldauskako jatekoa txarra.

- Txarra. Nik gaiña izan nun suerte txar bat egun baten makarraoiak jaten ai giñen eta atara ziaten halakoxe moxorro bat makarroi baten barrun bel-bel-beltza, bota nittun neuzken guzik eta gero bolara baten enitzen bazkaltzea juten. Afarie ez genun behiñ'e eitten zean, komedoren, zeatio etzeon jateik, goizen sobratzen zan ematen zizuen gauen. Porejenplo, kanpapentun eon giñen eskiatzen eta abar, ematen zien jeneralen egunero patatea, botatzen zien piparrautse edo gero txorixo muttur batzuk moztuta auskalo nun eindakok, eta gero ardoa. Ardoa ze ardo zan? Ba zeuzken zaku batzuk, hola ikatz zakuk bezelakok, hauts beltz bat, eta hura botatzen zuen ontzi batea, ontzi hortan zeon elurre, elur-ura urtu, urik'e kasik ez genduken, eta ur ura ia urtuta jartzen zanen botatzen zuen hauts hori. Eta ordun hura nahastu ta hura edaten genun. Esaten zuen que era mahatsan azala zeatuta zala. Baiño parregarri txarra. Ta ordun ba han eon giñenen oso gaizki zeatio jende asko, pilla bat, pulmonikin, beste batzuk txongatilla hezurra hautsita, beste batzuk belaune hausita, eta ematen zizuen beroa pixkat eukitzeko koñak botilla bat bakoitzei egunen. Pentsa zazu, ardoa halakoa baldin bazan koñak ze izengo zan. Ba han lo eitten gendun bi kaballeta burnizkok holakoxe zabalerakok, da hiru ohol egurre ta gaiñen koltxoneta bat lastokin. Eta, klaro eskiatzera juten giñenen busti eitten giñen eta bustita etorri ta jartzen genun ba erropa sekatzeko ez genduken ezerre eta erropea azpin jarri, haren azpin, eta guk baldin bagenun beroa harekin sekau ta hurrengo egunen berriz'e hura jazten genun.

- Bazenituen hemengo lagunak?

- Bai. Hemengok neuzken nik, asko ez, e; baneuzken bat, bi, hiru lagun. Eta nik etortzeik ez baldin banun ba bueno, haiekin bialtzen nun erropea, amak garbittu ta eta beiz'e eamaten zin, edo haitakon batek ezin bazun ba nik eitten nun hori eta hola ibiltzen giñen.

- Donostiatik hona trenean etortzen zinen?

- Bai, Donostitik honea trenen.

- Eta soldauxkan egin zenituen urte eta erdi?

- Urte t'erdi egon nitzen soldauskan, bai.

2. Familia eta harremanak

2.1. Neska-laguntzak

- **Hizlaria(k)**: Balerdi Mujika, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitx
- **Erref**: ORD-003/028
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:44:10. **Bukatu**: 00:45:38
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Parrandatik etxerakoan neska-laguntzera joaten ziren. Zaldibian neska-laguntzea egiteko zuten legea aipatzen du.

Transkripzioa

- Lehen, Pedro, ez dizut galdetu, baiño hola parrandata juten ziñatenen ta gero zuek neska-laguntzea ta hola, etxeta ta?
- Juten giñen.
- Juten ziñeten?
- Bai, ni askotan ez naiz jun, baiño bai, juten giñen. Baiño ordun jende asko juten zan e?
- Eta tokatzen zan lekua, ala?
- Bueno, ba tokatzen zan Zaldibi, prezisamente, ya ke ta zuek horkuak zeaten, hor lege bat zeon, eon zan bolara baten lege bat, gaiñantzen, ba bueno, zu neska batekin hoitan eoten ziñen, eta beakin hitz eitten zendun ta, “bueno ba, lagunduko dizut nik”, eta hala izaten zan jeneralen. Baña Zaldibin, Benta Berrin prezisamente, eon zan dantzan, dantzan ibiltzen giñen, eta akabatzen zanen, mutillek danak alderdi batea, eta neskak bestea. Ta momentu baten neskak abitzen zien, eta ordun haik eta toki bateaiño aillau arte, mutillek geldi. Eta geo, korrika, eta korrikarik hobenak harrapatzen zun nahi zun neskea. Eta harekin juten zan, harekin juten zan, zeatik nik amorrazi-aldik harrapatzen nittun, zeatik nik batek, nik bigarren itten nun korrika, beti batek irabazten zin, eta beti hartzen zun nik nahi nun neskea. Eta makina bat amorrazio-aldi. Atzenen pakto bat in ber izan nun beakin.
- Eta lege hori zeñek jarri zun ba al dakizu?
- Ez dakit, ez dakit.
- Apaizen batek eo hola jarriko zun ez?
- Ez dakit nola jarri zan hoi. Bakarrik, eta horrek iraun zun igual urte pare bat bai e?
- Bai e?
- Iraun zun. Kauen la letxe, beti e...

2.2. Lagunekin ere gaztelaniaz

- **Hizlaria(k):** Eguren Otegi, Lupe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Erref:** ORD-004/008
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:06:24. **Bukatu:** 00:07:26
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** 6 anai-arreba ziren. Gurasoekin bakarrik egiten zuten euskaraz, lagunekin ere erdaraz egiten zuen eta.

Transkripzioa

- (Elk) Zenbat anai-arreba ziñeten zuek?
- (Lupe) Guk? Jesus, Felisa... aber, txoin, aber, Felisa, Joxe, Bautista, Eugenio, Flipe ta ni, sei
- (Elk) Eta etxen zuei dana euskeraz eingo zizuen?
- (Lupe) Ke ba.

- (Elk) Etxen ez?

- (Lupe) Ke ba! Aittak aittak bai, bai, baiña gaiñontzekok gure arten?

- (Elk) Anai-arrebak erderaz?

- (Lupe) Uste nun erderaz, ni ez naiz ya goatzen, baiña uste det erderaz itten gendula ya.

- (Elk) Ta kalen lagunarten'e bai?

- (Lupe) Kalen lagunarten'e bai.

- (Alaba) Zure ahizpakin, zure ahizpakin nola hitz eitten dezu ama? Ahizpa bat badaukezu zuk larogeita hamasei urtekoa.

- (Lupe) Bai, baiño harrek'e, gehiena erderaz eitten du harrek'e etxen. Bai...e? Ezetz?

- (Alaba) Harek seme-alabakin ez, baiño zukin bai.

- (Lupe) Behintzat, nik han erderaz aitzen det dana juten naizenen. Horregatik esaten det.

2.3. Aitari entzundako txistea

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Irastorza, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitx
- **Erref:** ORD-006/024
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:37:17. **Bukatu:** 00:40:37
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Gurasoei tenpora kontuak entzuten zizkien; baserritarrak ziren biak. Aita bertozalea zen eta berari entzundako txiste bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Eta gero, bueno, hoi baserrin gehio, baiño egualdia asmatzeko moduk, eta tenporaik eta, hoik hoiri beiratsen al zien zuen aitta-amak eta, o zuek?

- Bai, guk, guk ez, baiña nik nere aitta-amai entzunta bai, bai. Zeatik bik basarritarrak zien.

- Hoi ba.

- Ama ta aitte. Baserritarrak zien, ta haik bai. Haik esaten zuen. Gaiña guri esaten ziguen: "noa jun zeate ba atsalden?" ta "ba, Beasaiña" "eta ikusi al dezue nolako artok daren biden? Haundigok o txikigok edo zer daon?". Zeatio ordun, Beasaindik Villafranca, oain etxek dare, baiña ordun dana sorok zien. Eta "guk zeaittik ikusi ber ditteu ba horik?", ta "hortik bizi behar da ba!". Bizi, baiño guk, ematen ziguen plateren ta...

- Hoixe.

- Ez giñan akordutzen.

- Eta geo, ipuiek, eta bertsok, eta holako gauzak?

- Asko.

- Bai?

- Asko.

- Amak? O aittek?

- Aittak, aittak. Aitte, aitte, aitte. Aitte.

- Zalea zan?

- Bai, zalea zan.

- Burun ez daukezu?

- Bat esango dizuet o bi. Esto, hiru baserritar jarri emen zien, ba jun behar zuela belarra ebakitzea Naparroa. Eta, bueltakon zetoztela, lana in ta bueltakon zetoztela, ikusi emen zuen gizon hotz bat biden hilda. "Ene". Harrituta. "Guazen, behintzat, parte ematea". Etorri dia parte ematea. Ta hala, gizon hori eaman due. Ta hiruak gelditu dia, eta "oain guk, ze esan behar deu oain?", "aaa! Bakizu ze ingo deun? Erderaz ikasiko diu!", "nun ikasiko diu?", "hara! Hortxe zeok oaintxe, meza bukau da, ta hor zerek portikon, ta hurruntza jungo gaittuk". Ta jun emen zien haruntza, ta ai emen zien hizketan kuadrilla bat, eta jarri emen zien hiruek beida, ta "aizak, nik ikasi det e?" "Ze ikasi dek ba?" [...] "nosotros ikasi diagu, nosotros! Zuek'e ikasi zeozer", "bai, jungo gaittuk ba"... "Nik'e ikasi diat! Por el dinero!" ta esan emen zion, "ta hik, hik'e jun hai ba ikastea!", ta "tiene usted razón". Bazekien oain erderaz ta, "jungo gaittuk oain majo!". Jun dia, jetsi dia herria. Ta klaro, juezak nola billatu zittuen, ba eaman due deklarazio ittea, eta juezak esaten dio "¿quién ha matado a este hombre?", "hik esan zak, hik estraiñeko ikasi dek eta", "¡Nosotros!", "¿Por qué?", "hik esan zak oain, hik oain ikasi dek", "por el dinero", "¡a la cárcel los tres!", "tiene usted razón"... Hori behintzat bakit.

- Bazekin asko haik.

- Bai, gure aitta gañea oso txistosoan zan ta.

2.4. "Hika" egitea, errespetu falta

- **Hizlaria(k):** Irastorza Mujika, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitx
- **Erref:** ORD-008/041
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:46:40. **Bukatu:** 00:47:35
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Gurasoei "hika" egitea errespetu falta izaten zen, neskentzako itsusia zela esaten zion amonak.

Transkripzioa

<p>- Zuk gero hika itten zenduen? - Bai. - Amakin eta? - Ez, amakin ez. - Amonak? - Amonak berez… - Zuei? - Bai, baiño guk hika ez ziguen uzten. - Zuei ez? - Itsusie zala ta. - Itsusie zala? - Bai. Itsusie zala hori, ta… - Baiño amonak zuri bai, itten zizun? - Baiño hika ez e? - Ez? - Amonak eta amak eta hoik danak zuka. Horregatik, eak ere in behar zuen, guri gogor eitteko. Bai. Ez zitzaien gustatzen, “hori itsusie den neskantzako oain”. Ta gero, klaro… bai, gero arte!... - Baiño beak esaten zizun “hoi itsusie den”, hika esaten zizun beak. - A bai, bai, bai. - Eta geo zuk anai-arrebakin eta hika? - Ez, ez, ez. - Erderaz? - Erderaz guk jo ta ke, bai.</p>

2.5. Senideei gaztelaniaz irakasten

- **Hizlaria(k):** Murua, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitx

- **Erref:** ORD-021/007
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:06:43. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena:** Udaran amaren jaiotetxera joaten ziren Ataungo Aia auzora autobusez eta izeba batek erdaraz erakusteko nola eskatzen zion aipatzen du. Gurasoek nola ezagutu zuten elkar azaltzen du.

Transkripzioa

- Pentsa nere aman familie Aiakoa zan. Ta juten giñen oporrak pasatzea harutza. Ta nere izebak akordatzin naiz esaten zitela “baiña neri erderaz in e? Ikasi in nahi det erderaz ta”.
- Klaro.
- Bai, “opari bat emango dizut, eta neri...”
- Erderaz.
- “Erderaz in”.
- Ze juten ziñaten udan, bakaziotan?
- Udan.
- Ta zuentzat nobedadea izango zan, ala?
- Gustoa ibiltzen giñen han. Oso gustoa.
- Ta nola juten ziñeten Aia?
- Ba autobusen uste det. Ez naiz akordatzin oain. Bai...
- Ataunea igual autobusa eongo zan.
- Bai, nere aita ezautu zun ama... nere aita zan agoza, ta jun zan hauntza etxea itea.
- A bai e?
- Erre in zitzaie ta etxea itea. Eta ordun ezautu zun gure ama, ta hua oiñez juten zan Zaldibitik, oiñez batzutan, eta beste batzutan bizikletan.

2.6. Gripe izurritearen ondorioak

- **Hizlaria(k):** Murua, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitx
- **Erref:** ORD-021/008
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:08:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Aitona praktikantea zuen eta Zaldibiara joaten zen. Amona Itsasondokoa zen. Gripe izurritearen garaian aitaren senide batzuk hil ziren. Aitak Etxeberria lantegian ikasi zuen arotz.

Transkripzioa

- Esan dezu aitte, bueno aittona, praktikantea zala.
- Bai, Beheko Aiakoa zan.
- Eta Zaldibia etortzeko, hoi ze ingo zan, sortez o tokauko zitzaion o

hola...?

- Bai, seguraski. Ta gero ezautu zun nere amona, zan Sarasola, Itsasondokoa, ezkondu zien ta...

- [...]

- Bai. Eta izan zien nere aita ta hamaika, hamaika senide. Baiño ordun, ez dakit, beste izan zan gripe garaie, hil zien zortzi senide o beatzi hil zien.

- Bai e?

- Geatu zien bi bakarrik.

- Joe, ta hoi aitte praktikantea izanik.

- Bai. Orduako hilda zala uste det aitte e? Bai.

- Eta iñok, bueno, biziik geldittu zienenetatik ez zon praktikante ikasi, aittek bezela?

- Ez, ez, nahiko lana izan zuen aurrea ateatzten.

- Ta zure aittek ba al dakizu nun ikasi zun arotz-ofizioa eo?

- Ez dakit, hemen Etxeberrian taillerren. Etxeberria ta Iztueta. Bai, zan beti, nik hor ezautu nun.

2.7. Ordizian jaioa 1934an

- **Hizlaria(k)**: Mujika Imaz, Maria Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-023/001
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1934an jaio zen Ordizian eta kaletarra izan arren baserriko lana ondo ikasi zuen. Umetan Ataunen egoten zen. Ordiziako Urdanetan bizi zen. Ama ataundarra eta aita Zumarragakoa zituen.

Transkripzioa

-Hasteko, izena eta abizena eta nun jaio ziñen esaten badidazu?
-Jaio nitzen maiatzen hogeita baten, eta urtea da mil novecientas treinta y cuatro.
-Izena eta abizena?
-Maria Rosario Mujika Imaz.
-Eta nun jaio ziñen, kale-etxen edo baserrin?
-Ez, kalen, kalen. Kalen jaio gatio baserriko lana danetik ikasi non. Beharra izan gendun da. Ordun billatu behar bagendun jana ba lanea juten giñen, edozein baserritara lanea juten giñen. Ni txikie nitzela Ataunen asko eon nitzen, eoten nitzen asko lehengusu batzukin, eta hemen Ordizin juten nitzen eskolaa, gutxi jun nitzen oso baiño gero oporrak amaten zioskun garaien harutza juten nitzen Atauna, ni pozik Atauna juteko.
-Ordizin ze kaletan?
-Urdanetan.
-Hementxe?
-Ez, hemen ez. Ordun zan hamalau. Oain treinta y siete. Hor beherago dao. Hor beheraxeago dao.
-Gurasok ordiziarak?
-Ez, ama Ataungoa eta atte Zumarrakoa.
-Eta txiki-txikitatikan Ordizin bizi izan ziñen?
-Bai, bai, Ordizin jaio eta Ordizin danak ein nittun. Ordizin bataiatu, komunioa, konfirmatu, ezkondu eta danak.

2.8. Beasainen jaio eta hiru egunetara Ordiziako Sagastizabal Azpikoa baserrira

- **Hizlaria(k)**: Etxaniz Gantxegi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-025/001
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1931an jaio zen Beasainen eta hiru egun zituela Ordiziako Sagastizabal Azpikoa baserrira joan ziren bizitzera. Aita azpeitiarra zuen eta ama, berriz, Azkoitiko Urrategi auzoko Uzin Azpikoa baserrikoa.

Transkripzioa

-Hasteko, izena eta abizena eta noiz jaio ziñen esaten badidazu?
-Antonia Etxaniz. Jaio nitzen hogeta hamaikan, enero, euskeraz ez dakit nola dan.
-Urtarrilla, bai.
-Jaio nitzen urtarrillan hoeta hamaikan.
-Hemen jaio ziñen, Potxon etxen?
-Ez, ez. Hor bizi zien neska zaharra, mutil zaharrak, anai-arrebak; eta gero residentzira jun zan arreba. Anaie hil zekon ta residentzira eaman zuen eta etxe hori zeon abandonauta, bera bakarrik. Nola bizi zan ba. Jende asko juten zan, hori bai. Nik uste-et hamendik pasatzen zien danak hor gelditzen ziela. Egie da.
-Zu nun jaio ziñen?
-Ni jaio nitzen Beasaiñen. Baiño hiru egunekin o amak-eta ekarri zien

honutza Ordiziara, residentzin ondoko etxe haundi zahar bat badao ba hemen goitik behera goatzela, residentzin ondoko etxe haundi... Hor ezta iñor bizi.

-Ze izen dauke etxe horrek?

-Sagastizabal-azpikoa esaten zan. Oain Egutera-bidea.

-Gurasoak nungoak zien?

-Azkoittiarak.

-Biek, aitta eta ama?

-Bai. Atte jaiota o Azpeittin, ta ama basarrin, Azkoittin.

-Ze basarritan?

-Usin-azpikoa. Ikusten da Urrategi handik bertatik-bertaa.

-Urrategi Baillarakoa da baserrie?

-Bai. Elizaa danok juten giñen hautzako, han aurren daukeben elizaa.

-Orduan zuk Beasaiñen jaio...

-Beasaiñen jaio eta hiru egunekin o Ordiziara etorri nitzen. Eta handik oaiñ arte ba Ordizian. Eta bizi nitzen aitte-amekin.

2.9. Umetako jolasak: kaniketan, diabolarekin...

- **Hizlaria(k)**: Etxaniz Gantxegi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-025/006
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:10:10. **Bukatu**: 00:12:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena**: Umetako jolasak: kaniketan, izkutuka, diabolarekin, tortolasetan... Igandetan kartetan jolasten zuten, musean ez zuen sekula ikasi eta pena du.

Transkripzioa

-Eta orduan ze jolas eitten zittuzuen?

-Ba jolasak eitten giñuen asteen kanikatan, kanikatan, estee... izkutuka eta hola bata besten atzetik, sokasaltoon, "al diablo" horrekin ibiltzen giñen.

-Tortolaxetan e bai?

-Baita. Gaiñea margotua genduzken gorri-esmaltekin emanda ta. Hori gogoratzen naiz. Ez dakit zer gehio. Gero igandea aillegatzen zanen, ba hamen beheko etxe honetan ude-ta denbora baten goiko depositora juten da egunero zuen etxetik, goiko deposito horretan juten da hamen bizi dana oain, baiño lehen bizi zien beste batzuk. Betiko lagunek. Amak lagunek eta gu're bai lagunek alabanak-eta. Eta igandetan gure kapritxoa zan kartatan, zeñek bata bestei ze, aber ze irabazten giñun o ze itten giñun o zer. Kapritxo hori. Eta arratsaldetan lagunekin. Igandea aillegatzen zanen'e ba karmelitan gela bat bagenduken eta kartatan. Gaiñeaz amorratzen, e!

-Zeñek erakusten zizueten kartatan?

-Ez dakit. Errexena. "a la mona" edo "al cuatro", laugarren urrezko... eze askoik ez. Baiño errexena.

-Musean eitten zenuen?

-Ez. Nik ez det ikasi, egie. Eta oain pena ematen dit. Zeatik gauza asko dare ikasi beharrekok. Baiño ordun ez diozu inportantziaik ematen eta geroa edaden sartzen ai zeala konturatzen zea.

2.10. Kalera ateratzeko askatasun gutxi

- **Hizlaria(k):** Etxaniz Gantxegi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-025/022
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:38:23. **Bukatu:** 00:39:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** Gizona Beasainen ezagutu zuen hangoa baitzen. Egunero ikusten zuten elkar, baina gauez ez ziren ateratzen ez baitzieten uzten. Trenez joaten zen jendea inguruko herrietara.

Transkripzioa

- Eta zuk mutilla nun ezautu zendun? Gizona nun ezautu zendun?
- Gizona ezautu nuen, bai hamen, ta bai Beasaiñen. Senperen bizi zan, Beasaiñen.
- Eta ordun egunero ikusten ziñeten? Hola, bikote ziñatenen...
- Ez. Ba, bai, bastante bastante ikusten giñen. Bastante ikusten giñen. "Ahora", atera ez. Atera, este, gauen ta, gure etxen, gure etxen iñork ez. Gogoa bai, baiño ez, ez ziguen uzten. Beratziretako etxea, eta kitto.
- Inguruko herritako erromerita juten ziñaten?
- Ez, ez naiz ni jun, zeatik ez zielako uzten. Bestela jun... nik karnabalak, egia esateko, ez dittut ikusi.
- Ez?
- Oain ez daukat penak'e e? Egia esaten dizut. Ordun trena, trena, ordun dana juten zan trenen. Ta gaiñeaz gogoratzen naizena da esaten zuen "los estribos" ta bakarren bat trenak harrapatu zuela ta... eske izeten zan karnabaletan ta ba. Ni sekula ere ez naiz jun.

2.11. 24 urterekin ezkondu zen Ordizian

- **Hizlaria(k):** Etxaniz Gantxegi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-025/023
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:39:35. **Bukatu:** 00:41:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** 24 urterekin ezkondu zen Ordizian. Banketea Martinez jatetxean egin zuten. Zuriz jantzita ezkondu zen berak egindako soinekoarekin. Soineko harekin jantzia egin zuten eta biloba guztiek erabiltzen dute bataio egunean. Ezkon-bidaian Madrilera joan ziren.

Transkripzioa

- Eta gizonakin ezautu zendun, ta noiz ezkondu ziñen?
- Ta ezkondu nitzen hogeta lau urtekin.
- Hemen? Ordizin?

- Ordizin.

- Ta nolakua izaten zan orduko boda?

- Ba ondo.

- Gaur bezela, hola banketekin eta...?

- Bai, bai, guk eukiko... bueno, nik eta ni bezela bestek, nik uste det.

Bankete ba Martinezenen, kanpoa jun be bertan, familie, etxekok eta, este, aitten arrebak. Ta danak, bueno, eta amanak'e igual, danak ba asko ba juntau, ez dakit zenbat juntauko giñen. Baiño, ordun, gaur gehio juntatzen dia, baiño larogei bat? Larogei bat? Hortxe.

- Eta soiñekoa? Beltzez eo...?

- Ez, ni txuriz.

- Txuriz?

- Bai. Bai, neonek in nuen gaiñea.

- Hara! Zuk ein zendun soiñekua?

- Bai, bai, bai.

- Ba lan pixkat eukiko zendun e?

- Beste batzuk gero probau ta in zien, baiño neonek in nun.

- Ta horrek'e poz gehio emango zun e? Norbeak eindakua izanda.

- Bai, baita, baita, baita. Hori dauket, este, nere seme-alaban, bueno nere alaba, komunioko soiñekoa, ba neonek in nion, eta zan politte, eta da. Eta esaten nuen, bai, gero bat komuniokoa. Gero, eskauta, batek eskauta bestek aber utziko nion, ta aber, ta esan nuen, bai, rekuerto ona izeteko, ingo detana da, famili izeten duenen, faldoia.

- A, beittu.

- Halaxe dauket. Ta danak, illoba danak, bataiatu die soiñeko horrekin. Ta gordeta dauket. Ba, horikin danak. Mutillek eta neskak, izan dia danak faldoi horrekin.

- Eta biaje de nobioseka kanpoa jun ziñaten?

- Bai, Madrideaño.

- Madridea jun ziñaten?

- Madridea, ta bueno, Valladolid lenago dago, baiño... Madrid.

- Ezagunen bat zeukezuen han edo bestela...?

- Ez, ez, ez. Hotel batea jun giñen.

2.12. Aitona ganadu tratantea Argentinan

- **Hizlaria(k)**: Urretagoiena Murgiondo, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-026/001
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Ordizian jaio zen 1924an. Ama Mutiloakoa eta aita argentinarra zituen. Aitona ganadu tratante aritzen zen Argentinan eta handik etorri zen Pedoren aita eta anai-arrebak hartuta.

Transkripzioa

- Bueno, hasteko, izena ta abizena esaten badizkiatzu...

- Pedro Urretagoiena Murgiondo Oiarbide Alustiza. Gehiau nahi dittuzu?

- Ez, nahikoa die. Asko dakizkitzu! Joe... Eta ze urtetan jaio ziñen?

- El año 1924, veintiséis de abril.

- Ta nun jaio ziñen?
 - Ordizin.
 - Ordizin? Kale-etxen ala baserrin?
 - Ez, kale-etxen, eliza paren. Bai, han badao panaderie Zabale? Harren paren, bigarrenko pixun.
 - Ze kale da hua?
 - Santa Maria.
 - Eta gurasok nundarrak zittuzun?
 - Gurasoa? Nere ama zana zan Mutillokoa, del caserío Agirre ta nere aitte zana jaio zan Argentinan, Rosario de Santa Fe. Bai. Zazpi urtekin etorri zan honutza Ordizira. Aittona ibiltzen zan han, ba, a los gauchos zaldik eosi, saldu... hala ibiltzen emen zan.
 - Tratante ibiltzen zan?
 - Tratante, bai.
 - Eta aittona honea etorri zanen...?
 - E?
 - Aittona honea etorri zanen ekarri zun semea?
 - Bai, semea ta alaba ekarri zittun, bai. Ta batzuk han ezkondu zien; bai, bi o badauzkeu familiarrak han, bai.

2.13. 1927an jaio zen Ordizian

- **Hizlaria(k)**: Ormazabal Garmendia, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-028/001
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1927an jaio zen Ordizian. Ama lasartearra eta aita Altzagakoa zituen eta 5 anai-arrebako familia zuen.

Transkripzioa

- Bueno, hasteko zure izena ta abizena esaten badizkiatzu...
 - Bai. Iñaki Ormazabal Garmendia.
 - Ormazabal Garmendia? Eta ze urtetan jaio ziñen?
 - Milla ta bederatziehun ta hogeita zazpin.
 - Ta nun jaio ziñen, hemen, Ordizin?
 - Ordizin.
 - Kalen ala basarrin?
 - Kalen.
 - Ze kaletan?
 - Ba, Gudarien etorbidea 1, uste det dala oain. Ez dakit ezautzen dezun han beheran sagardotegie...
 - Ordiziko bukaeran?
 - Bukaeran, sagardotegie, aldapan. Han [...] jaiotakoa naiz.
 - [...] plazatik behera?
 - Beherago, bai, eskubitaa. Han.
 - Han jaio ziñen?
 - Han jaio nitzen.
 - Eta gurasok ordiziarak?
 - Ez.

- Gurasok, ama zan Lasartekoa eta aitte Alzagakoa.
- Alzagakoa?
- Alzagakoa. Baserrie Sarasola txiki aittena. Amana ez dakit.
- Zenbat anai-arreba ziñeten?
- Bost, arreba bat eta lau anai.

2.14. Itsasondon jaioa 1934an

- **Hizlaria(k):** Ormazabal Garmendia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-029/001
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1934an jaio zen Itsasondon, eta lau hilabete zituela eramán zuten Ordiziara. Ama lasartearra eta aita Alzagakoa zituen. Lau mutil eta neska ziren etxean. Aldasoro enea zuen izena Alejandroren etxeak.

Transkripzioa

- Hasteko izena ta abizena eta nun jaio zinen?
- Alejandro Ormazabal Garmendia.
- Eta noiz jaio ziñen?
- Abrillen hogeita hamarren eta milla beratzirehun eta hogeita hamalau; treinta y cuatro, ezta?
- Eta nun jaio ziñen?
- Itsasondon, baiño lau hillabetekin gutxigorabehera honea bertaa, etxe hontaa. Asi ke baztarrok ondo ezautzen dittugu.
- Eta gurasoak zer zenituen, hemengoak ala Itsasondokoak?
- Bueno, ama zan Lasarten jaioa, Lasartekoa, berrogeita zortzi urtekin hil zan, ta gero aitte Alzagakoa.
- Eta Itsasondon bizi zien zuk lau hilabete ein zittuzun arte?
- Bai. Porke han taillera zeuken gure aittek, pizarrerie, eta han jaio zien, han jaio zan beste anai bat eta ni, Itsasondon, eta besteek hemen, Ordizin. Villafranca garai hartan.
- Eta zenbat anai-arreba zineten?
- Ba gea lau mutil da neska bat.
- Orduan lau hillabetekin etorri eta etxe honetan hasi zineten bizitzen?
- Bai, gutxi gorabehera.
- Zer izen du etxe honek?
- Aldasoroenea. Gure aittek erosi zion hori Aldasoro zera batei, eta gero guk nola hemen eitten gendun arbelak edo pizarrak eskolaako, umeentzako, ba beti gero ia urtetan gu giñen Pizarrerikok, Pizarrerikok; horrekin...
- Ezizen hori hartuta.
- Pizarrerikok, bai.

2.15. Gazta egin eta kalera saldu

- **Hizlaria(k):** Barandiaran Unanue, Juan

- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-031/006
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:11:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserrria » Baserrriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserrria » Baserrriko lanak » Baserrriko animaliak
- **Laburpena:** Hamaika anai-arreba zituen. Baserrrian behiak, idiak, txekorrak, zaldiak, etab. zituzten. Esnea kalera saltzen zuten. Gazta egin eta azokara saltzen zuten. Gazta nola egiten den azaltzen du. Gaztak gordetzeko toki berezia zuten eta prentsa etxean egin izaten zen.

Transkripzioa

-Eta gero handik?

-Bueno, handik atzea baserrira. Eta baserrin, esaten dizut, etxeko lanak ein da zean, ba anaie soldau zan zarrena eta ordun pues neroni aitte zanakin eta gehientsuna han ibiltzen nintzena, eta bueno.

-Esan dezu zenbat anai-arreba ziñetela?

-Hamaika. Oaindik hamaika gea.

-Mordoa, e.

-Bai.

-Eta baserrin zer zeukazuen, ganadue?

-Bai.

-Zer ganadu zeukazuen?

-Guren egongo zien hamasei bat behi ta beste idi pareta; txekorrak egongo zien zortzi-hamar bat. Behorra, zaldie ta zean, bi edo hiru kaballerie egoten tzien; hoikin izaten zan hango zera.

-Martxa.

-Martxea.

-Eta ardirik eta bazeukazuen?

-Ardiik ez. Guren ez zan eoten ardiik.

-Behiak eta bai.

-Bai, behiek eta bai.

-Eta esnea kalera saltzen zenduen?

-Bueno, bai. Kalera. Gero hasi giñen Gurelesai ematen'e, baiño ordun Gurelesak'e zea haundie ein zon. Ez zon erditan paatzen, batzutan zean, oso gaizki, ordun bolara hartan. Nik ez dakit hasi berrie zan baiño berealdirako zeak eman zittun, disgustok eman zittun porke eaman eta erditan ez dizu paatzen. Eta gero hasi giñen ba gazta eitten, bertan etxen gazta, behi-gazta eitten gendun eta bueno asteaizkenetan hemen ferien saltzen zan.

-Zeiñek egiten zuen behi-gazta?

-Amak eta. Ni're ibiltzen nitzen, bai. Tartetan neri're tokatzen [zitzaidan].

-Eta gazta nola egiten zenduten esplikaiko zenduke?

-Gazta. Esnea biltzen dezu, zea batea jartzen dezu, balde zea baten, gazture, zera, gatzagie botatzen diozu eta hue pixka bat zeatzen danen, gero mozten dezu, puxkataka jartzen dezu eta hure ba bere ontzi zera baten hue jartzen dezu han, eta gero eskuz aurrena estutzen dezu, bere zea ematen diezu forma bat eskuz eta gero ia prensara sartzen dezu. Gero prensa hortan ba, gero ia aldi bateratakon jartzen dezu bere zea baten, estanteri baten o "lo que sea".

-Bazeukazuen toki bereziren bat gazta gordetzeko?

-Bai, bazeren, estanterie ta zean-ta baldek eta zerak eta horik ia bazeren. Prensa ez gaur egunetakoa bezela baiño ordun bazeren ba kontrapixuk eta han bertan eindako zea batzuk.

-Etxean egindakoak?

-Bai, bai.

-Eta gazta keetu egiten zenduen?

-Bai, bai. Kea ematen zitzaion. Hola zea leku bat, txoko bat bazeon eta han keakin etxeko zea baten, txoko baten.

-Eta gaztak kalean saltzen zittuzuen?

-Ez, ferian. Bai, ferin.

-Eta behar izaten zan zeoze gaur egunean etiketak bezala?

-Ez, ez.

-Ez zitzaion pasatzen iñungo...

-Ez, ez. Gazta normala jeixten zan, batzuk kea emandakoa bestea eman bekoa, batzuk berrixo, beste batzuk zartxeo, bai, ezta... Behi gazta jeneralen berrie izaten zan, ez zan izaten, gehienerako ere sei hillabete? Ez, gutxigo. Hiru bat hillabete edo. Gazta jeneralen gazta berrie ibiltzen zan.

2.16. Nola antolatzen ziren 11 anai-arreba etxean

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran Unanue, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-032/019
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:22:27. **Bukatu**: 00:24:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: 11 anai-arreben artean, arropa bata besteari pasatzen joaten ziren. Etxe handia zuten. Ukuilua sukalde ondoan zegoen. Koltxoak nolakoak ziren, eta nola garbitzen ziren azaltzen du. Ohe bakoitzean bi lagunek-edo egiten zuten lo.

Transkripzioa

- Eta erropak nundik eosten zittuzuen normalen?

- Bueno, gutti, amak amak eamaten zittunak. Gure erropak...

- Hamaika senide izanda, alkarrena txandatu'e bai?

- Bai, hombre, asko o gehienak. Bat besten, bat besten...

- Bestela hamaikantzako erropa berrik, ez zan izango...

- Bai, bai, ez, ez, bata bestenakin pasatuz. Nola ba?

- Eta hamaika senide izanda, ohiak'e? Ze itten zenduen, anai-arrebak elkarrekin lo?

- Baita, baita, bai, bai.

- Zer zenduen etxe haundie?

- Bai, bai, etxe, etxek izango dittu larehun metro kuadratu zean hiru bizitzan.

- Hiru pixu?

- Hiru pixu.

- Eta ikuillue nun izaten zan, lehenengo...?

- Lehenengon.

- Lehenengo izaten zan? Sukalde ondon o?

- Bai, bai.
 - Ta orduko ohiak...
 - Jolin, ohiak...
 - Ta koltxoia, nolakok izaten zian?
 - Koltxoia? Ardi-ilekin, o beste batzuk izaten zien arto...
 - Malutakin eindakoak?
 - Bai, arto zeakin eindakok...
 - Arto-azalakin eindakoak?
 - Arto-azalakin eindakok'e.
 - Ta ze in ber izaten zan, astingu gero hue?
 - Jolin, bai, eta hue jotzen zan makilla batzugin, hautse kentzeko, kanpoa ateatzen zendun noiz eo noiz, hola. Makillakin joz, hautse kentzen ziozun, ta atzea berriz'e barrua.
 - Biguñak izango zien hoik?
 - Bai, haixek biunek. Jolin. Bai, ta esaten dizut, ohia bakoitzen bi bi bi biñaka normal.
 - Hamaikantzako...
 - Bai, bai, bai. Esaten dizut, hamabost lagun, e? Fijo hamabost lagun. Bueno, aitzeneko zeatan, hoitxen, hamaika giñen bitarten ez? Gazteñak, gaztena nik baiño hamar urte gaztegoa da, baiño, esaten dizut, halare...
 - Halare mordoia.
 - Mordoia.

2.17. 1941ean jaioa Baliarrainen

- **Hizlaria(k)**: Iztueta Altuna, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-033/001
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: 1941ean jaio zen Baliarraingo Ermenta Etxeberrin. Aita bertakoa zuen eta ama Lazkaomendikoa. Bi baserri zituzten eta ganadu ugari. Esne-behiak zituzten eta esnea beste baserri batera saltzen zuten gazta egiteko eta Tolosara plazara ere eramaten zuten. Zortzi anai-arreba ziren familian.

Transkripzioa

- Izena ta abizena eta noiz jaio zinen esaten badidazu.
 - Pakita Iztueta Altuna. Jaio nintzen abenduan hamazazpian, milla bederatzirehun eta berrogeita bat.
 - Hemen Ordizin bertan jaio zinen?
 - Ez, Baliarrañen.
 - Baserrian?
 - Bai. Han eztao besteik ia. Bueno, oain etxe berriak einda dare baiño lehen behintzat ni jaio nintzenen baserriek bakarrik ziren.
 - Ze baserri?
 - Ermenta Etxeberri.
 - Eta zer zenuen, aita edo ama hangoa?
 - Aita.

- Eta ama?

- Ama Lazkaomendikoa.

- Eta baserritik bizi zineten?

- Bai bai. Bi baserri genituen eta terreno pilla bat eta ganadu asko eukitzen zan garai hartan.

- Ze ganadu zeukazuen?

- Ba behiek, txekorrak eta iriak eta. Txerrik, oillok. Danetik; hola hegaztik eta.

- Behiak, esne-behiak?

- Esnebehiek, bai.

- Eta esne hori saltzen zenuten?

- Baita, baita. Esnea gazta eitteko eamaten zan han beste baserri batea Baliarraiñen, gazta eitten zuen eta hautza eamaten gendun bolara baten. Gero beste bolara bat izan zan ba Tolosara eamaten genduna. Bezerok bageneuzken da bezeroei repartitzen eta baitaere bezerotatik aparte baldin bagenduen plazan saltzen zan.

- Arrautzak eta holako gauzak ere bai?

- Baita, baita. Bueno, egunero juten giñenen esnekin, esnea eamaten gendun jeneralen. Esnea. Gero aparte ama ibiltzen tzan Tolosako ferira eta Ordiziko ferira. Ordun bai, sagarrak, arrautzak, porruk...; ordun danetik. Etxen zegon gauzak.

- Zenbat anai-arreba ziñaten?

- Zortzi. Ordun garai hartan normala zan zortzi. Zortzi ta gehiago igual.

2.18. 1928an Bustuntza baserrian jaioa

- **Hizlaria(k)**: Korta Gurrutxaga, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-034/001
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: 1928an jaio zen Ordiziako Bustuntza baserrian. Baserriaren kokapena aipatzen du. Gurasoak urrestillarrak zituen eta seme bakarra zen. Etxean soilik egiten zuen euskaraz, kanpoan erdara derrigorra zen.

Transkripzioa

-Hasteko izena, abizena eta noiz jaio zinen esaten badidazu.

-Felipe Korta Gurrutxaga, agorrean hogeitasien milla bederatzirehun eta hogeta zortzin jaio nintzen. Hamentxe Ordizin baserri baten, Bustintza baserrie zan.

-Nun gelditzen da hori?

-Hori dao, e, ia jun zan, ia ezta esistitzen, bota zebe baserri hori eta etxe berrie ein zebe han. Bueno, hori zeon trenbide ondun, paso nibela zeon Zaldibi aldea ta haren kontra-kontran zeon. Aitte ta ama Urrustildarrak nitun.

-Biak Urrestildarrak?

-Biek urrustildarrak. Ta baserrin maizter zeren, apaiz batena zan baserria. Ta nik askotan ba haien hizkerie eiten det. Bai, garai hartan ezta

harritzekoa, zegatik euskeraz etxin bakarrik eiten gendun. Etxetik kanpora erderaz dana baiño soil-soillik. Ta nik, klaro, ambiente hortan jaio nintzen da, baserri bat zan da sei urte arte ba han ibilli nintzen ba libertade guziyakin, bakizu ondokuk eta etxekonekuk eta abar-da, mutilkoxkor bakarra nintzan ni han.

-Zenbat zenbat seme-alaba zineten?

-Bakarra nintzen, seme bakarra nintzen. Eta bueno, han libertade guzien hazi nintzen sei urte arte. Eta amak lehen ez ninduan eskolara bialdu zeatik iruditzen [zitzakun] urruti zeola ta zeoze gertauro [zitzakula], ta sei urtekin hasi nintzen.

2.19. 1929an Itsasoko Albitxuondo baserrian jaioa

- **Hizlaria(k):** Nazabal Dorronsoro, Rafaela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-036/001
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1929an jaio zen Itsasoko Albitxuondo baserrian. Ama Itsasokoa eta aita Zaldibiakoa zituen eta sei anai-arreba ziren. Baserritik bizi ziren; behiak, idiak, ardiak, untziak, etab. izaten zituzten etxean.

Transkripzioa

-Hasteko izena eta abizena esaten badidazu?

-Rafaela Nazabal Dorronsoro.

-Eta noiz jaio zinen?

-Nik eztet gogoan eukitzen hori. Dauket... Diez de febrero. Ochenta años tengo yo. Datorren urteen...

-Ze urtetan jaio zinen?

-Senarra: Veintinueve.

-Nun jaio zinen, hemen?

-Itxason.

-Baserriren baten?

-Bai. Baserrie Albitxondo. Baiño aurreneko izen zaharra Murkoondo.

-Baina zu jaio zinenean Albitxondo.

-Albitxondo, bai, baiño lehen-lehenaokoa Murkoondo.

-Gurasoak zer ziren, bertakoak?

-Ama bai, baiño aitte Zaldibikoa.

-Eta zenbat anai-arreba zineten?

-Ba gea sei, bost ahizpa eta anai bat.

-Eta orduan baseritik, baserriko bizimodutik bizi zineten, ezta?

-Bai. Gu ezkiñen iñoa juten, guk jun nahi gendun neskame o norabait baiño etziguen uzten, etxen lan asko zeola ta etxen aitzen giñen.

-Eta ganadurik eta bazenuten etxean?

-Bai, ba eukitzen giñuzen zortzi behi, irik, astoa, ardik, txerrik, konejuk, oillok; hoik danak.

2.20. Belarreta eta gari-jotzea auzolanean

- **Hizlaria(k):** Nazabal Dorronsoro, Rafaela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-036/007
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:15:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Anaiaren aipamena egiten du. Denen artean banatzen zituzten baserriko lanak: anaia eta aita idiekin ibiltzen ziren eta baita amaren anaia ere. Idiekin lan ugari egiten zen. Belarretan edo garia jotzen auzolanean aritzen ziren. Garia jotzeko makinak nolakoak ziren azaltzen du.

Transkripzioa

-Haiek lana bukatzen zutenerako zuk preparatuta?

-Bai. Baiño guk senide danak, gure etxen edozein gauza, danak eitten gendun, igual eitten gendun danok. Geo anaie, anaie bakarra det nik, eta harek ba hue irikin-da itzai ta gehio ibiltzen zan gu baiño. Ni're ibilita nao itzai, e! Eta goldan soron-da; bueno! Zaildutakok.

-Idiekin ibiltzen zineten?

-Irikin itzai ibiltzen zan anaie. Gehiena anaie ibiltzen zan irikin. Eta aitte. Baiño aitte baiño're gehio anaie. Eta aitte, klaro, eske anaie txikie zala aitte ibilliko zan baiño anaie gehiena ibiltzen zan. Da gero osaba bat gendun guk han aman anaie, eta hure're irikin aitte baiño gehio ibiltzen zan. Baiño geo anaie hasi zanen ia zeatzen anaie ibiltzen zan.

-Idiekin zer lan egiten zenituzten?

-Lan asko. Goldan soron. Egurrek saltzen eta haek etaatzen.

-Egurra saldu egiten zenuten?

-Bai, piñue ta bai. Eta hak etaatzen. Eta irikin gauza asko, ximaurretan, ximaurre sorra eamaten etxetik gurdiikin. Ta iri-lanak horik zien.

-Belarretan eta ere...

-Uuu! Belarretan? Bai, earrak pasauta [gare] gu belarretan, bero galantakin. Kizkitza aldeko mendin.

-Auzolaneko...

-Bueno, auzolana izaten zan garai baten, oaiñ baiño hobetogo, e! Porejenplo zuk baserri baten ikusten zendun garie ebaitzen, eta hara!, han hasi die gari-ebaitzen eta danak hautza jun da laguntzen zuen. Beste baserriarrak danak. Eta gero han afarie ein da etxea etortzen zan. Eta gure etxen igual. Beste baserriko ikusten zuenen gure etxea, gure etxea etortzen zien hak. Auzolana hola izaten zan, eta gari-jotzea're bai. Gari-jotzea, makinea etortzen zan gari-jotzeko. Eskuz nik gutxi ezautu det, baiño garai baten, lehen-lehenao eskuz jotzen zen garie, e!, makinak baiño lehenao, e. Eta baakizu nola jotzen zan? Harri bat izaten zan hola, mahi hau hola jarriko balitz bezela, eta han hola jotzen zan garie. Ze lanak! Ni ezaututa nao aittona zana. Eta gero hasi zan makinak, eta makinak hasi zienen etortzen zien ba makinak, gizonak ibiltzen zien gari jotzeko makinekin eta. Baiño ze hautsek! Eta ordun'e eitten zan ba "gari-jotzea bihar emen da" eta danak harutza. Eta "etzi hola", harutza.

3. Baserria

3.1. Uholdeak errotan

- **Hizlaria(k):** Eguren Otegi, Lupe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Erref:** ORD-004/024
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:26:00. **Bukatu:** 00:27:27
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Errota
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Uholdeak izaten zituztenean errotan komeriak izaten zituen Lupek; orduko kontuak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Eta, eta errotan'e beste majiña bat mixeri pasa zenittun, ba, ama, urekin. Uholdek eta izaten zienen. Ebi asko itten zunen, zenbat larritasun, ama?

- Honeaiñoko ude ta're ateata nago ni errotatio. Bildurrez beti, noiz, noiz ebia ingo ote zun. Seittun, klaro, errekek zeren erabat zikiñak. Eta segittun uholde zeatzen baldin bazan, seittun sartzen zan ude, seittun hasten giñen aska garbitzen. Aska garbitzen hasten giñen, ta dana jaso, eta zea, ahal deun bitarten beheran. Armarioa, sukaldeko armarioa, hirugarren zea hartakoa e genduke? Ba ez zigun eaman leihotio... kabitzen ez zalako! Sukalden han geatu zien markak, noaiño aillatu zan.

- Ta zuek teillatun?

- Teillatun ez, pixua, ni behin saltzeko aldetik, atzeko aldetik leihoa genduken, eta leiho, eskailleretako leihua, pixua juten giñena gora, goien ta genduzken dormitoriok. Eta handik teillatu txiki bat, handik salto in ta ni beste baserria jun nintzen. Oaindio baserria han dau e? Han lo in non, eta majiña bat aldiz hola uholde izaten zanen. Ni ez nintzan geatzen gauen lo itteko han. Ni baserria juten nintzen.

- Bazpare.

- Hombre, han ezagunek neuzken, bueno, ezagunek, etxeko zelaittan giñen danok, eta ni hauntza juten nintzen.

3.2. Goizetik iluntzera sua piztuta

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Irastorza, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Erref:** ORD-006/013
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:20:29. **Bukatu:** 00:22:00
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Sukalde ondoan ur depositua izaten zuten. Goizean piztutako sua egun osoan izaten zuten piztuta.

Transkripzioa

- Eta ordun zekuen, ordun zekuen esto sukaldeai aldamenen, aldamenen hola, zea bat, ude depositu txiki bat eukitzen zuen. Ta han betetzen gendun udez, eta behar zanen babarrunantzako eo, depositu hartati hartu

ta botatzen zan...

- Beroa, erdi beroa eongo zan [...] behintzat.

- Irakitten'e bai!

- Beida.

- Ta oso su ona. Goizen kalkatu ondo, ondo kalkatu, eta beti eman. Eta gaiña zerrautza nola ekartzen zuen, eoten zan ganbaran ba zerrautze ihar-ihar-iharra. Eta eguardi arte guztin ez zeon ikuittu're beharrik. Gaueako ya amak ez. Gaueako ya bestela itten zun. Zeatik zezkuen, goiko txapa horrentzako, zuloa einda. Baiño gero gaueako burni batzuk jartzen zittun, sue itteko ikatzakin, ta txirbillekin, ta gauen afaria itteko, o merienda, o nahi zenduna. Zeatik ordun ordun ez zeon entxufauta.

- Bestelakoik ez?

- Ez, ez zeon besteik ezer.

- Sistema.

- "Sí", baiño ona e? Bero bat botatzen zun harek, txeo, sukalde guk haundie genduken ta.

- Sukalde bero-beroa.

- Bero-bero-beroa. Ta labea're bai. Labea ordun oillaskoik ez zeon labean sartuta. Erreko zien han.

- Jeneroa falta.

- Bai, halaxe da.

3.3. Ordiziako azoka lehen eta orain

- **Hizlaria(k)**: Etxaniz Gantxegi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-025/013
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:21:11. **Bukatu**: 00:24:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Ordiziako azokak orduan eta gaur dituen ezberdintasunak aipatzen ditu. Azokatik eta dendatik erosi ohi zuten etxerako jana.

Transkripzioa

-Ordiziko ferira juten al ziñeten zuek?

-Bai, bai, bai. Bai-bai-bai-bai.

-Saldu ez zenuen ezer egiten, ez?

-Ez, ez, ez.

-Nolakoa izaten zan orduko ferie, gaur bezelakoa?

-Ez, gaur nik usten det daukela indar gehio eta... Jende asko ibiltzen da, kanpotiken e asko etortzen da, zeatik asteazkenen, esan nizuna [...], ba etorri nitzenen, Jesus!, arboledatik hasi eta..., baiño eske ikaragarri.

-Eta ordun ze izaten zan, bertako jendea gehio?

-Bertako jendea gehio. Oaiñ kanpotiken e, eta gero basarritarra ere asko baiño, ondoko Olaberria, Idiazabal o Gainza, alderdi horietako jende asko. Eta gero etortzen die ba berdurakin.

-Orduan ze puesto egoten zien, zer saltzen zuten?

-Gaurko aiñeko, oain bezela, hainbeste puesto ez.

-Zer izaten zan, ganadue-ta egoten zan?

-Ganadue bai. Ardiik, ganadue-eta, eta txerrie eta, ba Plaza Garagarzan.

-Eta erropak-eta gaur bezela?

-Ez, hori ez naiz gogoratzen, ez. Plazan bertan, oaiñ egoten dan bezela berdura eta hainbeste gauza, ba ordun egoten zan plazan puestok erropana, jertseek diela o kamixetak o prakak, berdin tzaio, danetatik. Egoten zan plazan, eta egoten zan puesto asko. Hori bai, buelta guztin, hori ezautu det nik ia gaztetan.

-Eta normalean zuek azokatikan zer erosten zenuen? Dana azokatik erosten zan?

-Ez, ez, ez, dendatik. Ordun tzaren denda asko, guk hamen bertatik bertaa, oaiñ danak etxek in die, baiño ordun bazeon Usabiaga, Mafre dagon tokin, hor zeon denda Usabiaga, berana zan. Denda haundie, almazena-re haundie zeukeben. Eta amistade haundie. Eta gero pare ere, nola da, Joyería Hidalgo, Hidalgo, hor e zeon beste denda bat saltzen zuena danetatik.

-Eta azokan erosten zana ze izaten zan?

-Bueno ba, azokan erosten baziñun, berdura eta holako gauzak. Baiño eske ezta etortzen, ordun e etzan asko etorriko, ez naiz asko gogoratzen baiño, ordun gutxigo oraindik, gaur da etortzen dana...

3.4. Lazkaoko fraideetan ikasten

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran Unanue, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-031/005
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:06:19. **Bukatu**: 00:08:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: Lazkaoko fraideetan batxilergoa ikasi zuen. Fraideak euskaldunak ziren. Ikasi eta baratzeko lanak egiten zituen, izan ere, bertan jan eta lo egiten zuen, ez zen etxera joaten. Ikasturte bat egin eta etxera bueltatu zen, baserriko lanetara.

Transkripzioa

-Urkitik Lazkaora pasatu ziñenean, zer zan, oso diferentea?

-Bueno, diferentea-diferentea, bai beti eitten zon bere zea bat.

-Baiña han ze ikasten zendun Lazkaoko frailletan?

-Ba han batxillerra, batxillerra. Bai, diferente zan porke...

-Eta ofizion bat ikasten arittu zinen?

-Ez, ez. Batxillerra, batxillerra.

-Eta fraillek ematen zizueten eskola?

-Bai.

-Eta zer ziren, hemengoak fraillek?

-Bueno, frailleek zeren, bat Alegrikoa, Alegrikok bazeren, Azkoitikoa're bai, eta gero Ataungok'e bazeren.

-Lazkaon ikasten ari ziñen bitartean, lo eta dena bertan?

-Bai. Interno bezela egon nitzen ni.

-Eta zer izaten zan, eskola eta aparte lanen bat egin behar?

-Ez, bueno. Gero izaten zan larunbatetan eta hola baratzan-ta zeran; bai lana izaten zan baratzan-ta.

-Eta etxera ez ziñen batere juten asteburutan ere?

-Ez, ez. Ni aurreneko zeran jun nintzenen Eguarritan, eta gero..., gero ez

dakit, ekaina arte edo Eguarritako bueltatik, edo Aste Santun ez dakit;
baño ez det uste Aste Santun jun nintzenik; haik eta ekaiñe arte bertan.
-Zenbat denbora ein zendun han?
-Urtebete. Kurso bat. Kurso bat bakarrik.

3.5. Labesuan ogia egiten zuten

- **Hizlaria(k):** Barandiaran Unanue, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-031/007
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:11:59. **Bukatu:** 00:13:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Ogia labesuan egiten zuten, etxe ondoan zuten borda batean. Garia etxean egiten zuten eta Aramako errotara eramaten zuten. Zaldia hartuta jaisten ziren oinez errotara eta zakuko hainbesteko bat kentzen zien.

Transkripzioa

-Eta ogirik eta etxean egiten zenuten?
-Bai. Bai, bazeon labe bat eta. Astero.
-Ze labe izaten zan, labesue?
-Bai bai. Labe, etxe, baserritik kanpora zeuken zea bat, borda bat, eta han tzeon einda ba labea bere zeakin ladrillu refraktario zea batzugin inda, ta han sue eitten zendun, egurren sue, da hue zeatzen zanen ba sartzen gendun, laben sartzen zendun ogie ta hasteko ogie han itten zan, garie jexten gendun, garie bertan eitten gendun, baserrin. Jexten gendun hemen Isasondon, Ibares edo, Aramako...
-Errota?
-Bai, erota. Hor jexten gendun eta gero iriñe gora igotzen gendun.
-Jexten zinetenean astoarekin?
-Bai bai. Asto haundie edo zea bai. Betik kaballerikin jexten gendun.
-Eta errotan hainbestekon bat utzi behar izaten zan pagatzeko edo?
-Ez, haiek [gu beste] zeatzen zuen, honenbeste zakuko edo zeako edo honenbeste zeatzen zuen. Eta gero askotan ogie bertatik ogie're igotzen gendun, bertan ogie eitten zuen. Ta ordun nahiz ta iriñe eaman ba horra behera jetxitakon ogie beti zeeze eamaten zan.
-Ogirik saldu ez?
-Ez, etxeako, etxeako. Halare nahikoa askotan etzan izaten, e. Hamaika senide, aitta-amak eta aitton-amonak. Osea ke pentsau.

3.6. Sagar-motak; sagardoa nola egin

- **Hizlaria(k):** Barandiaran Unanue, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-031/008
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:13:45. **Bukatu:** 00:17:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

- **Laburpena:** Baratzea bazuten eta fruitu arbolak ere bai. Sagardoa egiten zuten, umetan artean dolarerik ez zutenean auzoko baserri batera joaten ziren sagardoa egitera, baina gerora etxean jarri zuten dolarea. Sagardoa nola egiten zuten azaltzen du. Sagardoa egiteko erabiltzen zuten sagarra eta bestelako sagar-motak eta beraien ezaugarriak aipatzen ditu. Sagarra urri aldera jasotzen zuten eta eskuz astintzen zuten.

Transkripzioa

-Baratzako lanetan eta aritzen zineten?

-Bai, bai. Baratzean etxeako eta bueno, feria ere, feriako jeixten zan.

-Fruta-arbolarik eta hola bai?

-Bai. Sagarra ta keizak eta.

-Sagardorik egiten zenuten?

-Bai, urtero eitten gendun. Gaur'e [egiten de] baserrin sagardoa.

-Egiten dezu?

-Bai.

-Eta tolarea ta zer zeuzkazuen, bertan?

-Bertan, bai. Lehen ez. Lehen, oain dala, zenbat esango dizut ba, gu umek giñela geron etxen etzeon eta beste baserri batera jeixten giñen. Baiño nik hamar urte nittuenerako ia tolarea bazeon ia. Bai etxea erdie zati bat erori ein zitzaigun, baserrie, ta ordun obra ibilli zienen aprobetxau zuen eta ordun tolarea ein tzuen.

-Nola egiten zan sagardoa?

-Sagardoa ba, makiña bat zeon jotzeko zea, ba eskuz eman behar zitzaion. Bi lagunek, askotan ba gu umek, bi lagunekin'e eziñen, porke sagarra geza baldin bada biguntxo da, baiño errezilla edo kokote sagarra edo tokatzen zitzaizunen gu bezalako umek ordun makinari bueltak ezin zion eman. Eta bakizu, askotan aitte zanak edo besta batek lagundu ta han ibiltzen giñen. Porke ia manibela're haundie zeuken eta gero altura're etzan iristen [...]. Eta ordun eziñen beti. Baiño akordatzen naiz sagarra nola bertan jotzen gendun makinakin. Eta gero ba estutzeako're berdin. Estutzeko're zeuken ba ardatza bat; ardatza bat zeuken eta harekin karraka bat bezela eitten tzun, eta han jartzen zunen ba karraka horrekin ba horrekin estutzen zan zean eta hola kentzen zitzaion.

-Eta sagardoa egiteko zer sagar erabiltzen zenduen?

-Txori sagarra, eta errezilla eta hok'e aurrena gaiña biltzen gendun erregea, errege-sagarra, errezeile... Hok. Ahal zan guzie gaiña biltzen gendun. Gaiña, ganbara(r)ako, gaiñetik. Eskuz. Ta ia gero geratzen zana dana ba sagardotarako.

-Eta sagar batetik bestera aldea badago sagardoa egiteko? Zein izaten da onena?

-Bueno. Errezille ezta..., gogorra da eta ezta sagardo zea itteko zumo oso gutxi du. Ta txori-sagarra're ezta..., dauke oso..., sagardo gorrie ataratzen du txori-sagarrak. Hor badare txalaka ta bazien sagarrak zeagok, este, sagardotako hobek. Errege sagarra, beste..., bazien andramari sagarra, goikoetxea sagarra, hola gorri zea batzuk sagardotarako hobek zienak. Errezille, tarten batzuk nahasteko balio du. Baiño berakin eitteko oso..., baiño oso mikatza da, oso fuertea da.

-Eta ze garaitan biltzen zenduen sagarra?

-Urri aldera, urrin, bai.

-Bazeukazuen sistemaren bat sagarra biltzeko?

-Ez, ez. Eskukin, eskukin. Dena eskuz.
 -Makinan batekin jota ez. Astindu eta...
 -Astindu eta gero lurren bildu. Aurrena, esateizut; gazie zean ganbararako erregea eta errezille, hoi dana ganbararako dana biltzen gendun, ahal zan guzie. Gero lurren zeona eta gero puntatan geratzen zana ba astindu ta haik danak sagardotarako.
 -Sagardoa sagarrarekin bakarrik egiten zenuten ala zeozer botatzen zitzaion?
 -Ez, ez. Sagarrakin bakarrik.

3.7. Txerri-hiltzea eta honen inguruko ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran Unanue, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-031/010
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:19:29. **Bukatu**: 00:21:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Txerria hiltzeko egurrez egindako mahai berezi bat izaten zen; nolakoa zen azaltzen du. Txerriak askotan ihes egin zien. Odolkiak eta txorizoak amak egiten zituen eta ohitura handia zegoen auzokoei eta medikuei edo apaizei eramateko. Txerrikia eta haragia gatza eman eta harrizko depositu batean gordetzen zituzten.

Transkripzioa

-Eta txerria hiltzen zenean zer izaten zan auzolanean bezela edo etxeoak bakarrik?
 -Ba ez. Eusteko ta askotan aurrenekotan, gu umek giñenen zean kanpokok etortzen tzien auzolan bezela, baiño gero atzenaldera ez, atzenaldera ia etxekokin zeatzen giñen.
 -Nun jartzen zan txerria hiltzeko?
 -Egoten tzan, txerrintzako bere mahi espeziala egoten tzan. Lau egurrekin einda egoten tzan, e, baiño. Mahie zan bi zeatan ba erdin sakonago zeuken. Lau hankakin, bi ohol, baiño etzien [uzten zeatzen] zan hola puxkat, bai. Geo zeatzeko ere, etzanda txerrie eukitzeko eta daneako enkaje harrek ba eutsi eitten tzion zerai.
 -Sekula txerriak alde egin edo?
 -Bueno, askotan alde ein, askotan atzetik buelta billa jun behar. Bai.
 -Odolkirik eta txorixorik egiten zenduen etxean?
 -Bai, bai.
 -Zeinek egiten zituen?
 -Amak.
 -Eta bezenduen ohiturak txorixoak eta odolkiak egindakoan auzora partitzekoe ta?
 -Bai, bai. Apaizei eta medikuei eta hori denai, hori denentzako zeatu behar zan.
 -Hori zer zan, obligazio bat bezela?
 -Obligazioa ez baiño usuario bat, usuario bat. Hue ezipazan ematen gaiñea eztakit, pekatue ingo bezendu bezela, e. Bai, medikuai, sekretarioi,

apaizei..., hoik ia izaten zien fijo.

-Eta txerria hiltzen zenduenean, haragia, urdaia eta gauzak nun mantentzen zituzuen?

-Ba gatzakin. Depositu bat zeon, harrikin, harriko zea depositu zea bat, eta horik gatzakin jartzen zien, gatzakin. Aurrena jartzen zendun gatza, jartzen zendun igual bi o hiru zea, este, puskak, txarri hankak edo besok edo lo ke sea, eta geo berriz'e kubritzen zendun gatzakin. Berriz'e. Lodin zea baten. Gero berriz'e beste kapa bat jartzen zan; eta hola ba...

-Hola mantentzen zan?

-Hola mantentzen zan. Eta gero gaiñen tapatzeko ba jartzen zan pixu batzuk, harrikin o bat o beste. Hola zeatzen zien.

3.8. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Iztueta Altuna, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-033/005
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:07:55. **Bukatu**: 00:10:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Baserrria » Baserriko lanak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak
- **Laburpena**: 13 urtera arte ibili zen eskolan, eta gero baserriko lanetan jarraitu behar izan zuen. Baliarrainen frontoia zegoen eta pilotan aritzen ziren, baita sokasaltoan ere. Hariz egiten zituzten pilotak eta haiekin aritzen ziren pilotan. Behin zigortu zuteneko anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

-Eta eskolara zenbat urte arte jun zinen Baliarraiñen?

-Hamahiru urte edo hola. Ia komunio, lehen komunio txikie ta haundie eitten tzan da komunio haundie, eztaikit, hamabi urtekin edo hola eingo zan da ia handik belaxe geldittu nintzen.

-Utzi egin zenuen eskola?

-Utzi beharra, nik ez nun utzi nere borondatez baizik lana ein behar zalako edo. Bai. Gero esnekin Tolosara jutun nintzen eta, klaro, utzi ein behar.

-Eta baserriko lanetan?

-Baserriko lanetan, bai, laguntzen.

-Eskola garaian ze jolas egiten zittuzuen?

-Sokasalton, pelotan, nei izugarri gustatzen zitzaidan pelotan.

-Bazan frontoia Baliarraiñen?

-Bai, eskolan azpin bertan geneuken frontoi bat itxie eta, bueno, han aritzen giñen. Eta esan dizudana, sokasalton eta...

-Kaniketan?

-Bai, baita. Eta geo izkutaketan eta; horik izaten zien.

-Tabak eta holakoak ere bai?

-Tabakin ez naiz gogoratzen. Badakit zerbait baiño etzan bolara hartan, ez, guk ez gendun ibiltzen.

-Pelotan esan dezu. Pelotak zer ziren, zuek egindakoak?

-Ez naiz gogoratzen, baiño nik, e, eztaikit, mutillek eamango zittuen pelotak edo, nik [ez nun iñoiz] pelotaik eamaten.

-Aittu izan diot jendeari...

-Bai, etxen eindakok izaten zien, bai, harikin eindakok eta izaten zien, bai. Ez naiz gogoratzen baiño hola izango zien.

-Eta frontoian pelotan egiten zenuen?

-Bai, eta izugarri gustatzen zitzaidan. Bueno, mutillen kontra han aritzen giñen neskak ere batzuk. Eta lehen esan dezuna, zigorra, maestrak zigortu eguardin hamabitan bestek atera zienen egon behar izan nun ia ordu bata arte, eta nik esaten nun atzea ordu bitan etortzeko etxea, ez nintzen batere jun, eta nerekin batea beste mutill bat ere zigortu zun, eta atera giñen eta biok pelotan, bestek sartzeko ordue, etxetik etorrita sartzeko ordua arte bate bazkaltzea jun gabe. Han aittu giñen pelotan, ordu batetik ordu bitaa. Esaten zendun ordu batean aterata etxea junda korrika atzea bueltan etorri behar zendun-da, egun hartan bazkaririk gabe.

-Baiña gustora.

-Geuk gere burui jarri genion beste zigorra maestrak gaiñean.

-Gaiñetikan.

-Bai.

-Baiña pelotan gustora arituko zineten.

-Bai, ez giñen gu konturatu gosekin ere.

3.9. Txerri-hiltzea eta ogia egitea

- **Hizlaria(k)**: Iztueta Altuna, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-033/006
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:10:18. **Bukatu**: 00:13:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
 Baserría » Baserriko lanak » Garia
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: 30 gazte inguru ziren Baliarrainen eta 22 baserri inguru zeuden. Baserrian baratzeko lanetan eta artajorran eta garia ebakitzen nola aritzen ziren aipatzen du. Labesuan ogia egiten zuten etxean. Eguneroko otorduetan babarruna eta txerrikia izaten zen gehienez. Txerria eta ardiak etxean hiltzen zituzten. Gazta egiten zuten etxean. Asteburuetako jatekoa berezia izaten zen, paella adibidez.

Transkripzioa

-Eta lagunak? Zer zineten, lagun kuadrilla haundia?

-Bai, danok.

-Asko zineten Baliarrainen?

-Ordun ez dakit hogeita hamarren bat edo ze izango giñen, e.

-Zer zegon, baserri asko Baliarrañen?

-Hogeita bin bat hola? Bai, hola izango zien.

-Eta zuk esan dezu baserritik bizi zinetela. Baratzan aritzen zineten lanean?

-Bai, horixe. Porruk aldatzen-da, gero belarra ataratzen-ta. Jorratzen, artojorran, artoa ta babarruna ta danak eitten zien, ta garie. Ezautu nun nik gure etxen garie e(re)itten. Bai. Berehala utzi zan, e. Ni gogoratzen naiz

garie ebakitzen eta nola aitzen giñen udan, Santiagotan, sekulako berokin garitan.

-Beltz-beltz eginda danak.

-Bai. Hoixe. Honbre!

-Eta ogirik egiten zenuten etxean?

-Etxen, dana bai. Guk etxerako ogie dana etxen egiten genuen; bagenuen labe bat, egurrekin sue egin eta gero beste egurrezko ontzi bat ere bat, [orrega?] esaten zitzaion, ogie masa egiteko, orrea egiteko. Hortan ni ez nintzen aitu behiñ'e. Nere ahizpak eta bai baiño. Hortik salbatu nintzen. Eta gero taloa're eitten zan, taloa're asko. Nik ez nun eiñ hoi're, ez nun ikasi taloa eiten.

-Eguneroko bizimodun zer jaten zenuten?

-Ba babarrunak asko, etxen babarruna izaten zan da babarruna. Udan da negun uste'et babarruna jaen zala, eta berdura, azea ta. Azea, hortik aurrera ez, koliflorea edo. Eta babarruna sartzen zitzaion txerrikie ta, urdaizpiko-ta txorixo-ta gauza hoiak. Odolki-ta. Etxen hiltzen zan bai txerrie bai ardie. Bi txerri igual negu baten. Eske gu familie haundie giñen eta. Gaiñea geneuzkan bi-hiru mutil kanpokok, e. Morroiak edo. Bai. Eta ordun familia haundie juntatzen giñen.

-Eta taloa ere egunerokoa zan?

-Ez, egunero ez. Baiño noizbehinka bai, eta oso gustora, asko gustatzen zitzaigun taloa ta esnea ta, urdaiazpikokin da. [...] Gazta erdin sartuta talon erdin bigunduta. Etxen gazta're eitten zan noizbehinka; behi-gazta esnekin, sobratzen zan esnekin edo; eta hue asko gustatzen zitzaigun.

-Eta asteburutako jana zer izaten zan, espezialagoa?

-Bai. Paella edo. Astegunetan nola babarruna edo ibiltzen zan ba, asteburutan paella edo garbanzue edo beste zerbait, igual bereizteko izaten zan.

-Eta arraia eta jaten zenuten?

-Enaiz gogoratzen. Ez, ez det uste arrairik jaten zanik garai hartan, oso gutxi. Festatan edo igual, e. Baiño...

3.10. Odolki eta txorizoak oparitan auzora

- **Hizlaria(k):** Iztueta Altuna, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-033/007
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:16:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
 - Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Amak eta ahizpek gazta nola egiten zuten azaltzen du. Etxerako egiten zuten gazta eta esnea kalera saltzen zuten. Txerria hiltzen zutenean beldurtuta alde egiten zuen. Auzokoen laguntzaz hiltzen zuten txerria. Odolkiak eta txorizoak auzokoei banatzeko ohitura zegoen. Apaizei eta maistrei eman egiten zitzaizkien; auzokoek beraiek hildakoan ordainetan ekartzen zituzten. Txerrikia gazi-kutxan mantentzen zuten.

Transkripzioa

-Eta esan dezu etxean gazta egiten zenduela. Zuk egiten zendun?
-Nik ez, amak. Ahizpak hortan ere. Amak edo ahizpak, bai. Nik ez nun hartu parteik hor, gazta eiten.
-Bazenuten gaztarentzako kuarto bereziren bat?
-Bai, gogoratzen naiz apal batzutan nola egoten zien eta nola zea batzutan, ontzi batzutan nola zapaltzen aritzen zien prensan [...].
-Orduan gazta kalean salduko zenduen baita?
-Ez, etxeako. Saldu etzan eitten. Hure etxen jaten zan behi-gazta. Bai. Nola asko etzan egiten gaiñea, izaten zan o saltzen zendun esnea edo sobranate baldin bazeukazun ba gazta ein behar det. Eta hola aprobetxatzen zan.
-Eta txerri hiltzea nolakoa izaten zan?
-Bueno, harek ematen zidan neri beldurre. Hue garraixika hasten da ta, nik alde eitten nun beti txerri hiltzera etortzen zienen. Bueno, etxen hiltzen zuen, e, aittek eta; osaba ere bagendun aitten anai bat, solteroa. Eta gero eusteko baten bat gertun bagendun baitaere parienteek; auzokoa, eta etortzen zan baitaere ta. Baiño nik aldein itten nun beti, neri horrek beldurre ematen zidan hango garraxi-hotsak.
-Eta zer izaten zan txerria hiltzen zanean, festa egiten zan?
-Bueno, lana. Festa eztaikit, festa...
-Batzuk esaten dute festa egiten zala...
-Bueno. Ez, gosari bat edo txerrie hil ondoren bai, baiño beste gauza berezirik... Gero lan asko zon, gauzak behar bezela jarri behar zenittuen, ondo ein behar zenittuen danak ordenatu.
-Odolkiak eta txorixoak egiten zittuzuen?
-Bai, asko, honbre; asko, asko. Eta gaiñea nola eamaten zan auzotara ta apaizai, maestraia, danai ematen zitzaaien ordun.
-Hori zer zan, obligazio moduko bat?
-Ohitura bat. Bai, txerria hiltzen bazendun hoi danei eman behar zenien. Eta gero auzokoei, eta berak ere ekartzen zizuen; auzoko apaizak, ez, kuantu, apaizak etzauken txerrik eta.
-Eukita ere emateko zerarik ez igual.
-Ez, behintzat etzauken eta ezin zon eman, baiño.
-Eta txorixo hoiek eta urdai hoiek eta nun kontserbatzen ziren?
-Txorixok-eta sartzen zien oliotan, gogoratzen naiz, ontzi batzuk hola lurrezko ziren, altu xamarrek, bere tapakin, eta han sartzen zien eta oliokin tapatu ta bai solomo ta hoik, eta gero tartetan behar zendunen atera ta jaten zenittuen. Gero zintzilika sekatura're bai.
-Pipar hautsa ematen ziozuen?
-Bai.
-Eta gazi-kutxan edo eukitzen zenuten?
-Baita. Eske ardie hilda zeziñea edo ze esaten zitzaion ordun? Gazi-kutxa bat egoten zan baitaere gatzakin jartzen zana toki fresko baten; badakit nola zan.

3.11. Ordiziako azoka

- **Hizlaria(k)**: Iztueta Altuna, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-033/010
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:19:32. **Bukatu**: 00:21:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elxpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Errota

Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

- **Laburpena:** Baliarrainera eta Itsasondora joaten ziren zaldiari karroa erantsita errotara. Ordiziako azokara astero joaten zen oinez. Orduko Ordiziako azoka nolakoa zen azaltzen du.

Transkripzioa

-Esan dezu ogia etxea egiten zenduela; errota nun zenduen?

-A, Baliarrainñen bertan bazan errota. Bai, eta harutza eamaten zan garie ta artoa're bai txikitzeko. Eta gero bazan hor Ibas (Ibares), Ibasera ere bai.

-Itsasondon.

-Bai. Honea're ekartzen gendun. Ama feriara zetorrenen da badakit nola ekartzen zon. Ferira karrokin etortzen giñen, zaldikin karroa garai hartan. Ez zeon kotxeik.

-Eta nora etortzen zineten, Tolosara eta Ordizira?

-Bai, bita. Baten Tolosaa ta. Ordizira behintzat asteaizkenero. Tolosara igual gutxixeo baiño baita ere. Kosetxa asko baldin bazeon bitara beti.

-Baliarraindik Ordizira zenbat denborako bidea dago?

-Bela etortzen zea.

-Bai?

-Bai. Ordu erdi bat. Bueno, ordu erdi bat etxetik hasita ez. Etxetik aurrena eaman behar izaten zan, bagenuen karreteran ondón txabola bat, han karroa eukitzen zendun, harutzaiño trastek eaman behar zenittuen zaldin gaiñen, zestotan zaldin gaiñen hartu ta. Bezperan igual eamaten zendutzen beaje paren bat eta gero egunen besten bat edo. Eta karroa kargatuta.

-Eta nolakoa izaten zan orduako feria; Ordizikoa adibidez?

-Bueno, ni gutxi etortzen nintzen, ni etortzen nintzen ordun bakarrik zerbait erosi behar zidatenen; edo soiñekon bat falta nula edo zapatak edo. Ba amakin etortzen nintzen baiño. Ba nolakoa izaten zan? Oaiñ nola mahiek eta jarrita eukitzen dituzte gauzak eukitzeko, baiño ordun dana lurren eukitzen zan, danak lurren egoten zien, mahirik ez zan jartzen gauzak eukitzeko.

-Jeneroa dana lurrean.

-Jeneroa dana lurren.

-Eta orain bakoitzak puesto bat euki behar badu ordaindu egiten du. Ordun?

-A, ez zan ordaintzen.

-Jarri ta...

-Bai bai. Ez zan ordaintzen batere.

-Eta ganadua ere egongo zan, ezta?

-Bai, ganadu-plaza goien ezagutu nun baita ere. Guk ez gendun ganaurik plazara ekartzen, ez naiz gogoratzen horrekin. Saltzen zon direktamente karnizeroi edo. Harakiñei salduko zien. Txekorrak eta badakit behintzat hola saltzen ziela.

3.12. Lanaren truke errotariei "laka"

- **Hizlaria(k):** Korta Gurrutxaga, Felipe

- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** ORD-034/010

- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:19:17. **Bukatu:** 00:21:53

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Errota
 Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena:** Amak taloak nola egiten zituen azaltzen du. Ordiziako eta inguruko herrietako errota izendatu eta non zeuden azaltzen du. Astoa hartuta joaten ziren errota. Irinaren hainbesteko bat errotariei eman behar izaten zitzaion lanaren ordain gisa; "laka" deitzen zitzaion.

Transkripzioa

-Taloak bezela.

-Taluk, joe, hor ikusten ditut taluk. Talo hoiek jan? Nik eztet jaten.

-Zuek nahiko eginda lehenago.

-Nahikoa eginda ta nik uste det gure ama zanak beste era batea eiten zitun taloak. Oso diferente. Su bajuak, e, su bajuak beti taluak. Eiten zun aurrena, klaro, orea, orea behar du aurrena iriñe selekzionau, zeñ erroretan iriñ hobia eiten zebeñ. Iriñe ekarri, zeñek zai gutxio, galbahi bat hartu fiñ-fiñ-fiñe, ta-ta-ta pasau ta fiñ-fiñ geratzen zan. Ta gero oria eiteko, eztakit zegatik, ude ere tenplau eiten zun, sutan jarri ta tenplau ta harekin orea ein; da gero bueno, jartzen zun, pala bat izaten zan belanuen gaiñen, aulki txiki baten jartzen zan, ta-ta-ta!, zapi bat ibiltzen zun talua egiteko, sartu eskue zapi azpitik da talo-burnira, talo-burnia surtara, beheko surtara. Han buelta ematen zion; bitartin, klaro, beste talo bat eiten hurrengoentzat, hura geldituta ez, kate bat zan hori, ta ibiltzen zun parrilla bat, eta parrilla hartan brasa bota parrilla azpin, eta talo-burnitik parrillera pasau talo hori. Txiki samarrak egiten zitun baiño fin-fiñek. Ta jartzen zan bubuuuu, ta baloie bezela puzten zan, ta puzten zan garaian, aiba, mahi luze bat zan su ondun han, botatzen zun mahira, ta benga. Harrapatzen zunak; eta benga...

-Errota nun zegoen?

-Errota bat zegoen hamen kanposantu ondun; etxe hura bota zebeñ, berrie einda dao, hor zeon errota bat eta...

-Zer izen zuen akordatzen?

-Exposito zun nausiek izena. Eitten zebeñ, errota hartan eitten zebeñ. Eta eiten zebeñ kalidade bastante zakar eiten zebeñ, zai askokin da. Ta Ibaresen, Araman, hor askoz'e fiñae eiten zebeñ. Irizar badie familie. Hoik hobia eiten zebeñ. Zaldibin'e eiten zebeñ, baiño Zaldibin'e zakarragoa eta jeneralen guk Ibarestik ekartzen gendun han iriñ hobia zalako.

-Ze joaten ziñeten, astoa hartuta edo?

-Astokin, jeneralen astokin.

-Akordatzen ordaiñetan ze utzi behar izaten zenduen?

-Ni mutilkoxkorra nintzen da. Ordaiñetan? Debalde ez. Artua eaman da iriñe ekarri etxea ta. Laka uste det esaten zitzaiola, laka esaten zitzaion ba porzentaje bat igual ba zure iriñetik erantzat geratzen zien. O dirutan pagatu're bai. Hori da ba harremanak nola izaten zien errotariekin, ezta.

3.13. Aita artzaina; gazta egiten zuten

- **Hizlaria(k):** Nazabal Dorronsoro, Rafaela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-036/002
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:04:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Esne-behiak zituzten eta hiru gazta mota egiten zituzten etxean (izendatu egiten ditu). Errenteriako "rekardera" bat joaten zen Ordiziara eta hari saltzen zioten gazta. Aita artzaina zen eta gurasoak eta Rafaela bera aritzen ziren gazta egiten. Gazta nola egiten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

-Behiak eta esne-behiak?

-Esnea, baiño guk saldu ez gendun esneik eitten, gaztaia eitten gendun guk etxen. Eta eitten giñuzen hiru gaztai klase. Bat ardiña bakarra, behiena bakarra eta biña, nahastue.

-Eta gero kalera saltzen zittuzuen esneak?

-Gaztaia bai, gaztaia bai, baiño esneik ez.

-Eta gazta zer saltzen zenuten, dendatara?

-Ez, errekardera bati beti. Errenteriko rekardera bati.

-Bera etortzen zan?

-Bera etortzen zan Ordizira, eta gu handik etortzen giñen eta harek eramaten zun gure gaztaia.

-Gazta zeinek egiten zuen, amak?

-Eozeiñek, danok genekiun eitten, ni gaztaia ugari eindakoa naiz. Ta amak'e bai, aittek'e bai, aitte artzaie zan, eta aittek'e gaztaia asko eitten zon, amak'e bai, eta gure etxen, bueno, ni nola naizen zaharrena, beste ahizpa txikigok etzuen hainbiste igual eingo. Baiño nik bai, nik gaztai asko.

-Esplikatu pixkat gazta nola egiten dan.

-Gaztaia nola eitten dan? Bueno, esnea jartze'ezu; epela, e, jarri behar da, epela, eta gero hari gatzagie nahasten zaio. Urtu ondo. Oaingo hautsek ez, e. Gatzagi gatzagie. Hue urtu ondo, behatzakin oso ondo-ondo, eta hue nahastu, eta gero hue nahastu eta geo hue gogortu eitten da. Eta hue gogortzen den garaian, ondo dana zerau [behar] dezu. Hortarako katxarroa izaten da, malatxa edo, ahaztu einda're nago ni izenak; harekin batidora bat bezela, egurrezkoa izaten zan; harekin dana ondo nahastu, eta hue nahasten zan garaian zuk eskukin dana zapaldu ein behar zendun. Ta beheran etaatzen zan mantekillea bezela, baiño hue zan gaztaia eitteko mamie, eta beste hure gatzurea izaten zan. Eta gero hure zuk hartzen zendun ontzi bat, baiño jeneralmente izaten zan artzaiek eta horik, guk edozein moduz eitten gendun, zeatio jartzen gendun balde, kazuela bat, eta han jartzen gendun gaztaia eitteko zumitze eta han eitten gendun guk, hue dana ondo hala zeatzen zan gaztaia. Eta gero hue gogor-gogor eiñ eta geo sekatzen jarri. Eta ia esta.

-Keetu egiten zenuten?

-Batzutan keetu bai baiño; guk kea emateko genduken txabola txiki bat ogie eitten dana eta horik danak eittekoa etxen ondon, eta han jartzen giñuzen baldatan kea hartzen. Baiño ke bage igual.

-Orain gaztak saltzen dituztenak etiketak eta...

-A, guk ez ordun. Guk ez gendun etiketaik izaten eta guk eitten giñuzen ...

-[...]

-Ez, etzien ordun iñoi kasoik eitten garai hartan.

3.14. Etxe ondoko bordan ogia egiten

- **Hizlaria(k):** Nazabal Dorronsoro, Rafaela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-036/003
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:06:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Etxean egindako garia kutxan jasotzen zuten eta gaztak ere kutxan gordetzen zituzten, gari artean, kontserbatzeko. Etxe ondoan borda bat zuten eta hango labean egiten zuten ogia. Hamabostean behin egiten zuten ogia.

Transkripzioa

-Eta gero eitten gendun guk, garie etxen eitten zan, eta kutxak -zuk jakingo'zu kutxa zer dan-, ba kutxak ganbaran egoten zien gariz beteta, eta gaztaia ardikin bakarrik eindakoa neguako, gero esneik etzan garairako, ardik etzuen esnea beti ematen, behiek bai baiño ardik ez, eta ordun hak sartzen giñuzen garitan, eta hue gaztai zaharra etaatzen zan geo, arrakin-da. Gozoa!

-Eta garitan sartzen zenuten?

-Garitan. Zuri ez al dizu hok kontuok iñok bestek esan?

-Bai, baina zuk esplikatzea nahi.

-Ja, ja. Zuri hok esango zizuen gehiok'e! Bai. Garitan eukitzen giñuzen guk gaztaiak eta behar gendunen handik etaata jan. Baiño halako gaztairik nik eztet jaten. Halako gaztairik oaiñ iñun eztao. Hemen ibilliko die Arzak eta histori guzik eta Idiazabalgo gaztak die, baiño halako gaztairik eztao.

-Beste sekreturen bat?

-Eta kito! Guk hala eitten giñuzen.

-Eta esan dezu zeukazuela txabola bat...

-Txabolea etxen ondon, etxe kontrakoa, hueko txiki bat bere teillatukin.

-Ogia egiten zenuten?

-Ogie bai, nik ogie askotan egin det, eta artoa're bai. Ta han labea genduken guk, han sartzen gendun ogie eitteko.

-Zer labe izaten zan?

-Labea ba, nola esplikaiko dizut pa nik, ate txiki batekin dana ladrillozkoa eindakoa; ate txiki batekin. Eta han eitten zan egurre sartu ta sue. Ta geo egur hue etaa, egurre etaa ez, eitten zan, harek eitten zun ikatza egur harek, eta hue hautse eitten zon egur hue gastatzen zanen, eta hue baztarrea bota ta geo garbiin ogie sartu. Ta berotasun harek ogie eitten zon.

-Eta ogie kalera saltzen zenduen?

-Ez, etxeako.

3.15. Sagardoa nola egiten zuten

- **Hizlaria(k):** Nazabal Dorronsoro, Rafaela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-036/005
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:09:16. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Etxean gereziak eta sagarrondoak zituzten. Dolarea zuten etxean eta sagardoa egiteko prozesua azaltzen du. Upelak zituzten etxean. Sagar mota ezberdinak izendatzen ditu.

Transkripzioa

-Eta fruta-arbolak eta eukitzen zenituzten?

-Bai, sagarrak. Gaiñontzean..., keixea eta sagarra.

-Eta sagardorik egiten zenduen?

-Bai, etxen eitten gendun. Nik sagardoa eitten aittuta nao. Sagarra txikitzeo guk gendun tolaarea, eta sagarra han txikitzen zan makina batekin, earki nekauta, e! Eta gero hue zabaltzen zan, hue han egoten zan ba, nik nola esango dizut pa?, aska bat bezela, eta han dana hankakin da dana zehatzen zan. Eta gero hue etaratzen zan txulo txiki batetik, sagardoa, pittarra, pitarra aurrena, eta gero enbotillau eitten giñuzen sagardok etxen. Guk etxen eitten gendun sagardoa. Ta pittarra hau izaten zan goxoa erateko aurrenetik, baiño geo hue, hue etzan segittun sartu behar botillan, e; gerogo. Segittu-segittuko hue ez. Eta barrikak eukitzen giñuzen txiriikin, eta barrikan sartzen giñuzen enbutu haundikin etxen eindako sagardoa.

-Saltzeko ala etxerako?

-Etxeako. Guk saldu ezteu ezer eitten. Guk saldu ez gendun ezertxo're etxen eitten; txerrikumak bai baiño gaiñontzen ez.

-Eta sagardoa egiteko zer sagar erabiltzen zenuten?

-Ba etxen zeona. Errezille, gure etxen jeneralen errezil-sagarra izaten zan eta errezil-sagarrakin eitten gendun. Geo beste sagar gorri txiki goxo bat izaten zan, baiño nahastuta igual, baiño jeneralen errezille, errezil-sagarra gure etxen. Eta gero mokotea ere bai; baiño errezil-sagarra izaten zan gehiena.

3.16. Txerrikiaren kontserba; odolkiak banatzeko ohitura

- **Hizlaria(k):** Nazabal Dorronsoro, Rafaela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-036/008
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:15:27. **Bukatu:** 00:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Auzolanerako elkartzen zirenean afaria eta festa egiten zuten. Txerria hiltzera Astigarretako gizon bat joaten zen etxera eta txerri puska bat al baitariari eramaten zitzaion ona zegoen jakiteko. Rafaelak amarekin txorizoak eta odolkiak egiten zituen eta gatz-kutxan gordetzen zituzten. Handik ateratakoan piper-hautsa eman eta lehortzeko zintzilikatu egiten zituzten. Urtean bi txerri hiltzen zituzten eta ohitura zen auzokoei eta apaizei odolki eta txorizoak eramatea.

Transkripzioa

-Ta geo afarie jartzen zan, eta afaltzen; ta geo dantzan eitten gendun radiokin. Apalondon gaztek. Eta afarie jeneralen izaten zan...

-Zeoze espeziala?

-Bai, bakaillaue jeneralen tomatekin afarie izaten zan. Eta bakaillaue bakizu nola beratzen gendun? Errekan. Osoik, bakaillo haundik izaten zien, ia ni aiñekok, e, bakaillauak izaten zien. Eta hak errekan jarri harri batekin eta ude korrientea egoten zan errekan, ude garbie, ta han beratzen zan bakaillaue. Ta gero puxkak ein da tomatekin. Ta porrupatatea ta bakaillaue jeneralen afarie.

-Eta txerria hiltzea?

-Txerria hiltzea bai.

-Zeiñek hiltzen zun?

-Gizon bat ibiltzen zan Astigarretan txerrie hiltzen ibiltzen zana. Eta txerrie hiltzea etortzen zan, hiltzen zon txerrie, gosaltzen zon gibelakin, txerrin beran gibelakin gosaltzen zon eta jutun zan. Eta geo guk txerrin puxkea eamaten gendun beterinariona.

-[...]

-Baai. Eta geo ba amak eta guk eitten giñuzen txorixok eta oolkik'e bai, txerri-oolkik; eta gero solomok eta horik. Guk gendun kutxa bat bezela gatza eukitzeko.

-Gazi-kutxa?

-Han egoten zan txerrie hilda gatza hartzen urdaizpikok, solomok eta horik. Eta gero handik eztakit zenbat denbora beharko zuen, enaiz akordatzen, hak etaa ta ematen zitzaien pipar-hautse, hautse, ta gero zintzilika jarri. Eta geo hak izaten zien onak, Eta geo eitten gendun txerrien burukin txorixo klase bat, burukie. Hori zaten zan txorixo beltzagoa baiño ikaragarri gozoa, txerrin burukin eindakoa. Eta gaiñontzen txerrin puxkakin txorixok. Eta txorixok'e sukalden jartzen giñuzen makille bat haundie bezela eta han zehatzen txorixok eukitzen giñuzen. Eta urte guzin. Guk urten bi txerri hiltzen giñuzen.

-Bazenuten ohitura txerria hildakoan auzora eramateko?

-Bai, txerrolkik, txerri-oolkik eamaten zien. Eamaten zien oolkik eta puxkan bat urdaiena eta besteik eztakit ze eamaten zan. Baiño etxe jakiñetaa izaten zan, eamaten zan; eak'e ekartzen ziguen eta guk'e bai. Bai txerri-oolkik, junda nao txerri-oolkikin erregalo.

-Apaizei eta medikuei eta horiei?

-Bai, apaizei ta hoiei. Handik ez [dezu] jasotzen txerri-oolkik baiño erai eraman bai.

-Zer zan, ohitura bat bezela?

-Bai. Edo obligazioa, nik eztakit. Apaize ordun baakizu zer zan, eta. Jesus!, apaizei dana; eta zenbat oillasko ere eamaten zon gure amak apaizei etxekook? Oain asko eamango nioke nik, bueno!

-Bueltan ez zenuten ezer.

-Keba!, handik etzeon ezerre.

3.17. Artzain lanak; ardi-ilea saldu

- **Hizlaria(k)**: Nazabal Dorronsoro, Rafaela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-036/009
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:18:44. **Bukatu**: 00:21:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Urtean hiru ardi inguru hiltzen zituen aitak eta baita arkumeak ere. Etxetik gorago borda zuten eta untxiak edukitzen zituzten bertan. Rafaela artzain ere ibiltzen zen. Ardi-moztea Santa Isabel inguruan izaten zen eta aitak egiten zuen. Ardi-ilea saldu egiten zuten.

Transkripzioa

-Baiño gure etxen guk beti urten ardik'e gure etxen hilko zien hiru bat ardi udazkenen.

-Eta hoiek hiltzera ere kanpotik etortzen ziren?

-Ez, aitek hiltzen zittun ardik. Ta arkumak'e bai. Guk arkumea San Josetan-da etxekoa jaten gendun. Ta konejuk? Zenbat koneju! Lur azpin apik einda egoten zien konejuk. Txabola bat gendun etxetik goraxeo ta han egoten zien ardik batzutan, o konejuk'e bai. Konejuak geo han kanpoko terrenotan zulok einda barrun eitten zittuen umek.

-Eta ardizain?

-Ardizain ni ibillita nao. Bueno, gue etxe gehio're bai, e. Baiño ni artzai? Gogon dauket nik Astigarretako festatan elurretan ibilli nintzen ni artzai egun guzin; eta etxea jun eta beheko sun ondón amak preparautako meriendea gozoa, gosarie edo zea, txorixoa ta arrautzea jan, eta ordun izaten zien zapatak, oain txarolak egoten die, baiño gomazkok, zapatak bezela izaten zien, goma zien hak, baiño brillo..., "zatak" izena, zatak, brillo-brillo, txarolak. Halakok jantzi ta Astigarretaa festaa. Eta Astigarretako zean..., jesus!, nola esaten zaio, ahaztu eitten zaizkit nei gauza asko ta. Astigarretako eliz-atarin soiñue egoten zan egualdi txarrakin. Da han dantza ein da etxea.

-Eta artzai ze joaten zineten, mendira nonbaitera, gora?

-Etxeko terrenotan bakarrik. Zeatik guk etxe-ardik eukitzen giñuzen. Ez hola artzaianak. Nere aitte artzaia zan, baiño geo amakin ezkontzeko ardik saldu ein zittun. Etxe-ardik, baiño etxe-ardik eongo zien berrogei bat eo berrogeta hamar bat, e. Eta geon terrenotan bakarrik. Zeatik guk genduzken bi baserri. Eta beste baserrie hutse zan eta terrenok zeren eta han ibiltzen zien ardik.

-Ardi-mozten eta?

-Ardik moztu aitek eitten zittun. Eta Santa Ixabel egunen. Santa Ixabel egune da dos de julio. Eta egun hartan. Eta bakizu ze gosari eamaten giñun aitei guk ordun ardi-mozten ai zan lekura? Fuente baten ardoa.

-Ardo-zopak?

-Bai. Baserriko ogie han sartu ta busti; hue jaten zon gosarie aitek. Egun hartan bakarrik, e. Ardi-mozteko egunen bakarrik jaten zon gosarie harek, e. Ta gaiñontzen etzon harek ardo-zopaik jaten. Baiño nik eztakit hori ze usuario zan?

-Eta berak bakarrik mozten zituen ardiak?

-Bai, berak bakarrik mozten zittun ardik harek.

3.18. Hiru jostun mota zeuden

- **Hizlaria(k):** Maiza Urrestarazu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-037/013

- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:35:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Lanbideak » Sastreak, jostunak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Ordiziako azokan arropa asko saltzen zen. Garai hartan, hiru jostun mota zeuden; izendatu egiten ditu. Lanera petoa jantzita eta alpargatekin joaten ziren.

Transkripzioa

- Ordizira puxkat bueltatuta, Ordiziko feria eta ezagutu zenituen?

- Bai, bai. Lokepasa ke oain erabateko desberdiñe da. Garai hartan ferie etortzen zien feriaa, oaiñ'e bai eta, ezta, baiño oaiñ etortzen da kanpoko fruteroa asko, ezta. Garai hartan etzan fruteroik eta kasi etortzen. Oain fruterok daren alderdi hoitan, inguru hoitan egoten zien ordun, ordun salzen zan asko erropea. Erropea, bai, eta jendek erosten zon asko. Izarak, etxeko gauzea ta behintzet ikaragarri. Eta gero nola ba eztan, jantzi eitten zan beste modu batea. Ordizin trajea etzan oain bezela jun da erosten, dana sastrek eitten zuen. Emakumei modistak, da hiru klaseko zeak zeren, jostunek, batzuk zien sastrek, beste batzuk zien modistak eta gero beste batzuk zeren "pantalóneras y camiseras". Bai, bai, berezik, e. Eta ordun, esaten dizudana, hori eitten zan modu hortara, eta gaiñea eguneroko erropea ta hori dana plazan erosten zon jendek. Gu lanea juten giñen buzokin. Petoa bakizu zer dan? Bi motatakok zeren, petoa eta osokoa. Nik petoa're ibili non, petoa udan freskoago ibiltzeko ta abar, baiño negun egunero lanea juten giñen. Eta aperketakin. Eta juten bagiñen hautza eta eurie eitten bazon ba hankak bustita etxea.

- Abarkarik eta ez.

- Ez. Baserritarrek bai baiño gu kaletarrak ez. Bazan ordun, izena enaiz akordatzen, bazan aparketen gaiñetik ibiltzen zan bat, zapatillan estilokoa, haundigok zien, eta ordun aparketak, gu gaztek ez giñutzen ibiltzen baiño gure adiñakok danak eukitzen zittuen han pare bat, baezpada ere gertatzen baldin bazan haik jartzen zittuen; gu hankak bustita etortzen giñen.

4. Natura

4.1. Sendabelarrak

- **Hizlaria(k):** Irastorza Mujika, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitx
- **Erref:** ORD-008/044
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:50:05. **Bukatu:** 00:51:07
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Sendabelarrak egiten zituzten etxean, erredurentzako eta beste zenbait gauzatarako. Belar ezberdinak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Gero, Manoli, zeak eta, ukenduik eta hola etxen iten al zenduen?

- Ez, ez.
 - Ez? Eta belarrak eta hola hartu edo? Infusiok edo?
 - Bai, este, bai, bai, bai. Eta iten zun gure amak zea bat, este...
 - Pomada bat bezela?
 - Pomada bat, belarrakin ta iten zun. Errentzako itten zun jeneralen. Zeatik baserrin su bajuk, eta askotan erre, askotan eskutan ta, akordatzen naiz ni, ta anaiek'e bai, ta batek belaunen ta...
 - Errex ingo zan?
 - Erre, eta pomada izaten zan.
 - Ta zerkin itten zun akordatzen al zea?
 - Ez, ez.
 - Eta geo, enplastok eta hola, berbena...
 - Bai, bai, berbena. Hoi bai.
 - Hoik zertako?
 - Katarrok, este, katarrokin, bai...
 - Eta infusiok? Ba pasmobelarranak, eo osiñanak eo?
 - Ba manzanilla. Manzanilla, o anix, anix'de bai.

4.2. Sendabelarren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Azurmendi, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitx
- **Erref**: ORD-014/028
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:34:46. **Bukatu**: 00:36:05
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
 Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Osabak belarrak bildu eta sendagaiak egiten zituen. Belar ezberdinak eta beraien erabilera aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Amak ukenduik eta itten al zun? Pomadaik eo...?
 - Ez, bueno osaba, belarrak, oain nik'e badauzkat oin e? Pasmobelarra belarrak bai, hakin, harekin bai.
 - Enplastoia itteko o?
 - Enplastoia ez. Harek itten zun pasmobelarra oliotan, zartagia garbitu, ta oliotan zatitzen zun ondo, ta pasmobelarra kendu, eta trapue halizkoa behar zun, eta heridan jartzeko gaiñen. Ta harek zikiñe ta teleai jartzen zion! Bai, asko izaten zen... Gero belarmiñe. Hori da, zan, ba tensioako.
 - Ean in behar zana, infusioa bezela o?
 - Bai, bai, bai. Txarra izaten zan e? Baiño...
 - Miñe?
 - Miñe. Belarmiñe beak esaten du.
 - Hori izenak esaten du. Eta beste belarrik? Berbenaik?
 - Berbena... ez deu asko ibili guk berbenaik. Ez. Hori txibipin. Gero kipola're bai, igual, txapan jarrita, heridan jarri, hori ez dakit nun jartzen zun, hura're bai. Ibiltzen zan ordun'e belarra ta hola e? Oain herboristeritan dao, baiño.
 - Halare Ordizin farmazie ta beti eon da, ala?
 - Bai. Bai, ez hoi bai, bai. Farmazik, eta medikuk, eta hori dena, bai.

5. Ekonomia eta industria

5.1. Ama zerbitzaria eta aita erlojugilea

- **Hizlaria(k):** Munduate Altuna, Trini
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Erref:** ORD-011/009
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:10:08
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
Lanbideak » Neskameak
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Erdaldunak herrira gerra aurretik sartu ziren. Triniren gurasoek bazekiten erdaraz. Baserritarrek zerbitzari lanetara joaten ziren eta Triniren ama ere hala ibilia zen. Aita erlojugilea zen, Munduatekoa. Triniren anaia ere ibiliz zen langintza horretan gerratean hil zen arte.

Transkripzioa

- Gero Ordizia erdaldunek eta noiz hasi zian etortzen, kanpoko jendea? Gerra ondoren ala aurretik?
- Ez, ez, lehendik. Bai, bo, gaillegok eta kasteillanok, eta danetik zegon hemen, danetik. Oain oain aiñe kantidade ez, baiño bai bai, bai. Bai bai.
- Eta Ordizin ba al zan erderaz ez zekin jendeik?
- Erderaz zer?
- Erderaz ez zekin jendeik ba al zan Ordizin, zuen garaien? Zuen aitta-amak eta, erderaz ba al zekien?
- Aittek bai, bo, amak... baita, zeatik serbitzen izan zan erdaldunen etxen, asike erderaz jakingo zun zerbait.
- Baiño izango zan igual hemen baserritako jendea o...?
- Ordun basarriko neskak serbitzea danak.
- Zuen ama nun izan zan serbitzen?
- Ba, Beasaingo fabrikako txaleten baten, txaleten. Ta hemen kalen'e bai, Ibarbian etxen uste det zerbait bai. Baiño han, printzipal han.
- Eta aittek ze ofizio zuan?
- Relojero.
- Hara! Munduate relojerkoa? A bai?
- Hor dauke argazkie.
- A bai.
- Ehun urte in zittun egunen.
- Ehun urte in al zitun? Joe. Eta zuek, relojerin ta ez al ziñeten lanen aitzen?
- Ez, guk ez. Anaie bai, anaie zaharrena. Bueno, nere ondorengoa, relojeritzan segittu zun harrek, baiño hura gerran hil zan.
- Eta aittek nun ikasi zun ofizio hoi? Ba al dakizu?
- Ordun ez zan eskola beharrik.
- Hoi ba, eskola haundik ez zun eukiko.
- Ez.

5.2. Toribio zapataria

- **Hizlaria(k):** Sarasola Etxeberria, Prontxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz

- **Erref:** ORD-012/024
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:34:58. **Bukatu:** 00:36:34
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena:** Toribiori buruz hitz egiten du. Zapata-denda zuen, eta desastre samar zeukan antolatuta.

Transkripzioa

- Jo, beste oso ona zan Toribio. Jo, Toribio zan santu bat. Toribio zan Prontxin anaia. Esan dizuet Prontxin anaia. Ai, “¡Qué famoso, qué famoso!”. Ze grazia itten zian. Zeuken, bueno, hau bai ez dakit...

- Bai, bai, bai, segi, ondo ai zea.

- Zapatak konpontzen...

- Ba oso gizon ona, oso gizon, santu bat, santu bat zan.

- Txintxoa.

- Txintxoa? Bua, oso ona! Ta zeuken, [...]’e, este, hor denda dao oain hor.

- Olatzen, bar...

- [...]

- A! Mertzeria daon hortan?

- Bai.

- Hori zan Toribio. Toribio zana...

- Zapata-konpontzailea.

- Eta zeuken, esaera bat baiño, zapatak hemendik hasita hareaiño, baiño ez ordenatuta; dana bata besten gaiñean. Eta amak esaten zian: “Prontxio, jun zaittez, ta aber, konponduko du Toribiok”, eta jun nintzen, eta “Toribio, amaxok, amaxok esan dit aber...”. “Ba ez, ba. Bihar sinfalta!”.

Hurrenguan’e “Prontxio, jun hai, inda eukiko ditu ta”. Jun nintzen, ta juten nintzen ta “ba ez! Baiño bai, bihar bai e? Bihar seguro zeatio...”. Jo, hasten zan billatzen... nola billatu han! Pillo bat. Baiño hor, hemendik hasita hareaiño e? Joe. “¡Qué famoso era!”. Gizon ona, elizkoia, bueno... Ta hoi Txindokia ere iyotzen zan, garai hartan ta eosten zituen e? Baiña oso oso oso... aber eske holako gauzak. Enfin.

5.3. 14 urterekin inprentara lanera

- **Hizlaria(k):** Etxaniz Gantxegi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-025/007
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:12:47. **Bukatu:** 00:15:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** 14 urterekin Nadal inprentan hasi zen lanean. Familia batek lan egiten zuen bertan. Kaxak forratzen zituzten eta enpresetara bidali. Egunean zortzi ordu lan egiten zituen eta 37 pezeta eta erdi irabazten zituen astean. Gutxi zen, baina moldatzen ziren.

Transkripzioa

-Eta gero orduan eskolara Karmelitetan hasi ziñen eta hamalau urtekin utzi.

-Bai. Lanea zan, este..., inprentaa, bonboiak eta kajak sartzeko oso koloriñetako polittak eitten zien eta lana eitten zuen bertako famili guztie, seme-alabak eta matrimonioa zaharrak, seme-alabak, semek eta bi alabak.

-Nun zegon inprenta?

-Oain ez dakit segitzen dun zeatik bastante suerte txarra; hil zien, zaharrak hil zien eta gaztek e bai batzuk. Ba zinea ezautze dezu, Ordiziako zinea?

-Bai.

-Bueno ba, gero iskillerak dare, goittik behera, iskillera hortantxen bertan ezkerreta. Eta usten det eskubirakoa re berana daukebela.

-Nola izena zun inprentak?

-Nadal.

-Eta zer egiten zenun han, kajak eta...?

-Itten zien kaja horik, eseri eta eskutan, forrau, forrau. Gaiñezko adornue ipiñi. Eta gero enpresata bialduko zittuen edo nun itten dittuen bonboiak, hori. Eta gero itten zuen e este... jaboia sartzeko, bizarra kentzeko, bai, barra horik, kaja horik. Eta hori ere forrau; hoixe zan horko lana. Oso politte, oso politte. Hor egon nitzen, bai, eta hortikan erten eta juden nitzen ikastea, hori esan dizut, karmelitan ibili nitzenen gero juden nitzela honena ikastea. Baiño gero, klaro, edaden sartzen ari nitzela, josten ikastea.

-Eta lehen esan dezun inprenta hartan zenbat denborako lana?

-Ba egon nitzen...

-Egunen zenbat ordu?

-Zortzi ordu izengo zien. Goizeko zortziretan bai jun eta atsalden..., etxea etorri bazkaltzea ta atsalden seietan.

-Eta dirua ondo irabazten zan?

-Ba esangoizut, treinta y siete cincuenta... Hoetamazazpi, hoetamazazpi terdi asteen.

-Ta orduko bizimodurako zer zen, asko?

-Ez, ez. Ez asko eta ez gutxi. Gutxi irabazten zan, gutxi irabazten zan, baiño norabitea jun, zegatik behar ziñun-eta.

-Moldatzeko lain.

-Moldatzeko lain, bai. Guretzako lain, bai. Etxen attek ez ziguen kentzen, bai ematen giñun zerbait baiño.

5.4. 10 ordu eta erdian, 5,25 pezetako soldata

- **Hizlaria(k):** Maiza Urrestarazu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-037/007
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
 - Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** 10 ordu eta erdian aritzen zen lanean. Txapa bat ematen zioten zenbaki batekin eta hura errebisatzen zieten lanera zein joan zen jakiteko. 5 pezeta eta 25 zentimoko soldata zuen eta amari entregatzen zion; gero amak astebururako ematen zien dirua.

Transkripzioa

-Zenbat ordutako lana?

-Bueno, ni hasi nitzenen garai hartan eitten zan hamar ordu. Hamar ordu hoik etzien ofizialak. Zan ba zortzi ordu. Baiña ni akordatzen naiz goizeko zortzietan jun porterie esaten dien hortaa eta han bazeon gizon bat zai ta harek zatitu giñuzen batzuk toki batea eta beste batzuk bestea ta ni ba montajea etorri nitzen, eta bueno, egun hortan bertan maixuk, esandizudana, bestek erakusten zon horrek eta esan zin: “Bueno, hemen hamar orduko lanetan ai gaittuk, hamar ordu terdi, eta ordun illuntzen zazpiterdik arte lana ein beharra dao.” Eta ordun ba ematen ziguen, ba jakitten jun giñen, hola oaiñ txanpona nola dan, ba bi euroko tamaiñakoa hola izango zan, txapa bat metalezkoa borobille, nere zenbakikin, nik neuken 662 numeroa. Hori jartzen gendun toki baten, “txaperoa” esaten zitzaion hari, eta gero juten zan gizon bat libretea batekin goizen zein jun zien lanea ta ta-ta, ta-ta apuntatzen.

-Ze soldata eukitzen zenuten?

-Soldata? Joe, geittuko zea “estupefaciente”.

-Harrituta?

-Bai. Bost pezta eta hogeita bost zentimo zortzi ordun.

-Eta ezertarako ailegatzen zan horrekin?

-Bueno, garai hartan ba nik amai ekartzen nion asteburue lanean pasata gero, deskuentok eitten zizuen ordun’e, eta hogeita hamabost pezta. Zerbait aillegatu? Ba bai, aillegatuko zan, zeatio ordun bizie zan erabateko-erabateko-erabateko desberdiñe gaur(koa)kin. Ze esangoizut nik, ba baxoerdi bat porejenplo gizon bat juten bazan tabernaa ba bi zentimo edo hola balioko zittun.

-Dirua irabazten zenuena entregatu behar izaten zenuen?

-Ni porejenplo soldauskara jun arte eta soldauskatik etorri arte nik irabazi nittun pezta guzik amai entregatzen nion eta ni bezela ordun garai hartan. Eta gero asteburun amak emango ziun zerbaitt, o zinea o futbol partidue ikusteko o bueno. Eta bestela juten bagiñen frontoia pelotan jolastea holakon batea, ba handik etortzen bagiñen, ordun zeren hemen bi enpresa gaseosak eta limonadak eta egitten zittuenak, eta hautza juten giñen, botellla batzuk zien, behatzakin zapaldu, bola bat zeuken.

-Sifoia?

-Ez, gaseosea zan, gaseosa.

-Kanika moduko bat?

-Bai, kanika moduko batekin, eta hura edaten genun eta “a casa”.

5.5. Lokomotore, autobus eta bagoiak egiten

- **Hizlaria(k)**: Maiza Urrestarazu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-037/008
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:15:50. **Bukatu**: 00:20:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Caf-en lokomotoretan, lantegietako makinak konpontzen etab. aritu zen. Autobus eta tren bagoiak egiten zituzten kanpora

saltzeko. Lokomotora ezberdinak aipatzen ditu. Soldadutzatik bueltatu zenean krisi garaia tokatu eta lantegia utzi zueneko kontatzen du.

Transkripzioa

<p>- CAFen zer lan egiten zenuen? - Bueno ba, ni aittu nitzen lantegi askotan. Lehenbizi jardun nitzen, aittu nitzen lokomotoratan, lokomotora haundi horitan. Gero ibilli giñen ba tailler batzutan ere baita, makinak zeren ba porejenplo hogeita hamar makina ibiltzen zien danak motor batekin, ordun jartzen zan Jesukriston motor haundi bat eta danak zeuken transmisio batzuk eta ordun hotsa izaten zan baiño- baiño izugarrie. Eta ibilli giñen han bolada baten makina horik zeatzen, apartatzen. Oseake ordun bakoitzei bere motorra jarri ta bere adaptazio bat. Ordun gertatzen zana zan aberin bat baldin bazeon hogeita hamar makinak geldik gelditzen zien. [...]. Urtebete bat. Eta gero hura bukatu zanen berriz’e ba taillerren aitu [...] ta aitzen giñen ba danetio, ni aitzen nitzen autobusek ein giñuzen bolara baten, bagoiak eitten zien baiño ni bagoietan enintzen behiñ’e ibilli. Gero eitten giñutzen beste tren batzuk, esate baterako jendea juten dan bagoietakok. Holakoetan ibilli nitzen. - Autobusak ere egiten zenituzten? - Bai, egin giñutzen, bi pisuko autobusak. - Eta kanporako egiten zenituzten? - Inglaterraako. Ein giñutzen, ez zan sail haundie, ez dakit ba nik, ehun da berrogeita hamar hola ein zien, han ibilli nitzen. Eta gero ba bat bukatzen zenunen lana eskatzen zenun eta bialtzen ziñusten ba beste leku batea beste bat eitte-ta. Azkenen bukatu nun ere baita lokomorak eiten. Haseran genduzkenak zien suizok, Brown Boveri zan markea, eta azkena bukatu nuenak zien frantsesak, Batignolles-Châtillon. Bai, han neuken kuadrillea, ia ofiziala nitzen, "de segunda", eta, osea, ordun neon ba nazkauta. Neon nazkauta zeatio ni soldauskatik etorri nitzenen sortu zan Aristraingo fabrikea eta hortik ni etorri nitzenen ba gazte gehienak alde ein zuen. Nola gutxi irabazten zan. Eta ordun geittu nintzen da halako ta halako? Ta alde ein zien, alde ein zien, jun dittuk bata batea eta bestea bestea eta hola. Eta klaro, nik ordun ba, geldittu zan jende zaharra gehiena eta ordun ba gaztek ez giñen asko eta ni jarri nittuen, kuadrilla bat ekarri zien danak zaharrak eta ez zekien ezerre. Analfabetok zien, lanik ez zien eitten, ez zekien. Ta garai hartan ba zer zan? Ba ordun bazeon hor maixu bat zana berezie oso, Unanue, eta harek influentzie haundie zeuken, eta orduan ba nik ez dakit oparin batzuk ematen zien edo zer, baiño jendea sartzen zon edozein, bere gustokoa baldin bazan. “Eta hi, honek ez zekik ezer eiten”. “Ez zeok ba besteik, ez zeok ba besteik”. Eta azkenen nazkau nitzen zeatio jende horrek urte asko zeamazkin lanen eta nik neuzken alde ein nunen hamalau launekin, ni nitzen arduradun, ni nitzen “jefe de grupo” [...], eta ordun ba esan nien alde ein behar nula ta. Ordun gaiñea krisis bat zan, hori zan "el año sesenta y uno". Nik hogeita zortzi urte neuzken, eta krisis bat zeon lanana gaiñea, e, eta jendei dirue ematen zien jutegatio, hogeita bost milla pezta. Eta ordun nik esan nion ba, nere maixue zanai esan nion. “Bueno hi, Jose Kruz -Altuna-, bueno, hau pentsau det eta alde ein behar diat”. “Nora hoa? Eta halako... “Jo!, Ez nak izurrau hi, la hostia”; hola hasi zaten eta. Gero eon nitzen Gillermokin. Etorri zien berriz’e bi maixu eta esan zien: “Jo, hi, eske hikin pixkat hau ta hau eon gaittuk eta lasai egon hai, oain eingo dizkiau guk igotzeko bidek eta abar eta”. Esan nion: “Oain arte denpora euki dezue eta ikusi nazue, eta zuek badakizue nola ibili naizen”. Eta bueno, “etxoin zak ba, egongo gaittuk

jefekin”. Etorri zan inxeniero bat eta jefe taillerra zana, Arana, ta haiek etaa zizkidaten zea batzuk, “sabes desarrollar esto, tal, tal? ” “Eso desarrollar? Eso ya, llevo ya catorce años, eso ya hace... tantos años”,. “Qué quieres, explícame” “Pues esto es esto y esto, esto es la sección vertical, esto es un trazado de tal y lo otro, esto es la capota...”,. “Bueno-bueno, no te vayas, e, espera un poco”,. esan zian, eta “no, ya estoy decidido y lo que hasta ahora no habeis hecho ya no vais a hacer”,. Eta alde ein nun.</p>

5.6. Lazkaoko garabi lantegian

- **Hizlaria(k)**: Maiza Urrestarazu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-037/009
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:20:30. **Bukatu**: 00:22:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Caf utzi ondoren Lazkaoko Comebasa garabi lantegira joan zen; hango kontuak kontatzen ditu. Ogia egiteko makinak, igogailuak, etab. egin zituen.

Transkripzioa

Eta hortik jun nitzen ba Lazkaon gruak [...], ordun zan Comevasa. Eta Comevasa hortan genduken eo zeuken hartuta lantegi bat ia, zeatik horko nausi bat zan sozioa "Fundiciones Echeverría", eta ein zuen horik lantegi bat hemen haundie, zeatik ein zuen enpresa bat Badajozen, "Forjas y Aceros del Guadiana", eta ordun hemengo tailler hortan ein giñuzen harutzako lantegi guzik. Osea ke estruktura metalikok, makinak, itteko modue zeon gauza guzi-guzie. Hor ibilli giñen pare bat urten hola hori eitten, eta gero ein giñuzten ere baita, bueno, ein giñuzten ez, ein nittun, zeatik bakar-bakarrik ibilli nitzen eta neuk ein nittun haiek; ogie eitteko makinak, osea, formea eittekoa. Masea bota eta ogie eitten zan. Lehen panadero lana eskuz, eta zan panaderon lantegi txarrena, gehiena nekatzen ziena; eta ein giñutzen hoitako batzuk. Eta bitarten ba zebiltzen ba zerbait billatzeko zea hobexeo, produktu hobegoa, eta bueno ba Frantzitik ekarri zuen grua, grua torre hok, obratan ibiltzen dienak, eta gu izan giñen Españin lenbiziko gruak eiten hasi giñenak. Eta bueno, gero hor hasi giñen gruak eitten; eitten giñuzen gero gruak, montakargak, aszensorek obrakok, eta gero ere baita ormigonera, dumperrak, ba esate baterako kasi produkto gehienak garai hartan ibiltzen zana obratan. Eta hor bukatu det nere bizie. Gero enkargatu ein nittuen, jefe taillerra naiz ta jubilatu arte ta hola izan da nere bizie.

6. Herria, azpiegitura

6.1. Paketeak banatzeko sistema

- **Hizlaria(k):** Sarasola Etxeberria, Prontxio

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Erref**: ORD-012/025
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:36:34. **Bukatu**: 00:38:38
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- **Laburpena**: Martin izeneko gizon batek, idi batekin jasotzen zituen estaziora iristen ziren paketeak, eta herri osoan banatzen zituen. Gero asto txiki bat jarri zuten merkantzia arinetarako.

Transkripzioa

- Gero, gurdikin'e, esan izandu dezu gurdik partiketak itten zittuenen, paketek paketek eta dendatan...

- A, klaro, eske...

- Gurdikin ez zan ba...

- Bai, ordun zan, bat zan, bat zan, este, nola, behie ez, nola zan haundigoa...

- Idie.

- Idi batekin Ordizin. Joe, Ordizin idi bat, idi hua're gurdi baiño haundigoa. Ta hartzen zuen, hartzen, estazion... ba, garai hartan zan "vía, vía muerta" deitzen zayon, zan estaziyotik behera aldea zan beste bia bat, han gelditzen zien ba paketek eta holako gauzak. Ta Martin izena zuen gañea harek. Ta, jo, nik askotan gogoratzen naiz "jura más que un carretero". Nik entzun, eta hala zan. Gizona oso ona zan e? Baiño, boo, botatzen zittun holakok juramentuk. Ba, esan bezela, zea, idie, karro, gurdi haundie, baiño idi haundi bat. Ta aldapa hori ezta? Esaten dizut ba, aldapa hori pakete goraiño, ta bea idikin garai hartan. Gogoratzen naiz gañea, aldapa dena kakaz beteta. Garai hartako gauzak! Ta eamaten zion herri osoan. Baiño gero azaldu zan "Redondo", asto txiki bat, fin-fiñe, holako

- Karrotxak.

- Karrotxa batekin, ta harek zeuken "paquetes ligeros". Ta farmaziko gauzak, holako zapata gauzak, eta jo, harek, gañea famosoa zan. Oain urte bete hil zala e? Oso majoa zan. Ba harek "ei!" [...]. Ta harek momentu baten itten zun buelta herri osoan, momentu baten! Baiño bestea, berriz, idikin, ba, idikin, jo, ze, ze, ze, ze, ze, ze garai hartako kontuk, jo. Bai, bik ibiltzen zien. Bat ta gero beste Martin, Martin, bai.

6.2. Telefonoa eta irratia

- **Hizlaria(k)**: Korta Gurrutxaga, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-035/005
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:05:53. **Bukatu**: 00:07:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena**: Telefono eta irratirik ez zegoen lehen. Mezuren bat bazegoen, telegrama bidaltzen zitzaien, eta zentralitara joan behar izaten zuten hitz egiteko. Oso telefono gutxi zeuden Ordizian: dozena erdi bat inguru. Herriko familia aberats batek bazuen irratia, eta hura

entzuteko, kalekoak zuhaitzera igotzen ziren. Lehenengo irratia 26-28 urte zituela izan zuen Felipek.

Transkripzioa

- Telefonoik eta irratik etxen?
- Telefono, telefono pentsatu zazu, esan dizut leno nere aitte ta ama Urrestildarrak ziala. Han bakarren bat hiltzen bazan edo, o gaizki bazeon, o notizi bat pasau ber bazeben, aurretik hots eiten, telegrama bialtzen zeбен: "biyar hamaikatan jungo gaituk telefonoa". Ta haiek juten zien zentralita Urrestillan telefonoa, ta hamen ama zentralita Ordizira, hamaikatan.
- Zentralita nun eoten zan, udaletxen o?
- Udaletxe azpin. Ta zentralitatik zentralita jartzen zian, ta hitz eiten zuen, ta esaten zituen esan beharrekok. Hoik zien hamengo telefonuk. Ordun telefonuk Ordizin, ba ez dakit, bankun batek eukiko zitun, ta fabrika batek akaso, baiño dozena erdi bat ez zien eongo. Telefonoik iñok ez. Irratik? Ni mutil koskorra nintzela, akordatzen naiz, ba, Faustarrak zien hemen ordun, bakizu, jauntxuak zien herrin, hor zaken ba txalet bat.
- Txalet bat.
- Ezautu al zendun?
- Bai, bai.
- A bueno. Hoiek zeken irrati bat. Ta gu bizi giñen Bustintzan, ta hoiek jartzen irratin, bua, martxa guztin udan. Ta bazan sagasti bat han, sagasti bat juten zian, hor illuntzean hori aitzea juten giñen. Hotsa pipirrirrrreerrerrurre, ez zan entenitu're ia ezer iten, baiño hangok radiyua eukitzen zuen.
- Nobedadea.
- Nobedadea gutzat. Ta ni radiyua, aurreneko radiyua gure etxen sartu zan ba, ni ya hogeitaxe o zortzi urte nitula. Ez zazula pentsau.

6.3. Arropen garbiketa

- **Hizlaria(k)**: Nazabal Dorronsoro, Rafaela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-036/004
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:06:41. **Bukatu**: 00:09:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Argia eta ura beti ezagutu ditu etxean. Arropak erreka ondoko "albergan" (uraskan) garbitzen zituzten. Izarak lehenbizi tinan garbitu eta, ondoren, uraskan astintzen zituzten.

Transkripzioa

- Guk eitten gendun ba hamabosten behin labesue, izena labesue zon harek, ogi eitte, labesue ein behar deu, lixubea ein ber deu. Lixubea izaten zan erropea garbitzea.
- Argia eta ura beti ezagutu dituzu?
- Bai, beti.
- Eta erropak nun garbitzen zituzuen?
- Erropak ba guk genduken erreken ondori albergia. Albergia harek zeuzken

bi harri. Erdi in kuadro haundi bat udekin, kanilleekin, ta geo han garbitzen gendun guk erropea. Baiño lixubea, maindirek eta horik...

-Erropak eta maindireak ez zan berdina izaten?

-Ez. Erropak porejenplo alkondarak eta soiñekok eta horik diferente. Horik han bakarrik itten giñuzen. Baiño lixubea maindirek eta gauza horik tiñea izaten zan, tiñea zan katxarro borobill haundi bat. Hue ze klase izango zan ba, burnie etzan ba.

-Barriñoiaren modukoa?

-Barriñoia ez, hue barriñoia baiño luzegoa zan. Hue nere alturea edo hola zan. Eta harek azpin eukitzen zon hola zea bat bezela, barriñoi bat bezela, eta han erropea sartzen zan; maindirek eta horik, e, erropa haundie, eta gero haren gaiñen jartzen zitzaion maindire bat, eta maindire hartaa botatzen zan, han jartzen zan sutako hautse. Hoik ez al dituzu zuk jakin sekula?

-Ikusi ez, aittu-ta bai baiño.

-Aittu bai, e? Sutako hautse, beheko sue eindakon etaatzen zan hauts hure, eta gero hautza botatzen zan baldekin irakitako ude, eta harek garbitzen zon; baiño ikaragarri ondo, e, eta usaiekin. Ta gero eitten gendun maindire horik albergan ondo zeatu, astindu. Nola eitten du labadorak?

-Zentrifugau edo estilo hortan?

-Bai, han astindu dana. Eta geo euzkitan zabaldu. Eta zuri-zurik eta usaiekin etaatzen zien.

-Jaboia erabiltzen zan?

-Jaboie ez; bai, jaboie eongo zan ordun'e, baiño jaboie koxkor hori, ez beste.

-Batzuek esan digute etxean egiten zala jaboia.

-Guk ez. Batzuk mantekillea etxan eitten zuen esnegaiñekin, hor Gaintzen asko eitten zan, baiño guk ez gendun sekula eitten mantekillaik; hori ez genduk guk eitte. Oaiñ esnegaiñek, bueno!, ikaragarritzko... Gailletak eitten zittuen esnegaiñekin. Guk gure baserrin ez.

7. Politika

7.1. Gerra zibileko oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Sukia Nazabal, Maria; Sukia Nazabal, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitx
- **Erref:** ORD-018/017
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:17:01. **Bukatu:** 00:18:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerra zibila gutxi gogoratzen dute. Franco Ordiziatik pasatzen zeneko anekdotak kontatzen ditu. Bonbardaketak izaten ziren bitartean, nola ezkutatzen ziren azaltzen dute. Ordiziako fusilatutak aipatzen dituzte.

Transkripzioa

- (E) Gerra zibille, gogon dakezue, o oso umek izango ziñeten zuek, ala?
- (P) Ba, ez asko...
- (M) Nik'e, nik gutxi.
- (P) Sei zazpi urte, bai...
- (M) Nik ordun, naparrak eta esaten zuen, ta hoik irin batzuk o hola

pentsatzen nun ziela. Gaiñea, geo hola geo ya zeatzeako bai. Baiño, geo akordatzen naiz ni, eskolan gebiltzela Karmelitan, Franco pasatzen zanen ta, aitamentu aldea, kalle maiorra etorri, ta horra paiñueluakin ta, ene, ni behar ein “Franco!” Francoi. Horrena akordatzen naiz ni.

- (E) Banderakin ta atea berko ziñaten?

- (M) Bai, bai, bueno bai, bandera txiki batzukin.

- (P) Geo bonbardeon ta, bonbardeoak izaten zienen ta, aireplano hotsak [...] eta tirok eta hola...

- (M) Baai, portalea.

- (P) Portalea danok.

- (M) Bai.

- (P) Refugioa zan.

- (M) Refugioa, bai. Hotsa zeatzen zanen, behera jetsi.

- (E) Geo Ordizin fusilamentuk eta're izan zien.

- (P) Bai, bueno, ni hoi gutxi.

- (M) Bai ni pixkat akordatzen naiz hoik nola ekartzen zittuen, reketien zirkulua, hildakok..... baiña gaiñeako fusilatuik eta hoik ez.

- (P) Fusilatuk eta aitzen zenun gaur “van a fusilar”, baiña ordun zazpi urte o ze izango nitun nik.

7.2. Gerra ondorengo giro politikoa

- **Hizlaria(k)**: Murua, Ana Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Erref**: ORD-021/017
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:23:09. **Bukatu**: 00:25:18
- **Multimedia**: audio online entzungai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Gerra ondorenean ez zuten goserik pasa tabernari esker. Orduko egoera politikoa azaltzen du. Neskamea hil zutenekoa kontatzen du.

Transkripzioa

- Eta geo gerra ondorena ta hola goorra izan zan?

- Bai, gosea. Guk ez gendun pasa goseik, zeatik hemen tabernan beti genduken...

- Jatekoa.

- Bai.

- Eta gero politikoki, ba ez dakit, tensioa o hola zeon?

- Baita. Baita. Oain historia repetitzen ai da e?

- Bai, bai.

- Ordun karlistak, eta nazionalistak.

- Eta burlak eta holako gauzak bai ezta?

- Bai, bai.

- Eongo zian ezta?

- Bai, bai. Karlistak zeren pixkat...

- Harrotuta, iyota.

- Bai, ni akordatzen naiz, kalen pasatzen zienen margaritak, aittuko zenduen, txapel, txapel gorrikin ta...

- Emakumeei?

- Emakumek bai.

- Baiña hoi zer zan, kongregazio bat bezela o... ez zan elizakoa?

- Ez dakit. Ez, ez, elizakoa ez, aparte. Bai, kalen pasatzen zien "con un"... harrotuta erabat.

- Haik irabazlek zien ta! Betikoa.

- Bai. Baiña ze mentalidadea ezta?

- Bai, egie da. Batzuk gaizki pasako zuen ordun gerran.

- Bai. Oso gaizki. Bai, guri neskame, este, hil zioten balkoi hontan.

- Neskame bat?

- Lazkaomendikoa.

- Bai e?

- Bai, ordun ez zeren etxe hok, etxe gorrie zeon, ta han zeren nazionalak, eta atera zan erropa jasotzea. Nere aitak esaten ezetz, "ez iyo, zeatik han dare". Gañea illuntzea zan, illuntzen ordun, eta bueno, jo in zuen. Eta hil zan, ordu batzuk eon zan biziik.

- Eta hil zuen ze, peligrosua izango zalakon eo...?

- Bai, ba, ta gero konturatu zienen gu giñela, nere aita gañea etorri zan jasotzea, eta bueno etorri zien esanez ba nola okurritu zitzaion momentu hoietan balkoira ateratzea.

- Ya, baiño.

- Baiño.

- Baiño hua hil in zan. Bueno, hil in zuen.

7.3. Baserriko hizketa egiten zuelako, eskolan burla

- **Hizlaria(k):** Mujika Imaz, Maria Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-023/003
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:05:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Euskara eta politika
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Txikitatik euskara zuen gogoko; eta, Ataungo baserrian denbora asko pasatzen zuenez, Ordiziara bueltatzean, barre egiten zioten baserritar hizkera omen zuela esanez. Anekdotak bat kontatzen du.

Transkripzioa

-Nik anekdota bat nahi badezu esango dizut. Ni Atauna juden nitzenen, bueno ni izen naiz beti euskeraz gustatzen zaiena hizketan. Txikitati nik euskeraz eitten non. Nere senidek ez, baiño nik bai. Eta Atauna juden nitzen [...] gehio ikasten non. Handi etortzen nitzenen, klaro, baserriti igual hiru hillabete pasatzen nittun baserrin eta, hango tankerak, baserritar tankera ekartzen non. Han eoten nintzen ta. Eta etxea etortzen nitzen Ordizia eskola eta esaten zien "la casera", "la casera", eta ez zien uzten euskeraz eitten.

-Erak gaizki ikusten zuen zuk euskeraz ittea?

-Ez zon nahi izaten nik harutza jutea. Zeatio "la casera", ordun ez zuen uzten euskeraz eitten, ordun debekauta zeon euskeraz eittea. Eta ni ez nitzen tontana, gutxi juden nitzen baiño tontana ez nitzen. Eta ez jakin zer

nekin eta ezer, eta zer, ala!, "al pelotón de los torpes", atze-atzea uzten ninduen; eta egun baten enkaratu nitzen señoritakin, esan nion ni ez nitzela tontana, ni Ataunen egoten nitzelako eta baserritarakin eoten nitzelako tontana ez nitzela, eta bestek bezela mahietan jartzeko. Eta ordun hasi zien jartzen eta bueno. Baiño hala ta guztiz

-Ta nola hartu zizuen?

-Bueno ba, ondo zeatio ordun garai hartan maixuk eta horik oso oso haundik zien. Gaurko egunen jainkoai eskerrak denak igualtsuk gea, baiño ordun ez. Ordun diferentzi haundie zeon batetik bestea.

-Eta hori monjai esan ziozun?

-Ez, hori ia señoritea zan. Eskolara pasatu nitzenen.

7.4. Gerra garaian Azkoitiko baserrira

- **Hizlaria(k)**: Etxaniz Gantxegi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-025/015
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:26:29. **Bukatu**: 00:29:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Lau anai-arreba ziren. Gerra garaian, amarekin autobusa hartuta, Azkoitiko baserrira joan ziren bizitzera. Baserrian, ogia egiten zuten eta ez zuten goserik pasa. Familia osoa joan zen Azkoitira.

Transkripzioa

-Zenbat anai-arreba ziñeten?

-Gu gea hiru -bat hil da baiño-, hiru neska eta mutil bat. Hiru neska ta mutilla.

-Gerra-denbora ezagutu zenun?

-Bai. Gutxi. Bai. Nola jun giñen, hori dauket gogon, amakin eskutik hartu ta plazatik, eta plazea zegon, militarrek izengo zien, nik ordun ezta ulertzen ´e, hainbeste jende autobusa hartzea baserrira juteko. Baserrira jun giñen eta han.

-Nungo baserrira?

-Usingo, esan dizut, Azkoittira.

-Hemendikan harutza jun ziñeten gerra zalako?

-Bai. Eta han egon giñen bastante denboran. Aber, ama etortzen zan noizin behin ikusteko aber zer mouz edo zeon. Berriz ´e juten zan kontukin gureana, gu txikik oaindik. Ta amona zanak erakusten zigun, ai! Bildurrez danok baiño berak, han baakizu, babarruna zeola etxen eta garie han asko itten zan, iriñe itten zuen, ogie etxen bertan itten zuen; faltaik ez giñeukan, eta gu giñen zaharrenak, ordun gu zaharrenak, eta ba han.

-Zuk ogirik itten zendun?

-Nik ez. Amonak eta izebak itten zuen ogi batzuk. Eta gu juten giñenen ´e opil txikik, sugea dan bezela holaxe biribildu ta... Ta guk pozik, eta berak ´e pozik. Gaiñeaz beti noiz jungo, noiz jungo ote giñen.

-Zenbat denbora egin zenuen han, asko?

-Bastante, bastante denbora eingo giñun, bastante, ez naiz gogoratzen hori, baiño bastante denbora.

-Zer jun ziñaten, aitta-amak eta zu, danok jun ziñaten?

-Danok, bai. Danok egon giñen han.
-Aittek ez zuen gerrara jun beharrik eta izan?
-Ez, ez. Soldauska´re aittek ez zun izen zegatik aitte nola hil zekon gazteik, bera umea, eta aitte hil zekon eta etxen arrebak eta ama alargune, ba laguntasune o.

7.5. Gerra garaian, Zaldibiara ihes

- **Hizlaria(k):** Korta Gurrutxaga, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-034/005
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:06:38. **Bukatu:** 00:08:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Gerra Zibila hasi zenean, zazpi urte zituen. Kanoia baseritik gertu nola jarri zieten eta Zaldibiako baserri batera nola ihes egin behar izan zuten kontatzen du. Etxean ganadua utzi zutenez, aita joaten zen gauetan haiei jaten ematera.

Transkripzioa

- Ta bueno, holaxe pasau giñuzen ba aurreneko urtek han. Da gerra estallau zen garaian, gerra hasi zan garaian, ordun izan zan neretzat bigarren mugarrie.

- Zenbat urte zittuzun zuk?

- Ordun zortzi urte eiteko. Ta ia zortzi urtekin detailliek´e asko akordatzen die. Ta gogoratzen naiz, klaro, zan uztaila, jarri zien, gerra emen dek eta, ba emen zetoze eta etxien da kriston mogimentua zaharrak eta gazteik eta, kauben. Hamen herrien´e bai, herrien lehengusu batzuk nitun, lehengusu propiuek, oaindik´e badauzket hor, eta haiek etorri zien, famili guztie baserrira etorri zien ihesi, zeoze [bazetorrela ta] ihesi. Gu baserrin ta bueno, goizien, nere aitte zana gerran Afrikan ibillitakua zan, “El desastre de Africa” edo ibilitakua zan, da goizian jaiki da ta kaiñoi bat hamen Guardi Zibillen pare hortan Agerre baserri bat bazan hor; hor kaiñoi bat; beste bat han kanposantu ondun, oin hillerrie esaten da, lehen kanposantua. Ta baserrie erdi samarren zeon. “Leku txarrian gatxaudek hamen”. Batak tiratzen, eta bestek... Erdibidean harrapatzen [...], hamentxe... Bueno, hartu danak eta Zaldibira jun giñen. Zaldibira jun ezkerro ia salbau.

- Zaldibira jun zineten?

- Baserri baten.

- Baten bat zenduen han?

- Baserri batean. Gehienak ezaunak izaten zien ordun. Baserri hartara jun giñen, danak lehengusuk eta gu eta dan-danak, baserrie utzi gendun guk ganauek bakarrik. Ta gero gabaz etortzen zan, han egon giñen ba, ez dakit, zortzi-hamar egunen. Eta gabaz etortzen zan aitte ba alpapa moztu ta ganauei jana eman da. Ta buelta berriz´e gabaz. Ta egunez ba hantxe. Ta, koño, ia egun baten [aillegatu] zan eta “ia bukau emen dek gerrea”, bukau emen dek eta bueno, atzea etxea berriz´e gere traste guzikin. Hamar bat egun egin da bukau...

- Zuk bonbak hemen bota zituenekin akordatzen zera?

- Bonbak gutxi bota zituen hamen. Bota zituen baiño gutxi. Nik behintzet

nik goguan dauzkatena, ez dakit, hiru-lau bakarrik izan ziren. Eta gu ba txikiak giñen eta ez zigun min haundirik ein.

7.6. Erreketeen hiletak

- **Hizlaria(k)**: Korta Gurrutxaga, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-034/007
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:11:16. **Bukatu**: 00:14:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Haurtzaroa gerrak markatuta ziren, jolasak ere gerrarekin lotura zutenak izaten ziren eta. Errekete bat hiltzen zenean, zirkulu karlista zegoen lekuan jartzen zuten gorpua eta mutil gazteak instrukzioak egitera joaten ziren martxa militarren atzetik.

Transkripzioa

-Gerraten hura izan zan ba, markatu giñuzen, e, erabat. Nik uste det gure haurtzaroa garai hartan markatuta geatu zala gerrakin. Zeatik danak jolas guztik eta kontu guztik eta giro guztie zan gerran inguruan, gerra inguruan. Pentsatu zazu, intrukzioa eiten erakutsi ziguen, hamen Barrenetxe hortan horrea juten giñen eskolatik irtendakun da...

-Barrena Jauregi hortan?

-Bai. Artean etzan... Markesena, ta baiño gerra garaie zan.

-[...]

-Bai. Mutilkoskorrak. Ze instrukzio eingo gendun guk, baiño behintzat. Mutikoak gu, eztet izenik esango baiño zeñek erakusten zigun-da. Un-dos!, atzea ta aurrera han ibiltzen giñen.

-Bildurrik pasatzen zenuen?

-Bueno, bildurre, nik eztet esango. Bee. Bildurrik ez. Esateizut ba mutilkoskorrak garai hortan, badakizu, koño, gustoa...

-Gerra denpora hortan etxetik ateratzeko ta beldurrik...

-Ez, ez.

-Kalean da normal?

-Ez, ez. Halako kontuik etzan. Egoten ziren ba, klaro. [...] retinan geratzen die ba, joe, orduko imajen batzuk ezin dienak kendu. Ta bat zan rekete bat hiltzen zen garaian ekartzen zebeñ honea. "Círculo Carlista" edo zeuken ordun da han jartzen zebeñ gorputze ta etortzen ziren ba rekete batzuk frentetik eta haren inguruan fusillekin guardia eiten, da mutilkoskorrak eskolan segituan enteratzen, bueno! "Ha muerto fulano", erderaz egiten gendun beti, "ha muerto fulano". Korrika erten eskolatik eta danak; espektakulua zan zuretzako. Fusillekin da danak. Hurrengo egunien ba entierro. Ta entierroan ba mutilkoskorrak instrukzioa eiten-da han juten giñen. Banda-musikakin gorputzen atzetik martxa funebre bat jotzen zuten pon-pon-ponpon-pon... Joe, emoción, eta gu atzetik. Ta gero arenga bat egiten zuen han kanposantun, eta Arama aldea begira gero deskarga bat, prrr! Ta guretzat hura zan ba el no va más. Detalle horik gelditzen die betirako. Hoiek ezte ahazten.

-Goserik pasatu zenuten?

-Gerotxuago etorriko zaizu hori. Baiño ordun esateizut bai reketia hiltzen zanian, edo baita "Han cogido Santander", eskolatik ateatzen giñuzen

danak eta desfilatzea herri guztin, han mutilkoxxor danak musikokin-da. Hola jun zan gerra. Eta guri imajiña bat jarri ziguen gerran, baiño ordungo tebeok eta kontuk eta txistek eta danak zien gerra. Eta bueno, mutilkoxxor earrak eta politak eta ondo dibujautakuak eta, eta bestiak berriz kriston gaixtuk eta txarrak eta bueno! Eta beti ba onak irabazten zeбен, bakizu, onak irabazten zeбен. Ta giro hortan haurtzaroa ba hiru-lau urte ba pasau giñuzen.

7.7. Mairuak iritsi zirenekoa

- **Hizlaria(k)**: Maiza Urrestarazu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-038/002
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:00:22. **Bukatu**: 00:02:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberría, Eider
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Gerra zibilean, mairuak sartu zirenekoa gogoratzen du. Zer janzkera zuten mairuek, zer egiten zuten, nola bizi ziren, eta aitak nola lortu zuen salbatzea kontatzen du.

Transkripzioa

- Ni akordatzen naiz'e baita hemen gerrako garaikoak'e bai, morok eta egoten zien garaikok.

- Hoi galdetu behar nizun: gerra denbora...

- Nik hiru urte neuzken, honea sartu zianen morok, ta ni akordatzen naiz, gure etxe hori akribillau in zuen tiroz. Ba moro horik etorri zienen honea, ba moron trajekin, gehienak kriston bigotea akordatzen naiz nola zeukeen, ta goitik burutik sartuta eukitzen zuen traste bat gero atzea txintxilika zeon bat, pantaloiak hau honeaiño aillatzen zan bat, hemendik behera dana hola lotuta dana, ta akordatzen naiz fusilla nola zan, ta gure etxe hortan, zelai bat zeon, eta zelai horretik trenbidea bitarten zeon dana sasik hartuta. Ta akordatzen naiz nola juten nintzen hauntza kaka ittea, pixa ittea, eta ordun guk alde in behar izan gendun. Ni txiki nintzena ni beson, hiru urte neuzken, ta nere arrebak'e lau urte, ez sei, nik hiru, bost urte zaharrenak, bi urte zaharragoa da. Ta akordatzen naiz nola jetsi giñen goitik behera, ni uste det amak eskutik, eta nere arreba aittek. Eta sartu zitzakun milizianok esaten zien ordun, eta nere aittei akordatzen naiz nola ordun ba izara puskan bat o hartu zuen, ta trape zuri batekin ta "no, no, nosotros somos gente de paz" esan zion nere amak, eta ordun nere aittek zerbait esan emen zion, gero ez dakit zer esan zion. Eta nere aitta zeon gerran Afrikan bi aldiz eonda, bere garaian gerra tokau zan Afrikako Espaiñikin, Marruekosko hoi zeatu zonen, eta esan zien "yo bastante he estau en la guerra de África", ta ordun akordatzen naiz nola tipo batek holaxen jarri zion, ez dakit zer zan ordun arma, izango zan mosketoia, armakin. Eta kasualidade momentu hartan sartu zan kapitán bat, ta harek holaxe jo zion, pistola bat ikusi zion eskun zaukala, ta jo zion hemen yo! Eta harek salbau zun. Bestela nere aitta garbittu ingo zan. Eta atea giñan, lau famili genden, ta lau familik, han atea giñan.

8. Euskara

8.1. Euskaraz eginez gero, zigorra

- **Hizlaria(k):** Mujika Imaz, Maria Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-023/007
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:08:46. **Bukatu:** 00:10:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Erdaraz egiten zuten eta euskaraz hitzik entzunez gero erregelaz eskuan jo edo beste zenbait zigor izaten zituzten. Eskolaz kanpoko ikasketak hartzera Santa Anara joaten zen.

Transkripzioa

-Eta monjatatik eskolaa alde haundia zegon?
-Igualtsu. Bai, Ez zeon diferentzirik.
-Han ere erderaz eskolan?
-Dana erderaz, bai, bai, ez zizuen uzten euskeraz eitten, e!
-Eta euskeraz egin ezkerro kastigue?
-Bai, bai, beharko. Nik nola neuken ohittura haundie euskeraz eittekoa, eta Ataunen hiru hillabete pasauta nola ez non ba euskeraz eingo, han dana euskeraz eitten non.
-Ze kastigu izaten ziren ordun?
-Ba erregla, bakizu, eskuk hola jarri ta reglakin jo, o bestela bi plantxa, bi burnizko plantxa bezela o bi ladrillu jarri eskutan ta ordubeten hola euki, eta holako kastiguk izaten zien ordun. Oain bezela uste dezu, ala? Jarri belauniko, eskuk hola jarri ta jartzen zizuen bi plantxa, esan dizuan bezela, bi ladrillu. Umek giñen eta bi ladrillo hola ordubeten eukitzea hua haundie zan, e. Gaiñentzean jo, ni ez naiz akordatzan jo ninduenik sekula. Baiño kastigu hori bai.
-Ordun hamaikakin eskola utzi zendun eta partikularretara juten ziñen.
-Bai. Urtebeten holaxe, gehigo ez.
-Ordizin baita?
-Bai, bai. Ordizin. Santa Ana gaiñea. Oain nola daon, ordun zan Santa Ana, nola ospitalen ondoon aparkalekue ein duen, hortxe zan el colegio Santa Ana, eta harutza juten giñen partikularrak ematea. Egunez lana egin behar gendun umEEK ba ez uzteatik ezer ezer be, harutza.

8.2. Mojetan debekatua euskaraz hitz egitea

- **Hizlaria(k):** Maiza Urrestarazu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-037/003
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:03:57. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak

- **Laburpena:** Eskola nazionaletan amaitu zuenean aitaren bidez Caf lantegian hasi zen lanean. Mojetan ikasi zuenean mojak erdaldunak ziren, debekatua zuten euskaraz egitea.

Transkripzioa

-Hori bukatu nuen ba [...] eskolea, ba bueno, nere aittek CAFen lana eitten zun eta ordun ba eskola izaten zan bidea esan dezagun ba zuzenena CAFen sartzeko gazte batzuk. Eta bueno, sartu nitzen han CAFen eta han egon nitzen beste bi urten.

-Esan dezu eskolan monjetan ibili zinela. Monjak zer ziren, hemengoak?

-Bai, hemengok, Madres de la Caridad. Bai.

-Ez ziren kanpotarrak?

-Ez, ez, hemengok.

-Erdaldunak izango ziren.

-Danak erdaldunak. Bueno, bazeren euskaldunak baiña dana erdera ematen ziguen. Ordun etzan hitz bait eitten euskeraz. Batipat esango dizut bat [gale einda?] zeon, etzan kalen hitzik eitteik, eitten genuna etxen, nik nola gurasok euskaldunak nittun. Eta [...] gero lagun arten kuadrillan bagiñuzten bat, bi erdaldunek. Gaiñetiko danak hemengok giñen, hemen jaiotakok eta euskaldunek. Guk euskeraz eiten genun.

9. Aisia

9.1. Bost urterekin Upabi sagardotegira lanera

- **Hizlaria(k):** Mujika Imaz, Maria Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ORD-023/008
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:10:16. **Bukatu:** 00:12:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Bost urterekin Upabi sagardotegira joan zen Laskaibar auzora. Sagardoa saltzen zuen bertan. Anekdotak bat kontatzen du. Sagardo zalea zenak 15 txikito edateko ohitura izaten zuen.

Transkripzioa

-Lana nun egitten zendun?

-Ba baserritan, Upabin. Ni bost urte ein nittun garaien sagardotegi batera jun nitzen, Upabia.

-Nun zegon hori?

-Hori zeon, oaindik zutik dau, fabrika, bakizu fabrika, porterie, Laskabarren, haren paren baserri zar bat badau ba, hantxe. Hua zan sagardotegie, eta ni harutza lanea jun nitzen bost urtekin.

-Eta ze lan egiten zendun?

-Sagardoa partitu. Sagardoa partitu.

-Nora partitzen zendun?

-Partittu? Juten zan..., saldu.

-Bertan?

-Bertan. Baso txiki batzuk izaten zien eta hamabost zentimo balio zon basok. Eta ni txikie, umea nitzen, bost urte, pentsa, eta nei illea hartzeaatik gizonak, bakizu, kuadrilla bat bazan: "Oye chavala, cuanto son

quince gordas y quince chiquitas?". Eta [honebeste] zentimo zan, quince gordas y quince chiquitas. Hamabost baso eaten zan. Sagardotegiko kontue da, zuk ez dezu jakingo baiño, kupelan eitten zan, edaten zuenen ronda, raia eitten zendun, raia eitten zan kupelan; oseake halako kuadrilla, halako kuadrilla, eitten zendun raia, eta bosgarrena eitten zanen, bosgarren basoa, txandea hartzen zuenen, bosgarrenai eitten zitzaion hola; gero seigarrena, hamar arte. Hamar arten hola. Eta gero hamabost arte. Eta hamabosta aillegatzen zan garaien esan behar zizun: "bueno, ya están los quince". Ia ez zuen gehio hartzen. Gutxigo askoz baiño sagardozalea zana(k) hamabost baso eaten zittun.

-Aa.

-Eta gero aillegatzen zien eta "quince gordas y quince chiquitas", eta ni ikasita neon eta "dos veinticinco" esaten nien. Nik ez nakillakon, banekin, orduako ikasita neon. Sukaldea juten nitzen eta hainbeste baso hartu dittue, zenbat diru da ta, ba horrenbeste, bueno badakit, eskatzen dueneako badakit.

-Bestela taberna zan?

-Sagardotegia, sagardoteie, kupela haundikin eta.

-Eta jaten eta ematen zan?

-Bai, asko, asko.

-Zu zerbitzen aritzen ziñan?

-Bai. Gero, pentsa zazu, bost urtekin hasi nitzen, hogeita zortzi urtekin ezkondu nitzen, eta egun bat bakarrik ez nun utzi etxe hartaa juteik. Gaiñantzen beste lan batzuk eitten nittun baiño segitzen nun ordubete eo bi ordu edo, beti, beti, beti. Han familikoa bezela beti ibiltzen nitzen.

9.2. Ordiziako eta Iruñeko futbol taldeetan

- **Hizlaria(k)**: Ormazabal Garmendia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ORD-029/009
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:21:11. **Bukatu**: 00:22:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena**: Umetan, futbolean aritzen ziren gehienbat. Behin jokatu zuen Ordiziako taldearekin txapelketa bat. Iruñe zegoela ere izan zuen futbol taldea.

Transkripzioa

- Ze jolas egiten zituzuen umetan?

- Bueno pues, hemen gehiena ni akordatzen naiz, umetan ba jolasak umek eitten duen jolasak, edozein zera, ezta?, lurren exeri ta hau edo bestea, baiño gero ia fubola, fubola gehiena, fubola, fubola. Beasaiñen bertan La Sallen fubola. Frontoia bazeon, frontoi ttiki bat, baiño gehiena fubola, eta Iruñan egon nintzenean han'e gehien-gehiena fubola. Fubolistak'e onak atera zien handio. Ondo, ondo jokatzen zan.

- Zu hemen Ordizin edo Beasaiñen fubol talden baten ibili zinen?

-Bakaziokin etorri nintzenen behin bakarrik jokau nun. Hemen Ordiziko..., baiño eitten zien kanpeonatok ordun; ez, ekipo titularren, ez. Eta gero han Iruñan bagenduken, kolegion genduken, nola esango det, ekipoa, bertako ekipoa. Zeuken izena Vulcano, dios del fuego, Vulcano, dios del fuego.

- Eta han ibili zinen?
- Bai, ateratzen giñen Panplonatik inguruko herritara jolastera batekin edo bestekin edo beste kolegio batzukin. Baiño lenao esan detena, aittek esan zin, bueno, lenbalen soldau, da bueno ba hemeretzi urtekin soldau. Hemezortzikin kolegiotik irten, enpalme soldauskakin hemeretzi urtekin. Hogeï urte han ein nittun, konplittu nittun, hogeï urte, da bueno.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. 1938an jaio zen Ordizian (ORD-001/001)

1938an jaio zen Ordizian. Aita ordiziarra eta ama Berastegikoa zituen.

2. Ordiziako azoka garai batean (ORD-001/005)

Garai bateko Ordiziako azoka goizez eta arratsaldean izaten zen. Gizonezkoak ibiltzen ziren azokan eta emakumeak arratsalderako etxera joaten ziren. Inguruko herrietatik nahiz kanpotik hurbiltzen zen jendea. Nafarroatik arkumeak ekartzen zituzten. Azokako saltzaileak euskaldunak izaten ziren. Azokako jakiak aipatzen ditu. Ama asteazkenero joaten zen azokara saltzera.

3. Ez zuten sekula goserik pasa; errazionamendua (ORD-001/009)

Ez zuten goserik sekula pasa, baina errazionamenduko ogia jaten zuten. Garia egiten zuten urte osorako. Txerria hiltzen zuten eta taloa eta txorizoa sarri izaten zen etxean. Jakiak aipatzen ditu.

4. Txerri-boda (ORD-001/010)

Etxean txerria hiltzen zenean festa izaten zen. Auzokoak elkartu eta aita hiltzen zuen txerria. Ardiak hildakoan zezina egiten zuten eta txerria bezalaxe gazi-kutxan kontserbatzen zuten. Mondejuak amak egiten zituen noizean behin kapritxo.

5. Margoketan eta baloiarekin jolasean (ORD-001/012)

Udara arte gurasoek ez zieten errekan bainua hartzen uzten eta behin udara iristean ordu gehienak bertan pasatzen zituzten. Errepidera atera eta margoketan eta baloiarekin jolasean aritzen ziren. Pasadizo bat kontatzen du.

6. Sagardoa egiten zuten (ORD-001/020)

Etxean sagarra zenean sagardoa egiten zuten auzokoekin eta nola egiten zuten azaltzen du. Eguneroko otorduetako edari nagusia sagardoa izaten zen eta ardoa, berriz, ospakizun berezietarako.

7. Kaletarrek baserritarrei barre (ORD-001/023)

Baserriko jendearen eta herritarren artean nabarmena zen aldea janzkeran; baserritarrei barre egiten zieten kaletarrek.

8. Baratzeko lanak (ORD-001/027)

Baratzean ereiteko urtaro eta hilabete ezberdinak kontuan izaten ziren eta haien aipamena egiten du.

9. Bizimodua baserritik atera du (ORD-002/003)

Baserritik bizi izan da beti, lantegirako lana eskaini bazioten ere, baserrian behizain geratu zen. Hamaika senide bizi izan ziren baserrian amonarekin.

10. Eskolara, Ordiziako fraideetara (ORD-002/004)

Eskolan Ordiziako fraideekin eta partikularretan ibili zen. Denetik ikasten zuten, baina beti erdaraz. Senideetan zaharrena izanik, baserriko lanetan aritzea suertatu zitzaion eta eskolarako ez zuen asti handirik izan. Maisua euskalduna izan arren erdaraz egiten zieten.

11. Aita hiltzean, bera baserriaren kargu (ORD-002/005)

6 anai-arrebako familia zuen, anai bat eta osaba fraide joan ziren. Aita bera gaztea zela hil zitzaion eta baserriaren kargua berak hartu zuen.

12. 3 urtez Espainiako gerratean (ORD-002/006)

3 urte pasa zituen gerran eta Espainia osoan zehar ibili zen. Herritarrak eta euskaldunak izan zituen gerrako lagunak; batzuk izendatzen ditu. Gosea pasa zuten arren, etxetik jasotzen zuten zerbait. Gutunak idazten zizkieten etxekoei erdaraz.

13. Ordiziako azokara jakiak saltzera (ORD-002/007)

Goizeko 6etarako joan ohi ziren Ordiziako azokara astoa hartuta, berdura, sagarrak eta arrautzak saltzera, besteak beste. Etxe inguruko soroak, zelaiak eta etxea bera kendu zizkieten eta trukean kaleko etxe batera bidali zituzten Benito eta etxekoak bizitzera. Ordiziako azokan jende ugari izaten zen; saltzaile kanpotarrak ere izaten ziren eta haiek autobusez joaten ziren. Egun osoan izaten zen azoka, emakumeek debekatua zuten arratsaldeetan hara joatea, etxean egon behar izaten zuten.

14. Umetan futbolean eta pilotan (ORD-002/009)

Umetan futbolean hasi zen eta 10 urterekin baloia lortu zuteneko anekdota kontatzen du. Jai arratsaldeetan pilotan aritzen ziren frontoian. Pasadizo bat kontatzen du.

15. Erromeria eta irteerak (Arantzazura) (ORD-002/010)

Gerrara joan aurretik, lagunekin izan ezean ez zen tabernara bakarrik sartzen ausartzen. Erromeriara Oiangura, Tolosara eta Larraitzera joaten ziren. 57 urtez joan zen Arantzazura, bizkarreko mina kentzeko promes egin eta sendatu egin zelako. 8 orduz joaten zen oinez Arantzazura; bide hartako kontuak kontatzen ditu.

16. Bertsolariak entzutera joaten zenekoa (ORD-002/012)

Inauterietara eta festetara joaten ziren baina iluntzerako etxeratu behar izaten zuten. Bertsolaritza asko gustatzen zaio eta lehengo bertsolariak entzutera joaten zen bertso-saioetara. San Migelera joan zirenekoa kontatzen du.

17. Lehenago haragirik ez jateko (ORD-002/015)

Egunero babarrunak eta porrusalda jaten zituzten; haragi gutxi izaten zen, txerria hildakoan txerrikia. Pasadizo bat kontatzen du.

18. Etxea; 3 familiaren artean 25 ume (ORD-002/016)

Etxe berria egin zuenekoa; 3 bizitzako etxea zuten aurretik. 3 familiaren artean 25 ume izan zituzten; haien aipamena egiten du.

19. Lixiba emakumeen lana (ORD-002/017)

Arropa emakumeek garbitzen zuten, etxean lixiba egin eta gero errekarara joaten ziren buru gainean ontzian hartuta. Lehortzeko etxe atariko alanbre batean jartzen zituzten arropak.

20. Lorezaintza (ORD-002/018)

Benitori loreak asko gustatzen zaizkio eta haiekin esku lanak egiten zituen. Loreen inguruko kontuak kontatzen ditu.

21. Medikua eta praktikantea Ordizian (ORD-002/020)

Ordizian medikua eta praktikantea zeuden. Benitoren ebakuntzak. Haurdun zeuden emakumeak Zumarragara joaten ziren erditzera; haurrak izan zituzteneko kontuak kontatzen ditu. 6 neska eta bi mutil izan zituzten.

22. Ezkontza eguna (ORD-002/022)

Legorretako parrokian ezkondu eta emaztearen etxeko ganbaran jan zuten.

23. Gerra ondorenean baserrian kalean baino gose gutxiago (ORD-002/025)

Gerra ondorena nahiko baketsua izan zen Ordizian. Gosete garaia bazen ere, baserrietan ez zen goserik pasatzen. Eibartik eta kanpotik joaten zen jendea beraiengana esnea eta estelakoak erostera. Benitok etxeko jeneroa nola saltzen zuen azaltzen du. Estraperloko kontuak.

24. Gerra ondorengo politika (ORD-002/026)

Gerra ondorenean, Euskal Herrian "Makiak" zeritzenak ibili ziren. Politika munduko kontuak aipatzen ditu.

25. 10 zentimoan bertsopaperak salgai azokan (ORD-002/028)

Gurasoei entzunda nahiz irakurrita bertso ugari ikasi zituen. 10 zentimotan bertsopaperak erosten zituen azokan. Gau eskolan ibili zen. Bertso bat aipatzen du eta bertsolari bat izendatu.

26. Urte sasoi ezberdinetako baratzeako landaketak (ORD-002/029)

Baratzean ereiteko ilargiaren arabera gidatzen zen eta jaki bakoitzaren landaketa urtaroa aipatzen du. Egurra lortzeko akazia eta gaztaina landatzen zituen.

27. Santa Ageda egunean koplari (ORD-002/031)

Santa Ageda egunean beste lagun batekin batera koplari ibiltzen zen. Abesti bat aipatzen du.

28. Etxeko eta lagunekin hika (ORD-002/035)

Ordizian euskaraz egiten zuten gehienek. Etxera erdaldunen bat joaten bazitzairen, ama atera ohi zen erdaraz hitz egitera. Anai-arreba eta lagunekin hika hitz egiten zuen, gurasoek ere hala egiten zioten berari eta.

29. 1929an Ordiziako Majori baserrian jaioa (ORD-003/002)

1929an jaio zen Ordiziako Majori baserrian. Aita Ordiziako Azpintxeberrikoa eta ama Aramakoa zituen; emaztea, berriz, Arriarangoa. Bost seme-alaba ditu.

30. Inmobiliarietako etxe saltzaile (ORD-003/003)

Baserriko lanetan aritu zen 25 urtera arte eta ondoren inmobiliarietako korredore lanetan hasi zen etxeak saltzen.

31. Eskola munizipaletan lehenbizi eta ondoren gau-eskolan (ORD-003/004)

Ordiziako eskola munizipaletan ibili zen lehenbizi eta ondoren gau-eskolan. Gau-eskolaren nondik-norakoak azaltzen ditu. Erdaraz ikasten zuten.

32. Donostian soldadu (ORD-003/005)

Soldadu urte eta erdiz egon zen Donostian. Lagun euskaldunak suertatu zitzaizkion eta urte onak pasatu zituen.

33. Ordiziako azokara saltzera (ORD-003/006)

Ordiziako azoka handia zen eta ganadua izaten zen nagusiki. Oinez joaten zen jendea inguruko herrietatik eta egun guztiko azoka izaten zen. Nafarroako jende ugari joaten zen. Pedro joaten zen normalean etxeko jakiak eta ganadua saltzera, etxeko zaharrena zen eta.

34. Kaletarrek barre gaztelaniaz gaizki egitearren (ORD-003/007)

Gerra ondorenen kanpotarrak sartzen hasi ziren Ordiziara, aurretik ere erdaraz egiten zen arren. Pedrok euskaraz egiten zuen lagunekin eta erdaraz gaizki egiten zuelako barre egiten zioten kaletarrek.

35. Baserritarrak lanera kalera (ORD-003/009)

Ordizian ez zegoen baserri askorik; gehienetan lanerako familiako bat geratzen zen eta gainontzekoak lantegietara joaten ziren.

36. Esnea kalera saltzen zuten (ORD-003/010)

Pedroren baserria txikia zen; untxiak, txerriak, oilaskoa eta abar izaten zituzten. Soroan behiekin lan egin eta esnea kalera saltzen zuten. Bi arreba joaten ziren etxez etxe esnea saltzera.

37. Taloa eta artoa eguneroko jakiak (ORD-003/011)

Goserik ez zuten pasa. Egunero babarruna jaten zuten eta postrea asteazkenetan (feria eguna) eta igandeetan bakarrik jaten zuten. Talo eta arto ugari jaten zuten. Urtean bitan hiltzen zuten txerria. Igandeetan kafea hartzen zuten. Letxuga eta tipula jaten ziren, baina tomatea jateko ohitura erdaldunek ekarri zuten.

38. Oilaskoa egun berezietako jaki (ORD-003/012)

Baserri askotan hiltzen zen ardia. Pedroren amaren etxean ardia hildakoan mondejuak eramaten zizkieten. Eguberrietan oilaskoa jaten zuten, orduan angula baino preziatugoa zen eta.

39. Arropa gabitzera errekarra (ORD-003/013)

Arropa etxean garbitzen zuten, labaderoan, eta errekarra ere joaten ziren. Plantxa ekonomikan berotuta izaten zuten. Ura etxe gaineko iturritik hartzen zuten.

40. Laneko eta kaleko janzkera (ORD-003/014)

Baserrian mahoizko prakak janzten zituzten eta kalerako dotoreagoak izaten zituzten. Udan alpargatak eta neguan abarkak janzten zituzten, eta etxeke lanetarako ere azken hauek erabiltzen ziren.

41. Bi jaunartze: txikia eta handia (ORD-003/015)

Bi jaunartze egin zituen, txikia eta handia. Ospakizuna etxean egiten zuten eta opariak ere izaten zituzten. Errege eguna ere izaten zen, baina beharrezko opariak izaten ziren soilik.

42. Gerra ondoreneko jan eskasia (ORD-003/017)

Gerra garaia ezagutu zuen; etxekeekin aitaren etxera joan zen Azpintxeberriera. Pasadizo bat kontatzen du. Gerra ondorenean gosetea izan zen, ezin zuten kanpotik janaririk sartu eta garirik ere ezin izaten zuten saldu baserritarrek. 1944 urte inguruan Pedro bizikletaz joaten zen Nafarroara patata eta beste zenbait gai erostera. Esnetara etxera joaten zitzaizkien bi erdaldunek erakutsi zien harako bidea 15 urte zituela.

43. Ogi eskasia (ORD-003/018)

Gerra ostean, ogirik ez zuten izan, errazionamenduan urri izaten zen eta. Etxean gerora hasi zen ama ogia egiten. Nafarroatik irina ekartzen zieten. Anekdotak bat kontatzen du.

44. Aitak ez zion utzi futboleko jokalaria izaten (ORD-003/020)

15 urte zituenean kaletik futbol arduradunak joaten zitzaizkion Pedroren aitari, semea futbolean has zedin eskatzera. Jokalari ontzat bazuten ere, kanpora joaten uzteko beldurrez eta baserriko lanetarako beharrezko laguntza zelako aitak ez zion utzi. Orduko gurasoenganako errespetua aipatzen du.

45. Igandeetan meza eta bezperak (ORD-003/021)

Igandeetan mezetara joaten ziren goizeko 8etarako eta arratsaldeko 3 t'erdietan bezperetara. Koskortu zirenean futbolera eta zinera joaten ziren.

46. Umetako jolasak (ORD-003/022)

Umetan kaniketan, "txibili kuartean", futbolean eta antzekoetan jolasten zuten. Pilotarako zaletasun handia zuten, baina ez zuten frontoirik libre izaten. Aitak lantegira joateko erosia zuen eta Pedrok betidanik ezagutu zuen bizikleta etxean.

47. Lagunarteko parrandak (ORD-003/023)

Behiak jezteko morroia zuten etxean, baina Pedroren amak nahiago izaten zuen Pedrok jezte eta etxera joaten zen lagunak utzita. 18 urterekin parranda handiak egiten zituzten inguruko herrietan. Kanpotik jende ugari joaten zen apopilo. Musika jartzen zuten taberna bateko kontuak kontatzen ditu. Pedrori eta lagunei kantuan aritzea gustatzen zitzaion .

48. Erromerietara dantzara (ORD-003/024)

Erromerietara joaten ziren Zaldibiako Benta Berrira eta Teleitxora dantzara. Alegi eta Tolosa aldera joateko ere bazuten joera.

49. Ipuin zaharrak (ORD-003/025)

Murumendiko damari eta jentilei buruz kontatzen zizkieten istorioak aipatzen ditu. Aitona zenari eta osabari aditutakoak.

50. Bertsopaperak eta Santa Ana jaiak (ORD-003/026)

Bertsopaperak saltzen ziren eta Pedrok eta lagunak buruz ikasten zituzten. Lagun baten aipamena egiten du. Ordiziako Santa Ana jaietan Burgosko musika banda eramaten zuten. Pedro eta lagunak soinujoleen inguruan ibiltzen ziren.

51. 14 urterekin neskame lanetan hasi (ORD-004/002)

14 urterekin Ordiziako etxe batean neskame lanetan hasi zen. Etxejabeak Itsasondora joan zirenean, Lupe ogia saltzera joaten zen handik Ordiziara.

52. Eskolan moja frantzesetan (ORD-004/003)

Eskolan moja frantzesetan ikasi zuen. Osaba Ordiziako alkatea zuen eta haren bidez sartu zen eskolan.

53. Ordizian gaztelania nagusi (ORD-004/006)

Kalean jendeak gaztelaniaz hitz egiten zuen arren, Luperen gurasoek dena euskaraz egiten zuten.

54. Lehenbizi neskame eta ondoren lantegian (ORD-004/007)

Ordizian eta Donostian aritu zen neskame lanetan, baina Donostian zegoela ama gaixotu zitzaion eta Ordiziara bueltatu beharra izan zuen. Manufakturen lantegi batean hasi zen lanean orduan. 3 errelebotan lan egiten zuten. Ezkondu ondoren garbiketa lanetan aritu zen.

55. Herriz herri errokilak saltzen (ORD-004/010)

Ordiziako azokan postua jartzen zuten eta alpargatak saltzen zituen. Amak errokilak egiten zituen eta herri txikietako festetara joaten ziren otarra hartuta errokilak saltzera. Amak dantza soltean ondo egiten zuen eta Lupek ere ikasi zuen.

56. Lotuan dantza eginez gero kongregaziotik kanpora (ORD-004/011)

Plazan soinua jartzen zuten eta dantzara joaten ziren. Dantza lotuan eginez gero, kongregazioan sartuta zeudenak kanporatu egiten zituzten.

57. Azokan alpargatak eta arropa saltzen (ORD-004/012)

Azokan alpargatak eta arropa saltzen zituzten, baina ez ziren beraiek eginak, erosiak baizik. Errokilak saltzen zituzten inguruko herrietan. Ordiziako azokan ganadu ugari izaten zen.

58. Bizi-leku izan zituenak (ORD-004/014)

Kale nagusian jaio arren, "Bekoetxeko Lupe" izenez ezagutzen da. Kale Nagusitik " Motxanera" eta handik Bekoetxera joan ziren bizitzera.

59. Eguneroko otorduetako jakiak (ORD-004/019)

Eguneroko otorduetan babarruna, salda, haragi egosia eta abar izaten ziren jateko nagusiak. Arkume odola hartzen zuten pikatxa egiteko. Eguberri eta igandeetan otordu antzekoa egiten zuten.

60. Arropak putzuan eta errekan garbitzen zituzten (ORD-004/020)

Arropak garbitzera putzura joaten zen neskame zegoenean eta amarekin, berriz, Zaldibiako erreka arropaz betetako baldea buru gainean hartuta. Lixiba izaten zen garbikaria. Plantxa bazuten etxean (elektrikoa eta egurrezko ikatzarekin sutakoa); morroi baten anekdota bat aipatzen du plantxaren inguruan.

61. Zakuzko arropak (ORD-004/021)

Batak eta zakuzko arropak janzten zituzten.

62. Astoei zama jartzen (ORD-004/022)

Astoak nola kargatzen zituen azaltzen du. Pixu handiko irin zakuak kargatu behar izaten zituen.

63. Okindegian aritu zen lanean (ORD-004/023)

Gerra denboran ogia banatzen ibili zen. Karroan eramaten zituen eta bera izan zen lehenengo karroa kalera atera zuena. Ogia morroiak eta Lupek ere egiten zuen; nola egiten zuten azaltzen du. Ogi mota ezberdinak.

64. Ezkon-festak ganbaretan egiten ziren (ORD-004/027)

Ordizian ezkondu zen eta Donostiara eta Bilbora joan ziren ezkonbidaian. Orduko ezkontzetako banketea eta ospakizuna ganbaretan egiten zen.

65. Lagunekin egindako irteerak (ORD-004/028)

Inguruko herrietako festetara joaten ziren oinez. Donostiako Perlara ere joaten zen noizbehinka. San Migelera joaten ziren astoa hartuta eta bertan lo egiten zuten; meza entzuten zuten bertan.

66. Larraizko erromeria (ORD-004/029)

Larraitzera joaten ziren erromeriara eta dantzari aritzen ziren ttunttunarekin eta ahoko soinuarekin.

67. Musikari familiakoa (ORD-004/032)

Familian musikariak ziren eta kantuan aritzea asko gustatzen zitzaion. Aita bandako musikaria eta dantzari amorratua zen. Anekdotak bat aipatzen du.

68. Umetako jolasak (ORD-004/035)

Umetan sokasaltoan, tokoetan, txirunban eta antzeko joalsetan jolasten zuten. Jolasen nondik norakoak azaltzen ditu.

69. Ogi-banatzaile lanetan aritzen zenekoa (ORD-004/038)

Ogiak banatzen aritzen zenean, adarra jotzeko, karroa ezkutatzeko zioten ezagunek. Festetan, zerbitzari lanetan aritzen zen Ordizian. Lana bukatzen ari zirenean, korrika frontoira alde egiten zuen azkeneko pieza dantzatzera.

70. Ordiziako auzoetako festak (ORD-004/041)

Ordiziako geltokian bandak jotzen zuen. Plazako, Urdanetako eta Oianguko festak aipatzen ditu.

71. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen (ORD-004/042)

Etxe azpian sagardotegia eta bola-lekua zituen. Sagardotegiak izendatzen ditu. Sagardotegi eta tabernetan emakumeak ez ziren sartzen.

72. Gurasoen lanbideak (ORD-004/044)

Luperen aitak CAF-en lan egiten zuen arotz lanetan eta amak erroskilak saltzen zituen. Aitona karreteroak izan zen; haren inguruko kontuak.

73. Corpus Eguneako prozesioa (ORD-004/046)

Corpus Eguneako prozesioaren aipamena egiten du.

74. Ordiziako San Pedro kalean jaioa (ORD-005/001)

Ordiziako San Pedro kalean jaio zen 1921ean. Kalearen inguruko aipamena egiten du. Aita eta ama Zaldibiakoak zituen. Emaztea Lazkaokoa du eta 3 seme-alaba ditu.

75. Lanbide ezberdinak probatua (ORD-005/002)

15 urterekin okin lanetan ibili zen, soldadutzan jabonero eta handik bueltan CAF lantegian aritu zen.

76. Eskolan eta lagunekin gaztelaniaz (ORD-005/003)

Eskolan Ordiziako fraideetan ibili zen 13 urtera arte. Gaztelaniaz ikasten zuten eta lagunartean ere halaxe hitz egiten zuten. Etxean bakarrik hitz egiten zuten euskaraz.

77. Asteazkenetako azoka egun osokoa (ORD-005/005)

Ordiziako azokan ganadu asko izaten zen eta kaleek ere ganadu izena zuten. Postuen kokapena azaltzen du. Saltzaileak inguruko herrietako baserrietakoak izaten ziren eta erosleak kanpotarrak. Azoka egun osoan izaten zen eta baserritarrak bertan geratzen ziren bazkaltzen.

78. Trena jarri aurretik "mixtoa" garraiobide (ORD-005/006)

Ignaziok 10 urte zituela hasi zen trena martxan; aurretik "mixtoa" deiturikoa izaten zen, kotxeak eta bagoiak. Erosleak Donostiatik joaten ziren eta saltzaile asko Nafarroatik.

79. Azokara saltzaile euskaldunak (ORD-005/007)

Nafarroatik Ordiziako azokara saltzera joaten zirenek euskaraz hitz egiten zuten.

80. Azokara autobusez eta trenez (ORD-005/008)

Azokara Azpeititik, Ataunetik eta Zaldibiatik autobusak joaten ziren; Altsasu aldekoak trenez etortzen ziren.

81. Euskaldunen artean ere erdaraz egiteko ohitura (ORD-005/010)

Gerra aurretik eta ondoren ferrokarrilarengatik eta etxe berrien eraginagatik erdaldun ugari joan zen Beasainera eta Ordiziara. Lagunekin eta anai-arrebeekin gaztelaniaz hitz egiteko ohitura, euskaldunak baziren ere.

82. Bi arrebei gertatutako ezbeharra (ORD-005/011)

10 senide ziren. Alemanian gertatutako bonba leherketa baten ondorioengatik bi arreba hil zitzaizkion.

83. Ordiziako baserri eta errotak (ORD-005/013)

Ordiziako baserriak izendatzen ditu. 3 errota zeuden Ordizian eta haien jabeak izendatzen ditu. Anekdotak bat aipatzen du.

84. Aita arotza; ama baserriko lanetan (ORD-005/015)

Eguneroko otorduetan, babarruna eta patata jaten zuten gehienbat. Aita arotza zuen, gurdi ugari egindakoa. Ama etxeakoandrea zen eta baserriko lanetan aritzen zen.

85. Okin lanak; ogi klaseak (ORD-005/016)

15 urtetik 18ra Zabale okindegian okin lanetan aritu zen. Beasain, Arama eta Legorretara joaten zen zaldia eta karroa hartuta ogia banatzera. Ogi mota ezberdinak aipatzen ditu. Gerra ondoreneko ogi beltza.

86. Txerriak gizendu eta saldu egiten zituzten (ORD-005/017)

Etxean amak mondejuak egiten zituen. Oiloak, untxiak eta txerriak zituzten eta azken hauek saldu egiten zituzten.

87. Arropa eskuz garbitzen zuten (ORD-005/018)

Arropak eskuz garbitzen zituzten. Garbitokia San Bartolome kalean zegoen.

88. Gerra garaian aita kartzelan (ORD-005/020)

Gerra garaian aita Donostiako kartzelan egon zen 7 hilabetez eta etxera itzultzeko inork utzitako diruz ordaindu behar izan zuten isuna. Gerra garaiko pasadizo bat kontatzen du.

89. Ordiziako dantza taldean ibilia (ORD-005/022)

10 urterekin Santa Anan ibili zen dantzari ikasten. Ezpata-dantza eta zahagi-dantza egiten zituzten. Euskal festetan dantza egin zutenekoa kontatzen du.

90. Dantza taldea eta boxeolariak (ORD-005/024)

Pujanak sortutako gerra ondorengo 'Txapel gorri' dantzari-taldea eta boxeo-tokia aipatzen ditu. Boxeolari izenak.

91. Umetako jolasak (ORD-005/025)

Umetan kaniketan eta pilotan jolasten zuten, besteak beste. Etxe ondoan zuten pilotalekua. Erregetako oparien anekdota bat aipatzen du.

92. Txindoki, Ñañarri, Lagunarri (ORD-005/026)

Ipuin batzuk kontatzen ditu. Txindokiren aipamena; honen izen desberdinak.

93. Ordiziako Santanero dantza (ORD-005/028)

Santanero dantzaren aipamena eta bere jatorria.

94. Santa Ana jaiak (ORD-005/029)

Santa Ana jaietako ospakizun ezberdinak aipatzen ditu; Beasaingo eta Burgosko musika bandak joaten ziren Ordiziara. Plazan eta Txanketarenean soinu-jolea egoten zen. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen.

95. Ordiziako sagardotegiak (ORD-005/030)

Ordiziako sagardotegiak izendatzen ditu.

96. Aitak bazekien irakurtzen, amak ez (ORD-005/031)

La Voz de España eta El Diario Vasco egunkariak sortu zirenekoa. Aitak bazekien irakurtzen, baina amak ez. Amaren jaiotetxearen inguruko azalpenak.

97. Barrenako jauregia (ORD-005/033)

Barrenako jauregira gerturatzen ziren markes eta bestelakoen aipamena egiten du.

98. Erromeria eta irteerak (ORD-005/034)

Ordizian San Bartolomen eta Oiangun egiten zen erromeria. Larraitzera joaten ziren oinez erromeriara eta inguruko herrietako jaietara. San Migelerako irteera eta anekdota bat aipatzen ditu.

99. Lazkaon ezkondu zen 1952an (ORD-005/035)

1952ko Milagrosa egunean ezkondu zen Lazkaon. Ezkonbidaia Bilbora joan ziren trenez.

100. Ordiziako eta inguruko euskara (ORD-005/037)

Ordizia eta inguruko herrietako euskararen arteko ezberdintasunak.

101. Hika hitz egitea errespetu falta (ORD-005/038)

Gurasoek zuka hitz egiten zieten, hika egitea errespetu falta zelako. Apaizei berorika egiten zieten.

102. Ordizia eta Villafranca izenen jatorria (ORD-005/044)

Ordizian zeuden portalak aipatzen ditu. Ordizia eta Villafranca izenen jatorria.

103. Ordizian jaio zen 1923an (ORD-006/002)

1923ko ilbeltzaren 17an jaio zen Ordizian. Ama Zaldibiakoa eta aita Lazkaomendikoa zituen. Senarro Idiazabalgoa eta 6 seme-alaben ama da.

104. Azokan arropa saltzen (ORD-006/003)

Umetatik josten aritu izan da. Ordiziako azokan postua zuen eta arropa saltzen zuen bertan. Garai hartan arropa dena jositakoa izaten zen. Maritxuk etxean josten zuen, ama ere jostuna zuen. Josten irakasten aritu zen etxean.

105. Bizimodua ateratzeko josten hasi zen (ORD-006/004)

Aita hil zitzaionean bizimodua ateratzeko plazako postuan saltzaile gisa hasi zen.

106. Eskolan eta lagunekin gaztelaniaz (ORD-006/005)

Eskola Nazionaletara joan zen eta azken urteetan mojetara. Gaztelaniaz egiten zuten eskolan eta kalean lagunekin.

107. Hernaniko azokara trenez arropa saltzera (ORD-006/006)

Hernaniko azokara arropa saltzera joaten zen trenez. Ordiziako azoka oso ezaguna zen, ganadu ugari izaten zen bertan. Emakumeek goizez soilik zuten libertatea azokan ibiltzeko. Inguruko herrietako saltzaile ugari izaten zen; astoarekin joaten ziren.

108. Azokan neurriak hartu eta arropak jositakoan etxera bila (ORD-006/007)

Maritxuri etxera joaten zitzaizkion azokan neurriak josteko enkargatzen zizkioten arropak jasotzera.

109. Odolki, txorizo eta taloak, etxean eginak (ORD-006/011)

Harategitik erosten zuen amak txerri odola eta etxean egiten zituen odolkiak eta baita taloak ere. Barazki gutxi jaten zen garai hartan. Eguberrietan jatordu berezia egiten zuten. Erregeak izaten ziren eta orduko oparien berri ematen du.

110. Lixiba eta ekonomikako plantxa (ORD-006/012)

Arropak eskuz garbitzen zituzten arraskan; arropa zuria lixibatan garbitzen zuten. Garbigailua bazegoen baina beraiek etxean egiten zuten. Plantxa ekonomikan egiten zuten. Negurako egurra nola lortzen zuten eta etxean sua nola egiten zuten azaltzen du.

111. Etxea urtean bitan hondartzen zuten (ORD-006/014)

Etxea urtean bi aldiz hondartzen zuten ur eta lixibaz eta gainetik alanbrea pasa eta argizaria ematen zioten. Kuadroko argizaria nolakoa izaten zen azaltzen du.

112. Perkalezko soinekoak eta mahoizko prakak (ORD-006/015)

Umetan amak egindako perkalezko soinekoak eta gona plisatuak janzen zituen. Gizonezkoak mahoizko galtzak eta bonbatxoak janzen zituzten. Maritxuk arropak egiteko oihalak Bergaratik erosten zituzten. Ezkontzetarako kamisoiak ere egiten zituen. Oihal izenak aipatzen ditu. Josteko liburu muestrarioa bazuen Maritxuk.

113. Bi jaunartze izaten ziren (ORD-006/016)

Bi jaunartze egin zituen zazpì eta hamabi urterekin. Txuriz jantzita joan zen utzitako soineko batekin eta ospakizuna etxean egin zuten.

114. 23 urterekin ezkondu zen Ordizian (ORD-006/017)

23 urterekin ezkondu zen Idiazabalgo senarrarekin Ordizian. Ordizian egin zuten banketea eta Iruñera joan ziren ezkonbidaian.

115. Gerra zibileko bizipenak (ORD-006/018)

Gerra zibila hasi zenean, 11 urte zituen eta orduko kontuak kontatzen ditu.

116. Umetako jolasak (ORD-006/021)

Umetako jolasak aipatzen ditu: kanikak, diaboloa, etab. Udan, kalera atera eta emakumeak berriketan eserita egoten ziren bitartean haurrak jolasean aritzen ziren. Jolasetako kantuak erdarazkoak ziren.

117. Liburu bakarretik ikasten zuten (ORD-006/022)

Orduan jolas gehiago egiten zuten ikasi baino. Maritxuk enziklopedia bakarra izan zuen eta handik ikasten zituen gai guztiak.

118. Pertsonaia mitologikoen istorioak (ORD-006/023)

Aitak Murumendiko Mariren eta beste pertsonaia mitologikoen istorioak kontatzen zizkien eta mendira joateko beldurrez egoten ziren.

119. Erromeriara bi orduan oinez (ORD-006/029)

Erromeriara Larraitzera joaten ziren oinez bi orduko bidean. Dantza egiten zuten. Ordiziako eliza ondoan San Pedro ermita txikian festa handia egiten zen eta baita San Bartolomeetan eta San Juanetan ere.

120. Ordiziako festak (ORD-006/031)

Ordiziako festetan kalejira egiten zen 3 musika-bandarekin, Burgoskoa eta Donostiakoa ere joaten ziren eta. Tren berezia jartzen zuten gauean kanpotarrentzat. Erroskilak saltzen ziren kalean. Soinujoleak izaten ziren eta baserritar jendea dantzara joaten zen.

121. Etxean euskaraz eta kalean gaztelaniaz (ORD-006/032)

Etxean erdaraz hitz egitea debekatua zuten eta zuka hitz egiten zuten. Kalean lagun guztiek erdaraz hitz egiten zuten.

122. Etxean egiten zituzten ukenduak (ORD-006/034)

Etxean erabiltzen zituzten ukenduak aipatzen ditu.

123. Estraperloko kontuak (ORD-006/035)

Gerra ondorenean, estraperloa zegoen, batez ere ogiarena. Errazionamenduko ogia eta batata ematen zizkieten. Anekdotak bat kontatzen du. Guardia Zibilek konfiskatzeen beldurrez, babarrunak txaketan ezkutatuta ekartzen zituen etxera.

124. Ordiziako prozesioak eta kalbarioak (ORD-006/036)

Aste Santuko Ordiziako prozesioetan parte hartzen zuen, eta kalbarioak egitera San Juanera joaten ziren. Anekdotak bat kontatzen du.

125. Mezak latinez (ORD-006/037)

Mezak latinez izaten ziren eta Maritxuk eta beste askok ez zuten tutik ulertzen.

126. Beasaingo lantegietarako arropa josten (ORD-006/038)

Josten amak erakutsi zion eta gero bere kasa moldatu zen. Anekdotak bat. Beasaingo lantegietarako buzoak egiten zituen; makinak erosi eta etxean aritzen zen. Bera zen jostun bakarretakoa Ordizian. Beste jostun batzuk aipatzen ditu.

127. Zinema eta batzokia (ORD-007/002)

Ordiziako zinemaren kokalekua azaltzen du. Meza nagusitik joaten ziren zinera. Santa Ana eskolan ere egon zen zinema. Gerra aurretik batzokia zegoen Ordizian eta pasadizo bat kontatzen du.

128. Ordiziako antzerki-taldeak (ORD-007/005)

Ordiziako antzerki-talde ezberdinak izendatzen ditu; Elu batzokiko taldean zegoen. Entsaiaitzeko lokala zuten.

129. Danborrada eta erregenetako kabalgata (ORD-007/009)

Festetako danborrada eta erregenetako kabalgata aipatzen ditu. Desfile eta ospakizunetako arropa izarekin egiten zuten.

130. Karrozetako materiala nundik lortzen zuten (ORD-007/013)

Karrozei argia jartzeko, gazteek trenari kentzen zioten eta gainontzeko materiala CAF lantegiko langile zirenek handik hartzen zuten.

131. Guraso baserritarrak; errotan jaioa (ORD-008/002)

Ama Beasainmendikoa eta aita Zaldibiakoa zituen, biak baserritarrak. 8 seme-alaba izan zituen Ordiziako senarrarekin. Gorriñe aserrikoa da, errotan jaio zen. 8 anai-arrebako familiakoa da.

132. Gaztetan ume-zain (ORD-008/004)

Gaztetan ume-zain ibiltzen zen. Garia neurtzeko neurri bat aipatzen du.

133. 14 urterekin Zumarragara ume-zain (ORD-008/006)

Eskolan Moja Frantzesetan ibili zen 14 urtera arte. Eskola non zegoen aipatzen du. 14 urterekin Zumarragara joan zen ume-zain eta urte eta erdi egin zuen bertan.

134. Ordiziako Zirkulon, neskame eta zerbitzari (ORD-008/009)

Zumarragatik (neskemetzatik) Ordiziara bueltatu eta Zirkulon hasi zen neskame eta zerbitzari moduan.

135. Anai-arrebeekin erdaraz egiteko ohitura (ORD-008/011)

Lagunekin erdaraz egiten zuen, baita anai-arrebeekin ere. Gurasoekin euskaraz.

136. Azoketara gazta saltzera (ORD-008/012)

Manoli Ordiziako eta inguruko herrietako azoketara joaten zen gazta saltzera.

137. Kanpotar ugari azokara saltzera (ORD-008/014)

Azokako saltzaileak Bilbo, Eibar eta Nafarroatik joaten ziren, besteak beste. Manoliren aitona eta osaba Aralarren ibiltzen ziren artzain.

138. Gaztaren prozesua (ORD-008/015)

Gazta nola egiten zuten azaltzen du.

139. Eguneroko otorduetako jakiak (ORD-008/019)

Eguneroko otorduetan eltzekoa jaten zuten eta igandeetan garbantzuak. Taloa eta esnea gosaltzen zuten. Gosete garaian taloa garrantzitsua zen. Artzain familiakoak izanik ez zitzairen zezinarik sekula falta izan.

140. Txerria hildakoan, odolki eta mondejuak (ORD-008/020)

Etxean ardiak, behiak, oiloak, eta abar izaten zituzten. Urtean txerri bat hiltzen zuten eta odolkiak eta mondejuak auzokoei banatzeko ohitura zuten.

141. Egun berezietako otorduak (ORD-008/022)

Erramu egunean arkumea, urteberri egunean oiloa eta oilasko errea eta Eguberrietan konpota jaten zuten.

142. Arropak eskuz garbitu behar (ORD-008/023)

Arropak errekan garbitzen zituzten. Etxean kanala zuten eta han akkuratzen zuten arropa. Lixiba egiten zuten. Arropak lisatzeko, ikatzezko plantxa erabiltzen zuten. Argia eta ura beti ezagutu ditu etxean.

143. Eskolara uniformeaz jantzita (ORD-008/024)

Eskolara uniformeaz jantzita joaten zen Manoli. Langan abarkak utzi eta alpargatak janzten zituzten kalerako, baina behin baino gehiagotan lapurtu zizkieten aldatzeko utzitakoak.

144. Amona mondejugilea (ORD-008/025)

Amona mondejugile ezaguna zen, bi alaba tabernariak zituen eta haientzako asko egin ohi zuen.

145. Irin eta patataren kontrabandoa (ORD-008/027)

Patata eta irinaren kontrabandoa egiten zen Nafarroatik. Manoliren ama gauez ibiltzen zen Lazkaora joan eta irin kontrabandoan.

146. Inguruetako erromeria eta festetara (ORD-008/030)

Erromeriara Larraitzera joaten ziren oinez. Ordiziako plazan eta arboledan musika banda egoten zen. Inguruko herrietako jaietara joaten ziren. Santa Ana jaiak aipatzen ditu.

147. Sokasaltoan jolasean (ORD-008/031)

Umetan sokasaltoan aritzen ziren, besteak beste. Lagunak auzokoak zituen, baina ez zuen jolas askorik egiten, esnea eraman behar izaten zuen etxera.

148. Murumendiko istorioa (ORD-008/032)

Etxean amonak kontatutako Murumendiko ipuina kontatzen du.

149. Lanera atzerritar asko Ordiziara (ORD-008/034)

Ordizian galiziar asko sartu zen lantegiak zirela eta. Manoliren senitartean baziren galiziarrekin elkartutakoak.

150. Aitak eskolari garrantzia ematen zion (ORD-008/035)

Noizbehinka aitak egunkaria eramaten zuen etxera. Aitari esker joan ziren Manoli eta anai-arrebak eskolara, garrantzi handia ematen zion eskolari eta.

151. Ordiziako tabernak (ORD-008/036)

Ordiziako tabernak izendatzen ditu. Emakumeek ez zuten tabernarako joerarik.

152. Manoliren jostailu denda (ORD-008/039)

Manolik jostailu denda zuen eta egur eta burnizko jostailuak saltzen zituen. Jostailuak Bilbotik ekartzen zizkien. Barruko arropa eta mantalak ere saltzen zituen.

153. Gaur egungo euskara (ORD-008/040)

Gaur egungo euskararen inguruko kontuak.

154. Ordizian jaioa 1929an (ORD-009/001)

1929an jaio zen. Ama Ataungoa eta aita Ordiziakoa zituen. Emaztea Ataungoa du.

155. Ataunen ibili zen eskolan (ORD-009/002)

Caf lantegian lanean aritua da. Eskolan Ataunen ibili zen 3 urterekin hasita. Anai-arreben aipamena egiten du. Bizimodua Ataunen egin zuen Joxe Marik aitona-amonekin.

156. Eskolan gaztelaniaz egin behar (ORD-009/004)

Ataunen eskola bakarra zegoen eta Deustuko irakasle partikular bat. Eskolan erdaraz egin behar izaten zuten. Eskolako irakaslea.

157. Aitona-amonen okindegian lanean (ORD-009/006)

Aitona-amonek okindegia zuten Ataunen eta Joxe han aritu zen okin lanetan. Estraperlo garaian ezkutuka ibiltzen ziren irina lortzeko. Ogia nola egiten zuen azaltzen du.

158. Herriko kargu garrantzitsuetakoek gaztelaniaz (ORD-009/009)

Herriko kargu garrantzitsuetako langileek gaztelaniaz egiten zuten. Medikua eta apaiza izendatzen ditu.

159. Soldadutzan Burgosen (ORD-009/010)

Soldadutzatik bueltatu zenean Ataungo okindegi batean aritu zen lanean. Soldadutza urte eta erdiz Burgosen egin zuen. Ez zuen etxera etortzeko baimenik izaten. Goserik ez zuen pasa, etxetik ere janaria jasotzen zuten eta. Lagun euskaldunak izan zituen.

160. Soldadutzako pasadizoa (ORD-009/011)

Soldadutzan lagun bati egindako pikardia aipatzen du.

161. Zaldia eta karroarekin Ordiziara irin bila (ORD-009/013)

Asteazkenetan Ordiziako azokara joaten ziren. Joxe irin bila joaten zen Ordiziara 4 gurpleko karroa eta zaldia hartuta. Garai hartan Joxek bezala, postariak eta beste zenbait langilek karroa izaten zuten lanerako garraiobide.

162. Gurasoengana Ordiziara Santiagoetan (ORD-009/014)

Ataungo San Martinen bizi zen Joxe eta kalea izendatu eta kokatzen du. Gurasoengana (Ordiziara) festetan (Santiagoetan) joaten zen.

163. Euskaldunek makurtu behar beti (ORD-009/016)

Lantegian eta kalean erdaldunen bat tokatzen bazitzaien euskaldunek egin behar izaten zuten erdaraz.

164. Eguneroko otorduetan, potajea nagusi (ORD-009/019)

Eguneroko otorduetan, potajea jaten zuten. Joxe Mariren emazteak dioenez, beraren etxean ogi beltza jaten zen eta zuriaren inbidiatan egoten ziren. Joxerenean, aldiz, okinak izaki, ogi zuria jaten zen. Anekdotak bat kontatzen du. Talo eta esnea jaten zuten.

165. Txerria hildakoan apaizari ordaina (ORD-009/021)

Arto-irina eta artoa jaten zituzten. Esnearekin Eguberrietan mazapanak jaten zituzten. Ataungo San Martin jaietan oilagorrak jateko ohitura zuten, Joxe Mari ehizan ibiltzen baitzen. Ardia eta txerria ere jaten zuten. Apaizei odolkiak eramaten zitzaizkien.

166. Orduko janzkera (ORD-009/022)

Argia eta ura beti ezagutu ditu etxean. Orduko janzkeraren inguruko kontuak eta traje eta korbaten inguruko anekdotak bat aipatzen ditu.

167. Dotrina ikasgai nagusi (ORD-009/025)

Jaunartze bat baino gehiago egiten zen. Apaizarengana joan eta dotrina esan behar izaten zioten papeleta bat lortzeko; garrantzitsua zen papeleta hura lortzea.

168. Ataunen ezkondu ziren (ORD-009/026)

Ataunen ezkondu eta Ormaiztegin bazkaldu zuten, balnearioan. Joxe Mariren andrea txuriz jantzita joan zen.

169. Ezkonbidaian Gasteizera, Madrilera eta Toledora (ORD-009/028)

Ezkonbidaia Gasteizera trenez joan ziren eta handik Madrilera eta Toledora.

170. Gerra denbora Ataunen (ORD-009/029)

Gerra garaian nafarrak Atauna sartu zirenekoa kontatzen du. Joxe Mariren aitona karlista zen eta aita nazionalista. Talde politiko ezberdinen artean ikamika handiak zeuden. Gerra denboran Urbasako amildegitik behera bota zituztenen eta bizirik ateratakoen aipamena egiten du.

171. Estraperloan nafarrekin (ORD-009/030)

Gerra ondorenean ez zuten goserik pasa. Estraperloa; Nafarroatik joaten zen jendea Atauna eta Joxe eta bertakoak ere bai hara.

172. Ataungo kontsejupean pilotan (ORD-009/031)

Gaztetan pilotan ibiltzen zen Ataungo kontsejupean. Ataun San Martinen ez zegoen frontoirik. Aita eta aitona ehiztariak zituen eta bera ere ibiltzen zen.

173. Jentilen istorioak (ORD-009/033)

Ataungo jentilen istorioak eta kobazulokoak aipatzen zizkien apaizak eta haiek azaltzen ditu. Herriko ezagun batzuen inguruko anekdota kontatzen du.

174. Ataungo auzoak (ORD-009/034)

Ataunek 3 auzo ditu eta haiek izendatzen ditu. Joxeren emazteak gaztetako ibilera batzuen aipamena egiten du.

175. Osaba koplaria; eskeko kantuak (ORD-009/036)

Joxeren osaba koplari kantari aritzen zen eta kantuan aritzen ziren beste zenbait ere aipatzen ditu. Santa Agedetan eta Eguberrietan eskean ateratzen ziren eta kantu batzuk kantatzen dituzte.

176. "Oremus"a eta Santa Ageda eskeko kantuak (ORD-009/037)

Anekdota bat kontatzen du "oremus"aren inguruan, eta latinez aipatzen du. Akolito ibili zen Joxe umetan. Urteberri egunean eta Santa Ageda eskean, gauez kantatzen zuten; haietako koplari batzuk kantatzen dituzte.

177. Orduko egunkariak (ORD-009/038)

Etxean izaten zituzten egunkariak izendatzen dituzte, "El dia" eta "La constancia", besteak beste.

178. Erromeriara soinujolea 6 duro ordainduta (ORD-009/040)

Joxe Mari goizeko 3etan esnatzen zen okindegian lan egiteko eta ez zuen lagunengana eta erromerietara joateko asti handirik. Ataunen San Gregorion igandero izaten zen erromeria. Soinujolea 6 duro ordainduta eramaten zuten Lazkaotik; bizikletan soinua bizkarrean hartuta joaten zen. Etxarri, Lizarrausti eta inguruetako erromeriak.

179. Herriko lanbide ezberdinak (ORD-009/042)

Garai hartako lanbide ezberdinak aipatzen dituzte: igeltsero, perratzaile.. Joxeren aita etxegintzan aritzen zen lanean.

180. Hika hitz egiteko joera (ORD-009/043)

Ordiziako kalean erdaraz asko egiten zen. Joxeren etxean euskaraz egiten zuten eta gazteenarekin ez beste guztiakin hika. Hika hitz egiteko ohitura handia zuten.

181. Inguruko herrietako euskara (ORD-009/046)

Ordiziako eta inguruko herrien arteko euskararen ezberdintasunak aipatzen dituzte. Emakumeek joera handiagoa zuten gaztelaniz egiteko.

182. Sendabelarren inguruko azalpenak (ORD-009/047)

Gaixotasunen erremedioetarako erabiltzen zituzten sendabelarrak aipatzen dituzte.

183. Euskaraz egiteagatik giltzaz buruan jo (ORD-009/048)

Joxe eta emaztea antzerkian ibili ziren; euskaraz egiten zuten. Eskolan euskaraz egiten uzten ez zienekoa kontatzen dute; giltzaz buruan jotzen zituzten zigor modura. Kaligrafia egiten zuten, baina ez zuten etxerako libururik.

184. Irakasle bati egindakoak (ORD-009/049)

Irakasle baten inguruko kontuak eta hari egiten zizkioten bihurrikeriak kontatzen ditu Joxek.

185. Ordizian jaioa 1911an (ORD-010/001)

Ordizian jaio zen 1911an. Aita ordiziarra eta ama Zaldibiakoa zituen eta emaztea Itsasondoko Urkia auzokoa. Hiru semeren aita da.

186. 11 urterekin kale-etxetik baserrira (ORD-010/002)

11 urte zituela gero granja San Isidro izango zen Barrenamendi baserrira joan ziren bizitzera. Aldaketa handia izan zen Joserentzako, kaleko lagunengandik urrutiratu behar izan baitzuen.

187. Ordiziako maristetan ibilia eskolan (ORD-010/003)

Eskolan maristetan ibili zen Ordizian. Eskola nazionalak eta moja eskola ere baziren Ordizian. Nazionaletan osteguna jai izaten zen, eta maristetan asteazkena, azoka eguna.

188. Azoka, herriaren sostengu (ORD-010/004)

Ordiziako azoka herriaren sostengua zen. Baserritarrek inguruko herrietatik eta Nafarroa eta Arabatik joaten ziren azokara saltzera.

189. Baserriko lana zela eta eskola utzi behar (ORD-010/005)

Joseren lagunak ofizinetan aritzen ziren lanean; bera baserrira bizitzera joan beharrak eskola uztera behartu zuen.

190. Azokako postuen kokalekua (ORD-010/006)

Ordiziako orduko azoka deskribatzen du. Saltzaile baserritarrek jakineko kokalekua izaten zuten. Estalpe batean astotegia jartzen zuten eta baserritik astoa hartuta joaten zirenek hantxe uzten zuten.

191. Ordiziako "Frantziako portaleak" (ORD-010/007)

Ordiziako "portaleak" zeritzon harresia aipatzen du. "Frantziako portalea" deitzen zitzaion, kokapena azaltzen du.

192. Etxean behiak eta ardiak (ORD-010/009)

Jose baserritik bizi zen, behiak eta ardiak zituzten, besteak beste. Aitari gertatutako anekdota bat aipatzen du. Morroia zuten etxean. Txerria eta ardia hiltzen zituzten eta odolki eta mondejuak egiten zituzten.

193. Ordizian sagardotegia zuten (ORD-010/012)

Ordizian sagardotegia izan zuten. Sagasti ugari zeuden garai hartan eta emakumeak ibiltzen ziren sagarrak biltzen.

194. Azokara sagarrak saltzera (ORD-010/015)

Joseren etxekoek sagarrak eramaten zituzten azokara. Gurdia bete eramaten zuten. Azoka berezietara behiak eramaten zituzten.

195. Urtean 80.000 litro sagardo (ORD-010/017)

Jose jaio ondoren hartu zuten gurasoek sagardotegia. Urtean 80.000 litro sagardo egin ohi zituzten.

196. Gurasoek erdaraz tutik ez (ORD-010/019)

Gurasoek ez zekiten erdaraz hitz egiten. Horren inguruko anekdota bat aipatzen du.

197. Eskola eta lagunartean erdaraz (ORD-010/020)

Maisuak erdaldunak ziren; izendatu egiten ditu. Lagunartean eta eskolan ez zuten hitz bat bera ere euskaraz egiten. Gurasoak kalean euskaraz moldatzen ziren.

198. Ordizian 35 baserri (ORD-010/021)

35 baserri zeuden Ordizian; terrenoz oso urria da. Baserri guztiak izendatzen ditu.

199. Etxearen egitura, Suizoaren antzekoa (ORD-010/023)

Joseren baserriak etxe Suizoaren tankera du. Etxe-jabea aipatzen du. Aita zenak berritu zuen etxea.

200. Labesuan ogia egiten zuten (ORD-010/024)

Eguneroko otorduetan taloa eta esnea asko jaten zuten. Etxean ogia egiten zuten labesuan.

201. Aralarko bordan artzain (ORD-010/028)

Maiatzetik Aste Santura bitartean egoten zen Aralarren artzain. Bere bordaren kokalekua aipatzen du.

202. Garbantzua, egun berezietako jaki (ORD-010/029)

Eguberri eta jaietan, garbantzua izaten ziren jaki preziatua, luxuzko jana zen. Anekdota bat aipatzen du.

203. Asteazkenetako kaleko jakia: "boladua" (ORD-010/031)

"Boladua" zer den azaltzen du. Asteazkenetan bi konfiteritan egiten zen "boladua" eta kalean jartzen zuten saltzen.

204. Gurdiz, astoa hartuta, txerriak saltzera azokara (ORD-010/032)

Orduko azokan ganadu asko izaten zen. Ganadu bakoitzarentzat kokaleku bat zegoen; aipatu egiten ditu. Gurdiz astoa hartuta txerriak eramaten zituzten baserritarrek kalera saltzera. Errioxatik ere hurbiltzen ziren.

205. Txapela, blusa eta alpargatak soinean (ORD-010/033)

Mutilek soinean blusa eramaten zuten eta galtza motzak. Oinetan alpargata eta baserriko lanetarako abarkak janzten zituzten. Emakumeek mantoiak janzten zituzten. Txapela mutil guztiek eramaten zuten gaztetatik.

206. Aralartik oinez mezetara (ORD-010/035)

Mezetara joatea derrigorra izaten zen. Aralartik jaisten zen Jose mezetara eta gorakoan jana eramaten zuen.

207. Ordizian jaioa 1913an (ORD-011/001)

Ordizian jaio zen 1913an. Aita Ordiziakoa eta ama Lazkaokoa zituen.

208. 40 urtez udaletxean lanean (ORD-011/002)

Ordiziako udaletxean auxiliar lanetan aritu zen 40 urtez.

209. Eskolara mojetara 12 urtera arte (ORD-011/003)

Eskolan Ordiziako mojetan ibili zen 12 urtera arte. 10 urterekin ama hil zitzaion eta hargatik eskola utzi eta etxean geratu beharra izan zuen.

210. Aitaren aurrean euskaraz eta anai-arrebekin erdaraz (ORD-011/005)

Eskolan moja frantzesak izan arren erdaraz ikasten zuten. Etxean euskaraz egiten zuen Trinik, baina lagunekin, anai-arrebekin eta kalean erdaraz.

211. Ordiziako azoka (ORD-011/007)

Ordiziako azoka handia izaten zen, egun osokoa. Astoa hartuta inguruko herrietatik joaten zen jendea eta Nafarroa aldekoak ere hurbiltzen ziren. Azokan jendeak euskaraz egiten zuen. Emakumeak etxera azkar joaten ziren; gizonak, aldiz, kalean geratzen ziren.

212. Aitona artzain ibilia (ORD-011/010)

Aitona Ataungoa zuen, gaztea zenean eskolara joaterik nahi ez eta etxeako artzain bidali zuten. Ez zekien irakurtzen eta idazten. Arotz lanbidea ikasi zuen eta Zaldibian etxea ere egin omen zuen ikasketarik ez izan arren.

213. Aitona parrokoiko erloju konpontzaile ospetsua (ORD-011/011)

Aitona Ordizian hasi zen erloju konpontzaile lanetan. Parrokiko erlojuaren konponketarekin sona handia hartu zuen eta orduko kontuak kontatzen ditu. Aitonarengandik izan dute etxeokoek erlojugile lanerako afizioa.

214. Eguneroko otorduetako jakiak (ORD-011/013)

Eguneroko otorduetan haragiarekin egindako zopa, babarrunak eta abar jaten zituzten. Danbolinean gaztainak erreta jateko ohitura zuten. Haragia eta berdura kaletik erosten zituzten, etxean ez baitzuten ganadurik eta baratzerik.

215. Txipiroiak eta oilaskoa egun berezietan (ORD-011/017)

Ospakizun eta egun berezietan txipiroiak eta oilaskoa jaten zituzten.

216. Gerra denboran, etxe batetik bestera ihesi (ORD-011/018)

Gerra denbora gutxian pasa zuten. Bonba batek hildakoa aipatzen du. Triniren etxe ondoan kanoia jarri zuten eta handik beste etxe batera joan ziren, mendi aldera. Azken honetan bonba etxe barrura sartu zenekoa kontatzen du.

217. Gerra denborako fusilamenduak (ORD-011/019)

Herriko kartzela udaletxe azpian izan zen. Gerran hil zitzaion anaia kartzelan egon zen preso; preso hartu aurretik udaletxeko agintariak fusilatzekotan ibili ziren, azkenean libre utzi bazituzten ere.

218. Zarzuela eta koruak (ORD-011/021)

Triniren elkartean zarzuelak eta koruak egiten zituzten.

219. Umetako jolasak; lagunekin erdaraz (ORD-011/023)

Umetan sokasaltoan, diabolarekin, kaniketan etab. jolasten zuten ganadu plazan. Lagunekin erdaraz hitz egiten zuen.

220. Aita musika eta astronomian zaletua (ORD-011/024)

Aitaren inguruko kontuak kontatzen ditu, solfeoa bazekien eta musika izugarri atsegin zuen. Astronomia gustuko zuen eta irakurketa ere bai. Irratia asmatu zenean aitak egiten zituen.

221. Anaiek eta aitak pianoa jotzen zuten (ORD-011/026)

Triniren anaiek pianoa ikasten zuten eta aitak ere haien liburuak hartu eta ikasi egin zuen.

222. Erromeria eta festetara oinez (ORD-011/030)

Erromeriara Larraitzera eta Lierniko ermitara joaten ziren, besteak beste. Beasain, Lazkao, Itsasondo eta inguruetara oinez joaten ziren festara. Mendia asko gustatzen zitzaion eta San Migelera oinez joaten zen. Behin Arantzazura egindako irteera aipatzen du.

223. Igandeetako meza latinez (ORD-011/031)

Igandeetan meza ugari izaten ziren eta Trini beti joaten zen. Meza latinez eta sermoiak gaztelaniaz edo euskaraz izaten ziren.

224. Euskararen egoera (ORD-011/032)

Gaur egungo Ordiziako euskararen egoera eta inguruko herrien arteko euskararen alderaketa egiten du. Guraso eta anaiekin sekula ez zuen "hika" hitzik egiten.

225. Aitona arotz lanetan aritu zeneko kontuak (ORD-011/036)

Aitonaren inguruko kontuak. Arotz lantegia zuen garaian gertatutako pasadizoak.

226. Gizonek dirua irabazi eta emakumeek administratu (ORD-011/037)

Garai batean etxeko dirua gizonek eraman eta emakumeek manejatzen zuten. Triniren etxean ama falta zenez, aita eramaten zituen diru kontuak.

227. Aitona, eskola gabeko jakintsua (ORD-011/039)

Aitonak semeei ikusita gauza asko ikasi zituen; numeroak ere halaxe ikasi zituen. Aitonak nibela neurtzeko makina asmatu zueneko.

228. Euskara familian (ORD-012/002)

1929ko apirilaren 11n jaio zen. Gurasoak nongoak ziren azaltzen du. Amak ez zekien erdaraz. Berak ez zituen zuka eta hika bereizten.

229. Zergatik joan zen Legazpiko eskolara (ORD-012/005)

Zergatik joan behar izan zuen Legazpiko eskolara azaltzen du: ama alargunari laguntzeko.

230. Nondik datorkion Prontxi izena (ORD-012/006)

Amak atera zuen aurrera taberna, eta laguntzaile batzuk izan zituen. Prontxi izena laguntzaile haren omenez jarri zioten: asko maite zuen hura, eta kantari ona zen. Hura ezkondu eta haurrak izan zitueneko kontuak aipatzen ditu.

231. "Naranjitoren" gaineo abenturak (ORD-012/008)

"Naranjero", laranja betetako bagoia, herrira etortzen zenean, zain egoten ziren. Eta laranja lapurtzen zituzten. Laranja onenak atzerrira bidaltzen zituzten. Behin egurra puskatu, eta laranja guztiak lurrera erori ziren. Estazioko arduraduna atzetik korrika zutela, ihes egin zuten.

232. Herrien arteko pikeak (ORD-012/009)

Tailerrekoen eta estaziokoaren arteko borrokez hitz egiten du. Haren antzeko pikea izaten zen Ordizia eta Beasainen arteko partidua zegoenean: giro handia egoten zen, pike handia baitzegoen. Baina Pasaiaakoak edo Irungoak bazetozen, egundoko borroka egoten zen estazioan.

233. Partidu egunetan, lan asko tabernan (ORD-012/010)

Ikasle asko etortzen ziren garai batean Ordiziaren kontra jokatzera. Iskanbila handia izaten zen, eta barra askoz gehiago egiten zuten egun haietan tabernan.

234. Abenturak furgonetan (ORD-012/012)

Behin Bergarara joan ziren jokatzera, furgoneta handi batean. Baina halako kamioietan ibiltzea debekatuta zegoen; eta, Guardia Zibila ikustean, denak isil-isilik jarri ziren. Beste batean, txoferra azkarregi joan, eta miraria izan zen istripurik gertatu ez izana. Furgoneta barruan aterki bat puskatu zenekoa ere kontaktzen du.

235. Bergarako taberna-bizartegiak (ORD-012/014)

Bergaran, taberna bakoitzaren barruan zegoen bizartegia.

236. Paskual petrikiloaren beste konponbideetako bat (ORD-012/017)

Paskual petrikiloak berari lagundu zionekoa kontaktzen du. Bizar aldea dena erre zion, haragi gorritan utzi, eta gero apaiz baten aholkuei esker, pixkanaka sendatzea lortu zuen.

237. Bizarra mozteko lehenengo makina (ORD-012/018)

Bizarra erosteko makina erosi zuenekoa kontaktzen du, nola ordaindu zuen.

238. Zauria benetan sendatzen (ORD-012/019)

Pixkanaka zauria nola joan zen hobetzen kontaktzen du. Pena du apaiz hari ez eskerrak eman ahal izana.

239. Soldadutzatik libratu nahian (ORD-012/020)

Soldadutzan berriro atera zitzaion bizarrean hasieran bezalako zauria. Burgosen egin zuen soldadutza. Anaiak lagundu zion soldadutzatik libratzeko, baina ama hil zenez, joan egin behar izan zuen.

240. Soldadutzara azkenean joan egin behar (ORD-012/021)

Soldadutzatik ateratzeko, eroskeriara jotzeko prest zeuden. Baina geroago, gehiago eskatu zuten, eta orduan soldadutzara joatea erabaki zuen. Han sarjentuak esan zuen ez zuela zentzurik soldadutza egiteak, gerrarik ez baitzegoen.

241. Denda zaharrak (ORD-012/023)

Bizartegi zaharrak nolakoak ziren azaltzen du. Zaldiaren haragia saltzen zuten dendak azaltzen ditu.

242. Tabernak nola funtzionatzen zuen (ORD-012/027)

Amak tabernan apopiloak izaten zituen, 18 inguru. Ama oso langilea zen. Apopiloek zer jaten eta edaten zuten azaltzen du. Goizean 06:30ean irekitzen zuen taberna amak. Emakumeak ez ziren sartzen tabernan.

243. Ordizian ikasi zuen josten (ORD-013/002)

Ezkongabea da. Gaztetan josten ikasten ibili zen Baztarrika dendako jostunarekin.

244. Eskolan eta lagunekin gaztelaniaz; etxean euskaraz (ORD-013/003)

Eskolan Ordiziako Karmelitetan ibili zen 14 urtera arte. Ikasketak eta lagunarteko hizketak erdaraz egiten zituzten, etxean soilik hitz egiten zuen euskaraz.

245. 7 anai-arrebatan neska bakarra (ORD-013/004)

7 anai-arrebako familia zuen eta haien aipamena egiten du. Maritxu neska bakarra zen eta etxeko lanetan aritzea berari suertatu zitzaion, ez zuen etxetik kanpo lanik egin.

246. Inguruko herrietatik eta Nafarroatik azokara saltzera (ORD-013/005)

Azokan ganadu ugari izaten zen. Saltzaileak inguruko herrietatik etortzen ziren astoa hartuta eta baita Nafarroa aldetik ere. Azokan euskaraz hitz egiten zen.

247. Aita arotza (ORD-013/006)

Aita arotza zuen, baserriak konpontzen aritzen zen.

248. Industria aurretik eta ondoren erdaldun ugari Ordizian (ORD-013/007)

Ordiziako garai hartako lantegi ezagunak aipatzen ditu. Ordizian industria aurretik erdara asko egiten zen eta gerora andaluziar ugari sartu zen lana zela eta. Maritxuren gurasoek bazekiten erdaraz etxean euskaraz egiten bazuten ere.

249. Oilaskoa, egun berezietako jaki preziatua (ORD-013/008)

Baserri ugari zen Ordizian. Eguneroko otorduetan beti jateko berdintsua izaten zen: babarruna, esne-zopak eta abar. Egun berezietan oilaskoa izaten zuten. Ordizian erroskilagile ezaguna zegoen: Telleria. Bijilia egiteko ohitura beti jarraitzen zuten.

250. Arropa garbiketa etxeko arraskan (ORD-013/009)

Arropak etxeko arraskan garbitzen zituzten. Plantxa baporezkoa zuten. Betidanik ezagutu ditu etxean argindarra eta ura.

251. Ordizian jaio zen 1927an (ORD-014/001)

1927an jaio zen Ordizian. Aita Eskoriatzakoa eta ama zegamarra zituen. Aitak Zegamara ehizara joan zenean ezagutu zuen ama.

252. Amarekin jostun lanetan (ORD-014/002)

Josten lan egiten zuen amarekin; denda baterako aritzen ziren lanean.

253. Umetan denek ikasten zuten erdaraz (ORD-014/003)

Eskolan 14 urtera arte ibili zen Ospitaleko mojetan eta Karmelitetan. Dena erdaraz ikasten zuten; denek ikasten zuten erdaraz umetatik. Gau-eskolak ere bazeuden. Eskolako eskulanak aipatzen ditu.

254. Josten ikasten, mojetan eta gau-eskolan (ORD-014/005)

Gau-eskolan "korte"ko irakaslea izaten zuten eta mojetan bordatzen eta gantxiloa egiten ikasten zuten. Gau-eskolako irakasleak izendatzen ditu. Neska asko joaten ziren josten ikastera. Sukaldaritza eskola ematen zuten igandeetan.

255. Neskak neskame joateko joera (ORD-014/006)

Amaren inguruko kontuak. Ama Donostian egon zen neskame. Orduan neska asko joaten zen neskame lanetara. Bi senideko familiakoa da.

256. Meza latinez eta erdaraz (ORD-014/007)

Meza latinez eta erdaraz izaten zen.

257. Ordiziako azoka (ORD-014/008)

Ordiziako azoka handia izaten zen, ganadua ere saltzen zen. Saltzaileak inguruko herrietatik joaten ziren. Trenez eta oinez joaten zen jendea azokara eta baita festetara ere. Iluntasunaren beldurrez Juana etxean geratzen zen.

258. Otorduetako jakiak (ORD-014/009)

Eguneroko otorduetan ez zuten oilaskorik jaten, otordu berezietan soilik. Juana tren geltokiaren ondoan bizi zen. Otorduetan babarruna jaten zuten nagusiki; txerriki eta ardiki gutxi jaten zuten. Amak taloak egiten zituen eta esnearekin, gaztarekin eta abarrekin jaten zituzten.

259. Erregenetako opariak (ORD-014/010)

Erregenetan eskolako materiala edo beharrezko gauzak eta panpinak izaten zituzten opari.

260. Amaren baserrira Otzaurtera trenez; aita mikeletea (ORD-014/011)

Zegamara joateko ohitura handia zuten; ama hango baserri batekoa zen, Otzaurte ingurukoa, eta trenez joaten ziren. Etxean euskaraz egiten zuten baina kanpoan dena erdaraz. Aita mikeletea izan zen gerra amaitu bitartean.

261. Arropa eskuz garbitzen zuten (ORD-014/012)

Arropa eskuz garbitzen zuten etxean. Ia ordubetez beratzen eduki eta gero igurtzitzen zuten. Su gaineko plantxa zuten eta sua egur, txirbil eta ikatzez egiten zuten.

262. Elizara igandero (ORD-014/013)

Bi jaunartze egin zituen eta etxean ospatzen zuten sendikoekin. Elizara igandero joaten ziren. Ehiztariak goizeko 6etarako joaten ziren mezara.

263. Umetako jolasak; auzoko lagunak (ORD-014/016)

Umetan sokasaltoan, tabekin, "yo-yo"an eta abarretan jolasten zuten kalean. Lagunak auzokoak zituen; auzo bakoitzak bere lagun taldea zuen. Juana erreka pasa eta Oiangu eta Altamira mendira joaten zen lagunekin.

264. Senarraren etxekoek ez zekiten erdaraz (ORD-014/019)

Juanaren senarrari bertsoak entzutera joatea gustatzen zitzaion. Lazkaokoa zen eta haren sendikoek ez zekiten tutik ere erdaraz. Senarraren bizilekua deskribatzen du.

265. Ordiziako Santa Ana jaiak (ORD-014/020)

Ordiziako Santa Ana jaietan festa handia egiten zen. Banda militarra joaten zen Burgostik eta berbena ere izaten zen. Berbena 10etan hasten zen eta Juana eta lagunak goizaldeko hirurak arte egoten ziren kalean. "Txanketa" tabernan soinujolea aritzen zen eta hara joaten ziren dantzara.

266. Larraitzera erromeriara oinez (ORD-014/022)

Ordiziako orduko tabernak aipatzen ditu eta non zeuden azaltzen du. Ordiziako festetara kanpotik jende asko joaten zen. Juana Beasainera eta Larraitzera joaten zen festara oinez. Goizetik atera eta eguna bertan pasatzen zuten. Lagunek bazuten bizikleta baina Juanak ez; Zaldibiakoek bazterrean uzten zuten bizikleta hartuta ikasi zuten bizikletan ibiltzen.

267. Olaberrian ezkondu eta ezkonbidaian Donostiara (ORD-014/023)

Olaberrian ezkondu zen, ardo koloreko soineko batekin. Ezkonbidaiara Donostiara joan ziren kotxez.

268. Gerra ondorengo kontrabandoa (ORD-014/027)

Gerra ondorenean patataren kontrabandoa egiten zen, besteak beste. Juanaren etxekoek ez zuten goserik pasa.

269. Eskolara Ordiziako nazionaletara (ORD-015/002)

Eskolan Ordiziako nazionaletan ibili ziren Ana Mari eta anaia Pedro. Dena gaztelan egiten zuten. Irakasleak gerra-denboran hartu zituzten eskola gabeak ziren.

270. Auzoko baserriak (ORD-015/004)

Auzoko baserriak izendatzen dituzte. Ana Mari eta Pedoren lagunak inguruko baserrietakoak ziren.

271. Umetako jolasak (ORD-015/006)

Umetan errepideko harri jolasean, tabetan etab. jolasten zuten. Bizikleta aita erosi zien.

272. Etxean euskaraz beti (ORD-015/009)

Kanpoan gaztelan egin arren etxean euskaraz egiten zuten, aita gorroto zuen gaztelania eta.

273. Azokara saltzaile nafarrak (ORD-015/011)

Ordiziako azokara inguruko herrietako eta Nafarroako saltzaileak joaten ziren. Ganadu asko izaten zen eta goizean hasi eta iluntzera arte izaten zen festa. Emakumeak eguerdirako etxera joaten ziren.

274. Haragia gazi kutxan kontserbatzen zuten (ORD-015/013)

Eguneroko otorduetan baserrikoak hobeto jaten zuten kaletarrek baino. Goserik ez zuten behin ere pasa. Haragia gazi kutxan kontserbatzen zuten. Txerria hiltzean auzoko etxeetara banatzen zuten. Seminaristentzako babarrunak eskatzen zituzten elizek.

275. Egun seinalatuetan, jaki bereziak (ORD-015/014)

Eguberrietan, Santiago egunean eta egun berezietan garbantzuak, arraina, oilaskoa edo konpota janari preziatuak izaten ziren. Anekdotak bat kontatzen du.

276. Uztaren zati bat herrira entregatu behar (ORD-015/016)

Etxeko uztaren zati bat herrira entregatu beharra izaten zuten etxean goseak egon arren.

277. Arropak garbitzeko, lixiba (ORD-015/017)

Arropak garbitzeko lixiba egiten zuten; nola egiten zen azaltzen du.

278. Herrira esnea saltzera (ORD-015/018)

Ordiziako taberna eta denda jakinetara esnea saltzen zuten eta diru asko irabazten zuten.

279. Erromeriara Larraitzera eta Benta Berrira (ORD-015/020)

Erromerietara Larraitzera, Benta Berrira eta inguruetara joaten ziren. Fernandok ez zuen dantzan ikasi, baina helduan dantza egitea ez zegoen debekatua. Oinez eta autobusez igotzen ziren Larraitzera etxetik jana hartuta. Limonada edaten zuten.

280. Neskak gaueko 10etarako etxera (ORD-015/022)

Neskak 10etarako etxeratzen ziren, ilunpetan beldurrez joaten ziren. Pasadizo bat kontatzen du.

281. Baserriaren izena (ORD-015/024)

Garai batean Garagartza eta ondoren Aizpuru Etxeberri izena hartu zuen Ana Mari eta Pedoren etxeak.

282. San Juanetako eta San Pedroetako sua (ORD-015/027)

San Juanetan eta San Pedroetan sua egiten zuten etxe inguruan.

283. Sendabelar eta erremedioak (ORD-015/028)

Sendabelarren inguruko kontuak eta erremedioak aipatzen dituzte. Umetan eskolan zorri asko izaten zuten.

284. Meza erdaraz eta latinez (ORD-015/029)

Ordizian ez zen euskara askorik entzuten. Meza eta aitagurea erdaraz eta latinez izaten ziren.

285. Lekuan-lekuko euskara (ORD-015/031)

Inguruko herrietako euskararekin konparaketa.

286. Ordizian zuka; Zaldibian hika (ORD-015/032)

Ordizian hika inor gutxik hitz egiten zuen; Zaldibian, aldiz, denek. Ana Marik eta Pedrok ez zuten ikasi hika, etxean zuka egiten baitzieten.

287. Guraso baserritarrak zituen (ORD-017/001)

Anttoniren senarrak bere burua aurkezten du; arotz lanetan eta CAF lantegian aritu zen. Anttoni Ordizian jaio zen; gurasoak baserritarrak zituen, ama Itsasondokoa eta aita Urretxuarra.

288. Jostun etxean eta Bilore lantegian lanean (ORD-017/002)

Etxean josten eta Bilore lantegian aritu zen lanean, besteak beste. Ordizian jostundegi asko zeuden.

289. Euskara ikastera eskola klandestinoetara (ORD-017/003)

Eskolan Ordizian ibili ziren senar-emazteak, Fernando Karmelitetan eta Anttoni mojetan. Dena gaztelaniaz ikasten zuten eta kalean ere halaxe aritzen ziren euskara debekatua zegoelako. Euskara ikastera eskola klandestinora joan zen Fernando. Anttoni, eskola partikularretara joaten zen.

290. Euskaraz hitz egitea debekatuta (ORD-017/005)

Eskolan euskaraz hitz egiten bazuten zigortu egiten zituzten eta etxean, berriz, ezin zuten erdaraz egin. Irakasleen zigorrak gogorrak ziren, erregelaz jotzen zituzten. Irakasleak kanpotarrak ziren eta Fernandok haien ezizenak aipatzen ditu.

291. Herriko instituzio ezberdinek erdaraz (ORD-017/006)

Apaiz, moja, mediku eta abarrek erdaraz hitz egiten zuten. Apaizen aipamena egiten dute. Medikua etxera joaten zen, ez zegoen mediku-etxerik. Ordiziako farmaziak.

292. Meza latinez, sermoiak gaztelaniaz (ORD-017/007)

Meza latinez ematen zen eta sermoia gaztelaniaz. Apaiz baten gaineko kontuak.

293. Antzerkia egiten zuten (ORD-017/009)

Antzerkia egiten zuten antzokian; han antzeztuak izendatzen ditu. Fernando dantza eskolan ibilia da.

294. Ordiziako azokara saltzaileak Nafarroatik eta Arabatik (ORD-017/011)

Ordiziako azoka goizean 5etan hasten zen martxan; abere asko izaten zen. Asteazkenetan izaten zen azoka eta gizonak bazkaltzen eta arratsalde pasa geratzen ziren bitartean emakumeek etxera joan behar izaten zuten. Anttoniren amona Salbatoretik joaten zen oinez saskia hartuta azokara saltzera. Saltzaileak kanpotik joaten ziren, Nafarroatik eta Arabatik.

295. Garaian-garaiko jakiak saltzen ziren azokan (ORD-017/013)

Azokaren banaketa azaltzen dute, postu bakoitzaren kokapena. Garaian garaiko frutak saltzen ziren urte sasoi bakoitzean. Arraina urri baina oso ona saltzen zen; angulak ere izaten ziren.

296. Etorkinak herrira lanera (ORD-017/014)

Inguruko lantegiak zirela eta (CAF eta beste zenbait) erdaldun asko etorri zen kanpotik bizitzera.

297. Kaletarrek baserritarrei barre (ORD-017/016)

Baserri gutxi zeuden; batzuk izendatzen dituzte. Kaletarrek euskaraz hitz egiteagatik eta zeramaten bizimodua zela-eta barre egiten zieten baserritarrei.

298. Ogia hilean behin egiten zuten etxean (ORD-017/021)

Ogia hilean behin egiten zuten etxean ez baitzuten irina erosteko dirurik. Anttoniren etxean ez zegoen laberik eta okindegitik masa erosi eta harekin egiten zuten. Txerria kanpotik ekartzen zuten hilda.

299. Garbitokira arropak garbitzera (ORD-017/025)

Arropak garbitzeko bi garbitoki zeuden Ordizian. Inguruko emakumeak elkartzen ziren euren umeekin garbiketara joateko. Plantxa, txapa berotu eta trapua gainean botata egiten zuten.

300. Ile-apaindegira orraztera (ORD-017/027)

Ile-apaindegia zabalik egoten zen igandeetan ere eta Anttoni joaten zen. Orduko orrazkerak aipatzen ditu. Jai-egunetan dotore jantzen ziren.

301. Etxekoren bat hilez gero, lutoz jantzi behar (ORD-017/029)

Etxeko norbait hiltzen zenean lutoz jantzi behar izaten zuten, neska zein mutilek. Umetan praka motzetan ibiltzen ziren; dantzara joaten zenean Fernandok galtza luzeak jantzen zituen.

302. Ezkonbidaian Altsasura (ORD-017/030)

Eliza-ospakizunak gauza serioa ziren. Fernando eta Anttoni Altsasura joan ziren ezkonbidaian. Orduko kontuak kontatzen ditu. Urrezko ezteiak ospatu zituztenekoa aipatzen dute.

303. Errepublika ondoren, nafarrak sartu zirenekoa (ORD-017/033)

Errepublika ondorengo kontuak; herri osoa elkartu zen. Nafarrak sartu zirenekoa kontatzen du. Fernandok kalean ikusi zituen. Ordizian kartzela zegoen eta inguruko herrietako jende asko egon zen bertan.

304. Umetako jolas eta entretenimenduak (ORD-017/035)

Umetan sokasaltoan, "bules"ean eta abarretan jolasten zuten. Jolasen nondik norakoa eta haien kantuak aipatzen dituzte. Fernando futboleko eta pilotan ere aritzen zen. Futboleko Ordiziako taldean hasi eta gero Legazpikora joan zen.

305. Bizikleta eta kotxeak urri zireneko garaia (ORD-017/036)

Bizikleta gutxi zen garai hartan eta inori kentzen ibili ohi ziren. Fernandok lehenengo kotxea 56 urterekin izan zuen. Autobusez ibiltzen ziren gehienetan. Irratia etxe gutxitan izaten zen. Nafarrak sartu zirenean haiek ekarri zituzten irratia.

306. Ahoz aho jasotako kantu eta kontuak (ORD-017/037)

Istori mitologikoak eta beldurra eragiteko pasadizoak kontatzen zizkieten etxean oherakoan. Anttoniri aitak kontatzen zizkion. Fernandoren aitona-amonak kantuan asko aritzen ziren. Fernandok kantu bat aipatzen du. Amonak soinua eta aitonak panderoa jotzen zituzten.

307. Festetako ekintzak (ORD-017/038)

Festetan ekintza ugari izaten zen: musika, zezenak, pilota, etab. Zezen plaza Zumarragatik eramaten zuten.

308. Dantza lotua bai, baina arrimatu gabe (ORD-017/039)

Dantza lotua egiten zuten, baina bikoteek elkarrenganako tartea utzi behar izaten zuten. Anttoniren aitak tronboia jotzen zuen bandan. Ordiziako Santaneroen dantza sonatuak zertan datzan azaltzen dute.

309. Ordiziako sagardotegiak (ORD-017/040)

Ordizian sagardotegi ugari zen garai hartan; izendatu egiten ditu. Jende ugari joaten zen kanpotik sagardotegietara. Bolatokiak zeuden sagardotegi ondoan. Bertsoetarako zaletasun handia zegoen.

310. Igande arratsaldeetako entretenimenduak (ORD-017/042)

Igande arratsaldeetan bezperetara, bolatokira eta plazara musika entzutera joaten ziren. San Bartolome festak aipatzen dituzte.

311. Ordiziako lantegi eta tabernak (ORD-017/044)

Ordiziako enpresak izendatzen dituzte. Prentsa erosten zuten; egunkari batzuk aipatzen dituzte. Taberna ugari zeuden Ordizian; limonada eta ardoa edaten ziren.

312. Inguruko erromeriak (ORD-017/048)

Oiangun erromeria egiten zen San Inazio egunean eta Larraitzera ere joaten ziren. Inguruko herrietako festetara joaten ziren.

313. Estraperloko kontuak (ORD-017/052)

Gerra ondorenean, kontrabandoan ibili behar izaten zuten dirua edota jana lortzeko. Fernandok anekdota bat kontatzen du.

314. Suhiltzaile lanetan 40 urtez (ORD-017/056)

Fernando suhiltzaile lanetan ibili zen boluntario gisa 40 urtez, ezkondu ondorenean hasita.

315. Dantza taldea, boxeo eta txirrindularitza (ORD-017/059)

Fernandok Ordiziako dantza taldean dantza egiten zuen, baina abertzaleak zirelako itxi egin zen. Boxeo erakusten zuten Ordizian. Umetako irteerak eta Santiago eguneko txirrindulari proba aipatzen dituzte.

316. Aitona, errementaria (ORD-017/062)

Anttoniren aita errementaria zen, eta ferratzaile lanetan eta segak konpontzen aritzen zen. Fernandorena tornuan aritzen zen lanean. Amonak etxeakoandre lanetan aritzen ziren.

317. Pedro eta Mariaren biografia laburra (ORD-018/004)

Pedro ezkongabea da. Maria ezkondata dago, eta bi seme-alaba ditu. Denak etxean bizi dira. Pedro CAFen ibili izan da lanean. Maria jostundegi batean ibili zen lanean, ezkondu baino lehentxeago arte. Ordutik etxeakoandre izan zen.

318. Jasotako heziketa (ORD-018/005)

Pedrok fraideetan ikasi zuen. Gero CAFeko eskolan, eta gerora, lanetik ateratakoan, gau-eskolan. Maria ere gau-eskolara joan zen. Lanean hasi aurretik, ordea, Karmelitetara joan zen. Karmelidak non ziren azaltzen du. Lanean beti Ordizian ibili dira.

319. Ordiziako feria (ORD-018/006)

Ordiziako feria orain galtzen ari dela uste du Mariak. Lehen ferian zer kale zeuden, eta kale bakoitzean zer egoten zen azaltzen dute. Lehen saltzaile gutxiago etortzen ziren. Osaba bat Allozetik mandoarekin etortzen zen olioia ekartzera Ordiziara.

320. Euskara Ordizian (ORD-018/007)

Ordizian kalean ezin zen euskaraz egin. Meza, hala ere, euskaraz ematen zen. Elizak eutsi zion euskarari. Jende euskaldun asko zegoen. Orain askoz gehiago egiten da euskaraz Ordizian. Ikastolak eragin handia izan du horretan. Lehen lagunartean ia beti erdaraz.

321. Kanpotarrak Ordiziara iritsi zirenekoa (ORD-018/008)

Kanpotar asko etorri zen garaian asko nabaritu zela esaten dute. Soldaduak ere etorri ziren, eta gehiena erdaraz egiten zen. Kuadrillan ere erdaldunak daude, eta haiek ez daudenean bakarrik egiten duten euskaraz.

322. Baserritarrei burla kalean (ORD-018/009)

Baserria lehen inportanteagoa zen Ordizian, gazte gehiago zegoen baserrietan. Baserritarrei barre eta burla egiten zitzaaien kalean.

323. Zer jaten zuten normalean eta ospakizun berezietan (ORD-018/010)

Gosea ez pasatzeko egin zituztenak azaltzen dituzte. Txekorrak, taloak, patatak... jaten zituzten. Ospakizun berezietan janari bereziagoa jaten zen, baina ez orain bezain beste. Zer jaten zuten azaltzen dute.

324. Aurrerapenak eta haiek baino lehenagoko ohiturak (ORD-018/011)

Arropa etxean garbitzen zuten, baina bazeuden labaderoak. Non zeuden azaltzen dute. Aurrerapen teknologikoak berandu iritsi ziren haien etxera. Egunkaria erosten zuten etxean. Dena erdaraz egoten zen. Argindarra eta ura beti ezagutu izan dute etxean.

325. Bizartegiak eta ile-apaindegia (ORD-018/012)

Gizonak bizartegira eta emakumeak ile-apaindegira joaten ziren orrazteko. Pedrok bizartegian egin zuen lan. Soldadutzan egon zenean ere, bizargilea izan zen.

326. Ezkontzak eta komunioak (ORD-018/014)

Ezkontzak eta komunioak orain baino umilagoak ziren. Komunioko arropari buruz hitz egiten dute. Ezkontzara familiartekoak bakarrik joaten ziren, gerora hasi ziren lagunak joaten.

327. Mariaren ezkontza (ORD-018/016)

Beltzez edo zuriz ezkontzen zen jendea. Orduan emakume gehiago ezkontzen ziren beltzez zuriz baino. Mariaren ezkontza nolakoa izan zen azaltzen dute. Martinez jatetxeari buruzko aipamena egiten dute. Eztei-bidaian Madril joan ziren.

328. Aita guardia egiten (ORD-018/018)

Aitari guardia egitea tokatzen zitzaion gau batzuetan. Maria harro zegoen aita guardia egiten zuelako.

329. Hainbat elkarte Ordizian (ORD-018/019)

Dantza-taldeak, batzokiak, mendi-elkarteak... aipatzen dituzte. Mendi-elkarteen historia kontatzen dute. Ez dira dantza-taldeetan ibili izan. Emakumeek ezin zuten parte hartu.

330. Txikitako jolasak (ORD-018/020)

Txikitan zertan jolasten ziren azaltzen dute. Baloiak eta pilotak nolakoak izaten ziren deskribatzen dute. Gabonetan opariak bai, baina jostailurik ez zuten jasotzen. Turroia jaten zuten.

331. Txikitan etxean kontatzen zizkieten kontuak (ORD-018/021)

Txikitan ez zizkieten mitologiako ipuinak kontatzen, haien gorabeherak baizik. Ez dakite nola ezagutu zuten elkar gurasoek.

332. Santa Anatako festak (ORD-018/022)

Santa Anak nola ospatzen ziren aipatzen dute. Dantzaldiak bazeuden, baina ez etxean, ez elizan, ez zieten uzten hara nahi adina joaten. Musika non egoten zen azaltzen dute.

333. Santa Anatako pilota partiduak eta santaneroak (ORD-018/023)

Pedrok Santa Anatako pilota partiduetara joatea nola lortzen zuen azaltzen du. Partidu onak izaten ziren beti. Santaneroen ohituraz hitz egiten dute, urtean ezkonduetako bikoteak ateratzen ziren. Mariak ezin izan zuen atera lutoa zela eta.

334. Lutoa (ORD-018/024)

Lutoagatik urtebete beltzez joan behar izaten zuten. Lutoan zer janzkera eraman behar zen azaltzen dute. Amerikaren eraginez kendu zen lutoaren ohitura.

335. Sagardotegiak Ordizian (ORD-018/025)

Sagardotegi asko zeuden garai batean Ordizian: banan bana aipatzen dute zer sagardotegi zeuden. Sagardotegietako giroa nolako izaten zen azaltzen dute. Emakumeak eta apaizak ez ziren sartzen. Sagardotegian etxetik eramandako janaria jaten zen.

336. Aisialdia Ordizian (ORD-018/026)

Larunbatetan zer egiten zuten kontatzen dute. Fabriketan lan egiten zuten. Zinera ere joaten ziren. Ordizian zer erromeria izaten ziren azaltzen dute. Zer-nolako giroa izaten zuten kontatzen dute.

337. Dantza lotua (ORD-018/027)

Ordizian uzten zuten dantza lotuan egiten, baina herri txikietan ez. Zer beldur sartzen zizkien emakumeei bekatua zela eta.

338. Inguruko herrietako festak (ORD-018/028)

Larraitzera oinez joaten ziren erromeriara. Bizikleta gerora ekarri zuten. Inguruko herrietara ere joaten ziren festetara arratsaldean, gauez ez.

339. Euskara orain eta lehen (ORD-018/029)

Euskara asko hitz egiten da orain Ordizian, baina ez nahikoa. Alde dezente dago gazteen eta zaharren hizkeraren artean. Inguruko herrietako euskara antzeko samarra da, eta zein diren hizkera politak aipatzen dute. Telebistako

euskara ondo ulertzen dute. Zerbait irakurtzen dute euskaraz. Etxean beti euskaraz, eta kalean segun eta zeinekin, erdaraz.

340. Prozesioak eta ordurako arropak (ORD-018/031)

Aste Santuko prozesioei buruz hitz egiten dute. Arropa onak eramaten zituen jendeak. Ordizian zer jostundegi zeuden aipatzen dute.

341. Hika, zuka eta berorika (ORD-018/033)

Beraien artean, hika egiten dute. Gazteei, mutilei hika, eta neskei zuka. Lehengusuei hika. Gurasoek seme-alabei hika, senar-emazteen artean, zuka. Seme-alabek beraien artean hika. Lagun batzuek gurasoei berorika. Apaizari berorika.

342. Apaizak eta erdara (ORD-018/034)

Lehengo apaizak Ordizian euskalzaleak ziren. Konfesatu eta dena, ordea, erdaraz egiten ziren. Baliarrainen konfesatzeko izandako pasadizoa kontatzen du Pedrok.

343. Udak Baliarrainen (ORD-018/035)

Uda Baliarrainen pasatzen zuten. Zer-nolako bizimodua izaten zuten han baserrian kontatzen dute. Baserrian zer lan egiten zituzten aipatzen dute. Oso gustura ibiltzen ziren han.

344. Ordiziatik kanpora joaten zireneko irteerak (ORD-018/036)

Donostiara oso gutxi joaten ziren: eskursioren bat, partiduren bat... zenean. Eskursioak nora egiten zituzten aipatzen dute.

345. Orduko eta oraingo bizimoduaren arteko aldeak (ORD-018/040)

Oraingo bizimodua eta ordukoa desberdinak direla aipatzen dute. Diru gehiago erabiltzen dute gazteek, orain askatasun gehiago dago, lehen beldur edo errespetu gehiago zegoen,

346. Ordizian jaioa 1930ean (ORD-021/001)

Ordizian jaio zen 1930ean. Ama Ataungo Aia auzokoa eta aita Zaldibiakoa zituen eta senarra ordiziarra. 5 seme-alaben ama da.

347. Eskolan mojetan eta Karmelitetan (ORD-021/002)

11 urtera arte ibili zen eskolan, Ordiziako mojetan eta Karmelitetan. Dena gaztelaniaz ikasten zuten eta lagunartean ere hala egiten zuten.

348. Murua tabernaren jabe (ORD-021/003)

Santa Maria kalean Murua taberna zuten Ana Mari eta etxezoek. Tabernaz gain ostatua ere bazen Murua. Azoka egunez lan asko izaten zuten.

349. Inguruko eta Nafarroako jendea azokara saltzera (ORD-021/005)

Orduko asteazkenetako azokara ganadu ugari eramaten zen. Goierri inguruko jendea eta Nafarroatik ere inguratu ohi zen. Altsasu aldeko lagun batzuen aipamena egiten du.

350. Kalean euskaraz hitz egiteko beldurrez (ORD-021/006)

Kalean euskaraz egiteko beldur handia zegoen, debekatua baitzegoen, eta Ana Marik ere lagunekin gaztelaniaz egiten zuen etxean euskaraz mintzatzen bazen ere.

351. Tabernan zerbitzari lanetan (ORD-021/009)

Gurasoek taberna hartu zutenekoa azaltzen du. Ana Mari zerbitzari lanetan aritzen zen tabernan. Baratzea izan zuten eta amak egiten zuen lan bertan. Taberna zen Ana Mariren etxea, eraikin berean zeuden eta.

352. Eguneroko otorduetan zopa eta eltzekoa (ORD-021/010)

Eguneroko otorduetan zopa eta eltzekoa jan ohi zuten, igandeetan oilaskoa eta postrea izaten zen nobedade.

353. Arropa garbitzera labaderora (ORD-021/012)

Arropa eskuz garbitzen zuten. Taberna ostatua ere bazenez, amak haien arropa garbitzeko egosi egiten zuen eta gero labaderora joaten ziren. Ordiziako labaderoak. Ekonomikan berotzen zen plantxa erabiltzen zuten. Lurra alanbrez igurtzi eta ondoren ematen zioten argizaria. Astean behin egiten zuten garbiketa.

354. Txerria hildakoan odolki eta mondejuak (ORD-021/013)

Txerria etxean hiltzen zuten eta amak mondejuak eta odolkiak egiten zituen. Osaba harakina zuten eta hark laguntzen zien. Etxe azpian bodega bat zuten eta bertan oilo eta txerriak izaten zituzten. Pasadizo bat kontatzen du.

355. Bi jaunartze, zazpi eta hamaika urterekin (ORD-021/015)

Bi jaunartze egin zituen zazpi eta hamaika urterekin. Ospakizuna etxean egiten zen. Ahizpa zaharrenarentzat egindako jantzia erabili zuten ondorengoek. 22 urterekin ezkondu zen Ordizian eta Olaberrian egin zuten bazkaria. Madrilera joan ziren ezkonbidaian. Ama ezkondu zeneko kontuak kontatzen ditu.

356. Gerra zibila hastean, Zaldibiara aitarekin (ORD-021/016)

Tabernan ibiltzen zen jende gehienak euskaraz egiten zuen. Gerra zibila hasi zenean, Ana Marik bederatzi urte zituela, Zaldibiara joan ziren Xorronbehe baserrira aitarekin oinez, aitaren lagunak baitziren bertakoak. Tiroak nola entzuten zituzten azaltzen du. Gerra amaitu zenean, etxera bueltatu ziren.

357. Sokasaltoan eta diabolorekin jolasean (ORD-021/019)

Umetan, sokasaltoan eta diabolorekin jolasten zuten, besteak beste. Gaiztakeria batzuk aipatzen ditu. Izeba batek oparitzen zizkien trapuzko panpinak. Ordizian bi jostailu-denda zeuden.

358. Santa Ana jaiak (ORD-021/021)

Santa Ana jaien aipamena egiten du. Frontoian berbena izaten zen eta Ana Mari tabernan aritzen zen lanean.

359. Ordizian taberna ugari zegoen (ORD-021/022)

Egunkaria egunero hartzen zuten tabernan. Ordizian taberna ugari zegoen; kafetegi bat aipatzen du.

360. Barrenako Markesa (ORD-021/023)

Barrenako Markesa eta hauek egin ohi zituzten festak aipatzen ditu.

361. Oiangu, San Bartolome, Larraitx eta San Migelgo erromeriak (ORD-021/024)

Oianguko eta San Bartolomeko erromeriara joaten ziren eta dantza egiten zuen soinu-jolearen piezekin. Larraitxera eta San Migelera ere joan ohi ziren oinez erromeriara. Mutil-lagunarekin hasi zeneko kontuak. Izeba batek taberna zuen Beasainen eta hara joaten zen zerbitzari lanetan laguntzera festetan.

362. Euskara lehen eta orain (ORD-021/026)

Gaur egungo eta lehengo euskararen erabilera aipatzen ditu. Hika amak bakarrik hitz egiten zuen; Ana Marik zuka egiten zuen. Inguruko herrietako euskara eta Ordiziakoaren arteko ezberdintasunak. Telebistako euskara.

363. Sendabelarrak (ORD-021/027)

Etxean sendagai modura erabiltzen zituzten sendabelarrak aipatzen ditu.

364. Emakumeak gizonen esklabu (ORD-021/028)

Emakumeak gizonezkoen esklabu ziren askotan, dena eginda eman behar izaten zitzairen etxean.

365. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen (ORD-021/030)

Mutil-lagunarekin hasi zenean hamabostean behin ateratzen zen eta denbora luzean lagunak eta mutila ikusi gabe egon behar izaten zuen. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen, plazan egon ohi ziren banda entzunez.

366. San Isidro granjan lanean (ORD-023/012)

San Isidro granjan lan egin zuen 3 urtez 11rekin hasita. Etxeko lanak egiten zituen eta ukuiluko lanetan ere aritzen zen. Txerriak, behiak, oiloak eta abar zeuzkaten granjan.

367. Zerbitzari banketeetan (ORD-023/013)

15 urterekin banketeetara joaten zen taberna ezberdinetara zerbitzari lanera. Tabernak izendatzen ditu. 16 urterekin Donostiako Egia tabernara joan zen udara partean, baina bitartean Upabira joaten jarraitzen zuen.

368. Iluntzeetan josten ikastera (ORD-023/014)

Josteko zaletasun handia zuen eta egunez lana egin eta iluntzetan josten ikastera joaten zen plazara, Mariarengana. Ume arropak josten ikasi zuen gehienbat. Neska kuadrilla joaten ziren. Etxeko joste-lanak berak egiten zituen.

369. Donostian zerbitzari ibili zeneko kontuak (ORD-023/016)

Donostiara lanera joaten zenean uda bertan pasatzen zuen, lehenengo urtean garbiketan eta handik aurrera zerbitzari lanetan. Hango umeei eskulanak egiten aritzen zen. Pentsioetan lo egiten zuen eta ikaratu egiten zela eta etxekoandreak etxean hartu zuen. Goizeko seietan jaiki eta mezara joaten zen, handik taberna irekitzera. Nagusi euskaldunak zituen.

370. Umetan jolastu beharrean puntua egiten (ORD-023/017)

Umetan jolas egiteko astirik ez zuen izaten eta astia zuenean ere, lagunak tortolosean eta bera puntua egiten aritzen ziren. Lagunek barre egiten zien josten aritzen zelako. Lagun erdaldunak zituen.

371. Oporretara Ataungo baserrira (ORD-023/018)

Oporretan Ataungo baserrira joaten zen eta baserriko lanetan aritzen zen. Ogia etxean egiten zuten eta nola egiten zuten azaltzen du; 8-10 egunerako egiten zuten ogia. Ogi beltza txikia zela ezagutu zuen. Ez zuten goserik sekula pasa amak baserritar eta artzainei arropa egiten zien eta trukean jakiekin ordaintzen baitzien. Amarengandik jaso zuen josteko zaletasuna.

372. Txerrikumeen jaiotza eta txerri-hiltzea (ORD-023/019)

Soroko lanean eta ganadua zaintzen ibiltzen zen. Txerriak umea egiten zuenean gertatzen zirenak aipatzen ditu; gaua pasatzen zuten txerriak umea egin artean. Amaren lehengusuak hiltzen zuen txerria eta festa egiten zuten. Odolkiak eta txorizoak egiten zituzten auzotarrekin elkartuta.

373. Mariatarren kongregaziokoan betebeharrak (ORD-023/020)

Igandeetan mezara joaten ziren goizeko bederatziatarako. Baraurik joan behar izaten zuten jauna hartzeko. Ordizian ez zegoen bertako apaizik. Maria Rosario Mariatarren kongregazioan egon zenez, elizara joan, jauna hartu eta prozesioetara joan behar izaten zuten. Hilean behin konfesatzera joaten ziren.

374. Prozesioak eta Maiatzeko loreak (ORD-023/021)

Prozesioan Ama Birjina ateratzen zuten eta medailak jantzita joaten ziren. Corpus Eguneako prozesioaren inguruko kontuak kontatzen ditu. Jaunartzea egindako hilabetearen egunero mezetara joaten ziren, eta Maiatzeko loreak deituriko ospakizuna egiten zuten.

375. Erlijioarekin lotutako ohiturak etxean (ORD-023/022)

Otorduro erreztatzen zuten. Bazituzten erlijioarekin lotutako ohiturak etxean eta haiek aipatzen ditu.

376. Ordiziako azoka (ORD-023/023)

Ordiziako azokan postu asko izaten ziren, herriko eta inguruko jendea joaten zen saltzera eta haietako batzuk izendatzen ditu. Goizeko 6etarako "rebendedorak" joaten ziren Donostiatik, Ordiziako produktuak erosi eta gero Donostian saltzeko. Azokako postuak.

377. 'Tonto kalea' izenaren zergatia (ORD-023/024)

'Tonto kalea' ezizenez ezagutzen zen kalearen zergatia aipatzen du.

378. Gauez eramaten zen ganadua azokara, saltzeko (ORD-023/025)

Azokara eroatera joaten ziren, saltzera ez. Ganadua Garagartza plazan izaten zen eta gaur bezala asteazkenetan izaten zen. Ganadua oinez gauez eramaten zuten azokara.

379. Gabonetako jantziak (ORD-023/027)

Euskal jaiak egiten ziren. Eguberritako jantziekin pasatako pasadizo bat kontatzen du.

380. Oiangu eta Larraizko erromeriak (ORD-023/028)

Oianguko erromeriara San Inaziotan eta Larraitzera San Pedrotan. Hasieran oinez joaten ziren eta gerora kamioia jarri zuten Larraitzera. Festara goizeko 5etan aterata joaten ziren eta iluntzean garaiz etxera, bi ordu egiten zituzten oinez. Dantza asko gustatzen zitzaion.

381. Ordiziako festak (ORD-023/029)

Ordiziako lehengo eta gaurko festak alderatzen ditu. Burgosko militarren banda joaten zen lehenago eta gaur Irungoa. Banda 8 egunetarako joaten zen. Santanero egunez Maria Rosario bazkaria zerbitzatzera joaten zen Martinez tabernara. Santaneroen dantza eskaria nola egiten zen azaltzen du. Txirrindulari lasterketa, boxeo, matutina, eta abar.

382. Etxezarreta zinea eta titereak (ORD-023/030)

Etxezarreta zinea zegoen Ordizian. Udan titereak joaten ziren eta antzerkia egiten zuten kalean. Arboledan kioskoa zegoen eta banda ostegun gauetan aritzen zen bertan. Zinea erdaraz izaten zen.

383. "Txirunban" jolasaren azalpena (ORD-023/031)

Asteburuan "txirunbara" jolasten zuten, jolasaren nondik-norakoak azaltzen ditu. Frontoian pilotan aritzen ziren.

384. Ordizia eta Beasaingo futbol taldeen pikea (ORD-023/032)

Ordizian Unión Club deituriko futbol taldea zegoen eta pike handia izaten zen Beasaingoan eta hauen artean. Senperen futbol zelaia zegoen orduan eta han jokatzeko ziren partiduak. Ordiziatik Beasainera bidean mutilek menditik harriak botatzen zizkieten, pike handia zegoen eta.

385. Ordiziako industria (ORD-023/033)

Ordiziako lantegiak eta industria aipatzen ditu. Kanpotar ugari etorri zen herrira tunela eta bidea egin eta CAF lantegira lanera.

386. Ezkontza eguneko oroitzapenak (ORD-023/034)

Gizona beasaindarra zen eta Lazkaon ezagutu zuen taberna batean lanean ari zela. Ordizian ezkondu ziren eta 100 laguneko banketea egin zuten Urteaga fondan. Banketeko janaria aipatzen du. Zuriz jantzita ezkondu zen berak egindako soinekoarekin. Orduan ez zen inor zibilez ezkontzen. Trenez (talgoan) joan ziren ezkon bidaiara Madrilera.

387. Irurena mertzeria (ORD-024/002)

Irurena mertzeria denda zabaldu zuen, eta Maria Rosariok bertan egin zuen lan. Denetik egiten zuen: prakei kremailera jarri, barrenak hartu, azpiko izarak... Ondo saltzen zuten eta bezero onak zituzten.

388. Atzeko kalean, oilaskoak balkoian (ORD-024/003)

Ordizia denborarekin aldatu egin dela dio. Lehen, pobrea zena oso pobre omen zen; eta aberatsa, berriz, oso aberats. Diferentzia handiak egiten ziren. Kaleak asko aldatu dira; lehen oso etxe txikiak ziren. Atzeko kalean ohitura zen Eguberrietan eta festetan oilaskoak balkoian jartzea. Txitak erosten ziren, eta gero, haiek hazten zituzten balkoian.

389. Gabonak (ORD-024/004)

Ez zaizkio Gabonak gustatzen. Lehen ez zen dirurik izaten, baina ilusioa bai. Etxekoak bildu ohi ziren. Jaiotza jartzen zuten.

390. Telefonoa etxean izatearen ardurak (ORD-024/006)

Lehen ez zen tinbrerik izaten. Ateetan soka bat izaten zen, eta hari tira eginda sartzen ziren etxeetan. Konfiantzazko bizilagunen etxeetara ere sartu ohi ziren. San Inazio bizi zirenean, telefonoa zeukaten etxean, eta telefonoa nola jarri zioten azaltzen du. Auzoan, bere etxean bakarrik zegoenez telefonoa, larrialdi kasuetan bizilagunei laguntzea tokatu zitzaion: bi ume erditzen laguntzen ibilitakoa da.

391. Aita ferratzailea eta amak soldaduekin izandako gaizkiulertua (ORD-024/009)

Amak gerrako kontuak kontatzen zizkion. Maria Rosarioren aita Afrikan egon zen soldadu eta han mairu asko egin zituen lagun. Aita ferratzailea zen eta etxe aurrean lantegia zuen. Gerra garaian, soldaduek hara eramaten zituzten zaldiak ferratzera. Fermin anaia jaioberria zen, eta amak haren zapiak garbitu ondoren eseki egiten zituen; parapetoan zeuden soldaduek hori ikustean, seinaleak egiten ari zitzaizkiela uste zuten eta tiroka hasten ziren.

392. Kinkea eta kandela argia egiteko (ORD-024/011)

Beti izan dute ura eta argia etxean. Ataunen zirenean, ordea, kinkea erabiltzen zuten. Ontziaren barrenean karburoa urarekin nahastuta jartzen zen: metxari su eman eta argia ematen zuen. Kandelak ere erabiltzen zituzten.

393. Ordiziako industria; CAF (ORD-025/016)

Ordiziako orduko lantegiak aipatzen ditu. Kanpoko jende ugari zegoen CAF lantegia zela eta.

394. Etxean telefonorik ez eta telefono publikoa erabili behar (ORD-025/017)

Argindarra eta ura beti izan zuten etxean. Telefonorik ez zuten eta herriko telefono publikotik deitzen zuten. Irrati zahar bat bazuen etxean eta hura bota izanaren damua duela dio. Segura irratia entzuten zuen, euskaraz.

395. Janaria nola kontserbatzen zuten (ORD-025/018)

Janaria mantentzeko, freskuran edo gazi kutxan edukitzen zuten.

396. Ordiziako festak; karrozak (ORD-025/019)

Ordiziako festak nolakoak ziren azaltzen du. Kuadrillek egindako karrozak. Santiagoetan izaten ziren festak. Antonia karrozan atera izan zen. Kanean Burgosko musika-banda ibiltzen zen.

397. Plazara dantzara neska eta mutil (ORD-025/020)

Plazan dantza egiten zuten bandarekin eta jende asko ezagutzen zuten. Plazaren bueltan egoten ziren neska eta mutil guztiak batera. Neskak ez ziren tabernara askotan sartzen.

398. Etxezarreta zinemara asteburuan (ORD-025/021)

Etxezarreta zinema zegoen Ordizian eta hara joaten ziren arrtsaldeetan. Erdaraz izaten ziren pelikulak eta 4-5 pezeta ordaintzen zuten. Asteburuan lagunekin ateratzen ziren.

399. Ezkondu ondorengo bizilekuak (ORD-025/024)

Ezkon-bidaiaetik bueltan lehenengo amaren etxean jarri ziren bizitzen eta gerora Ordiziako kalean, txaleta egin zuten arte. Bost seme-alaba izan zituzten. Etxean baratzea zuen eta bera aritzen zen hango lanetan.

400. Ordiziako uholdeak (ORD-025/025)

Ordizian uholdeak izan zireneko kontakizunak kontatzen ditu.

401. Areta baserriko margolari ezaguna (ORD-025/027)

Etiket goragoko Areta baserria Lapitz margolari ezagunarena zen eta etxea erre zenekoa aipatzen du. Margolaria alargun geratu zen frantziarra zen. Kanpotar asko joaten zen margolariarengana. Oilarrak margotzen omen zen ona. Margolariaren inguruko kontuak.

402. Jende aberatsa Ordizian (ORD-025/028)

Ordiziak garai batetik gaur egunera aldaketa handiak izan ditu. Jende garrantzitsua bizi zen bertan eta jauregiak ere baziren, infantadokoak. Barrena jauregira Madrilgo jendea etortzen zen eta hilabete batzuk pasatzen zituzten bertan.

403. Zazpi urterekin Mutiloan osabarenean (ORD-026/003)

Zazpi urterekin amona gaizki zutela eta, Mutiloara joan zen osabarekin bizitzera eta hango eskolan ibili zen hiru urtez. Behizain eta baserriko lanetan aritzen zen Mutiloako baserrian.

404. Ogia egiten zuten baserrian (ORD-026/004)

Behiak eta astoa zituen etxean. Labea zuten etxean eta amonak ogia egiten zuen. Ogia kontserbatzeko gari artean gordetzen zuten. Esne-behiak zituzten eta kalera saltzen zuten esnea.

405. Mutiloako eskolan gaztelaniaz (ORD-026/005)

Mutiloako eskolan irakasle kanpotarra zuten eta dena erdara hutsean ikasten zuten. Pedrok ez zuen erdaraz tutik ere ulertzen. Hiru urte egin zituen Mutiloan.

406. Bizikletaz lanera; lehenengo kotxeak (ORD-026/007)

Lantegira bizikletaz joaten zen. Orduan bizikleta edukitzea luxu handia zen. Lehenengo autoa nori ikusi zion kontatzen du.

407. Laneko soldata amari eman behar (ORD-026/009)

Indar lantegian lan egin zuenekoa. 30 pezeta irabazten zituen. Amari gezurra esan zion, diru guztia amari ez ematearren ez baitzion kontatu lantegiz aldatu zela; amak disgustu handia hartu zuen enteratu zenean.

408. Ordiziako jaiak (ORD-026/011)

Ordiziako jaietan, blusaz jantzita ibiltzen ziren. Santa Ana eta Santiagoetan ospatzen ziren festak. Anekdotak bat kontatzen du. Banda munizipala aritzen zen eta plazan egiten zen dantzaldia. Ordizian nesken kalabaza jasotzen zutela eta, Beasainera joaten ziren dantzara. Inguruko herri batzuetan, dantza lotua debekatua zegoen.

409. Txikiteoa, lagun arteko ohitura (ORD-026/012)

Lagunekin ateratakoan txikiteoa eta zurruta egiten zutela-eta eskopeta erosi zuen parranda utzi eta mendira joateko. Ardoa edaten zen txikiteoan; taberna asko zeuden Ordizian. Neskek debekatua zuten tabernara sartzea.

410. Jaunartzea Ordizian egin zuen 11 urterekin (ORD-026/013)

Jaunartzea Ordizian egin zuen 10-11 urterekin. Amak egin zion trajea eta zinta bat jartzen zuten soinean.

411. Ehizarako afizioa aitarengandik jaso (ORD-026/015)

Aita ehiztaria zuen eta Pedro ere ibiltzen zen. Aitak Eibartik erositako eskopeta zuen eta gorriek entregatzera behartu zituzten, baina hark sindikatuko guardia egin eta etxera eramaten zuen bizkarrean. Nazionalak sartu zirenean eskopeta entregatu beharra izan zuen eta orduko pasadizoa kontatzen du.

412. Lazkaomendi eta Murumendira ehizara (ORD-026/016)

16 urterekin hasi zen eskopeta erabiltzen eta aitaren ondoan ibilita ikasi zuen. Ehiza garaian Lazkaomendira eta Murumendira joaten zen oilagorretara. Txakur onak edukitzen zituen. Ehizan nola egiten zuen azaltzen du.

413. Orduko txoriak (ORD-026/017)

Garai hartan gaur baino txori gehiago izaten ziren; batzuk deskribatzen ditu. Hegaberak, frankolinak, etab.

414. Eskopetak etxean eskuz kargatzen zituen (ORD-026/019)

Eskopetarako kartutxoak Ordiziako armeriatik erosten zituen eta etxean kargatzen ere bazekien. Nola egiten zuen azaltzen du.

415. Donostiatik Ordiziako azokara oilagorrek erostera (ORD-026/021)

Ehizatutako oilagorrek azokan saltzen zituzten; Donostiatik joaten ziren Ordiziara oilagorrek erostera. Usoak etxean jaten zituzten eta amak lumatu eta larrutzen zituen.

416. Ehizako parapetoak (ORD-026/022)

Parapetoetan tokia hartzeko, gauez joan eta bertan lo egiten zuten ehiztariek. Parapetoak deskribatzen ditu.

417. Azokara jakiak saltzera (ORD-026/023)

Ama azokara joaten zen baserriko jakiak saltzera eta Pedrok laguntzen zion gauzak eramaten. Baratzea lantzen zuten etxean. Orduko azokan ganadu ugari izaten zen eta saltzaileak ingurukoak izaten ziren. Udaletxeak bankuak jartzen zituen eta bertan lehenengo joaten zenak hartzen zuen tokia. Dohainik izaten zen postua.

418. Herritar guztientzat telefono bat (ORD-026/026)

Argia eta ura beti izan dute etxean. Telefonoa herrikoa erabiltzen zuten eta irratia bazuten etxean. Gaztelaniz izaten ziren programa guztiak.

419. Gerra garaia Ordizian (ORD-026/027)

Gerra garaiko bizipenak. Bonbardaketak.

420. Gerraosteko gosetea (ORD-026/029)

Gerraostean, gosea pasa zuten; errazionamenduan jasotzen zuten ogia hori-horia eta gustu txarrekoa zen. Otorduetan babak, berdura eta txerrikia jaten zuten. Etxean txerria hil eta txorizoak egiten zituzten.

421. Ukuilua etxean (ORD-026/030)

Ordizian ukuilua zuten etxetik apartean txabola batean. Txerria eta oiloak izaten zituzten bertan.

422. Soldadutza Gasteizen egin zuen (ORD-026/031)

Ordizian kuartela zegoen Zaldibiara bidean eta behin han egon beharra suertatu zitzaion. Soldadutzara Gasteizera joan zen eta Donostian "radio" egin zuen eta aireplanoen koordenadak ematen zizkion irratitik kapitainari. Beasaingo lagunak izan zituen soldadutzan eta izendatu egiten ditu. 3 urte egin zituen soldadutzan.

423. Urtean behin soldadutzatik etxera (ORD-026/032)

Soldadutzako pasadizo bat. Urtean behin bueltatzen ziren etxera eta bitartean gutunez jartzen ziren etxekoekin hartu-emanen. Soldadutzara trenez joan zen.

424. Ordiziako zinema (ORD-026/033)

Ordizian ez zen autobusik, trena izaten zuten. Etxezarreta zinema zegoen Ordizian eta lagunekin joaten zen.

425. Ordizia eta Beasainen pikea (ORD-026/036)

Ordiziaren eta Beasainen artean pike handia izaten zen futbola zela eta. Herri ezberdinetakoen herri ezizenak aipatzen ditu.

426. Lazkaon ezkondu eta ezkon-bidaian Iruñera (ORD-026/037)

Emaztea ezagutu zueneko kontuak aipatzen ditu. Emaztea Lazkaokoa du eta bertan ezkondu ziren. Banketea baserrian egin zuten. Oilaskoa jaten zuten jaki berezi bezala. Ezkon-bidaian Iruñera joan ziren.

427. Erromeriak gaztetan (ORD-027/003)

Gaztetan erromeria guztietara joaten ziren. Nora joaten ziren azaltzen du. Garai hartatik nola aldatu den aipatzen zuten. Nola janzten ziren azaltzen du.

428. Erromerietako musika eta ordutegia (ORD-027/004)

Erromerietako soinujoleak aipatzen ditu: Zumarragako Uria. Erromeriak arratsalde izaten ziren, eta gauean etxera ere goizago itzultzen ziren, hurrengo egunean lanera joan behar izaten baitzuten. Erromerietara bizikletaz joaten ziren.

429. Gidabaimena eta zinea (ORD-027/005)

Kotxerik ez zuen erosi. Gidabaimena atera zuen, baina gogoa pasa egin zitzaion, eta ez zuen kotxea erosi. Erraza zen gidabaimena ateratzea. Zinera joaten ziren, eta gero korrika etxera, gurasoak etxean zain baitzeuden.

430. Gerra denboran, ama eta amona Soraluzeko izebaren etxera (ORD-028/004)

Gerra denboran, ama Soraluzeko izeba baten etxera zihoala gertatutako pasadizoa kontatzen du. Amona eta aitarekin geratu zen Iñaki. Gerora, amona ere Soraluzera joan zen, eta orduko pasadizoa kontatzen du.

431. Soraluzetik etxera bueltan gertatutakoak (ORD-028/005)

Etxera bueltan etorri zirenean, Zumarragan geratu behar izan zuten eta orduko kontuak kontatzen ditu. Soldaduekin gertatutako anekdota bat.

432. Gerra denboran goserik ez (ORD-028/006)

Bonbak ezagutu zituen kolean, eta inguruko etxe batean bonbak utzitako arrastoa aipatzen du. Gerraostean, ez zuten goserik pasa etxean. Babarrunak eta ogia ematen zizkieten lagunak zituzten. Ogia amonak egiten zuen etxean. Gertueneko errota Zaldibian zuten. Taloak ere egiten zituen amonak.

433. Errazionamenduaren inguruko kontuak (ORD-028/007)

Dendetan kupoiak ematen zituzten errazionamendurako. Ogi txarra izaten zen errazionamendukoa.

434. Baratzea, oiloak eta txerri-hiltzea (ORD-028/008)

Etxe ondoan baratzea zuten eta amona aritzen zen etxerako landaketan. Oilategia ere bazuten eta arrautzak etxerako jasotzen zituzten. Arrautzak kontserbatzeko karetan sartzen zituzten. Txerria urtean behin hiltzen zuten hiltegian; Iñaki eta anaiak nola hiltzen zuten ikustera joaten ziren. Odolkiak egiten zituen amonak eta ezagunei emateko ohitura izaten zen.

435. Kontabilitatea ikasi zuen (ORD-028/009)

Fraideetan denbora gutxi egin zuen, gerora alde egin baitzuten, eta partikular ikastera joaten zen. Irakasle eskasia zegoen orduan. Kontabilitatea ikasten zuen.

436. Eskolara bizikletan (ORD-028/010)

Beasainera eskolara bizikletan joaten zen. Beasain eta Ordiziaren artean pikea zegoen eta bizikletan pasatzerakoan egiten zizkietenak kontatzen ditu. Aita zenaren bizikleta zuen.

437. Aitaren egur tailarrean lanean (ORD-028/011)

Aitak tailer txiki bat zuen etxean bertan eta 13 urterako eskolan ibili arren bulegoan hantxe hasi zen lanean. Makinan idazten eta kartak idazten bazekien. Eskolako arbelak egiten zituzten Espainiako bakarrak ziren. Gerran zeuden gizonen emazteak lan egiten zuten bertan eta aitak erakusten zien.

438. Igandero mezara; fede handia (ORD-028/013)

Igandero joaten ziren mezara eta fraideetan eskolan ibili zenean arratsaldeetan bezperetara ere joaten zen. Meza seietan hasten zen. Fede handia zegoen eta etxean arrosarioa erreztatzen zuten lentejei harriak kendu bitartean.

439. Tabak, kanikak eta abar jolaserako (ORD-028/014)

Umetan, trapuzko baloiekin jolasten zuten. Tabak, kanikak eta abar izaten zituzten jolaserako. Kanikak porlanezkoak eta kristalezkoak izaten ziren. Orduko pasadizoak kontatzen ditu. Jolas ugariaren aipamena.

440. Anai-arrebekin jolasten zuen (ORD-028/015)

Lagun artean ez ziren asko ibiltzen, anai-arrebekin ibili ohi zen. Iñaki ez zen kale zalea, etxean laguntzea eta etxeko giroa atsegin zuen. Anai-arreben aipamena.

441. Kotxeko karneta ateratzera Donostiara (ORD-028/017)

Etxean eurekin bizi zen osabak ehizako kontuak kontatzen zizkien eta eskopeta erosteko gazteegiak zirelako penetan egoten ziren. Kotxeko karneta ateratzera Donostiara joaten zen trenez.

442. "Ederra", aitaren lantegia; Espainiara esportazioak (ORD-028/019)

Lantegian arbelak, pilotarako palak, kirtanak eta abar egiten zituzten eta ordezkarien bidez Espainia osora saltzen zituzten. Lantegiko makinak inguruan hitz egiten du. "Ederra" zuen izena lantegiak. Materiala garraiolariak eramaten zien.

443. Soldadutzara Zaragozako abiaziora 18 urterekin (ORD-028/020)

Soldadutzara 18 urterekin joan zen Zaragozako abiaziora boluntario. Boluntarioek beraiek erabakitzen zuten nora joan. Trenez joan zen. Osaba batek lagunak zituen bertan eta horri esker bulegoan jarri zuten. Apopilo egon zen etxe batean. Soldadutzako kontuak kontatzen ditu.

444. Soldadutzako pasadizoak (ORD-028/021)

Abizioko lekuan egon zen San Jurjon eta iritsi orduko manteatu egin omen zuten. Uniforme dotorez jantzita ibiltzen ziren. Goserik ez omen zuen pasa. Meloia hantxe jan zuen lehenbiziko aldiz. Soldadutzan zegoela ama hil zitzaion.

445. Soldadutzako lagunak (ORD-028/022)

Soldadutzatik etxera bueltatu eta aitaren lantegian jarraitu zuen lanean. Soldadutzako zigorretako batzuk, kalabozora sartzea eta ilea moztea izaten ziren. Errenteriar bat zuen gertueneko laguna, gainontzekoak ez ziren hemengoak. Han egindako lagunak aipamena eta oportetan haietako lagun batekin elkartu zeneko pasadizoak kontatzen ditu.

446. 1953an Ordizian uholdeak (ORD-028/023)

Ordizian uholdeak izan zirenekoa kontatzen du. 1953an izan ziren eta urte hartantxe ezkondu zen bera. Ordizia baino ingurua gehiago hondatu zen.

447. Argia, ura, telefonoa eta irratia (ORD-028/024)

Argia eta ura beti izan zuten etxean. Telefonoa ere ezagutu zuen; norbaitekin hitz egiteko lehenengo zentralera deitzen zen eta harek jartzen zuen hitz egin nahi zen harekin. Irratia berandu ezagutu zuen.

448. Soldadutzan sukaldari lanetan (ORD-029/011)

Sukaldari lanetan aritu zen soldadutzan. Aurretik ez zekien sukaldaritzako berri eta 120 lagunentzat jana prestatzen zuen. Eguneke 5 pezeta irabazten zituen. Tuterara jaitsi eta txikiteoa egiteko ohitura zuten. 6 hilabetez egon zen eta asteburuetan hango lagunak etxera joaten zen, ez zen etxera itzultzen.

449. Abiazioko tropan soldadutzan (ORD-029/012)

Abiazioko tropan zegoen Alejandro eta denetarik zuten, oroitzapen onak ditu. Urte eta erdi egin zuen soldadutzan.

450. "Manufacturas Ederra" aitaren lantegian lanean (ORD-029/013)

Soldadutzatik bueltatu eta lanean hasi zen "Manufacturas Ederra"n, aitaren lantegian. Arbelak, jokoak, tresnen kintak, etab. egiten zituzten Espainia osorako. Gizona kartzelan zuten emakume helduak ziren langile gehienak. Ordiziako tren geltokian almazena zegoen eta handik trenetik bidaltzen zituzten lantegira egindako eskariak.

451. Caf lantegiaren eraginez, kanpotarrak herrira (ORD-029/014)

Ordizian, arotz, mekanika tailer eta denda ugari zen garai hartan. Caf lantegiak eragin handia izan zuen kanpotarren etorrerarekin. Alejandro jubilatuta aritu zen aitaren lantegian lanean.

452. Luistarren eta Mariatarren kongregazioa (ORD-029/015)

Iruñean egon zenean derrigorra zen mezara joatea eta taldeka joaten ziren apaiz ezberdinekin. Ordizian zegoela gurasoekin joaten zen mezara. Dotrina eskolan ematen zieten apaiz edo bikarioak. Luistar eta Mariatarren kongregazioa izaten zen eta hilean behin konfesatu egin behar izaten zuten.

453. Jaunartzera baraurik joan behar (ORD-029/016)

Bi jaunartze egiten ziren, 6 eta 11 urterekin, eta baraurik joan behar izaten zuten. Anekdotak bat kontatzen du. Jaunartzea jantzi dotorez, arrosario eta gurutzea jantzita egiten zuten, eta neska-mutilek batera egiten zuten.

454. Mahai ondoko arrosarioa egunero (ORD-029/017)

Arrosarioa egunero errezatzen zuten. Errazionamendu garaian, dilistei harriak kentzen zizkieten bitartean sukaldean errezatzen zuten.

455. Xaboia, olio, azukrea eta abar errazionamenduan (ORD-029/018)

Errazionamendua xaboi, olio, azukre eta abarrekin egiten zen. Ogia eta olio oso kalitate txarrekoak ziren. Alejandro etxe onekoa zen eta ez zuen sekula goserik pasa, baina lagunak bai. Estraperloa dendariak eta gutxien uste zenak egiten zuten: komeriak izaten ziren ezkutuan jana eramaten.

456. Eguneroko otorduetako jakiak (ORD-029/019)

Eguneroko otorduetan babarrun gorria eta garbantzuak jaten zituzten. Sardina eta antxoak kalean saltzen zituzten.

457. Txerria hildakoan txorizo eta odolkiak (ORD-029/020)

Kalean baratzea zuten eta etxean ukuilu txiki batean txerri eta oiloak. Odolki eta txorizoak etxean egiten zituzten eta ezagun eta senitartekoei partitzeko ohitura zegoen. Arrautzak karez nahastuta kontserbatzen zituzten.

458. Asteazkenetako azoka egun osokoa (ORD-029/021)

Orduko Ordiziako azokara trenez joan ohi zen jendea goizean goiz eta egun osokoa izaten zen. Emakumeak etxera joaten ziren eguerdirako. Azokako postuen banaketa azaltzen du. Ganadu ugari izaten zen eta arratsaldean idi-proba egiten zuten salerosketako idiak probatzeko.

459. Jostunek neurrira egindako arropak (ORD-029/022)

Arropak jostunek egiten zituzten neurrira, azokan ez zen arropa asko izaten. Saltzaileak inguruko herrietatik eta kanpotik ere hurbiltzen ziren. Tratante dirudun ugari izaten zen azokan.

460. Argia eta ura beti etxean (ORD-029/023)

Argia eta ura beti izan zuten etxean. Ordizia ondo prestatuta zegoen ur arazorik izan ez zedin. Haize pixka bat eginez gero, argi posteak hondatzen ziren. Argindar etxeak aipatzen ditu. Donostian estropadak izaten zirenean irratitik entzun ohi zituzten tabernaren batera hurbilduta. 15 urte zituela ezagutu zuen lehenengo irratia etxean. Irratsaioak gaztelaniaz izaten ziren.

461. Tabernetara sartzen hasi zirenekoa (ORD-029/024)

17-18 urterekin hasi ziren tabernetara joaten. Ardoa eta kopa edaten zen gehienez. Ordizian taberna ugari zegoen. Etxean ez zen telebistarik izaten eta tabernetan elkartzen ziren lagun artean.

462. Santa Ana jaiak (ORD-029/025)

Ordiziako Santa Ana jaiak aipatzen ditu. Helduan dantza egitea Itsasondan debekatua zegoen eta Ordizian libre. Burgosko banda militarra joaten zen Ordiziara. Santiago egunez txirrindulari lasterketa sonatua izaten zen. Inguruko herrietako festetara bizikletaz joaten ziren.

463. Estraperloko irin bila errotara (ORD-030/002)

Ordiziako errota aipatzen du. Alejandro eta etxeakoak estraperloko irin bila joaten ziren errotara etxean ogia egiteko. Ordizia herri aberatsa zen.

464. 28 urterekin ezkondu zen Ordizian (ORD-030/003)

Andregaia 24 urterekin ezagutu eta 28rekin ezkondu zen, Zaldibiakoa zen eta nola ezagutu zuen azaltzen du. Ordizian ezkondu zen, eta tabernan ospatu zuten. Emakumeak zuriz eta gizonak trajez ezkontzen ziren. Ezkon-bidaian Iruñea, Zaragozara eta Madrilera joan ziren.

465. Lehenengo aldiz talgo trena pasa zenekoa (ORD-030/004)

Lehenengo aldiz talgo trena pasa zenekoa aipatzen du. Lantegietako materiala trenez garraiatzen zen. Lehenengo autoa osaba batek saldu zien; gutxi ziren orduan autoa zutenak.

466. Ordiziar eta beasaindarren arteko pikea (ORD-030/007)

"Ordizia" eta "Villafranca" izenen aipamena. Ordizia eta Beasaingo arteko pikea.

467. Zinea gaztelaniaz erreal batean (ORD-030/008)

Gerra denboran Ordiziako zinea itxita egon zen eta Beasainera joaten ziren. Erreal bat balio zuen sarrerak eta arratsaldean izaten zen. Pelikulak gaztelaniaz izaten ziren. Meza latinez izaten zen.

468. Azokara gaztainak saltzera (ORD-031/014)

Gaztaina garaian, 600 kilo inguru azokara saltzera eramandako egunak izaten zituzten eta askotan saldu gabe atzera etxera eraman behar izaten zituzten.

469. Otorduetako jatekoa (ORD-031/015)

Gaztainak danbolinean erreta eta egosita ere jaten zituzten. Taloa egunero jaten zuten, txerriarekin edo esnetan bustita.

470. Azoka egunez; idi-probak (ORD-031/016)

Ordiziako azokara ganadu asko eramaten zen saltzeko. Nafarroatik ere joaten ziren saltzaileak. Azokara jaisten zirenean, okindegitik ogia eramaten zuten. Kanean sardina eta antxoa saltzaileak ibiltzen ziren. Azoka egun osoan egoten zen eta pilotaleku ondoan idi-probak egiten ziren.

471. Hileko soldata amari entregatu behar (ORD-031/017)

15 urterekin igeltseritza lanetan hasi zen Arruaberrena eraikuntza lantegian eta gero gurasoen tabernan laguntzen aritu zen. Tabernaren izena aipatzen du. 16 urterekin hasita Gaztainaga galdara lantegian aritu zen lanean zazpi urtez. Nola lan egiten zuten azaltzen du. Asteburuetan ere lan egiten zuten hasieran eta soldata astean 500 pezeta inguru izaten zen. Ezkondu artean amari entregatu behar izaten zion soldata.

472. Tabernako kontuak eta ohiturak (ORD-031/018)

Lanean ari zenean gurasoen taberna gainean pisua zuten eta bertan bizi zen. Taberna goizean goiz irekitzen zuen amak trenean joan-etorrian zebiltzanei gosariak emateko. Txikiteorako ohitura handia zegoen eta goizetik hasita anisa eta koka edaten zutenak asko ziren.

473. Lagunartean, txikiteoa eta zinema (ORD-031/020)

Lagunak Ordiziakoak zituen eta txikiteoa goizez eta arratsaldean egiten zuten. Basoerdiak 10 zentimo balio zuen. Asteburuetan kartetan aritzen ziren tabernan. Etxezarreta zinemara ere joaten ziren. Pelikulak erdaraz izaten ziren eta askotan subtitulatuak izaten ziren.

474. Euskara irakasten; "Amesbide" dantza-taldea (ORD-031/021)

Ordiziako kalean gaztelaniaz gehiago hitz egiten zen. Juanek euskarazko gau-eskola eman zien soldadutzara joan aurretik Ordiziako lagun-talde bati San Jose ikastetxean. Ez zeukan ikasketarik, baina euskararen aldeko lanetan laguntzen aritu zen. "Amesbide" dantza taldean ere ibili zen.

475. "Amesbide" dantza-taldeko partaide (ORD-031/022)

"Amesbidea" dantza-taldeko irakaslea Alegiakoa zen. Herrietako festetara joaten ziren dantzara.

476. Soldadutzara Madrilera (ORD-031/023)

21 urterekin Madrilera joan zen soldadutzara. Urtebete egin zuen bertan eta lagun euskaldunak izan zituen. Eskola politeknikoan langile berriei irakasten aritzen zen. Hileko soldata jasotzera joaten ez zirenei zigorra jartzen zieten. Kalabozoan behin sartu zuten 4 egunez. Soldadutzan ez zuen goserik pasa.

477. Erdarazko irratsaioak (ORD-031/027)

Arropak labaderoan garbitzen zituzten auzoko baserri ezberdinetakoek. Auzoan telefono bat zuten denentzat. Irratia ezagutu zuen etxean eta erdarazko irratsaioak entzuten zituzten; aipatu egiten ditu.

478. Etxerako bidea 1975ean egin zutenekoa (ORD-031/028)

Juanen etxerako bidea 1975-1976 inguruan egin zuten auzokoen artean. Anekdotak bat kontatzen du. Ez zuten diru-laguntzarik jasotzen.

479. Gurutzeak ateetan, tximisten aurka (ORD-031/030)

Urkia auzoan meza igandero izaten zen; Hernialdeko apaiza egon zen bertan. Konfesatzera hilen behin joaten ziren. Etxean egunero errezatzen zuten arrosarioa iluntzetan, negu garaian arta zuritzeko garaian. Erramu hostoz gurutzeak egiten ziren etxean tximistari izan ez zedin eta lur-sailetan eta etxeko ateetan jartzen ziren.

480. Osasuna zaintzeko moduak (ORD-032/001)

Amak egiten zituen etxerako botika batzuk aipatzen ditu, eta zertarako erabiltzen ziren azaltzen du. Gaixotuz gero, medikua etxera joaten zen. Zein ziren medikuak aipatzen du. Gertueneko ospitalea Donostian zegoen. Anbulantziarik ez zegoen. Haurdun zeudenek etxean izaten zituzten umeak.

481. Urkiko festak (ORD-032/002)

Urkiko festak noiz izaten ziren aipatzen du. Taberna egoten zen. Musika eta erroskilazalea izaten ziren han. Herri-kirol gutxi egoten zen: pilota-partiduak eta bertakoren bat aizkorarekin erakustaldia egiten.

482. Erromeriak eta giroa (ORD-032/003)

Erromeria arratsaldetik iluntzera arte. Dantza lotua debekatuta zegoen garaia ezagutu zuen. Ez zegoen zigorrik, apaizak errietaren bat egiten zuen bakarrik.

483. Erromerietan dantzan (ORD-032/004)

Erromeria iluntzean bukatzen zen. Dantza egiteagatik ez zuten ordaintzen, baina borondatea emateko kutxa bat bazegoen.

484. Ordiziako festetako karrozak (ORD-032/005)

Ordiziako festetaz hitz egiten du. Karrozak egiteagatik, ordaindu egiten zizuten. Nola egiten zituzten karrozak, eta diru harekin zer egiten zuten.

485. Kuadrillako ohiturak festetan (ORD-032/006)

Kuadrillan 30 urtean atera izan dira herriko festetan. Zer janzkera izaten zuten kuadrillan azaltzen du. Non bazkaltzen zuten. Egun hartako musikaz, bandaz, hitz egiten du.

486. Puntako kirolariak Ordizian (ORD-032/008)

Santiago eguneko txirrindulari proba aspaldikoa dela dio. Zer-nola aldatu den denborarekin azaltzen du. Tourraren ondorioz, asko galdu duela esaten du. Espainiako boxeolari onenak ere Ordizian egiten zituzten borrokak. Ordizian bazegoen futbol-taldea "Ordizia/Villafranca Unión Club". Pikea egoten zen Beasainekin lehen, baina gaur egun ez.

487. Ordiziako industria (ORD-032/010)

Ordiziako industriak aipatzen ditu: arotz-tailerrak, inmobiliariara dedikatutakoak, kaldereriak... CAFi buruzko aipamena egiten du.

488. Emaztea ezagutu zueneko eta ezkontzako kontuak (ORD-032/011)

Ordizian ezkondu zen, Ordiziako emakume batekin. Lagunartean ezagutu zuen. Orduko bodak gaurkoak bezalakoak zirela dio: 150 bat lagun izan ziren, eta Martinezenean egin zuten banketea. Eztei-bidaia Espainian zehar egin zuten.

489. Autoa eta gidabaimena (ORD-032/012)

Autoa 23 urterekin erosi zuen lehenengo aldiz. Izandako kotxeak aipatzen ditu. Gidabaimena orain bezala ateratzen zen. Autoak ez ziren merkeak izaten. Bizikletaz baino, nahiago du oinez ibili.

490. Bertsoak familian eta herrian (ORD-032/014)

Osaba bat eta lehengusu batzuk ibiltzen ziren bertsotan, baina bera ez. Osabari buruz hitz egiten du. Ordiziako tabernetan bertsotan ibiltzeko ohitura gutxi zegoen. Klean saltzen ziren bertso-liburuxkak.

491. Kantu-eskean ibiltzen zirenekoa (ORD-032/015)

Urtero ateratzen ziren kantu-eskean. Umetan baserrietatik; eta gaztaroan, gauez, Urkian, eta mendian. Zer abesten zuten aipatzen du. Santa-eskean gutxi atera izan da. Nola ateratzen ziren azaltzen du. Dirurik ez zuten askorik ateratzen.

492. Euskaraz asko egiten da Ordizian (ORD-032/020)

Ordizian orain lehen baino euskara gehiago egiten da. Lehen oso gutxi egiten zen. Bere adineko jendeak ere euskara asko egiten du. Goierrri inguruko euskararekiko alderik ez du nabari. Etxean hika egiten zuen eta du anai-arrebekin. Gurasoekiko tratuan, ordea, denek zuka. Apaizari ere zuka.

493. Orduko janzkera (ORD-033/011)

Arropak eskuratzeko, Ordizian edo Tolosan dendatik erosi edo jostunei tela eramaten zitzaien egiteko. Abarkak etxean erabiltzen zituzten eta bestela gomazko zapatak.

494. Goizez neskame, arratsalde z jostun ikasle (ORD-033/012)

Eskola utzi eta gero, goizez etxe batean neskame eta arratsaldeetan josten ikasten aritzen zen, eta gutxitan joaten zen etxera. Nagusi erdaldunak zituen.

495. Lasarteko taberna batean zerbitzari (ORD-033/013)

Tolosan neskame egon zenean lagunak joaten zitzaizkion igande arratsaldeetan. Jostun irakaslea izendatzen du. Josten ikasten bukatu eta Lasarteko taberna batera joan zen zerbitzari lanetara eta hiru urte egin zituen bertan. Denetik egiten zuen tabernan, jende ugari joaten zen. Soldata urria irabazten zuen.

496. Igandeetan dantzara edo zinera (ORD-033/014)

Lagunekin Tolosako arboladi batera joaten zen eta dantza egiten zuten. Zinemara ere joaten ziren. Zinea erdaraz izaten zen. Beasainera trenez joaten ziren. Altzagara festara joan zireneko pasadizoa kontatzen du.

497. Helduan dantza egitea debekatua (ORD-033/015)

Erromerietan dantza egitea debekatua zegoen, eta eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten. Erromeria goiz hasten zen; arratsaldean "aimariatako" kanpaiak jotzen zuenean etxeratzen ziren.

498. Arropa eta etxe garbiketa (ORD-033/017)

Amak bizikleta nola erosi zien aipatzen du. Bi baserri zituzten eta bizi ziren baserrian soilik zuten argia eta ura. Arropak garbitzea barrinoietan egiten zuten. Xaboa etxean egin izan zuten. Lurra argizariz garbitzen zuten asteburuetan. Gorostiz egindako erratzak izaten zituzten. Koltxoiak ardi-ilez eginak izaten ziren, eta bi urtez behin astindu egiten ziren harrotzeko. Lihozko (linuzko) maindireak izaten zituzten.

499. Tximista eta gaitzen aurka jartzen zirenak (ORD-033/018)

San Juanetan lizarra jartzen zen atean, eta lur-sailetan baita eguzki lorea eta gurutzeak ere gaitz eta tximisten kontra. Fede handia zuten eta igandero joaten ziren mezara Baliarrainera edo Legorretara goizeko zazpietarako, farola hartuta. Meza latinez izaten zen eta elizako jendeari bizkarra emanda, aldarera begira, egoten zen apaiza.

500. Mariatarren kongregazioa (ORD-033/019)

Mariatarren kongregazioan egon zen eta hilean behin jauna hartu eta konfesatzera joaten ziren. Jaunartze txikia eta handia Baliarrainen egin zituen. Jauna hartzera baraurik joan behar izaten zen. Otorduetan egunero errezatzen zuten arrosarioa eta bertsotan eta ipuinak kontatzen aritzeko ohitura zuten.

501. Meza ostean erosten zuten egunkaria (ORD-033/020)

Etxean bazituzten ipuinak, sorgin kontuak aipatzen ziren. Igandeetan hartzen zuten egunkaria mezara joandakoan. Irratia bazuten etxean eta musika eta albisteak entzuten zituzten. Erdaraz izaten ziren irratsaioak. Telefonorik ez zen etxeetan eta Baliarraingo tabernara joan behar izaten zen deiak egiteko.

502. Emakumerik ez tabernara (ORD-033/021)

Emakumerik ez zen tabernara sartzen. Kalera jaisten zirenean erdaraz egin behar izaten zuten eta kaletarrek barre egiten zieten.

503. Gaixotuz gero, medikua etxera (ORD-033/023)

Norbait gaixotuz gero medikua joaten zen etxera, Legorretako medikua. Gertueneko ospitalea, Beasaingo klinika zen. Emakume gehienek haurra etxean izaten zuten. Bere haurdunaldiko esperientzia aipatzen du.

504. Mutil-laguna ezagutu zuenekoa (ORD-033/024)

Beasaingo mutil-laguna aurkitu zuen Etxegarateko festetan lanean ari zen tabernan ezagututa. Nobiotako kontuak kontatzen ditu; astean behin ikusten zuten elkar.

505. Baliarrainen ezkondu eta Asturiasera bidaia (ORD-033/025)

Baliarrainen ezkondu zen, soineko zuriz, eta alkilatutako kotxe batean joan zen. Ezkon-bidaian Asturiasera joan ziren koinatuaren kotxean. Ezkondu ondoren Ordizian jarri ziren bizitzen eta hiru seme-alaba izan zituzten.

506. Medikuei eta albaitariei berorika (ORD-034/012)

Medikuari eta albaitariari "berorika" hitz egiten zitzairen eta agurtzeko txapela kentzen zen.

507. Haragia mantentzeko, gazi-kutxa (ORD-034/013)

Txerriak eta haragia gatzetan igurtzita kutxa batean gordetzen zuten eta handik ateratakoan zintzilika sukaldean jartzen zuten lehortzen. Garai hartan errazionamendua zegoen eta kartila batzuk ematen zituzten familiaren aberastasunaren arabera.

508. Errazionamendua eta estraperloa (ORD-034/014)

Estraperlotik jende asko aberastu zen. Caf lantegian 15 urterekin zuen soldatarekin ezin zen litro bat olio erosi. Estraperloko jakiak Nafarroa aldetik ekartzen zituzten gauez. Tabakoa ere errazionamenduan hartzen zen; estraperlokoa, bestalde, oso garestia izaten zen.

509. Tabako motak eta pipa (ORD-034/015)

Tabako mota ezberdinak aipatzen ditu. Pipa gutxik erretzen zuten. Feliperen aitona zen gutxi horietako bat eta txapelean gordetzen zuen pipa.

510. 15 urterekin CAF lantegira lanera (ORD-034/017)

Fraide Benezianoek gerratea bukatu aurretik alde egin zuten eta orduan hasi zen Felipe CAF lantegiko eskolan. 15 urterekin lantegian bertan hasi zen lanean, aprendiz moduan. Limarekin egiten zuen lan asko. Gau-eskolan ere ibili zen soldadutzara joan arte.

511. Soldata amari entregatu behar (ORD-034/018)

Lanean irabazten zuen soldata. Irabazitakoa amari entregatu behar izaten zion. Soldata ordaintzeko txartel batzuk ematen zizkieten eta asko ibiltzen ziren haiek faltsifikatzen etxean ohartu ez zitezen. Diru premia handia zegoen.

512. Ordiziako lantegiak (ORD-034/019)

Ordiziako lantegi ezberdinak aipatzen ditu. CAF lantegiaren eraginez kanpotar ugari etorri zen Ordiziara bizitzera.

513. Azokara sagarrak eta barazkiak saltzera (ORD-034/020)

Feliperen etxekoek sagasti ugari zituzten, eta azokara saltzen zituzten sagarrak barazkiekin batera. Gurdia bete eta zaldiz joaten ziren. Azokako postuak lurrean jartzen ziren. Azoka eguna baserritarrentzat garrantzitsua izaten zen, goizeko 6etarako joaten ziren eta iluntzera arte izaten zen. Anekdotak bat aipatzen du.

514. Azokara saltzera autobusez (ORD-034/021)

Azokara saltzera joaten zirenek ateratzen zuten dirua etxerako jeneroa erosteko erabiltzen zuten. Kanean bertsopaperak ere saltzen zituzten. Saltzaileak inguruko herrietatik eta Azpeititik ere joaten ziren eta autobus gainean eramaten zuten azokan saltzeko jeneroa.

515. Azoka egunez idi-probak (ORD-034/022)

Azokara joaten ziren gizonezkoak bertan geratzen ziren bazkaritan eta mahai ondoan egiten zituzten ganadu tratuak; emakumeak, aldiz, eguerdian etxera joaten ziren. Arratsaldeetan, ganadua saltzen bazen, ganadu plazan probatzen zituzten harria lotuta. Idi-probak egiten ziren eta apusturako zaletasun handia zegoen.

516. Aizkora apustuak eta Ordiziako festak (ORD-034/023)

Azoka egunean eta egun berezietan aizkora apustuak egiten ziren Ordizian. Ordiziako festen aipamena egiten du. Kotxe eta motorrik ez zuen inork eta bizikletan ibiltzen ziren alboko herrietako festetara joateko. Bi erreal ordaintzen zituzten bizikleta gordetzeagatik. Ordiziara Burgosko banda militarra etortzen zen jaietan.

517. Kizkitza, Larraitz eta Saturdiko erromeriak (ORD-034/024)

Frontoian berbena egiten zen eta sarrera ordaindu behar izaten zuten. Apaizek ez zuten ondo ikusten berbena. Larraitzeko erromeriara eta Zaldibiako Saturdi auzora joaten ziren, besteak beste. Kizkitzara oinez joaten zirenekoa aipatzen du. Larraitzera goizeko 6etarako mezetara joaten ziren ogitartekoa hartuta. Erromeria entzun eta iluntzean bueltatzen ziren etxera.

518. Mezara igandero; ariketa espiritualak (ORD-034/025)

Mezara igandero joaten ziren. Elizak eragin handia izan zuen Feliperen adinekoekin, garai hartan dena zen bekatu eta. Urtean behin misiolari eta apaizak joaten ziren eta ariketa espiritualak zeritzenak egiten zituzten; nolakoak ziren azaltzen du.

519. Jauna hartzera baraurik joan behar (ORD-034/026)

Luistarren kongregazioan egon zen eta zer zen azaltzen du. Konfesatu egin behar izaten zuten eta zigorrak fraideetan izaten ziren arinenak. Bi jaunartze egin zituen. Jauna hartzera baraurik joan behar izaten zen eta jauna hartu nahi bazen zortzirak aurretiko mezetara joan behar izaten zen.

520. Arto-zuritze garaian kontu-kontari (ORD-034/027)

San Luis egunez edo Ama Birjina egunez, besteak beste, goizean jauna hartu eta meza nagusira joaten ziren kandela bat hartuta. Etxean arrosarioa egunero errezatzen zuten. Arto-zuritze garaian farola piztu eta familia giroan kontu-kontari aritzen ziren.

521. Ipuinak etxean; ohitura zaharrak (ORD-034/028)

Txiste eta ipuinak kontatzen zizkieten etxean. "Mateo Txistu"ren istorioa kontatzen du. Gaztaina erreak eta talo-esnea jaten zituzten arto-zuritze garaian. Erramu egunean, erramua bedeinkatu eta haiekin egindako gurutzeak jartzen zituzten atean eta kandela pizten zuten tximista eta gaitzen kontra.

522. Ur bila Usunbilako iturrira (ORD-034/029)

Argia beti ezagutu du etxean, baina urik ez zuten etxe barruan. Ura gertu izan arren ez zuten etxean urik eta Usunbilako iturrira joan behar izaten zuten. Neguan ura sutan berotzen zuten garbitasunerako.

523. Umetako janzkera eta higieena (ORD-035/001)

Umetan nola janzten ziren azaltzen du. Dutxarik ez, errekan garbitzen ziren. Arropa nola garbitzen zuten azaltzen du. Felipe berak autoritate pixka bat izan zuenean etxean, dena berritu zuen, hainbeste lan egin behar ez izateko.

524. Lurra nola garbitzen zuten (ORD-035/002)

Lurra nola garbitzen zuten azaltzen du. Sabaitik zikinkeriarik ez erortzeko zer egin zuten kontatzen du.

525. Baserriaren deskribapena eta kokapena (ORD-035/003)

Baserria oso handia zen. Barruko aldea nola zegoen banatuta azaltzen du. Inguruan bazeuden baserriak, baina 300-400 metrora.

526. Soldadutzan ematen zieten tratua (ORD-035/006)

Soldadutzara 21 urte zituela joan zen; 15 hilabete egon zen han. Ondo pasa zuen, baina militar jendeak ematen zuen tratuarekin oso amorratuta bueltatu zen. Soldadutzako kide bai umiliatu zuteneko anekdota kontatzen du.

527. Soldadutzako lana eta etxerako baimenak (ORD-035/007)

Soldadutzan bazegoen euskaldun jendea ere berarekin batera. Izkribatzaile-lanetan ibili zen. Etxera bueltatzeko baimenak bazituzten, hilabete etxean eta hilabete soldadutzan ematen zuten. Eta etxean zeuden bitartean, lan egiten zuten, irabazitako dirua soldadutzan zeuden bitartean gastatzeko. Soldadutzan bi erreal kobratzen zituzten.

528. Soldadutzan zigorrik ez, baina oroitzapen on bakarra: lagunak (ORD-035/008)

Kalabojoan ez zen inoiz egon, eta ez zioten tratu txarrik eman. Goserik ez zuen pasa. Kalera gutxi jaisten ziren. Soldadutzako oroitzapen on bakarra han egindako lagunak dira. Beste ezer positiborik ez.

529. Lana eta lagunak (ORD-035/009)

Soldadutzatik bueltatu, eta CAFen jarraitu zuen lanean. Han egin du lan erretiratu den arte. Kuadrillari buruz hitz egiten du: astean behin elkartzen ziren, igandeetan.

530. Aisialdia (ORD-035/010)

Zineaz hitz egiten du. Dena erdaraz egiten zen. Eskolan euskaraz eginez gero, burlak jasotzen zituzten. Lagunartean, euskaraz egiten zuten. Parrandan ateratzean, beti kantari ibiltzen ziren.

531. Bertso-giroa gaztetan (ORD-035/011)

Bertsotan ona zen lagun batez hitz egiten du. Lazkao Txikiren laguna zen hura. Ordizian ez ziren bertso-jaialdi asko egiten, eta noiz ospatzen ziren eta nork parte hartzen zuen aipatzen du. Jaialdi horietan izaten zen polemikaz hitz egiten du.

532. Opariak kantatzen (ORD-035/013)

Urrestillara "ezteietara" joan zenekoa kontatzen du. Txekorra hil, hura jan, eta, gero, hango bakoitzak kantatu egin zuen zer opari eman zion bere alabari.

533. Norbait hiltzean, izaten ziren ohiturak (ORD-035/014)

Norbait hiltzen zenean, zer ohitura izaten zituzten azaltzen du: bazkari berezia, janzkera, elizako kanpaiak...

534. Diskriminazioa Elizan (ORD-035/015)

Elizan zer diskriminazio zegoen azaltzen du: zenbat diru, halako meza.

535. Ehorzketa zibila (ORD-035/016)

Elizara joaten ez zen gizon bat hiltzean, ehorzketa zibila egin zioten. Inork ez zuenez eraman nahi gorpua, ordaindu egin zuten hori egiteko. Gorputzaren atzetik joan ziren gizonak isun izugarria ordaindu behar izan zuten. Bedeinkatu gabeko lurretan lurperatu zuten gero.

536. Ardi-ilez egindako koltxoiak (ORD-036/011)

Koltxoiak ardi-ilez egiten zituzten eta "koltxonerak" aritzen ziren lan horretan.

537. Eskolara Astigarretara (ORD-036/012)

Eskolara Astigarretara joan zen, baina ume-zain eta etxeko lanetan aritu beharrak ez zion asko ikasten utzi. Irakasleak kanpotik joaten ziren eta dena gaztelaniaz ikasten zuten. Irakurtzen, matematika eta dotrina ikasten zuten nagusiki. Adin ezberdinetakoak batera joaten ziren.

538. Umetako jolasak (ORD-036/013)

"Azuketan" ibili eta eskolara berandu joanez gero, zigorra jasotzen zuten. Kaniketan, "txangoka", sokasaltoan... jolasten zuten. Arto-buruari trapua sartu eta panpina modura erabiltzen zuten.

539. Dotrina jakiteagatik, txartela (ORD-036/016)

Jaunartze handia Itsason egin zuen, 13 neska-mutilekin batera. Egunero dotrinara joaten ziren. Urtean behin "pazkoakoa" deiturikoa izaten zen: apaizak dotrinako lezioa hartzen zien eta ondo esanez gero, txartela ematen zien. Jaunartzea egiteko Mariatarren kongregazioko zinta eramaten zuten.

540. Dantza lotuan egiteagatik kongregaziotik kanpora (ORD-036/017)

Mutilekin dantza egiteagatik kongregaziotik botatako neska baten aipamena egiten du. Jaunartzea egiteko baraurik joan behar izaten zuten.

541. Arrosarioa egunero erreztatu behar (ORD-036/018)

Egunero aitonak erreztatzen zuen arrosarioa etxean, behiak jetzi eta artozuritzeko garaian. Ardi-ilea galtzerdiak egiteko erabiltzen zuten. Erramua bedeinkatzen zuten eta ateetan adarrekin egindako gurutzeak jartzen zituzten tximista eta gaitzen aurka.

542. Zerbitzari lanetan aritua (ORD-036/019)

20 urterekin Castillo hotelean hasi zen sukaldaritza ikasten eta ondoren zerbitzari lanetan aritu zen. Jaizkibel jatetxea ireki zuteneko ospakizuna aipatzen du. Donostian ere ibili zen lanean Urbia tabernan. Trenez joaten zen Donostiara.

543. Ordiziako azoka (ORD-036/020)

Asteazkenetan Ordiziako azokara joaten ziren, astoa hartuta, eta bazkaltzen bertako taberna batean geratzen ziren. Autobusa jarri zutenean Mandubitik zehar joaten zen eta, tokirik ez bazegoen, autobus gainean joaten ziren. Azokara "rekarderak" joaten ziren Irun, Donostia eta inguruetatik eta jeneroa erosten zuten gero han saltzeko. Emakumeek ez zuten ohiturarik tabernara sartzeko.

544. Erromeriak; igandeetan bezperetara (ORD-036/021)

Rafaela eta lagunak Murumendira eta Mandubira joaten ziren erromeriara. Igandeetan derrigorra izaten zen bezperetara joatea. Helduko piezarik ez zen jotzen, soltean bakarrik dantza egiten zuten.

545. Kalera joateko, alpargatak kendu eta zapatak jantzi (ORD-036/022)

San Pedroetan zetazko soinekoa, Ostegun Santuetan trajea, eta San Martinetan abrigoa janzten zuten. Alpargatak erabiltzen zituzten normalean, baina kalerako oinetakoak aldatzen zituzten, eta zapatak janzten zituzten etxe atari batean. Behin zapatak lapurtu zizkioteneko anekdota kontatzen du.

546. Kizkitzako erromeria (ORD-036/025)

Kizkitzako erromeria goizetik hasten zen mezarekin eta arratsaldean dantzan aritzen ziren soinuarekin. Etxetik Kizkitzara bide luzea zegoen.

547. Zapatak ez hondatzeko etxera oinutsik (ORD-036/027)

Matxinbentara erromeriara joan zeneko pasadizoa kontatzen du: zapatak ez hondatzeagatik etxeraino oinutsik joan zen. Tornasol gabardina koloredunak janzen zituzten, eta haiek euritan hondatzeak pena izugarria ematen zien.

548. Ezkontza Itsasoko Alegian (ORD-036/029)

Itsasoko Alegia auzoan ezkondu ziren eta Ordizian egin zuten bazkaria. Ezkonbidaian Madrilera joan ziren trenez eta Ordiziako ezagun baten pentsioan egon ziren.

549. Apaiz eta medikuei berorika (ORD-036/030)

Ordizian gehienek gaztelaniaz egiten zuten. Ramoniren senarrak ere halaxe egiten zuen lagunekin. Senideen artean hika egin arren gurasoekin zuka egiten zuten. Kargu handikoei berorika egiten zieten.

550. Mandubitik Azpeitira hizkera ezberdina (ORD-036/031)

Mandubitik Azpeitia aldera antzematen zuten hizkeran aldaketa. Itsaso garai batean Azpeitikoa zen; gaur egun Ezkio eta Itsaso bat eginda daude. Astigarretan baserri gutxi zegoen.

551. Gerra garaiko kontuak (ORD-036/032)

Gerra garaiko bizipenak. Ioiako gainetik Mandubira pasatzen ziren kanoikadak, eta zuloak nola egiten zituzten azaltzen du. Karlistek etxeko ardi guztiak eraman zizkieten. Goserik ez zuten sekula pasa. Amak ehiztari eta apaiz ugariri ematen zien jaten, sukaldari ona zen.

552. Oilo-zain ibiltzen zenekoa (ORD-036/033)

Rafaela oilo-zain egoten zen; pasadizo bat kontatzen du. Oilalokak saskian egiten zituen arrautzak kalera saltzen zituzten. Txekorrak saltzen zituzten Ordiziako harategi batera eta diru pixka bat ateratzen zuten haien salmentatik.

553. Auzotarrentzat telefono bakarra (ORD-036/034)

Etxean irratia piztu eta hango soinu-hotsarekin ikasi zuten etxeko guztiek dantza egiten. Telefonorik ez zuten etxean, baina zerbait pasatuz gero, Astigarretan zegoen telefona. Pasadizo bat kontatzen du.

554. Garraiobide bakarra bizikleta (ORD-036/035)

Bizikletaz moldatu behar izaten zuten. Rafaelaren etxean anaiak soilik zuen motorra eta ez zuten kotxerik. Senarrak ere oinez edo bizikletaz egin behar izaten zuen Salbatoretik Rafaelaren etxerainoko bidea.

555. Etxean untxi, txerri eta ahuntzak (ORD-037/014)

Patxiren etxean, San Bartolome auzoan, untxi, ahuntz eta txerriak zituzten. Etxe azpian ikuilua zuten eta baratzea ere bazuten. Artoa eta babarruna egiten zuten eta ama joaten zen azokara haiek saltzera.

556. Aita itsutu zitzaionekoa (ORD-037/015)

Gerra garaian Caf-en bonbak egiten zituztenean bonba bat lehertu eta aita itsutu zitzaionekoa kontatzen du.

557. Azokako "rekarderak" (ORD-037/016)

Iluntzean plazara joaten zen amari saldu beharreko zakuak uztera. "Rekarderak" trenez joaten ziren azokara Tolosa eta Goierri ingurutik produktuak erostera gero beraiek saltzeko.

558. Txerri-hiltze eguna (ORD-037/018)

Etxean txerriak eta ahuntzak hazten zituzten eta kumeak plazara saltzen zituzten. Txerria hiltzera harakin bat joaten zitzairen etxera eta festa egiten zuten. Amak eta Patxiren izebak egiten zituzten txorizo eta odolkiak. Txorizo ezberdinak izendatzen ditu. Gero ohitura zen auzoko etxeetara banatzea. Txerriak freskeran kontserbatzen zuten gatzetan eta piper-hautsa emanda jartzen zituzten lehortzen.

559. Otorduetako jakiak (ORD-037/019)

Patxiren amak taloak egiten zituen eta gosaltzeko huraxe jaten zuten. Otorduetan barazkiak, zopa eta potajea jaten zituzten eta asteburuetan arroza, xerra eta arraina izaten ziren jaki berezia. Arrain ezberdinak izendatzen ditu; kaleko saltzaileek saltzen zuten arraina.

560. Estraperlora bizikletaz Nafarroara (ORD-037/020)

Ordiziako errotak izendatzen ditu. Guardia zibilak egoten ziren zain eta haiek irinaren hainbesteko bat kentzen zuten. Estraperlo garaian Patxiren aita bizikletaz joaten zen Nafarroara patata eta beste gai batzuk ekartzera. Estraperloan hartutako jeneroa saldu egiten zuten. Errazionamendu garaian denda guztiek kartila bat izaten zuten eta etxean bizi zen jende kopuruaren arabera hainbesteko kopuru bat ematen zieten.

561. Ura ur-putzutik ateratzen zuten (ORD-037/021)

Argia beti izan zuten etxean eta ura lortzeko ur putzua zuten etxe ondoan. Lau garbitoki zeuden Ordizian eta han garbitzen zituzten emakumeek arropak. Erreka zikindu zenean sortutako gaixotasun baten aipamena egiten du eta arreba gaixotu zenekoa kontatzen du.

562. Meza eta bezperak derrigorrezkoak (ORD-037/024)

Mezara eta igandetako bezperetara joatea derrigorra izaten zen. Ama oso elizkoia zen; etxean izeba lekaime asko zituzten. Arrosarioa jatorduen ondoren errezatzen zuten egunero. Tximistaren aurka ateetan gurutzeak eta erramua jarri ohi zituzten.

563. 10 urte zituela etxea erre zitzairen (ORD-037/025)

10 urte inguru zituela etxea erre zitzaienekoa kontatzen du.

564. Gerra eta gosea (ORD-038/003)

Bonbak ezagutu zituzten. Gose handia pasa zuten kalekoek, baina baserritarrek ez. Herrian izan ziren pertsona gizen bakanak aipatzen ditu. Zer jaten zuten azaltzen du.

565. Ordiziako fabrika zaharrak (ORD-038/004)

Ordiziako fabrika zaharrak aipatzen ditu: altzari-fabrikak, xaboi-fabrika, txokolategia, aitzogintza-fabrika... Sagardotegi bat aipatzen du.

566. Ordiziako denda txiki zaharrak (ORD-038/005)

Ordiziako denda zaharrak asko eta txikiak zirela dio. Banan bana aipatzen ditu: arropa-dendak, etxeko arroparako dendak, fruta-dendak, okindegiak, bizartegiak, jostunak... Arropan zuloa egitean, nola moldatzen ziren aipatzen du.

567. Taberna eta sagardotegi zaharrak (ORD-038/006)

Taberna zahar asko eta txikiak izan zirela dio. Lehen sagardotegi ugari zeudela dio, eta banan bana aipatzen ditu.

568. Sagardotegiko ohiturak lehen (ORD-038/007)

Lehen sagardotegira gizonak joaten ziren, eta etxetik eramaten zuten jatekoa.

569. Tabernetako ohiturak lehen (ORD-038/008)

Ez zegoen ohiturarik tabernan jateko, orduan apopiloek bakarrik jaten zuten bertan. 60ko hamarkadan hasi zen hori aldatzen. Emakumeak ez ziren inoiz sartzen tabernatan.

570. Tabakoa nola erretzen zen (ORD-038/009)

Gizon gehienek erretzen zuten zigarroa lehen. Bildutako zigarroak erretzen zituzten, eta paperik ez zegoenean, pipa erretzen zuten. Baina pipa zaharrek normalean.

571. Kuadrillako giroa (ORD-038/010)

Kuadrillako giroaz hitz egiten du. Asteaz zehar ez ziren ikusten. Asteburutan elkartzen ziren. Zinera edo futbolera joaten ziren, "Puerta del Sol"en elkartzen ziren 50 bat mutil. Inguruko herrietara joaten ziren.

572. Erromeriak eta bertako giroa (ORD-038/011)

Ordizian egiten ziren erromeria batzuk aipatzen ditu. Dantza egitea bazegoen, baina ez askatasunez, bestela (neskak behintzat) kongregaziotik botatzen zituzten.

573. Autoa eta gidabaimena (ORD-038/013)

Normalean jendea bizikletaz ibiltzen zen. Berak autoa erosi zuenean, lehendik beste 3 auto bakarrik zeuden auzoan. Gidabaimena Donostian atera zuen, Arakaman. Zaila zen orduan gidabaimena ateratzea, Donostiako kaleak ondo ezagutu behar baitziren horretarako. Gidabaimena ateratzeko zer egin zuen azaltzen du. Autoa erosteko 50.000 pezeta ordaindu zuen.

574. Orduko txanponak (ORD-038/014)

Ze diru erabiltzen zuten azaltzen du, zenbateko txanponak zeuden. Txakur txiki eta txakur handiei buruz hitz egiten du.

575. Lehengo ezkontzak eta bere bizimodua ezkondu ostean (ORD-038/015)

Noiz eta non ezkondu zen azaltzen du. Orduko ezkontzak oraingoan antzekoak ziren, baina jende gutxiago joaten zen (familiarrekoak bakarrik). Eztei-bidaian Andaluziara joan ziren. 2 seme izan dituzte.

576. Ordiziako euskara eta euskara Ordizian (ORD-038/016)

Ordizian jende gehiagok daki euskara, baina kalean erdaraz hitz egiten da hala ere. Lehen kalean eta etxean euskaraz baina jende artean erdaraz, eta eskolan ere erdaraz. Berak zuka egin izan du beti. Aitak berari hika. Ordiziako euskarak eta Ataungoak badute diferentzia txiki bat.

577. Aitona valentziarra Oñatira ezkondu (ORD-039/002)

Joxe Mariren aitona zena Valentziatik Gasteizera etorri zen, eta bertan ezagutu zuen oñatiar batekin Oñatira ezkondu zen. Aita Oñatin jaio eta gaztetan Frantziara joan zen. Handik Ingalaterrara joan eta, Ekonomia ikasketak bukatu ondoren, Ordiziara etorri zen. Ordizian ezkondu eta bizi izan zen harrezkero. Ordiziako "CAF, Construcción y Auxiliar de Ferrocarriles" lantegian jardun zuen lanean.

578. Aita Oñatitik Ordiziara, eta osaba Ordiziatik Oñatira (ORD-039/003)

Joxe Mari sarritan joaten zen Oñatira. Bere amaren anaia batek Oñatiko botika bat erosi ondoren, bertako botikaria izan zen. Zurutuza botikariari erosi zion botika, eta berak erretiroa hartu zuenean Miren Galarza oñatiarrari saldu zion. Aita Oñatitik Ordiziara joan zen bizi izatera, eta osabak berriz, alderantziz egin zuen.

579. Loretoki etxean jaio zen Joxe Mari (ORD-039/004)

Aita Oñatiko plazako Garaikoetxea gozotegiaren gaineko solairuan jaioa zen, eta hara joaten zen Joxe Mari senideei bisitan. Ordiziako Filipinas kaleko mutur batean aitak eta amonak 1926an eraikitako etxe batean jaio zen Joxe Mari, Loretoki izeneko etxean, hain zuzen ere. Etxearen aurrealdean kale-baserri bi zeuden. Intxausti Berri baserriari erositako lur sailean eraiki zuten Loretoki etxea.

580. Aita landa eta baratze zalea (ORD-039/006)

Aita baratze zalea zen, eta landan bizitzeko gogo Ingalaterratik ekarri omen zuen. Herriaren erditik urruti eta argiztapenik gabeko parajeetan eraiki zuen etxea.

581. Kalean euskara gutxi erabiltzen zen (ORD-039/008)

Eskolan hasi aurretik, amak Xabiertxo euskal liburuarekin irakatsi zion irakurtzen eta idazten. Sei urterekin mojen eskolan hasi zen. Lehen jaunartzea egin eta gero herriko eskolan Hidalgo maisuarekin ikasi zuen harik eta batxilergoa egitera Donostiara joan zen arte. Garai hartan etxean euskaraz mintzatzen ziren, baina kalean euskaraz oso gutxi egiten zela dio Joxe Marik. Eskolan zer esanik ez, dena erdaraz zen.

582. Etxean ez, baina Donostian gosea ezagutu zuen (ORD-039/010)

Joxe Mari gaztea zenean garai ilunak bizi izan zituztela dio. Jendea beldurrez bizi zela zeritzon. Etxean ez zuten goserik pasatu, baina Donostian barneko ikasle egon zenean, errazionamenduko txartela galdu eta egun batzuk ogirik jan gabe egon behar izan zuen.

583. Txokolatea baino ogia nahiago (ORD-039/011)

Donostiako marianistetatik amari idatzitako karta bat gogoan du: amak bidalitako txokolatea eskertzen dio, baina ogia nahiago izango zuela adieraziz. Bederatzi urte zituen orduan.

584. Ordizian euskara gutxi (ORD-039/013)

Lehen jaunartzea marinel jantziarekin egiten zuten mutikoek; egun horretan gaixotu egin zenez, igande normal batean egin behar izan zuen Joxe Marik. Dotrina erdaraz ikasi zuen mojetan. Belaunaldi zaharragoetakoak euren artean euskaraz mintzatzen ziren, baina Joxe Marirenean euskara oso gutxi erabiltzen omen zuten garai haietan.

585. Asteazkenetako feria zaharra (ORD-039/014)

XV. mendean hasi ziren asteazkenetako feria ospatzen Ordizian, Juana la Loca Gaztelako erreginaren baimenarekin. Joxe Mari gaztea zenean, Ordiziako inguruetako herrietan asteko jaieguna nagusia asteazkena zen. Dotore jantzi eta Ordiziako feriara egun guztirako joaten ziren baserritarrak: goizean barazki eta jatekoen feria izaten zen, eta arratsaldean ganaduen. Igandetan ere dotore janzten ziren baserritarrak, baina meza entzuteko besterik ez.

586. Mutikotako jolasak (ORD-039/015)

Mutikotan, futbolaz edo pilotaz gain, oinetako takoi zaharrekin "a garchas" jolasten ziren; pospolo-kaxa azalekin, berriz, ardogika. Kaniketan ere jolasten zuten. Txirunba jokoan nola jolasten zen azaltzen du.

587. Marianisten zentsura (ORD-039/018)

Etiketetik ikastetxera bidaltzen zituzten paketeak maisuek gordetzen zituzten, eta eurek nahi zutenaren arabera, ikasleei ematen zieten paketeen zetorrena. Barneko ikasleak astean behin etxera gutuna idaztera behartuta zeuden. Maisuak gutunok irakurri eta gero bidaltzen zituzten.

588. Barneko ikasleen bizimodu gogorra (ORD-039/019)

Donostiako ikastetxean oso gutxi irteten ziren kalera. Urriaren 1ean sartu eta Santo Tomas egunera arte ez ziren etxera bueltatzen. Irteera bakarra Realak Donostian jokatzen zuenean partida ikustera joatea izaten zen. 13-14 urterekin Amarako errautsezko futbol zelaira joaten ziren ikastetxe arteko lehiaketetara. Hondartzara ez, baina behin edo behin portua ikustera eraman zituzten barneko ikasle denak.

589. Batxilergoaren errebalida Valladoliden (ORD-039/020)

Barneko ikasleak 60 bat izango ziren, Gipuzkoako herrietatik etorritakoak gehienak. Bederatzitik 17 urtera arte ikasi zuen Donostian. Valladoliden errebalida azterketa pasatu eta Zaragozara joan zen ikastera. Errebalida pasatzeko idatzizko eta ahozko azterketak gairak behar ziren. Udan hiru hilabeteko oporrak izaten zituzten.

590. Mendi eta txori zalea (ORD-039/021)

Eskolako oporraldietan jolasean ematen zuen denbora. Mendira joatea eta txorien atzetik ibiltzea ere gustukoa zuen. Txoriekin hasi zenean ehiztaria zen, baina laster ehiza utzi eta txoriei buruz ikasten hasi zen. 22 urterekin Aranzadi Zientzia Elkarteko bazkide egin zen.

591. Tiragomadun txorizaleak (ORD-039/022)

Bazuen lagun bat oso txorizalea zena. Biak poltsikoan tiragomarekin ibiltzen ziren. Batzuetan hiltzen zituzten txoriak etxean jaten zituzten. Justo izeneko zapataria hasi zen gomak saltzen, eta larru pusketa batekin eta "manilla" batekin egiten zituzten tiragomak.

592. Aguazilen bandoak (ORD-039/023)

Tiragomak debekatuta omen zeuden; aguazilak mutikoei zergatik kentzen zizkien azaltzen du. Errazionamenduko gauzak herriko dendatara iristen zirenean, aguazilak bandoa ematen zuen herrian zehar.

593. Dantzak eta erromeriak (ORD-039/024)

Igandero egoten zen dantza herriko plazan. Udan ostegun gauetan ere egoten zen dantza, "Arboleda"n. Larraitzen eta Ojangurengo hariztian ere egoten ziren erromeriak. Inguruko herrietako jaietara joaten ziren. Gertukoetara oinez edo bizikletaz, baina Legorreta eta urrutikoetara trenez joaten ziren.

594. Zaragozan kimikako ikasketak (ORD-039/026)

Zaragozako unibertsitatera joan zen kimikako ikasketak egitera. Bost urteko ikasketak izan ziren, baina gaixoaldi bat eta soldadutza zirela medio, zortzi urte hartu zion karrerak.

595. Mikel Laboa ikaskide (ORD-039/029)

Ikasle-egoitza, ostatu edota lagun euskaldunekin pisuetan bizi izan zen Zaragozan. Mikel Laboa ikaskidearen oso laguna izan zen bertan. Kanta zaharren bila etorri omen zen Laboa Joxe Mariren amarengana. Zaragozan kantu-parranda asko egiten zituzten Laboa eta bere gitarrarekin. Euskaldunen artean koro bat eratu zuten, eta Santa Ageda bezperan Pilarreko Katedralean hasita errondan abesten zuten. Katedralean barruan abesteko arazoak izan zituzten artzapezpikuarekin.

596. Kimikako ikasketak (ORD-040/001)

Osaba botikaria eta anaia kimikoa zituenez, berak ere kimika aukeratu zuen ikasteko. Ikasketak bukatu zituen, baina kimika munduan ez zuen jardun luzerik izan. Aranzadin hasi zen eta kimika alde batera geratu zitzaion.

597. Etxean "Laboratorios Faus" laborategia (ORD-040/002)

Etxean "Laboratorios Faus" kudeatzen zuten, eta hazteriarren aurkako pomada egiten zuten bertan, besteak beste. Anaia kimikoak Eibarren egiten zuen lan, argizari galduzko galdaketan ("microfusión"). Etxeko laborategia osaba botikariak eta aitak jarri zuten, eta aldi motz batean Joxe Marik ere bertan jardun zuen.

598. Ornitologiatik Ornodunen sailera (ORD-040/003)

Aranzadin hasieran Ornitologia saila eraman zuen, baina geroago Ornodunen saila bihurtu zen, eta Joxe Marik izan zuen haren ardura 25 urtez.

599. Hegaztiei eraztunak ipintzen (ORD-040/004)

Aranzadi hegaztiei eraztunak ipintzen aitzindaria izan zen Espainiako estatuan. Frantziako hegazti eraztuntze-estazio ofizial batekin harremanetan jarri eta Aranzadiren helbidea zuten eraztunak ipintzen hasi ziren.

600. Doñanako hegaztiei eraztunak ipintzen (ORD-040/005)

Doñanako biologia-estazioaren zuzendaria zen Tono Valverde Aranzadira etorri zitzairen eraztun bila. Harrezkero, urtero joaten ziren Aranzadikoak Doñanako hegaztiei eraztunak ipintzera. Hondarribian sare berezi batekin harrapatutako paseko txoriei ipintzen zizkieten eraztunak.

601. Sareekin txoriak harrapatzen (ORD-040/006)

Japoniar sare berezi batzuk ere erabiltzen zituzten txoriak harrapatzeko. Sareak txori motaren arabera kokatzen ziren; etxeko ortuan ere jartzen zituen Joxe Marik. Txori txikiak ere izan daitezke pasekoak, eta edozein lekutan geratu. Batzuk bertan geratuko dira eta beste batzuk Afrikara bidean egon daitezke. Iberiar penintsulan txori asko geratzen da negua pasatzera, udaberrian ipar aldera bueltatzeko.

602. Sorbeltzak Afrikara (ORD-040/007)

Sorbeltzak abuztuan hasten dira Euskal Herritik hego alderantz joaten. Eguna moztan joateak, hotzak eta janari gabeziak behartzen dituzte txoriak bizilekuz aldatzera.

603. Usoak eta oilagorrak (ORD-040/008)

Ipar aldetik honantz jaisten diren txoriak gehiago dira, hemendik hego aldera doazenak baino. Usoa eta oilagorra dira ipar aldetik etortzen diren txori ezagunenetakoak. Garai batean, usoa Euskal Herrian geratzen zen negua igarotzeko.

604. Birigarro eta zozoak (ORD-040/009)

Birigarro eta zozo asko etortzen dira neguan Alemania eta Suediatik Euskal Herrira, eta bertakoekin nahasten dira; hurrengo urtean euren sorlekuetara itzuliko dira. Txori mota batzuek denek egiten dute alde elkarrekin, baina beste mota batzuetakoek ez dute horrela egiten.

605. Euskal putreak Marokon (ORD-040/010)

Joxe Marik azaltzen du zergatik ez duten elkarrekin alde egiten txori mota batzuetako banako guztiek. Aranzadik eraztundutako putreak Andaluzia eta Marokon azaldu ziren. Ordura arte putreak hegazti sedentarioak zirelakoan zeuden. Doñanan eraztundutako koartzatxoak Hego Ameriketara azaldu ziren.

606. Txio txoria Donostiatik Parisera (ORD-040/012)

Txio motako sei gramoko txori bati Donostian eraztuna ipini, eta hurrengo egunean Parisen kontrolatu zuten.

607. Ia txori mota guztiak eraztundu dituzte (ORD-040/013)

Hegazti migratzaileak ondo ezagutzen dituzte Aranzadin. Urrian eraztundutakoak hegoaldean azalduko dira, eta udaberrian eraztundutakoek, berriz, iparralderantz joko dute. Ia txori mota guztiak eraztundu dituzte lan ezberdinetarako.

608. Europako eraztuntze-estazioak (ORD-040/014)

Gaur egun Europa osoko eraztuntze-estazioekin harremanetan daude Aranzadikoak. Gaur eguneko Europako hegazti-eraztuntze mundua Holandan dago zentralizatuta.

609. EAEko Ornodunen Atlasa (ORD-040/015)

EAEko Ornodunen Atlasa egin zuen Aranzadik: hiru probintzietako lurak 10 kilometro karratuka zatitu zituzten eta zati bakoitzean bizi diren ornodunen zerrendak egin zituzten. Txorien saila Joxe Mariren ardura izan zen. Nafarroako Ornodunen Atlasa Joxe Mariren lagun batek egin zuen.

610. Oiangu baserria eta Andres Urdaneta (ORD-041/002)

Amaren jaiotetxeari, Oiangu baserriari, buruzko azalpenak. Etxe horretan jaio zen Andres Urdaneta apaiz eta kosmografoa. Garmendia familia erretero gisa bizi izan zen baserri horretan; etxejabea Infantadoko Dukea zen. Administratzaileek Barretxe jauregian kobratzen zien errenta (dirua eta kapoi pare) San Martin Egunean.

611. Gari-lanak (ORD-041/004)

Hiru ahizpa zaharrenak Oiangu baserrira joan ohi ziren gari-lanetan laguntzera. Garia igitaiarekin ebaki eta gari-balak egiten ziren. Gero, garia eskuz jotzen zuten; nola egiten zuten azaltzen du. Garia jo ondoren, auzoko baserri bateko makinarekin garbitu egin behar izaten zen alea. Altamira baserriko gizon ibiltzen zen makinarekin, baserriz baserri. Garia garbitzeko makinak nola funtzionatzen zuen kontatzen du. Behin garia aletutakoan, etxe sarreran zegoen kutxa handi batean jasotzen zen. Ogia ere gari artean gordetzen zuten.

612. Eskolara joan aurretik, esnea partitzera (ORD-041/006)

Sei behi, idi-parea, txerriak eta astoa izaten zituzten baserrian. Behi-esnea saltzen zuten Ordizian. Eskolara joan aurretik egiten zuten esne partiketa. Marmidak astoan lotuta joaten ziren kalera. Astoak Asto Kalen lontzen zituzten, eta, gero, marmitekin ibiltzen ziren etxez etxe. Litro esneak erreala balio zuen.

613. Umetatik baserrian lagundu behar (ORD-041/008)

Egunero joaten ziren baserriko lanetan laguntzera. Alaba zaharrenak ez ziren eskolara joaten baserrian lan asko zegoen garaian. Gazteenak, eskolatik ateratakoak joan ohi ziren.

614. Eskola nazionala eta Hialgoren partikularra (ORD-041/010)

Eskolan non ibili ziren. Neskak eta mutilak aparte ikasten zuten. Irakasleak aipatzen dituzte. Ikasle asko ziren. Moja karmeldarren eskola ere bazen herrian, baina hura ordainpekoa zen. Joseba Hidalgo izenekin maisu batekin

partikularrean. Partikularra ordaintzeko zer gorabehera izan zituen kontatzen du.

615. Nesken eta mutilen heziketa (ORD-041/011)

Eskola garaiko oroitzapenak. Neska eta mutilen arteko aldea ikasketetan. Ez zuten elkarrekin ikasten. Lanbide-eskolan mutilak ziren gehiengoak.

616. Aitaren igeltsero lanak (ORD-041/013)

Aitak lantegian lan egiteaz gain, igeltsero lanak egiten zituen. Tximiniak garbitzen zituenean-eta, dirua eman beharrean patatarekin, zigiluekin... ordaintzen zioten batzuk.

617. Umetako jolasak (ORD-041/016)

Umetako jolasak: txirunba, diabolarekin, kaniketan, "al bote", tabatan, "guardias y ladrones", sokasaltoan, ardogika pospolo-kaxa azalekin... Erdaraz aritzen ziren jolasean. Auzoko neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren jolasean.

618. 'Cara al Sol' kantatu behar (ORD-041/017)

Eskola nazionallean, sartu orduko 'Cara al Sol' kantatu behar izaten zuten: gero, ateratzerakoan, berriz kantatu behar izaten zuten.

619. Kaleko jolasak (ORD-041/018)

Kalean jolas asko egiten zuten: izan ere, ez zen gaur adina trafikoa ibiltzen. "La naranja" harrapaketa eta "kantineritazka" ibiltzen ziren: nola jolasten zuten azaltzen du.

620. Txori-habi bila (ORD-041/019)

Jaietan, lau edo bost lagun txori-habia bila joaten ziren. Txoritan, tiragomarekin eta erreklamoan, nola ibiltzen ziren. Kardantxiloak (jilgero), kirrixkiletak (canario)... harrapatzen zituzten.

621. Fruituak harrapatzen ibiliak (ORD-041/020)

Umetako ibilerak. Gaztainak, sagarrak, mizpirak, hurrak... harrapatzen ibiltzen ziren. Basozainarekin, markesaren parkeko (Barrena parkeko) zaindariarekin eta udaltzainekin izandako gorabeherak kontatzen dituzte.

622. Garai bateko Ordizia (ORD-041/021)

Garai bateko Ordizia nolakoa zen. Jende guztiak elkar ezagutzen zuen. Zer aldaketa izan diren herrian. Tximista kalea nolakoa zen; non bizi ziren. Iluntze partean, kaleetan ez zen argi askorik izaten: herriko mutilek ilunpetan neskak nola beldurtzen zituzten arbiekin, kalabazekin... Frontoian, plazan edota Tximista kalean jolasten zuten.

623. Herriko denda eta tabernak (ORD-041/022)

Herrian zer denda eta taberna zeuden. Denden izenak eta zer kaletan zeuden.

624. Arrain-saltzaileak (ORD-041/023)

Arrain-saltzaileak gurdi batekin ibiltzen ziren kalez kale. Ordiziako gizon bat motorrarekin ibiltzen zen inguruko herrietan (Zaldibia, Larraitx, Orendain...) arraina saltzen.

625. Okinak (ORD-041/024)

Gerra ondorenean, ogi-saltzaile bat gurdiaekin ibiltzen zen kalez kalez "¡excl;Panadero!" deika. Geroko okindegiak: Garin, Agirre, Esnaola...

626. Barberuak eta ile-apaindegiak (ORD-041/025)

Barberuak (Beitia, Olea, Insausti...) eta ile-apaindegiak (Monika).

627. Zapatariak (ORD-041/026)

Zapatariak: Justo eliza parean eta Alda Urdaneta kalean.

628. Santa Maria kalean zazpi taberna (ORD-041/027)

Santa Maria kalean zazpi taberna zauden: Hidalgo, Gau-txori, Murua, Martinez, 'Navarro', 'El Tubo' eta 'La Anismadad'. Urdaneta kalean ere baziren taberna batzuk. Sagardotegiak.

629. Banketxe, zinema eta lantegiak (ORD-041/028)

Banco Guipuzcoano. Zinema: Etxezarreta. Lantegiak: CAF, Nadal cartonages, Apellaniz, Galarreta... Aroztegiak, karrozeriak, zerrategiak... aipatzen dituzte.

630. Aguazilak eta gauzainak (ORD-041/029)

Aguazilak eta gauzainak. Izenak aipatzen dituzte. Haien eginkizunak zein ziren. Aguazilak jotzen zuen bandoa herrian; danborra jo, herritarrei dei egin eta partea ematen zuen.

631. Jolas-orduan, lapurretan (ORD-041/030)

Umetako kontuak. Jolas-orduan, kalera ateratzen ziren, eta sagarrak, laranjak... lapurtzen zizkien baserritarrei. Eskolara bueltatzen zirenean, maisuak zigortu egiten zituen.

632. Medikua, emagina eta praktikantea (ORD-041/031)

Bi mediku ezagutu dituzte herrian: Don Juan eta Don Felix. Norbait gaixotuz gero, medikua joaten zen etxera. Luzi Zaldua zen herriko emagina. Praktikantea nor zen.

633. Soldaduak Ordizian (ORD-041/033)

Gerra hasi zeneko oroitzapenak. Garai hartan, Angeles neskame zegoen izebaren 'La Amistad' tabernen (eliza ondoan). Lagun baten etxean zegoen soldaduak, kamioietan, herrian sartu zirenean. Taberna aurrean metralladoreak jarri zituztenean, taberna itxi eta Oiangu baserrira joan ziren. Oiangu zeudela, nafarrak sartu ziren Lazkao aldetik. Itsasondoko baserri batetik kanoikadak botatzen zituzten Oiangu aldera. Gauzka horrela, Angeles eta ahizpa zaharrena Oiangu Txikira joan ziren aitona eta osabarekin.

634. Gerrako atxilotuak eta fusilatuak (ORD-041/034)

Gerra hasi zenean, hainbatek ihes egin zuen herritik. Sasoi hartan, Angeles 'La Amistad' tabernan neskame aritzen zen. Zinema zegoen tokian, kartzela jarri zuten: herriko eta inguruetakoa atxilotuak bertan sartzen zituzten. Angeles jana ematera joaten zen atxilotuei kartzelara. Gerra denborako atxilotu eta fusilatuak. Fusilatutako senide eta herritar batzuei buruzko azalpenak: Ataunen, Etxarrin, Urbanan... hil zituzten.

635. Gerraren eragina (ORD-041/035)

Zinema zegoen tokian, kartzela jarri zuten. Militarrek eskolako eraikinean egon ziren. Militarrek lerrokatzen ari zirela soldadu bati tiroak ihes egin ziola gogoratzen du. Soldaduak Araman ere egon ziren.

636. Gerra denboko beldur-giroa (ORD-041/036)

Gerra denborako giroa. Beldurra: ez zen ezer galdetzen, ez zen azalpenik ematen. Soldaduak Angeles neskame zegoen tabernara joaten ziren. Soldaduei buruzko kontuak.

637. Goserik ez (ORD-041/037)

Gerra denboran ez zuten goserik pasa. Baserrian ez zen jatekorik falta izaten: babarruna, patata, taloa... zerbait izaten zen beti.

638. Artoa errotan ehotzera (ORD-041/038)

Rosario neskabila zela, artoa ehotzera joaten zen errotara. Bizikletaz egiten zuen joan-etorria. Ibasko eta Zaldibiako errotetara joan ohi zen.

639. Etxeko bizikleta (ORD-041/039)

Bizikleta bakarra zegoen etxean. Anai-arreba gazteenek erabiltzen zuten, eta zaharrenak beti inbidiatan izaten ziren. Bizikleta Orbea markakoa zen. Rosariok dio "mutilentzako bizikleta" zela zeukan formagatik.

640. Oianguko bidea (ORD-041/040)

Oianguko bidea noiz egin zuten. Obra-hondakinekin egin zen bidea, auzolanean. Obra-hondakinen artetik txatarra biltzen aritzen zen Angeles; gero, saltzeko.

641. Libra eta erdi haragi (ORD-041/041)

Errazionamendu garaiko kontuak. Rosario eta Joseba joaten ziren harategira erosketak egitera: libra eta erdi ("tres cuarterones") eltzerako haragi eskatzen zuten bederatzi lagunentzako. Errazionamenduko kartila nolakoa zen.

642. Jatekoa (ORD-041/042)

Bakoitzak bere plateretik jaten zuen. Morokila, denek eltze batetik. Bazkalordurako: babarrunak. Afaritarako: aza patatekin edo porru-patatak. Postrerako: Josebak mendian harrapatutako sagarrak edo gaztainak. Igandetan: garbantzuak edo oiloa saltsan.

643. Garbitasun pertsonala (ORD-041/043)

Etxean ura eta argia zituzten. Ura nola berotzen zuten. Zapatuetan, etxeko emakumeak sukaldean garbitzen ziren barrinoin batean. Ez ziren mutilen aurrean garbitzen. Nesken eta mutilen arteko desberdintasunak.

644. Lagun asko etxean (ORD-041/044)

Etxea nolakoa zen. Lagun asko ziren etxean: normalean, binaka egiten zuten lo. Angeles gurasoen etxera ezkondu zen: garai hartan ohitura zen. Eguberritan, senide asko biltzen ziren etxean.

645. Emandako arroparekin (ORD-041/045)

Rosario mandatari lanetan ibiltzen zen herriko aberats batzuentzat. Trukean, arropa asko ematen zioten. Angelesek arropa horiek konpondu, eta etxeko guztientzat izaten zen arropa.

646. Mantekin egindako trajeak (ORD-041/046)

Gerra garaian, nafarrak Oiangura sartu ziren, baina, kontraeraso bat tarteko, atzera bueltatu behar izan zuten. Ihesaldian, soldaduek mantak utzi zituzten mendian. Angeles-eta mendira joan eta mantak jaso zituzten. Gero, manta horiek beltzez tindatu eta ahizpa zaharrenaren ezkontzarako trajeak egiteko erabili zituzten.

647. Arropa eta oinetakoak (ORD-041/047)

Nesken lehengo janzkera: gonak, soineak, blusak... Rosariok galtzak jantzita agertzen den argazki bat aipatzen du: garai hartan, ez zen ohikoa emakumeak galtzak jantzita ibiltzea. Aitaren eta osabaren galtzekin anaienezako galtza motzak egiten zituen Angelesek. Oinetakoak: Borceries markako larruzko botak, zolan iltzeak izaten zituzten. Apretak zuritzeko eta gehiago irauteko trikimailuak. Baserriko lanetan zebiltzanean buruan zapia eta txapel handi bat jartzen zuten eguzkitik babesteko.

648. Joskintza (ORD-041/048)

Etxean egindako arropa erabiltzen zuten. Josten non ikasi zuten: Angeles, aurrena, jostun batekin ibili zen ikasten, eta, gero, posta-truke bidezko ikastaroa egin zuen (Academia CCC); Rosario, berriz, Urdaneta kaleko Gorgo Calvo sastrerian aritu zen.

649. Ruiz lantegian eta "Korsetera"rekin ibilia (ORD-041/049)

Lau urte egin zituen 'La Amistad' tabernan neskame. Ordiziako Bicente Ruizen lantegian aritu zen beste lau urtez, bainu-gelako piezak egiten. Ruizen lanean zebilela, jostun batengana joaten zen josten ikastera, eta, asteen hiru egunetan, azoketan ibiltzen zen Felisa Garmendia "Korsetera"ren saltzaile laguntzaile moduan. Zenbat irabazten zuen aipatzen du.

650. Asteburuan, zinera eta dantzara (ORD-041/051)

Asteburuan, zinera joaten ziren. Pelikulak katalogatzeko moduak: hiru erronbokoa, bi erronbokoa... Igandetan, musika-bandak jotzen zuen plazan. Ordiziako dantzaldia bukatzen zenean, Beasaina joaten ziren korrika han beranduago amaitzen baitzen. Dantza lotuan egitea libre zen.

651. Santa Ana festak (ORD-041/053)

Garai bateko Santa Ana festak nolakoa ziren. Santa Anaren irudia erretzen zen plazan. Kalejirak egiten zen Lizarrako musika-bandaren atzetik. Danborrada eta "matutina" ere egiten ziren. Herriko kuadrillek egiten zituzten karrozak.

652. Oianguko festa (ORD-041/055)

San Inazio Egunean egiten zen Oiangun festa. Gerra aurretik hasi zen festa hori ospatzen: Hiru hamarrek elkartekoek antolatu zen aurrenekoz. Bazkaria eta erromeria izaten ziren.

653. Garai bateko Oiangu (ORD-041/057)

Garai bateko Oiangu nolakoa zen. Belardiak eta soroak ziren nagusi. Lehen, bi baserri zeuden: Oiangu Handi eta Oiangu Txiki.

654. Herriko baserriak (ORD-041/058)

Hainbat baserri aipatzen ditu: Bustuntza, Intxausti, Geresta, Zabale, Upabi, Agarre, Potxo, Granjakoa, Majori, Alkarte...

655. Ordizia eta Beasain arteko pikea (ORD-041/060)

Lehen pike handia zegoen bi herrien artean, futbola tarteko zela. Elkarri kantuak ateratzen zizkien.

656. Villafranca Unión Club (ORD-041/061)

Ordiziako futbol taldeak Villafranca Unión Club izena zuen. Josebak jokatu zuen herriko futbol taldean. Herrian futbolerako zaletasun handia zegoen.

657. Oiangura bidean norbait agertu... (ORD-041/063)

Esnetara Ordiziatik Oiangura zihoazela, bidean gizon bat izara batekin atera zitzaieneko kontuak. Gauetan, afal ondoren, gurasoak eta hiru alaba zaharrenak Oiangura joaten ziren arto-zuritsera. Bidean, beti norbait ateratzen omen zen: beldurra pasatzen zuten. Artoa zuritu, gaztainak jan eta etxera bueltatzen ziren farola hartuta.

658. "A la txirinba" jolasean (ORD-042/002)

Orduko kale-giroa oso jatorra ei zen. Konfiantza handia zegoen elkarrekin. Kaniketan, tortoloska, txirrinbolaka ibiltzen ziren. Oso ondo pasatzen zuten. "A la txirinba" ere jokatzen zuten. Esaten duenarengatik, beste leku batzuetan "txirikilan" esaten zaion jokoa da.

659. Zaldibiarrek dirudunak eta jakintsuak, tolosarrak klasistak (ORD-042/006)

Ordizia txikia zen, baina oso jatorra. Zaldibiarrek Beasainera joaten ziren Ordiziara beharrean. Zaldibiarrek oso jende jakintsua, dotorea eta diruduna izan omen dira. Ordizia oso berdina zen, ez zegoen diferentzia handirik. Tolosara ez omen ziren joaten. Hara oso ondo jantzita joan beharra zegoen. Klasistak omen ziren. Pilota partidak ikustera joaten ziren hala ere.

660. Oso kirolzalea, mendizalea batez ere (ORD-042/007)

Oso kirolzalea izan da. Ikustea zein praktikatzea gustatu zaio. Mendian asko ibili da. Korrikalari ona izan zitekeen. Aralar buruz daki. Txindoki hiru aldeetatik igo du.

661. Aralarretik buelta nork lehenago egin apustua (ORD-042/009)

Bi gizonen artean apustua egon zen Aralarreko San Migeletik buelta nork lehenago egin. Bata bide normaletik joan zen eta bestea zeharka. Berak ere egin zuen aproba.

662. Ahizpa txikia gaixotu modu arraroan (ORD-042/012)

Ama Erromara joatekoa zenean bidaiara Alaba txikiak esaten zion ez joateko, bestela hil egingo zela eta. Itzuli zenean, alaba gaixotuta zegoen eta ez zen sekula bere onera etorri.

663. Ez zuten fabrikan hartu emakumea zelako (ORD-042/014)

Drogeria baten egin zuen lan garai batean. CAFen gustura sartuko zen, baina tailerrean. Indar-en ere eskatu zuen lana, baina emakumea zelako ez zioten lanik eman.

664. Abertzaleen gorabeherak eta sozialistak boterean (ORD-042/018)

Errepublikanoak jende jatorra ei ziren. Libertate apur bat izan zuten errepublika garaian. Eurak PNVkoak ziren. Gero ETA etorri zenean harekin egin zuten bat. Gero gaizki hasi ziren, eta hori izan omen da penagarria. Dena dela, oso gogorra izan da berarentzat sozialistak Jaurilaritzaren jabe egitea.

665. Karlistak eta abertzaleak familian (ORD-042/019)

Ondo konpontzen ziren jeltzaleak errerepublikanoekin. Karlistekin, berriz, gaizki. Oso gogorak ei ziren. Aita karlista zen, ama abertzalea. Oso sartuta egon ziren politikan jeltzaleekin.

666. Antzerkia gerra aurrean (ORD-042/020)

Karlistak oso onak ei ziren antzerkia egiten eta errerepublikanoak ere bai. Eurek ere egiten zuten, baina xumeagoak ziren. Errepublikanoek erdaraz egiten zuten eta eurak euskaraz. Karlistak bietara, baina erdaraz gehiago. Abestu ere egiten zuten.

667. Azpeitira ihesi gerra denboran (ORD-042/024)

Azpeitian egon ziren gerra denboran. Komunistekin auto batean joan ziren, arrisku handiak hartuz. Gero Azpeitian ondo egon ziren, aita oso ezaguna baitzen herrian.

668. Zapata berrien bila, bizitza arriskatuz (ORD-042/025)

Tiroka ari ziren kalean. Soldaduak Ordizitik ihes egitekotan zeudenean, Elu etxera itzuli zen zapata berrien bila; ez zuten jo, baina leihoan zegoen bere lagun bat hil zuten. Ez da sekula beldurtia izan.

669. Errizino-olioa eta ilea moztu zigor gisa (ORD-042/026)

Errizino-olioa edanaraztea eta ilea mozteak izan ohi zen emakumeen aurkako zigorra. Jende asko fusilatu zuten, gehiago Beasainen Ordizian baino. Tartean bere bi lagun, Eli Gallastegiren jarraitzaileak.

670. Elizkoiak izateak eta aita karlista izateak salbatu zituen (ORD-042/028)

Komandantziara aurkeztu behar izan zuten Ordizian. Baina aita karlista zutenez, eta dentista, ez ziren hain gogorak izan eurekin. Gainera, elizkoiak ziren, beren lagun karlistak bezalaxe, eta horrek ere lagundu zien.

671. Ilea moztu ziotenean, inpresioarekin hil zen neskaren kasua (ORD-042/029)

Eluren hainbat laguni moztu zioten ilea. Horietako bat hil egin zen inpresioarekin. Neska zoragarria eta abertzalea ei zen. Berak ez omen zuen hartuko olio inondik ere.

672. Ezin du eraman lehendakari sozialista bat izatea (ORD-042/032)

Zerbait barkatzen zaila egiten bazaio, politikoei lehendakari sozialista bat onartzea izan da. Alderdia lehenesten omen da aberriaren aurrean. Gizonak ez dira fidatzekoak. Eta-ren alde lana eginga da baina hilketekin hasi zenean egin utzi zion.

673. Klandestinitatean paperak mugitzen (ORD-042/033)

Paperak hona eta hara eramaten egin zuen lan klandestinitatean ETaren alde. Mendira asko joaten ziren zeregin horretarako. Arriskuan sarri ibiltzen ziren.

674. Oso talo gozoak egiten zituen (ORD-043/003)

Errota zuten, eta gainera altzari-lantegia. Gerra denboran ogia egiten hasi ziren. Berak taloak egiten zituen, oso gozoak.

675. Anaia hil frankistek (ORD-043/004)

Frankistek, herrira sartu zirenean, Joxe anaia hil zuten. PNVkoa eta dantzaria izatea haren erru bakarra. Familiak asko sufritu zuen gero ere.

676. Lau gazte ordiziar fusilatu Etxarrin (ORD-043/006)

Ahizpei kargu hartzen zieten, anaiagatik lutoz jantzita zihoazelako. Lau ordiziar fusilatu zituzten Etxarri Aranatzera eramanda. Aitak militarrei baimena eskatu zien eta herrira ekarri zituen gorpuak. Geroago, hilerrian lurperatu zituzten.

677. Agur faxista egitera behartuta (ORD-043/007)

Aita karlista zen. Militarrekin gurutzatutakoan eskua jaso behar izaten zen (agur faxista); nola behartu zituzten behin bere bi ahizpak.

678. PNVko familia (ORD-043/008)

Terrorismoa ez omen da oraingoa. Bera ez da egon ETaren alde. Beren familia PNVkoa izan da beti.

679. Errota eta zur-lantegia (ORD-043/012)

Errotari buruzkoak. Uholdeak zirenean kalte handiak izaten zituzten, zur-lantegian batez ere.

680. Aita oraindik gogoan duen haren langile ohia (ORD-043/014)

Bere aitaren lantegian lan egindako baserritar baten berri ematen du. Tolosako zaharretxe batean bizi da. Oso ondo hitz egiten du gizonak aitaz.

681. Guardia zibilarekin arazoak errotan (ORD-043/015)

Taloak egiten zituen berak. Errotan irina eta ogia egiten zuten. Guardia zibilarekin estraperlo garaian izandako gorabehera bat kontatzen du.

682. Zilarrezko txanponak gorde (ORD-043/016)

Zilarrezko txanponak entregatu beharra etorri zen, baina amak gordetzea eta ez entregatzea lortu zuen. Emakume gogorra omen zen.

683. Euskara debekatuta (ORD-043/018)

Karmelitak gaiztoak omen ziren. Espainiako himnoa jotzen zuten elizan kontsagrazio denboran. Dena erdaraz ikasi dute bai eurak eta baita bere seme-alabak ere. Aitak ez zekien euskararik. Euskara debekatuta zegoen. Alabak, gona motzekin joan zirelako, forroa askatuta itzuli ziren etxera.

684. Antzinako zinea hobea eta atseginagoa (ORD-043/023)

Oso zinezalea izan da. Brigitte Bardot, Claudia Cardinale, Greta Garbo, Liz Taylor... orduko aktore batzuen izenak. Oso pelikula onak, gaurkoak baino askoz ere atseginagoak. Hainbat titulu ekartzen du gogora. Oraingoan indarkeria gehiegi dago.

685. Orain baino alaiago bizi ziren (ORD-043/026)

Asko abesten zuten. Orain baino alaiago bizi ziren. Orain tristura besterik ez dago.

686. Larraitzera erromeriara (ORD-043/028)

Larraitzeko erromeriara joaten ziren. Oinez joaten ziren egun pasa, egun ederra izaten zen. Aurpegi gorri-gorriaz itzultzen ziren, eguzkiak erreta.

687. Apaizez iritzi oso kritikoa (ORD-043/029)

Oso elizkoiak izan dira. Arrosarioa egunero errezatu izan dute. Anaia hil zutenean parrokoak ukatu egin zion hileta. Elizaz ez du iritzi onik. Umeak ere asko ekarri behar ziren, nahiz eta gero goseak hil. Ogino metodoa gomendatzen zieten. Kasu egin izan balie auskalo zenbat ume izango zuen.

688. Ordizia lehen nolakoa zen (ORD-044/005)

Etxean beti izan dute ura eta argindarra. Lehen Ordizia nolakoa zen azaltzen du. Patxi jaio zenerako, herriak izango zituen 3 bat mila biztanle. Asteazkenetan, azoka izaten zen Ordizian.

689. Bideetan ibiltzen ziren garraiobideak (ORD-044/006)

Ume zela, bideak asfaltatuta zeuden, baina oso kotxe gutxi ibiltzen ziren. Asteazkenetan, azoka zenean, astoak, idiak... ibiltzen ziren bidetik, baserritarrek esnea kalean banatzeko.

690. Fraideak frontera (ORD-044/007)

3 urte zituela hasi zen Patxi eskolan. Patxik fraideen eskolan ikasi zuen, baina gerra iritsi zenean, frontera joan ziren denak.

691. Inbidiak eragiten dituen kalteak (ORD-044/008)

Gerra iritsi zenean, Beasaingo La Sallera eraman zuten Patxi ikastera. Izan ere, Ordiziako anaiak gerrara eraman zituzten. Anaia haiek jende ona omen ziren, baina inbidiagatik haietaz gaizki esaka aritu zen asko.

692. Fraideen zigorrak eta ikasgaiak (ORD-044/009)

Fraideekin ikasi zuenean, zigorrak izaten zituzten. Zigorrak gaiztakeriak egiteagatik jartzen zizkieten. Fraideekin gauza asko ikasi zuten.

693. Fraideekin ikasten zueneko ohiturak (ORD-044/010)

La Sallen ikasten zuenean, egunero, eskolan sartzean, otoitz egin behar izaten zuten. Elizako kanta asko abesten zituzten. Igandero, eskolatik elizara eramaten zituzten, meza nagusira. Ordizian bizi zirenei ez zieten derrigortzen, baina, urrutiago gelditzen zelako Beasain.

694. Soldaduak Ordiziara, ordiziarrek kanpora (ORD-044/012)

Gerra Ordiziara berehala iritsi zen Nafarroatik. Soldaduen janzkera gogoan du; baita nondik sartu ziren ere. Gudariak herria defendatzen aritu ziren. Jende askok herritik alde egin zuen, baina beraiek bertan geratu ziren.

695. Gerran koinatua fusilatu zuten (ORD-044/013)

Gerra garaian, Patxiren familia Ordizian gelditu zen, baina ez zieten ezer egin. Emaztearen anaia, ordea, 19 urte zituela, atxilotu egin zuten beste 3 lagunekin batera; handik 8 egunera, laurak fusilatu egin zituzten.

696. Gerrako fusilamenduak (ORD-044/015)

Patxiren emaztearen anaia fusilatu egin zuten gerra garaian, nazionalista izateagatik. Erreketeak txapel gorriarekin ibiltzen ziren.

697. Gerrako kartzelak eta zigorrak (ORD-044/017)

Gerra garaian, Ordiziako alkate izandakoa kartzelan egon zen denbora askoan. Joseba Rezolari hiru heriotza-zigor jarri zizkieten, baina ez zuten hil azkenean.

698. Karlistak eta nazionalistak gerra ostean (ORD-044/020)

Gerra ostean, karlistak sartu ziren udaletxeko agintean. Nazionalistek isilpean jartzen zuten ikurrina garai hartan. Harrapatuz gero, zigortu egiten zituzten.

699. Erdaraz umetatik ikasi beharra (ORD-044/022)

Ordiziako eskolako fraideak gerrara joan ziren frontera, borroka egitera. Fraide horiek nongoak ziren aipatzen du. Beasainen eta Ordizian, eskolan beti erdaraz ikasi izan zuten; baina Patxik inoiz ez du jaso izan zigorrik euskaraz hitz egiteagatik. Erdara erraz ikasi zuten umetan.

700. Lanbidea ikasten aritu zeneko garaia (ORD-044/025)

Gerra osteko gose garaia gogorra izan zen. Gaztainak bildu eta egosten zituzten. 20 urtera arte, gau-eskolara joan zen. 14 urterekin hasi zen lanean, lanbidea ikasten. Orduko lan-baldintzak aipatzen ditu.

701. Gabiriara, euskara mantentzera (ORD-044/027)

Gazte garaian, musika-taldeak etortzen ziren Ordiziara. Urtero Gabiriara joaten ziren udan, euskara mantentzeko, eta baserriko lanetan aritzeko.

702. Aita atxilotu zuteneko anekdota (ORD-044/029)

Behin Patxiren aita atxilotu zuten, propaganda jartzen ari zela beste bi lagunekin. Orduan gertatutako anekdota kontatzen du.

703. Asto kaleko giroa (ORD-045/003)

Asto kalean jaio zen, astoak lotzen zituzten etxean. Orduko giroa eta salerosketak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

704. Luxurik ez, baina goserik ere ez (ORD-045/007)

Etxean baratzea zeukaten, eta baratzean txabola. Urtero, uztailaren 18an, aita Burumendi aldera joaten zen, garia ebakitzera. Luxurik ez zuten izan, baina goserik ere ez. Garai hartan, trukea izaten zen, ez baitzegoen diru askorik.

705. Eskolatik piper egiten zuen (ORD-045/008)

Eskolan denbora gutxi egin zuen Joxepak. Arte- eta lanbide-eskolan ere aritu zen matematika ikasten, baina askotan egiten zuen piper, paseatzera joateko.

706. Eskolan ikasteko lanak (ORD-045/011)

Eskolan ibili zenean, gustura ibili zen. Hasiera batean, mojekin ikasi zuen. Zigor gisa, jo egiten zituzten. Gerora, eskola nazionalen ikasi zuen; eta, azkenik, moja karmeldarreanean. Moja horiekin ikasteko, dirutan ordaindu beharrean, lan egiten zuen Joxepak:lurrean erratza pasatzen zuen, eta enkarguak egiten zituen.

707. Mojen zigorrak eta garai hartako aisialdia (ORD-045/013)

Mojek makilarekin jotzen zituzten zigortzeko; eta, horregatik, amorru handia hartu zien Joxepak. Jolas-garaian, sokasaltoan aritzen ziren. Jaietan, "txinitoentzat" ematen zuten dirua. Orduko jolasak gogoan ditu.

708. Dantzan gustura (ORD-045/014)

Plazan dantzan hasi zirenean, Beasain aldera joaten ziren. Asko disfrutatzen zuten. Dantza lotua ere egiten zuten. Mutilekin dantzan egiteko, nola aukeratzen zuten azaltzen du.

709. Mendira joateko zaletasuna (ORD-045/015)

Eskola bukatutakoan, mendira joaten ziren noizean behin, trena hartzeko dirua zeukatenean. Mendira joateko elkarte bat zegoen; beti egon izan da mendirako zaletasuna Ordizian. Orduko elkarteko janzkera gogoan du.

710. Komunen tapak egiteko fabrika (ORD-045/019)

Komunen tapak egiten zituzten fabrika batean egin zuen lan Joxepak. Bere zeregina zein zen azaltzen du. Lan toxiko xamarra zen, baina ez gogorra. 17-18 urte zituela aritu zen han lanean. Lan-baldintzak, hala ere, onak ziren kotizazioari dagokionez.

711. Neskame zebileneko errieta (ORD-045/023)

Donostian neskame zebilela, beste neskame batzuk egin zituen lagun. Behin, Pasaia joan eta berandu itzuli zenez etxera, errieta egin zioten; gehiago ez zen joan Pasaia. 3-4 urte egin zituen han lanean.

712. Fabrikan oso giro ona (ORD-045/025)

Fabrikan lanean zebilela, oso giro ona zeukaten. Orduko lan-baldintzei buruz hitz egiten du.

713. Ordiziako industriaren gorakada (ORD-045/027)

Ordizian industria asko egon izan da. Joxepak ezagutu du nola hazi den industria. Gogoan ditu garai bateko tailer txikiak ere; bereziki, zapataria.

714. Garai bateko janzkera (ORD-045/028)

Lehen erabiltzen zituzten zapatei buruz hitz egiten du. Mendirako ez zuten arropa berezirik izaten: gona, galtzerdi lodiak eta jertse lodiak eramaten zituzten.

715. Ordiziako lehengo tailerrak (ORD-045/029)

Ordizian izandako tailerrak aipatzen ditu: batean, argizaria egiten zuten; zapatak konpontzeko tailer ugari zeuden; ferratzaileak...

716. Ordiziako festak, kategoriako festak (ORD-045/030)

Ordiziako festak oso onak izaten ziren. Jendea bereziki prestatzen zen egun horretarako; Burgosko banda etortzen zen... Kategoriako festak izaten ziren. Kafetegiek mahaia plazara ateratzen zituzten. Oso giro ona egoten zen.

717. Festetarako soinekoak (ORD-045/031)

Ordiziako festetarako espresuki egiten zituzten soinekoak; asko disfrutatzen zuten orduan. Garai hartako soinekoak nolakoak izaten ziren eta ideiak nondik ateratzen zituzten azaltzen du.

718. Zigortuta egon arren, ezkutuan ihes egitea lortu zuenekoa (ORD-045/035)

Gaztetan, festak zirenean, gauez ere ateratzen ziren, baina 12etarako etxera itzuli behar izaten zuten. Behin, tabernara sartzeagatik, gurasoek zigortu egin zuten Joxepa atera gabe; baina bera nola-hala moldatu zen etxetik ezkutuan ihes egiteko.

719. Zigortuta egon arren, ihes egin eta harrapatu egin zutenekoa (ORD-045/036)

Behin Beasaingo festetara joan zen gauez, etxetik ezkutuan ihes eginda. Gaizki atera zitzaion, baina, eta harrapatu egin zuten. Orduetik, zigortuta egon zen jai batzuk atera gabe.

720. Lehen dena bekatu zela sinesten zuten (ORD-045/037)

Lehen dena bekatu omen zen, eta sinetsi egiten zuten. Orain, ordea, ez. Lehen apaizari dena kontatzen zioten, infernuari beldurra ziotelako.

721. Lehengo beldurak eta sineskerak (ORD-046/003)

Umeei Sakamantekasi buruzko istorioak kontatzen zizkieten, beldurra sartzeko. Atean gurutzea jartzen zuten erramuaren adarrekin; ekilorea ere jartzen zuten.

722. Ospitalean erditzeko nahia (ORD-046/006)

Seme-alabak ospitalean izan zituen, etxean edukitzeko beldurra baitzeukan. Orduan gauza gogorrak entzuten ziren etxean izandako erditzeei buruz.

723. Umea izan osteko ohiturak eta beldurak (ORD-046/007)

Umea izan ostean, elizan aurkezten zuten, bai elizan sartzeko egunean, bai Kandelerio Egunean. Garai hartan, umea izan ostean, amak ezin izaten zuen etxetik atera, osatzeko. Lehen umeak jaio eta berehala bataiatzen ziren, bestela, hilez gero, ez ziren zerura joaten-eta. Lehen beldur handia zegoen.

724. Ordiziaren historia (ORD-046/008)

Ordizia artzapez-barrutia izan zen, Goierriko hiriburua. Santa Ana egunean, apaiz asko elkartzen zen herrian.

725. Telefonorik ez zeneko komunikazioa (ORD-046/010)

Telefonorik ez zeukaten etxean garai batean. Senitartekoekin komunikatzeko, nola moldatzen ziren azaltzen du. Lehen batetik bestera joateko, tren, hankak... ibiltzen zituzten.

726. Jeneroa nola edo hala lortzeko moldatzen ziren (ORD-046/013)

Gerra ostean, beraiek ez zuten etxean goserik pasa. Lotsa ematen zien besteen aurrean jateak ogia. Jeneroa lortzeko nola edo hala moldatzen ziren.

727. Esnezalearekin zeukaten tratua (ORD-046/014)

Esnea ez zitzaien falta izan gerra ostean, esnezaleak haien etxean uzten baitzuen ganadua. Esnea ez zuten egosten edan aurretik.

728. Norbere herrian euskaraz egin ezin (ORD-046/016)

Garai batean, euskaraz hitz egiten zuen, baina "kaxero" esaten zieten burla egiteko, eta orduan gaztelania egiten zuten gehienbat. Kanpotik Ordiziara etorritako jendea molestatu egiten zion euskaraz abesteak ere, eta liskarrak egon izan ziren.

729. Francoren eta euskararen alde (ORD-046/018)

Francoren aldeko gizon batek errieta egiten zien erdaraz egiteagatik. Eta gizon horrek ere isunak ordaindu behar izan zituen euskaraz egiteagatik. Lehen euskaraz egitea oso zigortuta zegoen. Eskolara joaten hasi aurretik, zerbait bazekien erdaraz. Orain gustura izango lituzke berriro 18 urte.

730. Ordizian baserri gutxi (ORD-046/019)

Ordizian baserri gutxi egon izan dira, eta orain are gutxiago.

731. Lehengo Ordizia (ORD-046/021)

Ordizia lehen nolakoa zen azaltzen du: dendak, udaletxea, etxeak...

732. Aizpuruaren etxean lanean (ORD-046/025)

Aizpuruaren etxera joaten zen lanera Joxepa. Etxe haren egituraz hitz egiten du; zoragarria omen zen.

733. Mezarako bidean izandako anekdota (ORD-046/029)

Behin, goizeko bostetarako mezara joan zirenean, izandako anekdota kontatzen du.

734. Pagarekin egiten zituzten mirariak (ORD-046/031)

Zinera joateko, lagun bati eskatzen zioten dirua, eta gero, ahal zutenean, itzuli egiten zioten. 5 xentimoko paga izaten zuten lehen, eta "txinitoentzat" ematen zuten. Zeukaten diru apurra gozokiak erosteko ere erabiltzen zuten.

735. Panpina "elbarriak" (ORD-046/032)

Orduko jostailuak: amak trapuekin egindako panpina, katekesian ematen zizkieten filmak... Katekesian, familia bakoitzak zuen diruaren arabera banatzen zituzten jostailuak.

736. Donostia inguruko herrietara erromerietara (ORD-047/007)

Gazteak zirenean, erromerietara joaten ziren dantzara; han zer dantza mota egiten zuten azaltzen du. Garai hartan, Donostiaren inguruko herri txikietara joaten ziren erromerietara autobusez.

737. Aitonaren bizipenak eta aholkuak (ORD-048/006)

Aitona exiliatuta egon zen Frantzian; eta gerora, Atauna itzuli eta ezkondu egin zen. Aitonak amari esaten zion ez sartzeko politikan. Aitonaren esanak gogoan ditu.

738. Eskolako maisuaren esanak gogoan (ORD-048/010)

Eskolan ibili zenean, maisua errepublikanoa zen, eta haren esanak eta aholkuak gogoan ditu Pedrok. Gerra hasiera eta gorabeherak kontatzen ditu.

739. Ganadua eta gaztainak etxean (ORD-048/014)

Baserrian, ganaduekin nola moldatzen zen azaltzen du. Gerra ostean, gaztainari esker atera ziren aurrera, neurri handi batean, gosea kentzen baitzuen.

740. Sagardoa egiten zuten etxean (ORD-048/015)

Sagardoa egiten zuen garai batean Pedrok. Sagardoa egiteko prozesua eta tresnak azaltzen ditu.

741. Txerria banatzeko ohitura, baita 'Pernando amezketarra'ren garaian ere (ORD-048/017)

Txerria hildakoan, auzokoen artean banatzeko ohitura zegoen. Fernando amezketarraren anekdota kontatzen du, horri buruzkoa.

742. Erljioa baino kezka handiagoak (ORD-048/020)

Pedro ez da elizkoia izan. Ardura handiak zeuzkan, eta ez zuen elizara joateko betarik.

743. Kontratista-lanetan hasi eta jarraitu (ORD-048/023)

Kontratista-lanetan nola hasi zen azaltzen du. Lurrekin izandako gorabeherak kontatzen ditu.

744. Etxeko janaria, eta patata jateko ohitura berria (ORD-048/026)

Goizean eta gauean zer jaten zuen azaltzen du. Tomatea etxean egin, eta botilatan sartzen zuten. Patata jateko ohitura kanpotik etorritako jendeak ekarri zuen.

745. Arraina asko eta merke (ORD-048/027)

Lehen arraina jaten zuten, asko baitzegoen; garai hartan, merkeak ziren arrain mota gehienak. Arraina askotan simaurretara botatzeko erosten zuten.

746. Beasaingo fabrikak ekarritako dirua (ORD-048/028)

Beasaingo fabrikak ekarri zuen dirua herrira. Gerra garaian, fabrika hartan lan asko sortu zen, bonbak egiteko. Diru harekin, jendeak zer egiten zuen azaltzen du.

747. Txoriak jaten zituztenekoa (ORD-048/031)

Lehen txoriak harrapatzen zituzten, eta etxean jaten zituzten. Txoria nola prestatzen zuten azaltzen du.

748. Familiarteko ugari Argentinan (ORD-048/034)

Pedroren familiarteko ugari Argentinan bizi dira. Harako bidaia nola eta zergatik egin zuten azaltzen du.

749. Auzolana eta elkartasuna (ORD-049/005)

Garai bateko Ordiziak normatasun handiagoa zuela dio Pedrok. Lehengo herritarren izaera, antolakuntza, auzolana... aipatzen ditu.

750. Gaztetatik lanean (ORD-049/006)

Lehen, umeak 8-9 urterekin hasten ziren lanean; baserriko lanetan (basora txotx bila joaten ziren, itulan aritzen ziren...), neskak Donostiara neskame joaten ziren...

751. Beasaingo CAF lantegia (ORD-049/009)

Gerra aurreko bizimoduari buruzko gogoeta. Ordiziar askok Beasaingo CAF lantegian lan egiten zuen, eta, gero, baserriko lanetan aritzen ziren. Gerraostean, lantegi txiki ugari ireki ziren herrian. Lehen CAF lantegian zer lan egiten ziren aipatzen du: fundizioa, bonbak...

752. Mikeleteak eta Fraisoroko umeak (ORD-049/014)

Gerra aurreko kontuak. Langabe zegoen jendea herri-bideak egitera joan ohi zen auzolanean, "rantxoaren" truke. Bide eta basoak ondo zainduta egoten

ziren; mikeleteek "orden handia" jartzen zutela dio Pedrok. Fraisoroko umeei buruz hitz egiten du.

753. Errepublikarrak, karlistak eta nazionalistak (ORD-049/017)

Maisu asko errerepublikarrak ziren. Ordizia inguruan EAJ-PNV-ko asko zegoen, baita karlistak ere. Gerra ondoren, errepublikar eta sozialista askok herritik joan egin behar izan zuten, beste batzuk "rekonbertitu" (itzuli) egin ziren Pedroren hitzetan.

754. Frankismo garaia (ORD-049/018)

Frankismo garaiko kontuak. Frankistek agintzen zuten herrian. Kartzelan egondako errerepublikarrek ez zuten boto eskubiderik. Nazionalistek industrian boterea zutela aipatzen du Pedrok. Gerra aurreko egoera ekonomikoa zein zen aipatzen du.

755. "Baba txikia" estraperloan (ORD-049/019)

Errazionamendu garaian, ordiziar asko egiten zuen lan Beasaingo CAF lantegian. Jendeak soldata irabazten zuenez, Nafarroatik ekartzen zuten estraperloan behar zuten jatekoa.

756. Asteazkenetako feria (ORD-049/023)

Asteazkenetan feria handia izaten zen Ordizian, inguruko herri guztietako jendea biltzen zen bertan. Feria egun osokoa izaten zen. Pedro, ama edota arreba joan ohi ziren feriara baserriko jeneroa saltzera. Udazken garaian, gaztainak, intxaurrak, sagarrak eta indabak saldu ohi ziren gehien. Salmentan ateratako diruarekin, arropa eta ohinetakoak erosten zituzten.

757. Pentsua eta ganaduaren elikadura (ORD-049/024)

Pentsua saltzen zuten biltegi ugari zegoen Ordizian. Ganaduarentzako garagar-orea ("pulpea") erosten zuten biltegian. Gainerakoan, baba txikia eta sagar patsa ere erabiltzen zuten ganadua elikatzeko.

758. Postrea: sagarra egosia edota arroz-esnea (ORD-049/027)

Arroz-esnea eta Errezil sagar egosia edo errea izan ohi ziren etxe gehienetako postrea. Errezil sagarra nola biltzen zuten kontatzen du. Jatordu garaian, berriz, bainak eta porru-patatak jan ohi ziren gehienetan.

759. "Bando, bando! Alkatek esan do...!" (ORD-049/028)

Aguzilak jotzen zuen bandoa herrian; danborra jo, herritarrei dei egin eta parte ematen zuen. Auzo handietan, oharra jartzen zuten ezkaratzetan. Sarritan, meza ondoren jotzen zen bandoa. Ordizian euskaraz eta gaztelaniaz ematen zuten bandoa.

760. Traperoak (ORD-049/030)

Ordizia inguruan trapero asko zegoen. Feria egunetan, arkume eta ardi larrua erosten zien baserritarrei, eta Tolosa eta Bergarako lantegietara saldu ohi zuten gero.

761. Ijitoak (ORD-049/032)

Bertako eta kanpoko ijitoei buruz hitz egiten du Pedrok. Beasainen ba omen zen ijito familia euskaldun bat. Feria egunetan, Leon Salvadorren berriketaldi eta eskaintzek jende asko biltzen omen zuten. Hungariako ijitoen ikuskizunak ere izaten ziren aldian-aldian.

762. Gauzaina (ORD-049/035)

Gauzainen eginkizuna izaten zen gauetan herri zaindu eta ordena mantentzea. "Serenoei" buruzko esaera bat aipatzen du: "paseo de noche, duermo de día...".

763. Garraio motak (ORD-049/036)

Postariak gurdia zeukan, eta jendea zaldi-karroan eramaten omen zuen batera eta bestera. Gehienetan, autobusa jendez beteta ibiltzen zen. Kaletik gertu bizi zirenak, asto gainean ibili ohi ziren.

764. Ataungo sorgin eta jentil kontuak (ORD-049/038)

Ataungo osaba eta lehengusuei askotan entzun izan zizkien hango sorgin eta jentilei buruzko istorioak.

765. Ataungo jentilak I (ORD-049/041)

Ataungo osabari jentilei buruz entzundako kontuak aipatzen ditu. Infantadoko Dukea Lazkaon jarri zenean, Ataungo herriak ez zuen botererik, eta mendira ihesean joanda zeuden jentil batzuk hil egin zituztela, beste batzuk menditik behera erori zirela eta beste batzuk preso hartu zituztela kontatzen du.

766. Ataungo jentilak II (ORD-049/043)

Ataungo osabari jentilei buruz entzundako kontuak aipatzen ditu.

767. Umetan bihurria, alaia, mugitua zen (ORD-055/003)

Ordizian besteentzat ume bitxia eta arraroa izango zela uste du. Bihurria, mugitua, alaia, irudimentsua... zen. Generoaren eta orientazioaren ikuspegitik ez zen arau sozialean sartzen. Haurtzaroko bizipenak sentikorragoak direla azaltzen du.

768. Normala ez izateagatik (ORD-055/005)

Txikitatik jakin izan du ez zela normala. Hainbat bizipen kontatzen ditu. Indarkeria mota asko jasan izan ditu. Galdera asko egin izan dizkiote. Adibideak jartzen ditu.

769. Genero indarkeriaz (ORD-055/006)

Ile luzea uzten zuenean, oso neska guapa zenez, gizonen desira oso modu bortxatzailean eta nazkagarrian bizitu zuela aipatzen du. Bortxa edo abusuak askotarikoek jasaten dituztela azaltzen du, baita lesbiana eta transgeneroek ere. Bortizkeria oso konplexuak bizi dituztenek, biktimarengandik espero den rola betetzen ez badute, egoera gatazkatsua sortzen dela dio.

770. Lehenengo harreman lesbikoak (ORD-055/008)

Hamasei urterekin neska batekin hasi zen. Lehenagotik irakurtzen hasita zegoen eta ikasketekiko ikuspegia ere aldatua zeukan. Gozatu egin zuen institutuan. Harreman lesbikoak bizitzea herrian gogorra egin zitzaioala dio.

771. Gizonezkoen astakeriak harreman lesbikoen aurrean (ORD-055/009)

Hainbat pasarte kontaktzen ditu azaltzeko beste emakume batekin harreman intimoa agertuz gero, normala izan dela gizonezkoek edozer esan edo egitea.

772. Lesbianismoa eta transexualitatea gizonezkoen iruditeria erotikoa (ORD-055/011)

Lesbianismoa gizonezkoen iruditeria erotikoa oso objektu indartsua dela azaltzen du, baita transexualitatea ere. Hainbat bizipen kontaktzen ditu.

773. Heterosexualitatetik urrun, harreman askeagoak (ORD-055/012)

Heterosexualitatetik urrun daudenek, sexualitate askeagoak aldarrikatu izan dituzte eta horretarako eremuak sortu, baina posible izan da, hain justu, ez delako inguru heteroarautuan gertatzen. Granadako jardunaldi batzuetan hiru mila emakume elkartu zirenekoa kontaktzen du.

774. Heteroaraua zer den eta nola eragiten duen (ORD-055/013)

Heteroaraua zer den azaltzen du. Hor murgilduak dauden gorputzek nortasun markatu bat daukate eta harremana ere zehaztua dago, baita harreman sexuala ere.

775. Heteropatriarkatuaren eragina (ORD-055/014)

Heteropatriarkatuak espeziearen produkzioan eta gizartearen antolakuntzan duen eraginean sakontzen du.

776. Ugalketa: batzuk presionatu, beste batzuk baztertu (ORD-055/016)

Espeziearen erreprodukzioaren kontuan tratu bikoitza egiten dela azaltzen du: gizarteak batzuei ama noiz izango diren galdera gainean jartzen die eta beste batzuek ez dira ontzat hartzen ama izan daitezen.

777. Ugalketa ereduez eta zaintza sareez hausnartu beharra (ORD-055/017)

Iruditzen zaio hausnartu beharra dagoela gure espeziea nola erreproduzitu eta nola egituratu zaintza sareak. Gurasoek orokorrean pentsatzen dute umeak beraienak direla, baina umeak beren buruaren jabe dira. Gaur egungo ereduaren kritika egiten du.

778. Familia eredu bitarrak (ORD-055/018)

Familia ereduei buruzko kritika egiten du. Eredu bitarretik ez dela irteten azaltzen du. Familia nuklearretako bortizkeriari buruz hitz egiten du.

779. Heteroaraua birplanteatzearen onurak (ORD-055/019)

Denen onerako heteroaraua birplanteatzea beharrezkoa dela azaltzen du. Emakume eta gizon izateko modu hegemonikoak erabat zehazten ditu patriarkatuak.

780. Generoari buruzko ikuspegia aldatzeko beharra (ORD-055/021)

Generoarena Kopernikori gertatutakoarekin konparatzen du. Generoarekiko ikuspegian aldaketa paradigmaticoa gertatzen ari dela azaltzen du. Errealitatea bitarra ez denez, esku hartze asko egiten dira gorputzak emakume edo gizon estandarretara egokitzeko.

781. Genero aniztasuna zigortuta (ORD-055/022)

Emakume eta gizon kategoriak erabili ezin direnean, zailtasuna sortzen da, baina aniztasunera ohitzea oso polita dela dio. Gizarteak aniztasuna zigortzen du genero rol finakoak bete daitezen lortzeko.

782. Genero rolak eta hezkuntza (ORD-055/024)

Umeek genero rolak betetzeko eskolak, familiak eta inguruak duten eraginaz hitz egiten du.

783. Genero bortizkeria; mezu ezberdinak neskentzat eta mutilentzat (ORD-055/025)

Neskek kontuz ibiltzeko mezua oso goiz jasotzen dutela azaltzen du, eta ostera mutilei ez zaiela bortizkeriarik ez erabiltzeko mezurik ematen.

784. Erasotzaileak eta bortxatzaileak, normalki gertukoak (ORD-055/027)

Erasotzaile eta bortxatzaileentzat arau eta lege gogorrek eskatzen direnean, buruan urrutiko pertsonak izaten direla azaltzen du, baina errealitatean gertukoak izaten direla normalki erasotzaileak.

785. Berdintasun teknikari hasi zenetik, aurrera eta atzerapausoak (ORD-056/004)

Berdintasun teknikari hasi zenean, Gipuzkoan udaletxe gutxitan zeuden berdintasun teknikariak. Ordutik aldaketak egin dira, aurrerapausoak, baina atzerapausoak ere bai. Hainbat adibide ematen ditu. Politikek indar gehiago beharko luketela uste du, esaterako, zeharkakotasuna bermatzea.

786. Feminista izatea modan (ORD-056/006)

Unibertsitatean hasi zenean, talde feministetan hasi zen. Orduan oso gaizki ikusita zegoen feminista izatea. Gero boom bat gertatu zen eta orain jende askok feminista dela dio. Feminista izateak zer suposatzen duen azaltzen du.

787. Mugimendu feministan gatazka gogorak (ORD-056/007)

Mugimendu feministak oso ondo onartu izan ditu kritikak eta askotariko ikuspegiak. Orain gatazka oso gogorak daudela azaltzen du. Debateak egiteko modu berriak asmatu beharra dagoela dio.

788. Euskal Herriko mugimendu feministako gatazkak (ORD-056/008)

Euskal Herrian feminismoaren baitan dauden hainbat gatazka azaltzen ditu: komunismoari lotuak, prostituzioa-pornografia-transexualitateari buruzkoak... Estatu espainiarrean dauden gatazkak azaltzen ditu, baita trans legeari buruzkoak ere.

789. Prostituzioa abolitzeko eta transexualitatearen legea atzera botatzeko plataformak (ORD-056/009)

Euskal Herrian bi plataforma daude: bata, prostituzioa abolitzeko plataforma, eta bestea, transexualitatearen legea atzera botatzeko. Josebek bere burua transgenero moduan identifikatzen duenez eta hormonak hartzen hasi denez, kanporatua sentitu da. Prostituzioaz hitz egitean transexualitatearekin ez lotzea arduragabekeria iruditzen zaio.

790. Gorputz transexuala ez da zaurgarritzat hartzen (ORD-056/010)

Transexualek emakumeak ezabatuko dituzten usteak gatazka handia sorrarazi du mugimendu feministan. Gorputz transexuala ez da zaurgarritzat hartzen. Hainbat diskurtso auzitan jartzen ditu.

791. Genero nortasuna aldatzearen aurkako diskurtsoak (ORD-056/012)

Genero nortasuna ez da hain erraz aldatzen; prozesua eta ordaina oso konplexuak dira. Funtsik gabeko hainbat diskurtso aipatzen ditu. Emakumearen gorputzaren esentzializazioa bultzatzeak patriarkatuaren eredua indartzen du.

792. "Plaz!" plataforma politikoan hautagai (ORD-056/013)

"Plaz!" plataforma politikoan hautagai moduan joan zen, baina asmo handirik gabe.

793. "Plazandreok" eta "Medeak" taldeetan partaide (ORD-056/014)

"Plazandreok" eta "Medeak" taldeetan parte hartu izan du. Beste eragile eta talde askorekin harreman handia izan du.

794. Feminismoaren ildo gustukoenak (ORD-056/016)

Feminismo erradikala, transfeminismoa, dekoloniala, marikonismoa, antikapitalista, komunitarioa... Horiek dira gustukoen dituenak.

795. Feminismo erradikala (ORD-056/017)

Feminismo erradikala zer den azaltzen du. Dikotomiarik ez duela planteatzen dio; hau da, ez dela gizonen kontrako diskurtso bat.

796. "Drag King" ikastaroak ematen (ORD-056/018)

"Drag King" ikastaroak eman izan ditu; oso esperientzia polita izan dela dio. Emakume batek bizi dezake gizonezkoa izatea zer den egun batez. Gorputz baten gainean sexua eta generoa nola eraikitzen diren landu izan du. Adibideak jartzen ditu.

797. "Drag King" ikastaroetan maskulinitatea esperitzentatzen (ORD-056/019)

"Drag King" ikastaroetan maskulinitatea esperimentatzeak ikusaraz dezake emakumeek jasaten dituzten hainbat egoera gizonezkoek ez dituztela onartzen. Adibideak ematen ditu. Maskulinitatea gizonezkoen arteko konplizitate handiari esker indartzen da.

798. Maskulinitatea praktikan probatzen (ORD-056/020)

"Drag King" ikastaroan teoria eta praktika daude. Praktikan karakterizazioa egiten da eta ondoren kalera ateratzen dira. Ariketa bi aldetara egitea oso interesgarria da.

799. Telebistako eztabaidetan euskaraz edo erdaraz aritzearen aldea (ORD-056/021)

Telebistako hainbat saiotan hizlari aritzeaz nazkatu egin zen, baina euskarazko saioetan oso gustura dabil. Hizlarien artean euskaraz aritzeak errespetuzko tratua ekartzen duela azaltzen du.

800. Euskarari geroz eta toki gehiago (ORD-056/022)

Bere amak ez zuen euskaraz egiten, nahiz eta haren amak bai. Ama-hizkuntza erdara izan du. Baztertua sentitu izan da ehuneko ehun euskalduna ez izatearren. Euskarari bere bizitzan toki ematea erabaki zuen, eta geroz eta toki handiagoa ematen ari dela dio.

801. LGTBIQ+, zergatik hainbeste letra? (ORD-056/024)

LGTBIQ+ siglen esanahia esan aurretik, azalpena ematen du hainbeste letra eta gehiago zergatik behar diren ulertzeko.

802. LGTBIQ+ kolektiboan, lesbianak (ORD-056/025)

LGTBIQ+ sigletan, L hizkiak lesbiana esan nahi du. LGTBIQ+ politiketan lesbianak ikusgarritasun gutxien daukatenak dira. Borroka askotan parte hartu dute baina aitortzarik jaso gabe. Aniztasun handia dago lesbianen artean.

803. LGTBIQ+ kolektiboan, gayak (ORD-056/026)

LGTBIQ+ sigletan, G hizkiak gay esan nahi du. Lesbianen kasuan bezala, aniztasun handia dago. Homosexualeen artean, batzuk pasibotzat jotzen dira eta horien aldarrikapena egiten du.

804. Zer da "CIS" izatea? (ORD-056/027)

"CIS" hitzaren erabileraren jatorria azaltzen du. Erdi Aroan emakume eredu bat sortu zuten, kapitalismoarekin indartu zena. "CIS" hitzarekiko kritikoa da. Bizitzan zehar generoa aldakorra dela azaltzen du.

805. LGTBIQ+ kolektiboan, bisexualak (ORD-056/028)

LGTBIQ+ sigletan, B hizkiak bisexuala esan nahi du. Gizarte bisexuala izatea oso interesgarria litzatekeela dio.

806. LGTBIQ+ kolektiboan, transexualak, transgeneroak, trabestiak (ORD-056/029)

LGTBIQ+ sigletan, T hizkia transexualitatearekin lotzen da baina transgeneroa ere izan daiteke. Trabestiak oinarrian daude; ezarritako roletatik atera eta ukatutako generoaren parte batzuk hartzen dituzte.

807. Feminitatea edo maskulinitatea mozorro (ORD-056/030)

Feminitatea barregarria da, edozeinek hartu dezake; maskulinitatea gotorlekua da. Gizonak emakumez mozorrotzen dira baina emakumeak gizonez ez.

808. LGTBIQ+ kolektiboan, intersexualak (ORD-056/031)

LGTBIQ+ sigletan, intersexualitatea esan nahi du l hizkiak. Diformismo sexualaren araua apurtzen du. Ar eta eme kategoriak aplikatu ezin zaizkienean esaten zaie intersexualak. Gaixotasuntzat hartzen zen lehen eta ebakuntzak egiten zizkieten jaio orduko.

809. LGTBIQ+ kolektiboan, "queer"ak (ORD-056/032)

Q hizkiak "queer" esan nahi du. Posizio politiko batekin dauka zerikusia. Ertzetako gorputzak eta zapalkuntzak barnebiltzen ditu.

810. LGTBIQ+ kolektiboan "+" ikurrak esan nahi duena (ORD-056/033)

"+" hizkiak beste guztia gehitzen die aurrekoei. Esaterako, asexualak daudela azaltzen du.

811. Zerk batzen ditu LGTBIQ+ kolektiboko kideak? (ORD-056/035)

LGTBIQ+ kolektiboa osatzen dutenak arau estandarretik irten izanak batzen ditu. Heterosexualitatea zer den azaltzen du; praktika sexual eta jarrera konketu batzuk izatea dakar.

812. Borrokak batera eta bereizita LGTBIQ+ kolektiboan (ORD-056/036)

LGTBIQ+ kolektiboan batzuetan borrokak batera egiten dituzte eta beste batzuetan bananduta. Hainbat adibide jartzen ditu.

813. LGTBIQ+ kolektiboari lotutako taldeak (ORD-056/037)

EHGAM, Aldarte, Lesbiana feministak, Gehitu, MMA, Bala, Naizen, Errespetuz, Bilgune Feminista... taldeak aipatzen ditu.

814. Frankismoa sexualitatearen ikuspegitik, oso gogorra (ORD-057/003)

Frankismoan ilegala zen homosexuala izatea, gizonak emakumez jaztea... 70. hamarkadan bazterreko gorputz batzuk batu egiten ziren, adibidez, putetxean. Frankismoa, sexualitatearen ikuspegitik, oso garai gogorra izan zen.

815. LGTBI kolektiboaren historia (ORD-057/004)

70. hamarkada oso garrantzitsua izan zen. New Yorkeko taberna batean maritxuak, trabestiak eta beste matxinatu egin ziren; 1972an Bartzelonan eta 1973an Euskal Herrian. Ondoren normalizaziorako joera egon zen herri mugimenduaren eskutik.

816. EHGM, lesbianak eta feministak elkarrekin (ORD-057/005)

Euskal Herrian EHGM taldea sortu zen, baita mugimendu feministari lotutako lesbiana feministen taldeak ere. Batzuek lehentasuna feminismoari ematen zioten eta beste batzuek lesbianismoari. Joan-etorriak eta talkak egon izan diren arren, oso gurutatuak egon dira bi mugimenduak.

817. LGTBIQ+ mugimenduaren lehen aldarria, existitzeko eskubidea (ORD-057/006)

LGTBIQ+ mugimenduko lehenengo aldarrikapena existitzeko eskubidea izan da. Kartzelaratu egin izan dituzte hainbat, etxetik kaleratzen zituzten batzuk... Plazera, jaia eta bizitza ospatu izan ditu mugimenduak.

818. HIESAri aurre egiteko ardura LGTBIQ+ mugimenduan (ORD-057/007)

90. hamarkadaz geroztik, HIESAren kontrako borrokari lotuko zaio LGTBIQ+ mugimendua. Inguruan HIESArenegatik hildakoak izan zituen. Esaten du garai hartan inori ez zitzaiola axola maritxuak eta yonkiak hil zitezen. LGTBIQ+ mugimenduak gaixoei sendagaiak parteka zituzten eragin zuen, prebentzio neurrien zabalpena egin zuen...

819. Homosexualen arteko ezkontzen aldarria (ORD-057/008)

90. hamarkada bukaeran HIESA kontrolatuago zegoen. EHGM zen erreferentzia orduan, hiriburuetan bereziki. Espainiar estatuan lelo erradikalak zabaltzen zituzten hainbat taldek. Gehitu taldea sortu zenean, baita beste kolektibo batzuk ere, homosexualen arteko ezkontza ardatz hartu zuten eta eredu kapitalistari jarraituz egin zituzten aldarrikapenak.

820. Topaketak Artelekun 2000n (ORD-057/009)

2000. urtetik aurrera, topaketa bereziak egin zituzten Artelekun. Mugimendua elikatzeko balio izan zuten; Queer teoriaren berri izan zuten bertan. MEDEAK eta Plazandreak aipatzen du. Feminismoaren eta LGTBIQren arteko lotura ikusi zuten.

821. Homosexualitatea, legez jazarrita (ORD-057/011)

Homosexualitatea gaixotasun mentaltzat hartzen zen eta legeak zeuden homosexualitatearen kontra. Elkarrekin legeztatzea lan zaila izan zen. Klandestinitatean egiten ziren topaketak eta jarduerak asko, feminismoan bezala. Ordizian gertatu zen lesbiana bi iraindu eta jipoitu zituztela, eta inork ez zuen ezer egin. Salatzera ez ziren joaten, legea kontra baitzuten.

822. Homosexualen ezkontza (ORD-057/013)

Turismoari begira "gayfriendly" izan nahi izan dute Espainian zein Euskal Herrian. Espainia aitzindaria izan zen homosexualen ezkontza onartzerakoan, 2005ean. Urte berean elkarte asko sortu ziren ezkontza eskatzen zutenak.

823. Transexualitatearen Legea, gatazkaz beteta (ORD-057/014)

Hurrengo erronka 2007ko Transexualitatearen Legea izan zen. Autodeterminazio eskubidea, despatologizazioa, gorputzarekiko autogestioa... izan zituzten eztabaidagai garai hartan. Espainiar estatuak autodeterminazio hitzarekin duen gatazkaz hitz egiten du: azaltzen du nola ez duen onartzen ez norbanakoentzat ezta lurraldeentzat ere.

824. Espainiako TRANS legea (ORD-057/015)

Homosexualitatearen aldeko kolektibo normatiboen eta MEDEAK bezalako en arteko talkak azaltzen ditu. Espainiar estatuko TRANS Legea zertan den azaltzen du: autodeterminazio hitzik gabe, pertsona ez bitarren izaera ukatuz, adin txikikoak medikaziorik gabe geratu dira...

825. Transexualitatea kudeatzeko genero unitateak (ORD-057/016)

Transexualitatea kudeatzeko prozesuak ikaragarriak zirela dio. Adibideak ematen ditu. Gurutzetan dagoen genero unitatearen bitartez kudeatzen dute transexualitatea EAEn, eta horrek dena baldintzatzen duela azaltzen du, legeek diotenaren gainetik.

826. Adin txikikoentzat izen aldaketa konplikatua da (ORD-057/017)

Estatuko TRANS legeak izan arren, izen aldaketa oso tramite zaila dela azaltzen du, bereziki adin txikikoen kasuan. Espainiar estatuan leku batzuetan genero unitateak kendu egin dituzte baina beste batzuetan ez.

827. Genero trantsizioa eta abortua, antzeko egoeran (ORD-057/018)

Gaur egun, espainiar estatuan, izena aldatu eta genero trantsizioa egin daiteke diagnostiko psikiatrikorik gabe. Medikuekin bideratzen da trantsizioa, endokrinoaren bitartez. Ikasketetan ez dute medikuek gaia lantzen. Gaiak abortuarekin duen antzekotasuna aipatzen du.

828. Francisen hilketak (ORD-057/022)

Francisi egindako omenaldietan parte hartu du, baina ez daki ondo bere historia zein izan zen. EHGA Mekoengandik gertu zegoen. Erreferentia izan da.

829. "Eta zu zergatik zara heterosexuala?" kartelaz (ORD-057/024)

"Eta zu zergatik zara heterosexuala?" kartela atera zuten lesbiana feministek Martxoaren 8an, 80. hamarkadan. Bartzelonan, ekainaren 28 batean, manifestariak ikusleak grabatu zituzten mugikorrarekin. Jendearen galderak egunero eta etengabe jasan behar izaten dituztela dio.

830. Lesbiana feministen aldizkariak (ORD-057/026)

Pare bat aldizkari zeuden lesbiana feministenak. Zeinek azal hobe atera lehian aritzen ziren. Beste gorputz batzuk, beste modu batzuk ikusarazten zituzten. "Sorginak" izenarekin Iparraldean sortutako emakumeen lehen taldea izan zen.

831. LGTBIQ+ kolektiboaren kontrako erasoak (ORD-057/027)

Gaur egun LGTBIQ+ kolektibokoak jipoitzen dituztenean, salatu egiten dira. Indarkeria horiek egunerokoan txertatuta daude eta askotan jasan behar izan dituzte. Erasoei erantzutearren, erasotzat beharrean borrokatzat hartu izan dira. Gorrotatzen dituzten gauzei morboa eransten diete askok, eta horrek pertsona berak jipoitu zein bortxatzea eragiten du.

832. Eraso homofoboak (ORD-057/028)

Badira eraso homofobo asko osagai sexualak dituztenak.

833. Eraso homofoboen osagai sexuala (ORD-057/029)

Tipo batek jipoitu zuenean, berak eraso sexualtzat salatu zuen baina epaileak erabaki zuen ez zegoela desira sexualik, eta beraz, ez zela bortxaketa. Eraso gogor bat jasan aurretik beste asko jasan behar izaten direla azaltzen du.

834. Arazo baten aurrean erantzutea, garrantzitsuena (ORD-057/030)

Maiatzaren 17ko transfobia eta homofobiaren aurkako nazioarteko eguna oso berria da. Berari "trans-marika-bollo-puta" izendapena gustatzen zaio. Galtzen diren hitzak eta letrak garrantzitsuak iruditzen zaizkio. Nazioarteko egunak ez daki positiboak diren edo efemeride bihurtzen diren. Arazo baten aurrean erantzuna ematea garrantzitsuagoa iruditzen zaio.

835. Ostadarraren ikur koloretsua (ORD-057/031)

Ostadarraren ikurra nondik sortu zen kontatzen du. Jatorrizko herrien koloretako ikurra asko gustatzen zaio, eta lotura bat ikusten dio.

836. Euskal Herrian, abortuaren gaiak mugiarazi zituen feministak (ORD-057/034)

Iparraldeko historia urruti geratzen zaio; Sorginak taldea izan zen lehena. Madrilgo 1973ko jardunaldi klandestinoak erreferente izan ziren Hego Euskal Herrian. Dibortzio eskubiderik ez zegoen, kontu zenbaki bat irekitzeko gizonezko baten baimena behar zuten emakumeek, bortxatzaileak bortxatuaren aitari ezkontzeko baimena eskatzen bazion zigorra ezabatzen zen, eta abar. Euskal Herrian abortuaren gaia izan zen gakoa. Hamaika lagun atxilotu zituzten abortua egin edo laguntzeagatik. Ezagutzeko interesgarriena iruditzen zaio abortua bideratzeko sortzen zituzten sareak eta baliabideak. Ibilbide zehatzak eta seguruak sortzen zituzten.

837. Dibortzioa, bortxaketa, abortua (ORD-057/036)

Epaiketa kristau baten bitartez bereizten ziren bikoteak dibortzio eskubidea baino lehen. 1987ra arte bortxaketa ia despenalizatuta zegoela azaltzen du. Abortuaren gaia behin eta berriz azaleratzen da eta oso garrantzitsua izan da.

838. Feminismoaren historia, olatuen teoria (ORD-057/037)

Emakumeak frantziar iraultzan antolatu egin ziren eta lehen olatua sortu zen. Bigarren olatua XIX. mendearen bukaeran eta XX. mende hasieran boto eskubidearekin hasten direnean sortzen da. 3. olatua 80. hamarkadara arte luzatu daitekeela dio. 2000tik pixkanaka 4. olatua hasi zela uste du. Oraingoa ez du oso gustuko berak.

839. Feminismo autonomoak eta mixtoak (ORD-057/038)

Bera mugimendura iritsi aurretik, feminismo autonomoen eta mixtoen arteko talka handiak izan ziren 90. hamarkadan eta elkarrengandik aldendu egin ziren. Belaunaldi berriak sartu ziren orduan eta pixkanaka gaur egunera arteko olatua sortu zen. Pornografiaren kontrako diskurtsoa orain hasi da hemen lantzen.

840. Begirada dekoloniala feminismoan (ORD-057/040)

Feminismoa begirada dekolonialetik egiten denean, historiaren irakurketa aldatu egiten da. Ez da bakarrik europezentrista, beste irakurketa batzuk ere ezabatzen ditu.

841. Feminismoko bi korrante 80ko hamarkadan: berdintasunarena eta desberdintasunarena (ORD-057/044)

80. hamarkadan bi korrante nagusi daude: berdintasunarena bata, desberdintasunarena bestea. Biak azaltzen ditu. Talka handia egon zen bi korranteen artean. Lanbroak taldea aipatzen du; formakuntza eskola dute eta hezkidetzan lan handia egin dute. Ezker abertzaleko feministak eta beste feministen artean talkak zeuden. Yoyesen aipatzen du. MEDEAK eta Bilgune Feminista bateratsu sortu ziren. Martxoaren 8an zein kanta abestu eztabaidatzen aritzen ziren.

842. Lesbianismoa eta feminismoa elkartuta (ORD-057/046)

90. hamarkadan edo 2000n talde asko egituratu ziren, lesbianismoa eta feminismoa batzen zituztenak.

843. Lan ordainduak eta zaintza krisia (ORD-057/048)

Garai bateko feministak oso nahastuta egoten ziren beste mugimendu sozialetan ere. Jazarpena oso gogorra zen eta erantzuna ere bai. Emakumeak lan-munduan hasterakoan, autonomia ekonomikoa izan ahal izatea faktore garrantzitsua zen. Gizonezkoak ez ziren etxeko lanetara sartu. Oraindik egoera antzeko samar dago. Zaintza lanetan esklabu moduan dihardutenak sartu direla dio.

844. Kristalezko sabaia zer den (ORD-057/049)

Kristalezko sabaia zer den azaltzen du: botereguneetan gizon eredu bakarrak jarraitzen duela dio. Futbola, eliza eta estatuak adibidetzat jartzen ditu. Margaret Thatcherren figuraz hitz egiten du.

845. Emakumearen egoera frankismoan (ORD-057/051)

Iparraldetik antisorgailuak ekartzen zituzten. Erregimen frankistaren azken urteetan irekierari buruz hitz egiten hasi ziren. Frankismoak emakumeen gorputza erregulatzeke mila gauza sortu zituen eta horietako bat zen banketxean kontua irekitzeko senarraren baimena eskuratu beharra.

Dibortzioarena eta gidatzearena oso garrantzitsua izan zen. Bizikletak ere aipatzen ditu.

846. Gerra aurreko mugimendu anarkista eta askatzailea (ORD-057/052)

"Seccion femenina" izeneko egin behar izaten zuten emakumeek eskubide batzuk eskuratzeko. XX. mendeko hasierako hamarkadetan askatasun handia bizi izan zutenentzat 40 urtez diktadura faxista bizitzea oso gogorra izan behar zela dio. Mugimendu anarkista oso indartsua egon zen Espainian eta guzti hori berreskuratzearen garrantziaz ari da.

847. Kasilda eta Tabakalerako langileak (ORD-057/054)

Kasildak granadak eta dinamitak eramaten zituen saskian kamuflatuak. Donostiako Tabakaleran langile guztiak emakumeak ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com